ARALAR

Orixol
(Gorostiaga)
Itsusmendi
Anboto
Mugarra
GABIRI
BEASAIN
MENDIAK
Berezko eta giza- giroturiko eusko lurra
ARALAR | Gorbeia | Aizkorri | Irati | Pirinioak | Euskal Herriko beste mendigune nagusiak
Etor Digitala
Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagunduriko egitasmoa.
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN HONEK DUEN EDUKIA

Lan hau sail handiago baten parte duzu. Izan ere, "Mendiak. Berezko eta Giza-giroturiko Eusko Lurra" bilduma erabat eguneratuta, edukiz zabalduta eta ikuspegi teknikotik modernizatuta berrargitaratu dugu.

EGILEAK

Hemen birargitaratzen diren Mendiak bildumako textoen egileak hauek dira:

- Jesús Mª Alquezar
- Jesús Altuna
- Pablo Areso
- José Jabier Goiburu
- Gerardo López de Guereñu Iholdi
- Eli Ojanguren

Berriak dira:

Javier Urrutiaren testuak http://www.mendikat.net (gailurren deskribapenak, atal honetan / Mendia/ Bestelako argazkiak).

Bizkaiko Aldundiaren testuak, Natura eta Inguruaren sailean, http://bizkaia.net orritik hartuta.

José Luis Miguel de Blas-en testuak eta grafikoak (atal honetan / Ibilbideak / Mendi gailuretarra).

ILUSTRAZIOAK

Lan hau irudiz janzteko erabilitako argazkaik hainbat iturritatik hartu dira.

- Mendiak bildumatik
- OSTOA artxibotik
- http://www.mendikat.net web orritik
    - Javier Urrutia
    - Andres Lekuona
    - Santi Usabiaga

Etor-Ostoa, S.L. Caddie enparantza, 1-1º C. Lasarte-oria. 20160 Gipuzkoa.

Laguntzailea

Eusko Jaurlaritza. Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)

ARALAR

1. Mendia (4 or.)
Kokagune mapak
Mendikate mapak
Airetiko ikuspegiak
Ikuspegi errotuludunak
Zenbait ikuspegi

2. Izadia (160 or.)
Berezko espazioa
Geologia eta geomorfologia
Hiatzuloak eta lurpeko ibaiak
Ibaiak eta urtegiak
Klima
Landaretza
Fauna

3. Giza-Aztarnak (260 or.)
Mikel Deuna
Artzaintza
Beste zenbait

4. Bideak (335 or.)
Gailurretara
Ibilbideak
Ibilbide irudiztatuak

5. Paisaiak eta monumentuzko parajeak (466 or.)
Sarbideak
Ingurunea

1.

MENDIA

KOKAGUNE MAPA

Nafarroako errepideak eta bideak

Aralarko bide guztiek San Migelerantz daramatela esan dezakegu, eta errepide berriek bereziki. Orain, izan ere, gorantz doazen lagun gehien-gehienak, errepidez igotzen baitira, herrietako bide eta igoerak gero eta gutxiagorentzat utzita. Jakineko toki batzuetaraino beribilez igotzen dira ia guztiak, gero handik noraino heldu nahi duten, batera eta bestera oinez abiatzeko. Horregatik, bada, beheko herrietatik abiatzen diren errepideak ipini ditugu lehenengo, Aralar aldean egindako edozein mendi-ibilaldi, azkenean, horietan amaitzen baitira.

Lekunberri - Baraibar - Guardetxea - San Migel - Igaratzako aterpetxe arteko errepidea

Aralar mendiko bideen ardatza dugu errepide hau, eta askotan aipatu beharra daukagu. Izan ere, horri lotzen zaio mutur batean Madozetik San Migelerako bidea, Lizarrustitik Igaratzarakoa ere bai, eta beste muturrean Ormazarreta saroikoa.

Lekunberrin hasi, Baraibar herrian gorantz jarraitu, pagadi eder bat igaro eta Albi deritzon haran txiki batera iristen da, belardi garbi batera. «Errege-Sail» (Realengo) direnetako pinudian sartu eta berehala, eskuinetara, Albiko trikuharria dago.

Guardetxe ezagunera iristean, adar bitan banatzen da: ezkerretara, pagadi ederren artean gorantz doa, Artxueta eta Debata gailurren artean malda batetik bestera aldaturik, zuhaitzik gabeko gune garbira irteten da Azurtako langa (1.110 m) izeneko tokian. Une honetatik ageri da Santutegia, Andimendiren babesean.

Eskuinetatik datorkio Uharte-Arakiletik gorakoa alanbre-hesien ondoan aurrera, eta berehala batzen zaio Agiritik datorrena. Une honetan, adar batek ezkerretara jarraitzen du Artxueta gailurrera, eta besteak Santutegia eta Ostatura. Horra 16,600 kilometro osotu.

Guardetxen beste bide-adarra hartuta, sartaldera jarraituko dugu, «Errege-Sailetako basoa» igaro alderik alde, eta, bazter zoragarrietan aurrera, pago bikainen itzalean, Kolosobarnea (1.130 m) deritzon tokiko harkaitzen artean jarraituz, Eulatz mendiari bira eman eta iparreko

aurpegian aurrera, Intzazelai izeneko gune garbira helduko gara. Beribil-zelai oparoan amaitzen da errepidea.

Aralar mendian zehar igoerak eta ibiliak egiteko, egokiera ederra ematen du gune garbiko zelai honek. Adibidez, kareharrizko bazterretan ohi diren bezalako harkaitz artean aurrera, Desaoko aterpetxera; gauza bera Unagako zelaira, handik nahi adina igoera egiteko Mailoako tontorretara; hurrena, Iputzmeaka mendi-lepoan aurrera, Bustintza eta Mugardira; azkenik, Arakil haranetik datorrena zuzenean bertara iristen da. Horregatik guztiagatik da hainbeste jenderen biltoki.

Oraingo errepide hau, dauzkan zulogune ugari eta guzti ere, egin baino lehen, bazter hauetan bide-galtzea oso erraza zen, eta Igaratzako aterpetxea aurkitzea, berriz, nahiko zaila. Orain, ordea, zabala da bidea eta ibiliak errazteaz gain, zenbait mendiko beribil aise ibiltzen dira ez dago inolako bide-galtzerik, ezta laino gaiztoa sartuta dagoenean ere.

Oinez Guardetxera joateko ordu eta erdi nahikoak dira, eta handik Santutegira iristeko beste ordu bete.

Uharte-Arakiletik San Migelerako errepidea

Egin berria da errepide hau. Mutur bat amaitzeke dago oraindik, baina liburu hau argitara agertu baino lehen, azkeneraino egina izango dute. Uharte-Arakil eta handik gorako bidea utzita, zubia igaro ondoren, Zamartzeko ermita: egituraz, erromaniko erakoa da. Aurrerakoan, Larraun haranera joan-etorrietako lehendik zuten bide beraren gainean doa, Madalen Haitza ormatzarra aurrez aurre erakusten digularik, benetan ikuspegi ederra erakutsi ere. Hurrena, Panplonagañe deritzon tokia: izen bereko trikuharria daukagu hemen, Madozetik Agirin zehar datorren bidetik hurbil. Hemen gorakoan, okerrune handiak ditu errepideak Putretokiko mendi-hegalak gaindituko baditu. Mendiaren hegoaldeko hegalera aldaturik, Arakiletik San Migelerako bide zaharra gurutzatuta, Santutegiaren azpiko aldean aurrera, Baraibarretik datorren errepidea batzen da, 11 kilometro egin ondoren, Santutegira iristeko.

Madoz - Agiri - San Migel

Bide honetan inor gutxi ibiltzen da gaur. Madoz herria baino lehenagoko bihurgunetik abiatzen da. Bide honetatik ezkerretara, zuhaitzak atera zituzteneko mendi-bidea dago. Ikuspegi zoragarria begien aurrean: Madalen Haitza, Putretoki eta Artxueta mendiak.

Aldaparik ia ez duen bidean gorantz, eta zuhaizpean aurrera, noizbait herrixka izandako tokian, ur ederra duen iturri-aska. Horma zaharretako baten gainean ziur aski eliza izandakoaren horma, haritz urtetsu bat ageri da: honen zain edo sustraiek, erroak balira, beren artean hartuta

dauzkate zenbait harri handi, baina gihartsu eta oreka ederrean hazitako haritza da. Agiri da toki honen izena.

Aurrera jarraituz, Uharte-Arakiletik Larrauna doan bidea gurutzatuko dugu. Honetaz aurrerakoan, aldapa gogorragoan aurrera, Putretoki eta Artxueta mendien arteko sakonean igaroko gara, Santutegira berehala iristeko.

Madoz - Ata Harana - San Migel

Madozeko iturritik abiatzen da gurdibide zabal bat, soro landu batzuen ertzean aurrera. Toki bustia eta lohitsua denez, errazago ibiltzen da soroen arteko bidezidorrean aurrera. Lizar artean gorantz doa bidea, alboetako hormen artean. Bizkar edo muino batera igotzean, Ata izeneko haran txiki bat agertzen da aurrean, zeharo berde eta ikusgarri polit. Zuhaitzik gabe eta garbi dauka erdia. Beheko aldea, berriz, Akier eta Solloaundi mendien artean dago; aurrean eta zelaigunea ixten duelarik ageri da, zuhaiztiaren gainean, Artxueta gailurra arre-urdinxka.

Haran honen hasieran, sakonune batean, Atako iturria dago, bertara doazen bidezidorrek ederki adierazita. Solloaundi mendi-hormaren azpian eta urruti ez dela, Erroldan Harria dago.

Haranaren sakonunean aurrera jota, toki atseginean aurrera, zuhaiztiaren ertzera helduko gara, eta hantxe aurkituko dugu Zubigoien iturria. Hemen elkartzen dira Arakiletik eta Larraundik datozen bideak. Ordu eta erdiko bidea Madozetik hona.

Harkaitzean margoturik dauden idazkunetan garbi dago: San Migelera hiru ordu laurden. Malda gogorrean gorantz igotzean, jaitsiera-igoera batzuk egin eta berehala, Arakil ibairako isuri aldera igarotzen da bidea; hemendik ederki ageri da San Migel, oso urruti ez dela.

Baraibar - Burnigurutz- Zubigoien - San Migel

Baraibar herriaren goiko aldean dagoen Muzkor izeneko tontor motz bati bira emanez, gorantz doa bide bat, Iribasetik datorrenaz bat eginik, baso edo oihanean sartzen da, Artxuetari elkartzen zaion mendi-hormarantz.

Igoera aldapatsua da. Gorakoan, egia esan, ikuspegi ederra ageri da Larraun haraneko herri eta lurren gainera. Ordubete barru helduko gara Burnigurutz mendi-lepora: harkaitz gainean dago burdinazko Gurutzea. Beste ordu laurden bat barru, zuhaizti ordekan aurrera, Zubigoien iturria joko dugu, eta handik aurrerakoa esanik dago.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2. 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.

KOKAGUNE MAPA

Nafarroako errepideak eta bideak

Uharte-Arakil - San Migel

San Migelera doan errepide berria hartu herrian, Arakil ibaiaren gaineko zubia igaro eta Urruzegiko burdinazko atea jo arte jarraitu; une horretan, mendirako bide harritsua hartu, nahiko zabala, eta Aitzondo (715 m) eta Elkeiz edo Sorgin-etxe izeneko haitzen artean aurrera jarraitzeko; harkaitzaren beheko muturrean haritz berezi bat dago: harkaitz handi bat, lurretik metro erdi bat gorago jasorik daukana.

Bide harritsu eta aldapatsuan gorantz, ezker-eskuin bihurgune askotan barna igoko gara zutarri bat dagoen tokira: garai batean, Gurutzea zeukana da. Haranaren gainera dagoen muinoan, Artzabal trikuharria dago. Toki horren izena, Amor-Leko da.

Ongi ebakitako bideak jarraitzen du gora eta gora, argi-hariak alboan direlarik. Batera eta besterako bihurguneak eginez garaitzen du malda bizia bide honek, tartean lasterbide askok gurutzatzen dutela. Otsopasajeko trikuharria dagoen tokian aurrera, errepide berrira helduko gara, Santutegitik hurbil.

Ordu eta erditik bi ordurako tartea behar izaten da oinez igotzeko, hainbeste urteren buruan jenderik gehiena igotzen zeneko bide honetan.

Arruazu-Guardetxe

Bide harritsu zabal bat abiatzen da Arruazutik Aralar aldera, eta aldapa hasi orduko hasten dira bidearen bihurguneak ere. Ez dago bide-galtzerik, azkeneraino ongi berezirik baitago. Lakuntzatik datorren bidezidor bat batzen zaionetik laster, harkaitz artean sartzen da; harkaitz horien ertza, hutsaren gainera bezalatsu, Arakil haranaren gainera dago, Laba izeneko bista zoragarri bihurturik. Ziur aski hauxe da Andimendi, Urbasa, Entzia, Aizkorri mendietara eta Aralarko ertzetara daukagun ikuspegirik ederren eta osoena: hortik ageri baitira gailurrak, ertzak, mendi-hormak e.a., beren artean Ergoiena, Arakil eta Burunda haranak mugatzen eta estutzen dituztelarik; bertako herri eta soro landuak ere margotsu ageri dira, ibaia, errepidea eta trenbidea ere tarteko direlarik.

Aurrerago, sortaldera dagoen ibarbidean, txabolak eta Urtoki iturria dauzkagu: errekatxo bat sortzen da bertatik. Horien gainean, baina beste aldeko isuri aldean dago San Migel.

Zuhaiztian aurrera unetxo bat egin, mendiaren gaina igaro, eta berehala helduko gara Guardetxera, bidean ordu pare bat eginda.

Lakuntza - Ormazarreta - Igaratza

Lakuntzatik Igaratza bitarteko bide eta bidexkak hainbeste direnez, eta askotan elkar gurutzatuz doazenak gainera, nahasturik gertatzea ez da zaila.

Tren-geltokitik Altsasu aldera abiatu trenbidean aurrera, etxetxo baten ondoan bide zabal bat hartu, alanbre-hesian dagoen burdinazko atea igaro eta aurrera jarraitzeko. Sandindegi erreka igaro antzinako zubian zehar, landare mintegiaren ertzean aurrera jarraitu, igaro berriz ere lehengo erreka bera, eta Iretako borda dagoen tokira helduko gara. Horren atzean, eskuinetako bidea hartu, aldapa gogorrean gorantz, Trosketa iturria arte jarraitzeko: ugari ematen du ura, harkaitzean landutako askan.

Aurrera jota, Artakadar borda (ordubete eta hamar minutu.) ikusiko dugu. Sortaldera jarraituz, lehen aipaturik dugun Kolosobarnea mendi-lepora daraman bidean sartuko gara. Utzi bide hori eta pagadian aurrera jarraituz, eta bi sakonuneren arteko bizkar bat gainditu ondoren, iturri batzuetan aurrera, hurrena Mezeingiñen mendi-lepoa gaindituta, Apain lepora igoko gara. Apain gailurra sartaldera dago, eta haren azpian Arbisoako iturria, hain zuzen ere, Ormazarreta saroia dagoeneko gune garbian.

Kantauri eta Mediterraneo aldeetarako banalerroa gainditu, eta beste isuri aldean dauzkagu Errenagako belardiak, eta hantxe daude Igaratzako aterpetxea eta gainerako eraikinak.

Lakuntzatik hona heltzeko, tartean bide-galtzerik ez dela, nahikoak dira bi ordu eta erdi.

Azkarate - Astunalde - Igaratzako aterpetxea

Nafarroako Azkarate herriko elizaren ondotik abiatu bide ederrean gorantz, baserri baten alboan aurrera, gailurretatik eroritako harkaitzen artean jarraituz, eta mendi-oinari bira emanez, belardi batzuetara helduko gara: alanbre-hesiz inguraturik daude eta une horretan batzen dira Uztegi eta Gaintza herrietatik datozen bideak. Aurrerago, ordea, denak bidezidor bihurturik geratzen dira, estua da, baina ongi urratua; sigi-saga estu eta bizietan gorantz gainditu behar du Uakorriren eta Artubi edo Ardigainen hegalen arteko haitz artetik goietarako malda. Astunaldeko mendi-lepoan, eta tontorren gainak lortu aurretik, Gorospeaga eta Largoa iturriak, beren

aska eta guzti, igaroko ditugu. Ordu eta erdiko igoera latza da. Igo garenetik beste isuri aldean behera jo behar dugu, Arritzagako meategien aldera: horien atzean gailen ageri da Txindoki. Berehala helduko gara Arritzagako meategien hondakinetara, eta handik laster Igaratzara: hiru ordu nahikoak dira guztira.

Intza - Baratzail lepoa - Igaratzako aterpetxea

Intza herritik abiatzen da bidea, soroen artean barna, aurreko mendira, muino baten gainean, zurez hornituriko borda bat igarotzeko. Mendira urreratzen doan heinean, bidezidor estuago bihurtzen da bidea, eta terrazak gainditzuz, gorantz doa. Gero eta biziagoa da aldapa. Kable-sare lodiak ikusiko ditugu, gailurretik behera ipinita, belar-garaian, izara edo maindiretan bildurik, belarra baserrira bidaltzeko.

Berehala, harkaitz bizia dugu, horma bezain zutik ia: haitzean gora egin behar du bidezidorrak. Iturburu aberatsa edo urtsua; harkaitzean pitzatu handia dago, beharrik izanez gero, babestoki ederra eta ziurra izango litzakeena.

Oihan edo baso txiki bat, pagoz eta harkaitzez osotua dator hurrena. Han aldapa biziagotu egiten da, Irumugarrieta eta Aldaon gailurren arteko Baratzail mendi-lepoan aurrera jarraitzeko.

Berehala azaltzen da Igaratzako aterpetxea: guztira, bi ordu eta erdi nahikoak dira.

Errazkin - Belutako langa

Araitz eta Betelukoentzat biderik egokien eta erabiliena zen San Migelera igotzeko, bide horixe baitzen Mailoak mendietako behekoena eta erosoena. Ia inor ez da ibiltzen orain, eta une batzuetan hondaturik dago. Baina aurkitzen ez da zaila, edo ez dago bide-galtzerik.

Errazkin herriko goiko aldetik abiatu, malda bizia gainditurik goiko larre sailetara heldu, eta bira handi bat emanik, ur hotz eta ederra ematen duen iturriaren ondoan aurrera, «Los límites» edo Mugak deritzon tokira iritsiko gara: bizkar bat da. Horixe bera da, Pabolletako mendi-lepotik (Azpiroz) abiaturik, Kantauri eta Mediterraneo aldeetarako banalerroa egiten duena. Albiasu herriaren gainean aurrera jarraituz, Baraibarretik datorren bideaz bat egiten du Belutako Langa deritzon tokian, hurrengo ibilbidean adieraziko dugunez. Errazkindik gorantz, ordu erdia nahikoa da.

Baraibar - Belutako langa - Etzantzako zirkua - Unagako zelaia - Igaratza

Baraibarko eliza eta pilotalekuaren artetik abiatzen da bide bat, «usategietara bidea» izenez ezaguna; alanbre-hesi batean amaitzen da, Soan atean. Eskuinetara jarraituz, landare-hesi baten alboan aurrera, bizkar batzuk gainditzen ditu bide honek. Lizar batzuen ondoan, ezkerretara jota, Telleria txabola dago; baina eskuinetara jarraituz, landare-hesiaren ondoan aurrera, ehiztari-txabola bat dago, Mailoa gailur-lerroa ikusteko toki egokia. Berehala, abiatu garenetik 25 minuturen buruan, Belutako langa joko dugu, aurreko ibilbidea amaitu dugun toki berean. Pagadi itxian aurrera jarraituz, gune garbi batera helduko gara, eta handik Artxueta ikusiko dugu.

Ezkerretara, Putregain mendiaren azpian, Prantzes erreka igarota, Baraibar eta Guardetxe bitarteko errepidera irtengo gara, 9 eta 10 kilometroen zenbakiak daudeneko tartean, 10 zenbakia jartzen duenetik gertuago. Bide horixe egiten zuten antzina, Betelu eta Araitzeko herritarrek San Migelera joateko.

Eskuinetara, bizkar txiki bat gainditurik, Lizarreta bordak alboan utzita, Etzantza zirkua ageri da, iparraldetik Auntzarrateko gailurra mugatzen duelarik; hori, berriz, Subezelagaiña (1.216 m) eta Arriotz (1.176 m) tontorrek osotua dago, eta horiek ezkutatzen dute, Mailoa gailur-lerroan, Alborta gailurra. Hegoaldetik, berriz, Putregain harkaiztsua dago, pinuz estalita, eta, atzean, Atakatxar mendi-lepoa, Putregainen jarraipen den Beloki ezkerretara daukalarik.

Etzantzako haran txikia sartalderantz igarota, bide belartsu eta aldapa handirik gabean aurrera, eta Atakatxar lepora igotzean, zelai handi bat ageri da: Unako belardia, edo, hobeto esanda, Unaga, alde batetik Mailoa gailur-lerroa, eta bestetik Txemiñe buru duen haitzezko hormatzarra dituela. Larredi handiak daude hor, belar ederra dutenak: zoragarria da han ibiltzea. Abere asko ibiltzen dira larrean, eta Unako putzua bertan dagoenez, harantz biltzen dira edatera. Putzu hori aintzira bihurtu nahi dutenak ere badirela esan behar dugu; antzina, berriz, ondorik ez zuela esaten omen zuten zenbaitek; norbaitek, ordea, hesola bat sartu omen zuen erdian, hondorik bazuela adierazteko.

Lursail luze eta zabal hau ia ordeka da, eta, hain zuzen ere, horregatik da arriskurik handienekoa laino itsua sartzen denean. Zelai hau bat eginik gertatzen da Igaratzako Arratean; hor batzen dira Amezketatik gorako bidea eta Igaratzara jarraitzen duten bide eta belardiak.

Guztira, bi ordu eta hiru ordu laurden behar ditugu bidean.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2. 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.

MENDIKATE MAPA

Aralar

Mapan aipatzen diren toponimoak

Abaltzisketa
Abrin erreka
Agauntza
Agauntza erreka
Agiri iturria
Aia
Ainondo iturria
Aitzarreta sorburua
Aitzondo
Aitzondo iturria
Aitzpea
Aizkoate
Akaitz
Akaitz erreka
Akaitz-txiki
Akelar trikuharria
Akier
Albia trikuharria
Albia saroia
Albiasu
Alborta
Aldaon
Aldape
Aldape iturria (Etxabeko iturria)
Alegia
Allapuu iturria
Alleku
Alli
Almitzeta saroia
Alotza
Alotza iturria
Amabirinarri
Amezketa
Amilzu
Amilzu erreka
Amondarain
Amutxate

Andreona
Anduitz
Antsesao
Aoki
Aparein
Araiz harana
Arakil ibaia
Arakil-iriberri
Aralar erreka
Aralegi
Arana erreka
Arangoene saroia
Arantzadi de Etxabe trikuharria
Arantzadi trikuharria
Arastertz
Araxes ibaia
Arbisoro iturria
Argarbi trikuharria
Arinate saroia
Arizate erreka
Armendia trikuharria
Arranazpiela trikuharria
Arrantsao saroia
Arraska iturria
Arrastarangaina trikuharria
Arratebeltza saroia
Arrate-Iluneia trikuharria
Arrateta
Arraztaran saroia
Arriba
Arriolatz
Arritzaga saroia
Arritzagako meatzeak
Arrizaga erreka
Arrondo
Arruatzu
Arrubi
Arrubigaiñe
Arruta
Artubi Astunande
Artxueta
Artzabal trikuharria
Asteartea saroia
Astigarraga
Astiz
Ata
Ata iturria
Atallo

Atallorbe saroia
Ataun
Atxuri iturria
Aubigaiñe
Auntzille saroia
Auntzizegi
Ausagaztelu
Ausegi iturria
Ausokoegi saroia
Ausokoi trikuharria
Azkarate
Azolape trikuharria
Azpildei erreka
Azpirotz
Azpirotz mendatea.
Bakaikoa
Bakarte iturria
Balerdi
Baraibar
Baratzail
Baratze erreka
Barranca
Baztarroa
Beama
Beamaburu
Beasain
Beaskain trikuharria
Beaskin iturria
Beaskin saroia
Beaskingo Ataka
Bedaio
Belatxingaen-lepoa
Beldarri
Beleko
Beloki
Beloki iturria
Beloki saroia
Beltzulegi saroia
Benta Isabel
Beoin
Beoin iturria
Beraztegi
Beraztegi erreka
Besomotzan saroia
Betelu
Biarrate
Bingaratz saroia
Biozna iturria

Biozna saroia
Bizutsako
Brinkate Txulo saroia
Burnigurutze
Burunda harana
Buruntzurin saroia
Bustintza saroia
Debata
Debata (Arruatzu) trikuharria
Debata (Realengo) trikuharria
Deposito
Desamendi
Desamendi txiki
Desao
Domo
Doniturrieia Goikoa saroia
Doniturrieta Azpikoa (Joseaundi) saroia
Doniturrieta Azpikoa iturria
Dos hermanas
Egiarreta
Eguardamuiño
Egurbide
Egurral
Egurral iturria
Egurral saroia
Elitzegi
Elizkaitz Harri
Elkomuts
Elordi iturria
Elordi Borda saroia
Elorrigain
Elurmeta trikuharria
Elurtzulo
Elutsetane saroia
Eluzbeltz
Enirio saroia
Erbilleri trikuharria
Erga
Ergoiena
Ernaitza goikoa
Errekabeltz
Errekonta
Errekonta iturria
Erremeaiaburu
Errenaga
Errenaga txiki
Errenaga iturria
Errezkin

Errota erreka
Ertzille
Ertzille erreka
Esnaurrieta iturria
Esnaurrieta saroia
Estela
Etitze saroia
Etitzegi saroia
Etxarren
Etxarri-Aranatz
Etxeberri
Etzantza saroia
Eubia trikuharria
Eulatz
Ezeltzeta iturria(Aska)
Ezki saroia
Ezkizaurren saroia
Gaantxingo erreka
Gaineta
Gaintza
Gaintzola iturria
Ganbo
Ganbo txiki
Garraztia trikuharria
Gazteiz
Gazteluta iturria
Gazteluta saroia
Gersao iturria (Mugardi)
Goldaratz
Gongorreta saroia
Goroskintxo saroia
Gorostiaga iturria
Guardetxe
Iabar
Iartegaintzeta
Ibai
Ibai iturria (Buruntzurin)
Igaratza
Igaratza (2) trikuharria
Illobi saroia
Inguitzi
Inpernu erreka
Intsentsao saroia
Intxusti iturria
Intza
Intzekotorrea
Iparrare
Iparraundi trikuharria (Larrazpil)

Ipuzmeaka
Iraio
Iramendi
Irañeta
Irazusta
Iribas
Iruiaundiko Malkorra
Irumuga
Irumugarrieta
Iruña
Irurtzun
Iruzulotxikila trikuharria (Lakuntza eta Realengo) (2)
Itaundieta
Iturbeltz iturria
Iturbeltzeko meatzeak
Iturribeltz iturria
Iturriberri iturria
Iturrieta iturria
Iturriotz iturria (Zubigoien)
Iturrondo iturria
Iturtxo iturria
Iutxin
Ixao saroia
Izarraga Bengoa
Izarritekogaiñe
Izeniturri trikuharria (2)
Izkorroaundi
Jazkuru
Jentilbaratza
Jentillarri trikuharria
Joxeiturri iturria
Kapatar iturria (Albia)
Kardelu iturria
Kargaleku
Kaseta
Kilixketako langa
Koa
Koagaiñe
Koarre saroia
Kobai
Kolosabarnea
Kolosabarren saroia
Korrikaleku
Kurutzeaga
Kutixao saroia
Labeongo punte
Lakuntza
Lapastegi trikuharria

Larburu
Lardamingo trikuharria
Lareo
Larraitz
Larraone
Larraun ibaia
Larrazpi
Larrunarri
Lasarte
Lasarte iturria
Latasa
Latosa saroia
Laua
Lazkao
Leizadi trikuharria
Leizadiko punte
Lekoain
Lekunberri
Lerritz saroia
Lezaeta
Lezegalde
Lezeta
Lizarrandigaina trikuharria
Lizarrandigaiñe
Lizarreta saroia
Lizarreta saroia
Lizarrusti mendatea
Lizaso
Liztorri iturria
Lokatzabeltzeta iturria
Lopeiturri iturria
Luperta trikuharria
Maantse trikuharria
Madalen Haitza
Madoz
Maizegi erreka
Malkorburu
Malkorko iturria
Malkorri Lazkoetxe
Malloak
Mallozarra
Maltxarreta
Mandarrate
Maomendi
Martikon Txabola saroia
Martxabeleta
Mendiandi saroia
Mendiaundi

Mendibil saroia
Mendiurkillo
Mendivil
Millaldapa trikuharria
Mozkordi trikuharria
Mugiro
Muitze
Muitze erreka
Muitze saroia
Mukuruko Arripilla trikuharria
Muzkur
Napar iturria
Naraztegi iturria
Oabielsaroia
Oako Ataka
Obioneta trikuharria(2)
Oderiz
Oianabal
Oiarbide
Oiduegi trikuharria (E. W.) (2)
Oidui
Oidui saroia
Oilagaineta
Olaberta trikuharria
Olaberta iturria
Olaberta saroia
Olatxikita saroia
Olatxoiturria
Ondarra iturria
Ondarre iturria
Ontzanburu
Ordeka iturria
Ordekaaundi saroia
Ordizia
Oria iturria
Ormazarreta iturria(Alper)
Ormazarreta saroia
Oroigañe
Otadi trikuharria
Otansur
Otansur trikuharria
Otromin saroia
Otsalize
Otso Arrate
Otsopasai trikuharria
Otsotesarre trikuharria
Pagabe
Pagabe saroia

Pagamendi trikuharria
Pagoma
Pagomari
Pagotxiki iturria
Palankaleku saroia
Pallardi
Panplonagaine trikuharria
Pardarri
Pardelus
Pardelus saroia
Pardeluts iturria
Perileku
Pikoeta
Pikutako Ordeka
Postekoaitze
Prantsesa iturria
Prantsez erreka
Putreaitz
Putterri
Putterri iturria (Elaio)
Remedios bainuetxea
Remedios iturria
Sakana
Sakela saroia
Saldias
Saldindegi erreka
Saltaarrii
Saltoa
Samarze
San Anton
San Antonio
San Gregorio
San Martin
San Migel
San Pedro
Santa Luzia
Santiago
Santutegia (San Migel in Excelsis)
Sastarri
Seakoain trikuharria(2)
Soiltxiki trikuharria
Tolosa
Trikuarri
Trikuarri trikuharria
Troskaeta
Tuturre
Txabola
Txagain (Txagadi) trikuharria

Txaraigorr
Txemine
Txemine iturria
Txortxorre erreka
Txuritxoberri trikuharria
Txurtxur
Txutxuta saroia
Uakorri
Uarrain
Uharte-Arakil
Ubedi
Uelagoena (Lapatzagaina) trikuharria (2)
Ugari iturria
Unaga
Unako Putzua
Unei
Unei iturria
Urbaran Haitza
Urdangoene
Urdenas trikuharria
Urdille
Uritza
Urkillagako guretzea
Urkute
Urrekoaitzak
Urruntzulo saroia
Urruntzure erreka
Urrusti
Urruzti saroia
Urtsuerreka
Urzabal erreka
Urzabal goikoa
Usoiturrieta
Uzkuiti
Uztegi
Uztoki iturria
Uztoki saroia
Uztukia erreka
Zabalegi
Zabalegi saroia
Zaldibia
Zazpi iturri
Zeargoena trikuharria
Zeauntza (Zeontza) trikuharria
Zeontza iturria
Ziate iturria
Ziate Bekoa saroia
Ziate Goikoa saroia

Zineko Gurutze trikuharria
Zotaleta saroia
Zuargaate
Zubeinta trikuharria
Zubigoien
Zubigoien trikuharria
Zubizelai saroia
Zubizelaigaiñe
Zuharrietako gaina trikuharria

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

MENDIKATE MAPA

Aralar

Mapan aipatzen diren toponimoak

Agauntza erreka
Aia
Aizkoaundi
Akaitz
Akier
Albiasu
Aldaon
Alegi
Alleku
Altxueta
Amezketa
Arakil ibaia
Arana erreka
Arastortzekogaña
Araxes ibaia
Arbizu
Arribe
Arritzaga erreka
Artubi
Atallu
Ataun
Auza gaztelu

Azkarate
Balerdi
Baraibar
Beasain
Bedaio
Beloki
Beoin
Betelu
Errazkin
Etxarri-Aranatz
Gaintza
Ganbo
Gañeta
Guardetxe
Intza
Intzekotorrea
Irañeta
Iruiaundiko
Irumugarrieta
Irurtzun
Laba
Larraitz
Larraun ibaia
Larrunarri
Lazkao
Lekunberri
Lizarrusti mendatea
Madalen Haitza
Madotz
Malkorra
Oderitz
Ordizia
Oria ibaia
Otsabio
Pardarri
Putxerri
Sagastarri
San Migel
Tolosa
Txemiñe
Txindoki
Uakorri
Uarrain
Uharte-Arakil
Urdanatako tuture
Urruntzure erreka
Urtegi

Urtzabal erreka
Zaldibia

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

MENDIKATE MAPA

Aralar

Mapan aipatzen diren toponimoak

Aia
Aitzabal (798)
Aitzalekundia (768)
Aitziber
Aiztleor
Alleku (1.018)
Altsasu/Alsasua
Arbizu
Argonitz (959)
Askoa (835)
Ataun
Atxu
Atxurbi (777)
Aztiomendi (838)
Bakaiku
Balankaleku
Bernoa
Bidarte
Ergoiena
Etxarri-Aranatz
Etxegarate mendatea(660)
Gazteluberri (859)
Idiazabal
Igaratza
Intxusburu
Irumugarrieta
Irupagoeta (1.239)
Jentileio

Laiene
Larraluze
Larrezkondo (782)
Lazkao
Lizarrabe
Lizarrusti mendatea(625)
Mariñamendi (783)
Maudinamendi (783)
Mugarritxiki
Muñaan (912)
Otzaurte mendatea(675)
Pelotaleku
Praalata
Putxerri (1.296)
San Gregorio
San Migel
Santa Barbara
Sarabe (730)
Sartsamendi
Segura
Txaraigorri (963)
Unamendi
Unanabi
Urdiain
Ursuaran
Zegama
Zorroztarri

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Ataungo Domoa

Aralar mendiaren mendebaldean, izkinan, dagoen bidegurutze handia da. Lehendabizi, Arratetako lepo sakona dugu (Ataun S. Martin), Itaundita eta Aizkoate artean, eta Intzartzuko harrietaraino jarraitzen du. Horiek guztiek, Altzaarte zirkua osatzen dute. Atzean, Auza ageri da, eta hura baino altuago Txindoki ikus daiteke atzean.

Hain zuzen ere, Auza mendiaren gailurrean, XIII. eta XIV. mendeetan erabilia izan zen gotorleku baten aztarnak daude. Arratetako lepo gainean beste aztarna batzuk ere badaude, Jentilbaratzako Gaztelua. Inguru horretan, halaber, historiaurreko aztarnategia ere badago, Goi Perigord aldikoak (22.000 urte).

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Arritzagako sakana

Arritzagako sakana, Larraone, eta, haren atzean, Txindoki. Eskuinetara, Amezketa. Bietan ikusten da, primeran gainera, Txindoki mendiaren antiklinalaren iparraldeko hegala, kareharri urgoniarrez osatua. Larraoneko geruzen egokitzapena ondo ikus daiteke Txindokin.Kretazeo aldiko geruza modernoenak iparraldean daudenak dira; hau da, Amezketa herriari begira daudenak. Horiek hegoalderantz zaharragoko batzuk estaltzen dituzte; lehendabizi kretazeo aldikoak, eta Jurasiko aldikoak ondoren.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Arritzagako sakana eta Larraone

Erdiko mendi-lerroa

Pabolleta (Azpiroz 617 m) mendatetik abiatzen da lerro hau, Albiasu (617 m) herria babesten duen mendi-bizkarraren gainetik, Araitz eta Larraun haranak banatuz; gero, Muzkor (737 m) txuntxur-mendian hasten den horma-bularraz batzen da Baraibar (650 m) herri gainean, Beluta «langa» delakoaren inguruan. Une honetan du hasiera «Mailoak» deituriko gailur-

lerroak,baina, mendilerroaren jarraipen jatorra bera dela dirudien arren, barruko gailur-zerrendara jotzen du, eta hor ditugu Amutxete (991 m), Putretoki, Beloki (1.271 m), Mugardi lepoa (1.110 m), eta Txemiñe (1.296 m) tontorra jarraituz, beste mendilerro gehiagoren adar-gune edo gurutze den Desamendi (1.305 m) jo arte.

Mendi atsegin horren gailurretik, Desamenditik, banalerroak jarraitzen du, altueran behera egiten duen hesi modura, eta Irupagoeta izenekora iristen da, eta Alleku (1.018 m) gailurrean bukatu, Lizarrusti mendateko (615 m) errepidearen gainean.

Berriz ere Desamenditik, baina sartaldera jota, Akaitz Harkaitzak (Peñas Akaitz) izenekoak dauzkagu. Harkaitz horiek baino hegoalderago, eta Arakil alderago daukagun Irupagoeta mendi-bizkarretik gorantz jaikirik dago Apain (1.255 m) gailurra, eta aurrerago, berriz, sorginkeriazko Putxerri (1.296 m), zuhaiztien artetik gailen ageri den harkaitz buru-soila, hidrografia-banalerroaren bukaera, eta, aldi berean, zuhaiztien arteko muga. Hegoaldeak oihan edo baso itxiak dauzkan bitartean, iparraldeak ez dauka zuhaitz bakanik ere.

Desamendi adar-gunetik sortuta bezala jarraitzen duen beste mendilerro bat, garrantzitsuena, iparrera dago, Kantauri aldera luzaturik. Lehenengo, Ernara (1.282 m) daukagu, bere tolesturen artean Igaratzako aterpetxea daukana, eta, hurrena, Pardarri (1.359 m) eta Ganbo (1.408 m) hori ere adar-gune edo gurutze delarik, mendi-lepo belartsua igarota aurrez aurre dago Uzkuiti (1.309 m), eta, jarraian, Etizegi (1.105 m) eta Larraone (1.162 m) gailurrak. Azken horretatik beherantz, Larraitz aldera zabaltzen da.

Ganbotik sartalderantz doa beste mendi-adar bat, eta Ganbotxiki (1.382 m) eta Irazusta lepoa igaro ondoren, Uarrain (1.321 m) gailurra daukagu, bi beso dituena; bata eskuinetara, harro eta zorrotz den Txindoki (1.341 m) ezaguna, Larraitz (403 m) auzoaren eta Amezketa (215 m.) herriaren gainean; eta goitasuna galduz doan beste besoa, ezkerretara, Auza-Gaztelu (899 m), bere hegalak Zaldibi (164 m) aldean beherantz zabaltzen dituena.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2, Patxi Ripa. Edit. Etor.
Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Arritzagako sakana

Arritzagako sakanaren beheko aldea. Aralar mendian sartzeko bide bat izateaz gain, merezi du bertara txango geologiko-botanikoa egitea. Hara iritsi aurretik, Amezketatik barrena, gaztainondo zoragarriak ikus daitezke, desagertzeko zorian dagoen zuhaitza da, zoritxarrez, konponbiderik ematen ez badiogu. Bidean aurrera eginda, astigar ugari daude, baita haritzak eta lizarrak, baina azken horiek ez hainbeste.

Uhar-ohean, jentilen lapiko zoragarriak daude, eta, bi hegaletan, harritza ugari goiko aldeko hartxingaditik jausiak.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Arritzagako sakana

Arritzagako sakanaren goiko aldea. Aurreko argazkian ikusi dugun beheko aldea eta goiko alde hau alderatuz gero, nabarmena da baso-soiltzea, erabatekoa baita meatzetara iritsi baino lehen ere. Baso-soiltze horrek lur-galera dakar, eta hori garbi ikus daiteke Uzkuiti mendiaren magaletan izan diren lurjausietan. Arraitzagako sakanaren erdiko aldean daude kobre-meatze famatuak.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Mailoako gailur-lerroa

Mailoako gailur-lerroa, Araitz haranaren gainean. Argazkiaren eskuineko aldetik, Intza herriko zenbait etxe; ondoren, Gaintza eta Uztegi, eta, urrunago, Azkarate, Urdilleko-lepoaren parean, Balerdi eta Urreako haitzen artean; mendi-lepo hori da, hain zuzen ere, Bedaiotik barrena Gipuzkoako muga.

Gailur-lerro honi, Balerdi mendiaren ezproitik Oa-leporaino izan ezik, "Aralarko ezkata" deitu izan zaio; antiklinal oso disimetrikoa da, eta hegoaldeko alpea iparraldeko alpean zamalkatzen da, oso txikia baita.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Ipar-mendikatea

Mailoa

Iparreko mendilerroa

Aurreko mendilerroaz iparrera daukagun mendizko hormatzar hauxe da Aralar osoko garrantzitsuena. Baina Araitz haranaren gainean nabarmen ageri den ebaketa ikaragarria eta zerra-itxurako gailur soila delako bakarrik ez, hortaz gainera, gailur, lepo eta igarobide ezberdintasun ugari eta ikusgarriak eskaintzen dituelako baizik. Aldi berean, Araitz haranaren gainera ageri den ikuspegi zoragarria eskaintzen digu, herrixka apainak sail margotsuen artean direlarik, e.a. Hitz batean, ikuskizun bikaina, Nafarroako ederrenetako bat, noski.

Alderdi honetan bat-bateko ebaketak eta gorabehera handiko koskak eta maldak direnez, arriskutsua eta beldurgarria da mendilerro hau; batez

ere, bazterrak ikustea eragozten duenean laino itsuak, eta bide eta koskak estaltzen dituenean sarritako elurteak, baita euriak bideak labainkor bihurtzen dituenean ere. Horretxegatik da erorketa eta ezbehar hilgarri gehientsuenak gertatzen diren Nafarroako bazterra.

Aurreko mendilerroa ez ezik, hau ere Pabolleta (Azpiroz) mendatean hasten da, Iruñea eta Donostia bitarteko errepidean. Aurrekoa eta hau biak baturik doaz Beluta «langa» arte, Txurtxurrondo (1.056 m) eta Arriolatz (1.176 m) gailurren artean, eta hemen banatzen dira, gero, Araitz haranaren gaineko malkarretan aurrera jarraitzeko mendilerro honek. Berehala dugu Zubizelai (1.176 m) eta bertako lepoa (1.110 m), eta hurrena Alborta (1.216 m) gailurra, Abetagaña-lepoa (1.141 m) eta Tuturre (1.281 m) mutur zorrotza, eta, hobeto esateko, Urdanotako Tuturre, hori baita bere izen jatorra. Hurrena, Malkorko deritzaten harkaitz batzuk daude, 1.278 eta 1.281 metro bitartekoak; gero, Pallardi (1.296 m), eta honen azpitik aurrera Mendiaundi ataka (1.309 m) eta Arruta mendi-lepoa (1.290 m) dauzkagu; azkenean, Intzako dorrea edo Irumugarrieta (1.429 m) gailurra, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugan, eta bera da Aralarko erpinik goituena, horren gainean doalarik lurralde-muga.

Gailurretik behera jauzi handia egin, eta Baratzail lepoa (1.369 m) eta, gero, Aldaon (1.390 m) dauzkagu, eta hortik aurrerakoan goitasuna galtzen doa mendilerroa: Beoin (1.303 m), Oa lepoa (1.152 m), Oakorri gailurra (1.170 m) eta, beherago, Astunalde lepoa (1.138 m): hona heldu aurretik, bat eginik datoz Azkarate (420 m) eta Uztegi (300 m) herrietatik gorako bideak. Igoaldi laburra egin, eta Artubi edo Ardigain (1.265 m) izen bikoitza duen gailurra daukagu, eta, agiriko tontor zorrotzak igarotzean, Balerdi (1.179 m) muturra dugu mendilerroaren azkena, «Maillo-zarra» ere deitua.

Aurreko horren azpian, eta Urdiya lepoa (705 m) bitartean dela, mendilerro osotik jalki edo etendakoa balitz bezala, Urrablatza (778 m) izeneko harkaitza daukagu, bertaraino luzatzen den zirkunferentzia-erdiaren azkena.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.
Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Lizarrustitik

Erdiko mendilerroa

Pabolleta (Azpiroz 617 m)mendatetik abiatzen da lerro hau, Albiasu (617 m) herria babesten duen mendi-bizkarraren gainetik, Araitz eta Larraun haranak bi aldetara banatuz; gero, Muzkor (737 m) txuntxur-mendian hasten den horma-bularraz batzen da Baraibar (650 m) herri gainean, Beluta «langa» delakoaren inguruan. Une horretan du hasiera «Mailoak» deituriko gailur-lerroak; hain zuzen ere, banalerroa delarik; baina mendilerroaren jarraipen jatorra bera dela dirudien arren, barruko gailur-lerrora jotzen du, eta hor ditugu Amutxete (991 m), Putretoki, Beloki (1.271 m)eta Mugardi lepoa (1.110 m), eta Txemiñe (1.296 m) tontorra jarraituz, beste mendilerro gehiagoren adar-gune edo gurutze den Desamendi (1.305 m).

Mendi atsegin horren gailurretik jarraitzen du altuera desberdineko mendi-banalerroa, izenez Irupagoeta, eta azkena Alleku (1.018 m) gailurrean duelarik, Lizarrusti mendateko (615 m) errepidearen gainean.

Berriz ere Desamenditik, baina sartaldera jota, Akaitz Harkaitzak (Peñas Akaitz) izenekoak dauzkagu. Arkaitz horiek baino hegoalderago, eta Arakil alderago daukagun Irupagoeta mendi-bizkarretik gorantz jaikirik dago Apain (1.255 m) gailura eta, aurrerago, berriz, sorginkeriazko Putxerri (1.296 m), zuhaiztien artetik gailen ageri den harkaitz buru-soila, isuri-mugaren azkena, eta, aldi berean, zuhaiztien arteko muga; hegoaldera. oihan edo baso itxiak dauzka, baina iparrera ez dauka zuhaitz bakanik ere.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.
Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Baraibar-Amutxate-Beaskain-Beloki

Lehenik eta behin, Nafarroako Aralarko pagadiak, Baraibar herriko basetxetik hasi eta (beheko aldean, ezkerraldean) Amutxateko ingurura arte (beheko aldean, eskuinetara).

Bigarrenik, txilardiz jositako eta pobretutako larre-toki zabalak, Beaskaindik Belokiraino. Bertan, dozena bat monumentu megalitiko daude (trikuharriak eta tumuluak).

Eta hirugarrenik, mendilerroaren iparraldeko gailur-lerroa. Atzealdean, Txindoki nabarmentzen da, eta, gerturago, Balerdi mendiaren ezproia. Mailoako gailur-lerrora igotzeko maldek lurrari eusteko zuhaitz-sustrairik ez dutenez, euriak eraman egiten du lurra, eta, ondorioz, harkaitza agerian geratzen da; horren guztiaren eraginez, erabat pobretu da bertako lurra.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Alotza

Alotzako eta Arrubiko larre-toki zabalak, eta Eniriorantz jaisteko mendi-hegalak. Urrutirago, Igaratza eta Obionetako larre-tokiak, eta Unako putzuaren eremua, Nafarroa aldeko Aralar dugu hori.

Neolitiko aldian hasi zen hemen baso-soiltzea (K.a. 3500), lehendabiziko artzainak kokatu zirenean, haien ardientzako larre-toki handiagoak nahi baitzituzten. Zenbait garaitan ganadu asko egoten zenez, larre-tokia pobretu egin da pixkanaka, eta txilardiz betetzen ari da ingurua, argazkiaren aurreko aldean ikus daitekeen bezala.

Torkak edo dolinak nabarmentzen dira (lurjausiak), kareharrizko paisaia guztietan gertatzen diren ohiko fenomeno karstikoak.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Alotza eta Arrubi

Alotzako eta Arrubiko larre-toki zabalak, eta Eniriorantz jaisteko mendi-hegalak. Urrutirago, Igaratza eta Obionetako larre-tokiak, eta Unako putzuaren eremua, Nafarroa aldeko Aralar dugu hori.

Neolitiko aldian hasi zen hemen baso-soiltzea (K.a. 3500), lehendabiziko artzainak kokatu zirenean, haien ardientzako larre-toki handiagoak nahi baitzituzten. Zenbait garaitan ganadu asko egoten zenez, larre-tokia pobretu egin da pixkanaka, eta txilardiz betetzen ari da ingurua, argazkiaren aurreko aldean ikus daitekeen bezala.

Torkak edo dolinak nabarmentzen dira (lurjausiak), kareharrizko paisaia guztietan gertatzen diren ohiko fenomeno karstikoak.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Alleku-Igaratza

Erdiko mendilerroa

Pabolleta (Azpiroz 617 m) mendatetik abiatzen da lerro hau, Albiasu (617 m) herria babesten duen mendi-bizkarraren gainetik, Araitz eta Larraun haranak bi aldetara banatuz; gero, Muzkor (737 m.) txuntxur-mendian hasten den horma-bularraz batzen da Baraibar (650 m) herri gainean, Beluta «langa» delakoaren inguruan. Une horretan du hasiera «Mailoak» deituriko gailur-lerroak; hain zuzen ere, ur-guren edo isurien muga delarik; baina, mendilerroaren jarraipen jatorra bera dela dirudian arren, barruko gailur-lerrora jotzen du, eta hor ditugu Amutxete (991 m),

Putretoki, Beloki (1.271 m) eta Mugardi lepoa (1.110 m), eta Txemiñe (1.296 m) tontorra jarraituz, beste mendilerro gehiagoren adar-gune edo gurutze den Desamendi (1.305 m).

Mendi atsegin honen gailurretik aurrera jarraitzen du ur-gurenak, altueran txikitzen doan lerroan, izenez Irupagoeta, azkena Alleku (1.018 m) gailurrean duelarik, Lizarrusti mendateko (615 m) errepidearen gainean.

Berriz ere Desamenditik, baina sartaldera jota, Akaitz Harkaitzak (Peñas Akaitz) izenekoak dauzkagu. Arkaitz horiek baino hegoalderago, eta Arakil alderago daukagun Irupagoeta mendi-bizkarretik gorantz jaikirik dago Apain (1.255 m) gailurra, eta, aurrerago, berriz, sorginkeriazko Putxerri (1.296 m), zuhaiztien artetik gailen ageri den harkaitz buru-soila, ur-guren isurien mugaren azkena, eta, aldi berean, zuhaiztien arteko muga; hegoaldera. ohian edo baso itxiak dauzka, eta iparrera ez dauka zuhaitz bakanik ere.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.
Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Hegoaldeko mendilerroa. Altzania

Hegoaldeko mendilerroa

Aralar Mailoaren hegoaldeko mendilerro hau laburragoa eta goitasun apalagokoa da. Hasiera, Madoz (765 m) herrian du, eta paralelo diren mendilerro bi direla esan behar da, Ata haran txiki eta polita erdian dutela. Iparrera dagoen Larraun harana aldetik aurrera doanak, goitasun berdintsuko gailurrak ditu Irumuga (1.062 m) eta Akier (1.118 m) bitartean; beherago, Baraibar eta Iribas herrietatik datozen bideak bat eginik heltzen dira Burni-Gurutz (990 m) lepora. Aurrerakoan, mendi goituak jarraitzen du, gailurrik nagusiena Artxueta (1.343 m) delarik. Ardatz honetara batzen da Arakil haran gaineko mendi-adarra, gailurrik nagusiena Solloaundi (1.066 m) duelarik.

Aipatzen ari garen mendilerroak beherantz egiten du sartalderantz, baina berehala dugu Debata (1.134 m) gailurra, trikuharria gainean duelarik; hurrena, Labako igarobidea (1.083 m), batetik Arruatzu (469 m), eta bestetik «Errege Sailak» (Realengo) izenekoen zaintzaileen Guardetxea

(1.040 m) elkartzen dituena. Izengabeko gainetatik aurrera jarraituz, Kolosobarnea (1.130 m) deritzoneko igarobidea daukagu, (hemen igarotzen da, gero adieraziko dugun mendi-bidea); gero, Eulatz (1.261 m) gailurra eta Iputzmeaka lepoa (1.296 m.) dauzkagu, eta mendilerro hau berehala elkartu egiten da lehen aipaturiko erdikoarekin, Txemiñe (1.296 m) harkaiztsuan, eta bertan amaitzen da edo bertan hasten da, nola nahi dugun, mendilerroa.

Oraindik hegoalderago eta lurgintza-soroen ia gainean, beste bazter menditsu labur bat daukagu, Irañeta eta Hiriberri Arakil herrietatik Mailoarako bideen erdian: mutur batean, Urbaran (749 m), eta, bestean, Madalen Haitza (861 m) dira gailur nagusiak; azkenari dagokionez, hormatzar ikaragarria da Mailoa aldeko aurpegian, eta, beste aldera, haranera duen aurpegian, harkaitz zulatua da, gotiko-itxurako kanpandorrea dirudiela.

Aralar Mailoatzat ezagutzen dugunetik kanporago, sortaldeko muturrean, Lekunberrin aurrera doan Donostia-Iruñea errepidearen, eta, barrualdetik, Madoz (765 m), Oderiz (709 m) eta Astiz (690 m) herrietan zehar Lekunberrira (571 m) doanaren barruan, badira zenbait mendi: Malkorra (886 m) eta Larraspil (1.008 m) gailurrak, jende asko samarrek ikustatuak; bien artetik doa Madoztik Goldarazerako (753 m) bidea, gero, errepidez Latasan, Larraun ibaiaren ertzean, elkartzen dena. Bazter horren alde berean dago Iruiaundi (1.063 m) gailurra, dena zuhaitzez estalia.

Bestaldeko muturrean, hau da, Mailoaren sartaldeko ertzean, badira zenbait gailur, Uarrain (1.321 m) menditik hegoaldera etenda daudenak: Sagastarri (969 m), Agauntz (591 m) eta Gorostiza (742 m.), eta hurrena Arastozkogane (826 m), Ataundik Astigarragarako errepidean amaitzen direla.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.
Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Sakana

Ekialdetik mendebalde aldera ateratako bista da. Sakanako mendietatik jaisten diren ur-lasterrek, geruzapen planoekiko perpendikular jaisten

dira, hegoaldeko geruzetan haran txikiei bide eman die, eta horiek dira modernoenak. Kretaziko aldiko geruza horiek pixkanaka zaharragoko beste batzuk estaltzen ditu Madoz aldera igotzen garen heinean, eta, aurrerago, Zuarrarraten, Jurasiko aldikoak dira.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Aralarko San Migel

Argazki zoragari honetan, aurrealdean *San Miguel in excelsis santutegia,* Aralar mendizerrako erlijioso-zentroa, ikus daiteke. Milaka erromes joaten da bertara aingeru babesleari errezatzera. Santutegiaren zati zaharrena IX. mendekoa da.

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

AIRETIKO IKUSPEGIA

Aralar mendiguneko gailurrak

Gipuzkoako erpinak

Auza-Gaztelu (899 m). Apalenetik hasiko gara. Txindokiren aurrez aurre dago, eta mendi honen gauzarik onena, aurreko gailur lerdenaren ikuspegi bikaina eskaintzen digula da. Aralar mendizerraren hego-sartaldeko muturrean dago erpin harkaiztsu hau, eta bertan daude garai batean gaztelu izandakoaren aztarnak.

Txindoki (1.341 m). Aralar osoko erpinik lerdenena, zorrotzena eta politena da ziur aski. Bere inguruko Gipuzkoako beheko lurretatik begiratuta, gauza nabari eta bitxia da mendi honen lerro-garbitasun izugarri eta berdingabea, mendizale den guztia erakartzen duena. Larraitz

eta Amezketatik erpinerako bideak, beti suge-antzean zeharka doazenak, aldapatsu eta gogorrak dira.

Nafarroatik, berriz, zuhaitzik gabeko belardietan zehar, ibilaldi luzeak egin beharra dago harkaitzaren oinera hurbiltzeko; gero, ohiturak erakusten duen moduan, malda latzean gorantz igo behar da, hain begiratoki ederra den gailurrera heltzeko.

Larraone (1.162 m). Mendi honen gauzarik onena, dagoen inguru-marian egotea da. Bi sakanen erdian dago; batetik, Arritzagako meatzeak dauzka, eta, horien bestaldean, Mailoak lerroaren azken-muturra; eta bestetik, sakanaren hurrena, Txindoki dauka oso hurbil, erpin harro eta zorrotza.

Ganbo (1.408 m) eta **Ganbotxiki** (1.382 m). Gipuzkoa aldeko Aralarren adar-gune edo mendi-gurutzerik garrantzizkoena dugu hau: menditzar handia da, borobil antzean eta zabala, bertatik zenbait mendi-adar banatzen direlarik. Larrez inguratua dago, eta haien artetik gailen nabari da kareharrizko buru soila, zenbait tontor eta horma-bular maldatsuz osotua. Gailurretara heldu ahal izateko, gora eta behera egiten duten aldapa biziak garaitu behar ditu mendizaleak. Baina garaitu ondoren, hartutako nekeak ederki saritzen ditu han gainetik ageri den ikuspegi zabalek eta esan ahal den baino desberdinagoek.

Ganboren inguruetan daude Ganbotxiki, Uarrain (1.321 m) eta Uzkuiti (1.309 m) gailurrak, eta, lehenagotik sorturiko mendi-adarretan daudenez, garaitzeko edo erpinetara igotzeko ez dira zailak.

Pardarri (1.359 m). Barneko mendia denez, Aralar Mailoako zabalerarik handiena ikusteko egokiera eskaintzen du bere gailurretik, hain jarrera egokian dagoelako. Bestalde, Errenagako larre zabalen gainean dagoenez, haietatik gorakoan, kareharrizko mokor galanta ageri da. Gailurrera heldu ahal izateko, harkaitz gogorrean gorantz igo beharrak oso latz bihurtzen du igoera. Behin gainean, tontor ugari dira, guztiak berdintsuak eta haietatik goituena zein den igartzea ezinezkoa da, txartel-kutxa daukana ikusi arte.

Nafarroako gailurrak:

a) Mailoak

Alborta (1.216 m). Mailoak izeneko gailur-lerroaren sortaldeko muturrean dago, larre eta belardiz estaliagoa da harkaitzez baino. Bertara igotzeko ez dago zailtasun handirik, batez ere, Etzantzako borobiletik abiatuta, tokirik egokiena eta hurbilena baita.

Gailur-lerro honetako beste erpinen antzera, ikuspegi zoragarria eskaintzen du, bai mendi-lerrorantz, eta bai bere behe-hegaletan barreiaturik dagoen haranerantz.

Tuturre (1.281 m). Honen erpina benetako txuntxurra denez, beste guztien artean aise bereiztekoa da haitz zorrotz hau. Antzinako «Aralar zale» batzuek, Aitzorrotxeta eman zioten izena, baina bere egiazko izena Urdanotako Tuturre denez, deiturarik erabilien eta ezagutuena, Tuturre da.

Atakatxar mendi-lepotik eskuinetara, Etzantzako borobilaren gainean, eta Beloki hego aldera duelarik, nabarmen ageri da kareharrizko mutur zorrotz hori. Norabide berean jarraituz, Malkores sakanak edo zuloak dauzkagu: labirinto txiki baten antzekoak dira, txabola bat toki harrigarrian dela. Horrela, erpinaren oinera iristeak ez du zailtasun handirik; gorakoa, berriz, bakoitzak ikusiko du nola lortu.

Irumugarrieta (1.427 m). Igaratzako arratea deritzon zabaldian ezarritako zutoin erakuslean, Irumugarrieta-Refugio (aterpetxea) dago idatzirik. Berehala alanbre-hesia ageri da, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga; hori jarraituz, harkaitz arteko orban berdez baliatuta, errazagoa izango da igoera. Aise helduko gara gainean gurutzea daukan gailurrera, beste izenez Intzako Dorrea ere esaten diotenera.

Aralar osoko gailurrik goituen edo gorena dugu. Izenak berak dion muga hirukoitza izate hori, honakotik datorkio: Nafarroako Larraun eta Araitz haranek, eta Gipuzkoako Amezketak hortxe elkar jotzen dutelako.

Aldaon (1.390 m). Aurrekotik oso hurbil dago, Baratzailgo mendi-lepoa tartean dela. Gailur honetara igotzeko ere, Igaratzako arratean dagoen zutoin erakusle beretik abiatu behar dugu, iparrera Irumugarrieta, eta sartaldera Pardarri dituela baitago zabaldi hori. Ezkerrerako joera pittin bat jarraitu behar dugu, belarra eta harkaitza txandaka ditugula gorantz jota, Mailoak deituriko gailur-lerrora igotzeko: horietatik ikuspegi zoragarria agertuko zaigu Araitz haranaren gainera, batez ere Baratzail lepotik, eta, gune horretatik, Irumugarrieta atzean utzita, mendi-bizkarrean aurrera doan alanbre-hesia jarraituz, malda gogorra gaindituta, gailur-gaina lortuko dugu.

Beoin (1.303 m). Aurrekoaren lerro eta jarrera berean aurkitzen denez, alanbre-hesia jarraitzea da egokiena; jaitsiera labur bat egin, eta, ostera, gorantz jo behar dugu, hamabost minutu baino gehiagorik gabe, gailurrera heltzeko.

Oakorri (1.170 m). Mendiak dituen tontorrak gainez gain jarraituko ditugu zerbait beherantz eginez, goitasuna galtzen doa-eta. Hogeita bost minutu nahikoak dira Oakorri gailurrera iristeko, eta bertatik bai lirain eta lerden ikusiko dugula Txindoki. Nahi izanez gero, gainez gain jarrai dezakegu, Astunalde mendi-lepora heldu arte (hamar minutu).

Artubi edo **Ardigain** (1.265 m). Astunalde lepoan gaudelarik, Azkarate eta Uztegitik datozen bideak bat bihurturik direla, alanbre-hesiaz

bestaldera igaro beharrik gabe, igoera labur bat nahikoa dugu gailurra jotzeko.

Balerdi (1.179 m). Aurrekoaren eta gailur honen artean, gailur-lerro soil eta zorrotza dago, garai batean zapi gorri bat zeukana, arrisku handiaren ezaugarritzat. Baina; agian, gehiegizko beldurra zen; uneren batean eskuez baliatu beharrik baldin badugu, hormari helduz igotzeko, ziurtasunerako gehiago da, zailtasun eta arriskuagatik baino. Mailoaren azken muturra da; hemendik bertaraino iristeko zeharkatu dugun Mailoak izeneko gailur-lerro osoa ikus dezakegu ederki, eta inguruetako herri eta sailak ere bai, behean barreiaturik.

b) Barnealdeko gailurrak

Ernara (1.282 m) eta **Desamendi** (1.305 m). Igaratzako eta Desaoko aterpetxeen artean daude gailur hauek: elkarrengandik hurbil daude biak, belardi zabala daukatelarik bien artean. Norabide batean ala bestean ibili, ibiltoki atsegina dago bietara ere.

Txemiñe (1.296 m). Unaga harana hegoaldetik mugatzen duen harkaitzezko hormatzar luzearen goitasunik handiena dugu gailur hau. Erpinera iristeko biderik egokiena, Unagako putzua deritzon tokitik abiatzen dena dugu. Gailurrera eramango gaituen bide hauxe aurkitzea da zailtasun guztia eta bera ez handia, harkaitzeko bidezidorra jarraituz erraza baita gaina hartzea.

Intzazelaitik irtenda ere igo gaitezke. Iputzmeaka lepoan aurrera doa Eulatz menditik bereizten gaituen bidean, zuhaiztiak eta tarteko harkaitzek nahikoa eragozten badute ere. Sortalderago daukagu Beloki erpina, Mugardi lepoak bereizten duela Txemiñetik.

Beloki (1.271 m). Erpinera igotzeko gehienek hartzen duten abialekua Atakatxar lepoa edo ataka da, Etzantzako borobila baino gorago; eta, hurrena, Mugardi lepoa daukagu, Guardetxetik datorren bidean dagoena. Azken lepotik, Mugarditik, gailurrera iristeko ehun eta hirurogei metroko aldea dago goitasunean, baina belardian gorantz, aise gainditzekoa da. Gailurra, sortalderantz luzatua da, pinudiz eta harkaitzezko mendi-adar den Putregain arte.

Beste bide bat, elkartzen dituen lurraldeengatik eta gutxiegi ibilia delako, benetan egokia dela adierazi behar da: Abiatu Guardetxetik, jarraitu Kapatar iturria edo Alhiko iturria deitzen diotenean aurrera, eta «Realengo basoan" sartzen da bide hau, Arruazuko txabola biak igarota, Mugardi lepoaren oinean, Bustintza txabolara iristeko. Esanik dago Mugarditik Belokira nola igo.

Bi gauza gogoan hartzekoak: Batetik, nolabaiteko eraikin baten aztarnak daude bide honetan, jentilei egozten dizkietenak jendeak. Bestetik,

Mugardiko iturburuak, benetan ur hotza dutenak, Mugardi lepotik eta Beloki gailurretik urruti ez daudenak.

Eulatz (1.261 m). Intzazelaiko gune garbiaren sortaldeko ertza da, zeharo pagadiz estalia dago, eta Iputzmeaka lepoa eta Kolosobarneako igarobidearen artean dago, errepide zabalaren gainean. Erakarpen gehiegirik ez du eskaintzen. Bestalde, zailtasunik ere ez, eta igo gaitezke lepo batetik, eta bestetik jaitsi.

Apain (1.255 m). Edo Aparein, Ormazarretako saroia mugan duela daukagu. Joan-etorri edo bideen gurutze bat da, eta leizezaleentzat bazter egokia. Mendi-buru belartsua da eta igotzeko erraza. Mendizaleentzat baino erakarpen handiagoa du leizezaleentzat, asko baititu, geroago esango dugunez.

Putxerri (1.296 m). Aralar Mailoaren sartaldeko muturrean dago, Lizarrusti gainean, inguratzen duen zuhaizti oparoaren artetik, nabarmen ageri da harkaitza, gorri edo soil. Apain edo Aparein menditik hurbil dago, baina igoerari ekiteko, Oregi-Irupagoeta lepotik abiatzea da onena, pago artean gorantz, harkaitza jo arte. Harkaitzean gorantz gailurrera heltzeko, ahal den erarik errazenean saiatu behar, beste aukerarik ez dago-eta.

Gainean, mendizaleentzako txartel-kutxaz gainera, Aralarko Aingerua dago, irudi bikaina, hain zuzen ere San Migeleko santutegira begira, Mailoaren muturrean ageri baita.

Debata (1.134 m). Guardetxea eta santutegia bitartean, Azurtako langa deritzon igarobidean; errepidetik 24 metroz gorago daukagun gailurrari, mendia denik ezin esan. Oso besterik da, ordea, Arakil haranetik begiratuta. Nolanahi ere, Debata du izena, eta bere gailurreko trikuharriari izen bera eman dio.

Artxueta (1.343 m). San Migel dagoeneko mendi-hegalaren jarraipena dugu gailurra. Gailurreraino igotzen da errepidea, telebista-errepikagailua dagoelako bertan. Zeru-ertz osoan barna, ikuspegi zabal eta bikaina ageri da gailurretik; baina, ederrena, San Migelen santutegia, Andimendi hormatzar izugarriak babesturik ikustea da, behe aldeko haranak beren lur landuen bitxitasun margotsuan direlarik.

Akier (1.118 m). Ata haranaren gainean dago, eta, horregatik, igotzeko abialekurik egokiena Madoz herria da. Gailurrera igotzeko, ez du zailtasunik. Lehen aipaturiko Larraun harana mugatzen duela dago; aldapa bizia du, gune garbian gorantz, zuhaiztian sartu arte; harkaitz batzuk gainditu ondoren, berehala dugu gailurra, ikuspegi zabalik eskaintzen ez diguna.

Solloaundi (1.066 m). Akier mendiaren aurrez aurre dago. Gailurrera igotzeko zailtasunik latzena, zutikako horma bezala den harkaitza

garaitzea da. Behin goiak hartuz gero, harkaitz eta zuhaizti artean gailurrera igotzea ez da zaila, hegoaldeko hegalean gorantz. Bide osoan ikuspegi bikaina eskaintzen zaigu: Andimendi kate luzea eta ikaragarria, Gaztelutik Iurbain arte; baita Agiri izeneko oihan edo basoaren gainetik ageri diren Putretoki eta Artxueta mendi-mutur ezagunak ere.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2. Patxi Ripa. Edit. Etor.
Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Ataungo domoa

Argazkian aipatutako lekuak

Abadekurutz
Aitzarte
Aizkoate
Aizkorroaundi
Aizkorrondo
Alotza
Altzadi
Amilleta
Andurio
Aralegi
Aralegi Berri
Arastortz
Arrateta
Artzate haitza
Auntzizegi
Ausa-Gaztelu
Baratzazarreta
Bedaio
Belatxinga leizea
Beleku
Dostolloa
Egurral
Erakurri
Errekonta
Etxebeltz
Ganbo

Gañeta
Goroskintzu
Iguzkikomuñoa
Intzartzuko Haitzak
Intzekantzeluz
Ipuliño
Itaundieta
Jentilbaratza
Kilixketa
Larraitz
Larre
Larrunarri
Leuneta
Loibe
Mandoegi
Martxabaleta
Muntxueta
Oidui
Otsabio
Saturdi
Txiki
Txindoki
Uarrain
Ulizar
Unamuno
Urepel
Urkita
Zaldiarrate
Zarate
Zastegi-saletxe
Zuberionea-saletxe
Pardarri

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Arritzagako sakana

Argazkian aipatutako lekuak

Abaltzisketa
Aitzelo
Akelo
Amezketa
Anboto
Ariñate
Atxolatz
Beasain
Beoin
Egurral
Elizkaitz
Etitzegi
Gabiri
Gorostiaga
Irimo
Itsusmendi
Izaspi
Larraone
Larrunarri
Latosa
Mugarra
Murumendi
Oa
Oiz
Ordizia
Orixol
Salin erreka
Salingain
Santa Marina
Txindoki
Uni
Uzkuiti
Zotaleta
Zumarraga

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Arritzagako sakana

Argazkian aipatutako lekuak

Abaltzisketa
Abazegieta
Aitzelekua
Akelo
Amezketa
Anboto
Andutz
Aoki
Arinate
Arno
Arritzagako erreka
Arrubi
Atxaal
Auntzizegi
Azketa
Beasain
Durangaldea
Egurral
Egurtegi
Elosumendi
Erlo
Etitzegi
Ganbo
Gorostiaga
Intxorta
Irimo
Irukurutzeta
Itsumendi
Izarraitz
Izaspi
Kakuta
Kalamua
Kobagaine
Labeongo punte
Lakiola
Larraone
Larrunarri

Maizolatz
Mugarra
Muitze
Murumendi
Oiz
Orendain
Pardeluts
Salingain
Samiño
Sollube
Trapalata
Txindokiko txabola
Udalaitz
Urgoiti
Urko
Urraki
Usurbe
Uzkuiti
Xoxote
Zaldiarrate
Zotaleta

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Arritzagako sakana

Argazkian aipatutako lekuak

Aitzelo
Akelo
Aldaon
Andreona
Anduitz
Ariñate
Arritzagako erreka
Artubi
Astunalde
Beoin
Beriain

Bisutzako
Buruntzuzin
Egurtegi
Elizkaitz
Elordi
Errenaga
Etitzegi
Ganbo
Intzekotorrea
Labeongo Punte
Larrondo
Oa
Pardeluts
Saltoa
Uakorri
Uni
Urgoiti
Uzkuiti
Zabalegi

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Arritzagako sakana

Argazkian aipatutako lekuak

Aintziri
Aizpel
Akategi
Andatza
Arritzaga
Buruntza
Buruntzusin
Erroizpe
Gaztelu
Gazume
Hernialde
Hernio
Herniozabal

Igeldo
Intxurre
Kukuarri
Laarte
Labeongo punte
Latosa
Maizolatz
Mako
Mendibeltz
Otsabio
Pardeluts
Salingaini
Tolosa
Uakorri
Ubeltz
Ulia
Urgul
Urkizu
Uzkuiti
Uzturre
Zabalegi
Zarate-Aitz
Zotaleta

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Agaotz

Argazkian aipatutako lekuak

Agaotz
Aitzeta
Akaitz
Akaitz-txiki
Arrubigaine
Auntzizegi
Auza-Gaztelu
Baiarrate
Beleku

Errekonta
Erremedio
Gaineta
Ganbo
Ganbotxiki
Intxusti
Intzekotorrea
Lareo
Larrunarri
Leizadi
Lizaso
Maumendi
Oidui
Ontzanburu
Pardarri
Sarastarri
Sastarri
Txindoki
Txotxeta
Uarrain
Ubeiko leizea
Zaldiarrate

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Lizarrustitik

Argazkian aipatutako lekuak

Akaitz
Akaitz-txiki
Akerreta
Alleku
Allekuko borda
Arrubigaña
Askoa
Auntzizegi
Baiarrate
Doniturrieta

Enirio
Ganbo
Ganbo Txiki
Intzekotorrea
Kilixketa
Lareo
Larrunarri
Lizarrusti
Lizarrustiko haitzak
Lizaso
Maizegi
Malkorburu
Malla-gana
Ontzanburu
Pagabe
Pardarri
Sarastarri
Txindoki
Txortxorre erreka
Uarrain
Urrusti
Zaldiarrate

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Igaratza

Argazkian aipatutako lekuak

Albia
Aldaon
Alto de Azkarate
Andutz
Arregiko etxeak
Arritzaga
Arruta
Artubi
Atallorbe
Azkarate gaina

Balerdi
Bizkaiko Golkoa
Beloki
Bustintze
Desamendi
Doniturrieta
Erlo
Eulatz
Ganbo
Gurutzeaga
Hernio
Herniozabal
Igaratza
Illobi
Intzazelai
Intzekotorrea
Irimo
Irukurutzeta
Irumugarrieta
Izarraitz
Izaspi
Kakuta
Larrunarri
Maantse
Mallozarra
Mendiaundi
Mugardi
Murumendi
Oiarbide
Otsabio
Pagomari
Pallardi
Pardarri
Putzua
Trikuarri
Txameni
Txindoki
Uakorri
Uarrain
Unagako
Urko
Urrekoaitzak
Uzkuiti

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Mailoako gailur-lerroa

Argazkian aipatutako lekuak

Abate
Aitzarte
Aizpel
Akategi
Alborta
Aldaon
Andutz
Arno
Arriolatz
Arruta
Artubi
Astunalde
Atallorbe
Azkarate
Azkarate gaina
Azketa
Balerdi
Basabil
Bedaio
Beldarri
Belkoain
Beloki
Beoin
Brinkate-Zulo
Egurbide
Elkomutz
Elosumendi
Erlo
Gaintza
Gazume
Hernialde
Hernio
Herniozabal
Ilaun
Ilobi
Intza
Intzekotorrea

Irukurutzeta
Irumugarrieta
Kakuta
Kostalarte
Kurutzeaga
Larraone
Leaburu
Lizarreta
Mako
Mallo-Zarra
Mendiaundi
Mendibeltz
Mendikute
Murumendi
Oa
Oa gain
Oakoarri
Otsabio
Otsaleize
Pagoeta
Pallardi
Prantzes erreka
Saltsamendi
Uarrain
Unaga
Uni
Urdanotako-tuturre
Urdille
Urraki
Urreako Haitza
Usurbe
Uzkuiti
Uztegi
Xoxote
Zarate
Zarate-Aitz
Zubezelai-gañe
Zulota

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Alotza

Argazkian aipatutako lekuak

Agaotz
Akaitz
Akaitz txiki
Alotxa
Altxueta
Andurio
Arrubi
Artubi
Astunalde
Baiarrate
Beleko
Bonbatxulo
Doniturrieta
Enirio
Errekabeltz
Errenaga
Ganbo
Ganbo-Txiki
Gañeta
Goroskintzu
Intxusti
Irazusta
Iruerreketa
Jentilarri
Kilixketako erreka
Maizegi
Martxabaleta
Muñoa
Oidui
Osinberde
Pardarri
Pirineos
Putxerri
Sarastarri
Uakorri

Uarrain
Zumalerdi

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Alotza

Argazkian aipatutako lekuak

Akaitz
Aldaon
Alotza
Aralarko San Migel
Arrubi
Artxueta
Azpiroz
Beaskin
Beleku
Beloki
Beoin
Bustieta
Desamendi
Doniturrieta azpikoa
Doniturrieta garaikoa
Erga
Errenaga
Etxarri
Gaiñeta
Ganbo
Ganbo Txiki
Gaztelu
Guratz
Igaratza
Intzekotorrea
Irazusta
Irumugarrieta
Itzaga
Maizegi erreka
Maldako punta

Malkorri
Mergelu
Ori
Oskia
Pardarri
Perileku
Pirineos
Saioa
Saltarri
Trikuarri
Txameni
Txutxuta
Uarrain
UltzaMa
Unaga
Urdanetako Tuturre
Urrusti

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Alleku-Igaratza

Argazkian aipatutako lekuak

Akaitz
Akaitz erreka
Aldaon
Alleku
Artxueta
Autza
Baratxueta
Beaskin
Doniturrieta
Elkorri
Etaio
Eulatz
Gorramendi
Igaratza
Intzekotorrea

Iparla
Iraio
Ireber
Irumugarrieta
Jazkuru
Maizegi
Maizegi erreka
Maldakopunta
Malla-gane
Mendaur
Ori
Pallardi
Pardarri
Perileku
Pirinioak
Putxerri
Saioa
Txameni
Txortxorre erreka
Ultzama
Unaga
Zuriain

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Altzania-Aralar

Argazkian aipatutako lekuak

Agiluzkopunta
Aitziber
Aizkorri
Aketegi
Aldamin
Allaitz
Allaitz Txiki
Allarte
Altsasu
Altzania

Anboto
Aratz
Arbarrain
Arbizu
Atxu
Atxurbi
Balankaleku
Burunda, harana
Etxarri-Aranatz
Gazteluberri
Gorbeia
Gorgomendi
Gorostiaga
Ibarragorri
Intsusburu
Irumugarrieta
Itsusmendi
Izpizte
Laiene
Lekanda
Lizarrabe
Lizarragabengoa
Lizarrate
Lizarrusti, mendatea
Mendatea
Olano
Orixol
San Adrian
Sarabe
Sartzamendi
Txaraigorri
Txurru
Udalatx
Umandia

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Sakana

Argazkian aipatutako lekuak

Agiri
Akier
Albiasu
Aldaon
Altxueta
Anboto
Andutz
Arakil
Arakil ibaia
Aralarko San Migel
Artubi
Ata
Azkarate
Balerdi
Baraibar
Beoin
Beraztegi
Erlo
Ganbo
Garritz
Hernio
Herniozabal
Intzekotorrea
Iriberri
Irumugarrieta
Izarraitz
Izpizte
Larrunarri
Lizarralde
Madalen Haitz
Madoz
Mallozarra
Mugarra
Orixol
Otsabio
Pagoeta

Putxerri
Sollaundi
Uakorri
Uarrain
Udalatx
Urbaran
Urdille
Urkita
Urreakoaitza
Zabalaundi
Zarate

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

IKUSPEGI ERROTULUDUNA

Aralarko San Migel

Argazkian aipatutako lekuak

Agiri
Akier
Altxueta
Ani
Aralarko San Migel
Ata
Auñamendi
Baratxueta
Burnigurutze
Erga
Errege
Erroldan harria
Ezkaba
Garritz erreka
Gaztelu
Hiru
Imotz
Iruñea
Irurtzun
Kontsolua
La Trinidad

Madalen Haitz
Madoz
Mahaia
Ori
Oskia
Pamplona
Pirinioak
Sakana
San Cristobal
Solloaundi
Santa Barbara
Urbaran
Zarikieta

Erref. bibliografikoa eta irudi erref.: Mendiak 2.

ZENBAIT IKUSPEGI

Agaotz (974 m)

Tontor hau Sarastarri mendiko kareharrizko gailurrerian dago, Aralar mendikatean.

Gailurra Sarastarrikoaren (996 m) eta Leitzadikoaren (952 m) artean dago, eta domo izeneko egitura geologiko baten parte da.

Ataungo domoak kupula itxurako egitura dauka, eta bertan, ondoko gailurrak ditugu lerrokaturik: Intzartzuko haitzak (813 m), Artzate haitzak (656 m) eta Leitzadi-Sarastarri (996 m). Guztien artean Aralegiko zirkua osatzen dute Aitzarteko haranaren inguruan.

- Urkillagako gainetik (513m), Aia gainean (500 m), pista bat Leitzadi, Agaotz eta Sarastarriko tontorren azpitik Lareoko urtegira doa.

Zaldarrateko lepo txikian (749 m) inguru honetako tontorren igoera hasten da. Agaotzera edo gertu dagoen Leitzadira joateko asmoa badaukagu, bien arteko Agaozko lepora joan gaitezke zuzenean. Tontor biak garbi daude sortalderantz, beraz, mendikatearen ikuspegi ederra dago alde horretarantz. Kontrako isurialdean basoak dira nagusi.

- Urkillagatik (513 m) hegoaldeko hegal babesgabeetatik ere zuzenean igo daiteke gailurreriara. Goierriko zenbait herriri ura ematen dien Lareoko urtegirako bidetik hasi behar da. Metro batzuk ibili ondoren ezkerrerantz irten, eta Aizkerriko txabolatik Leitzadira (952 m) eta Agaozko lepora (887 m) doan bidezidorra hartu behar da. Tontorra lepoaren beste aldean dago.

- Ataun San Martindik (204 m), Arratetako haitzartetik barneratuz Bedamako zelaiko lepora (479 m) heldu gaitezke, eta Beama Buru (752 m) hegoaldetik inguratuz Erremedioetako bainuetxe zaharretik jarraituko dugu. Horrela, Bostbideta lepora (733 m) iritsiko gara. Handik gora ez dago Agaozko lepora (887 m) igotzeko bide argirik.

Aralegiko lepotik (612 m) ere erraz heldu daiteke Bostbidetara.

Inguruko tontorrik garaiena gertu dugun Sarastarri (996 m) da. Bertara erraz heldu daiteke Agaoztik (974 m), Elorreta edo Arriaundi lepora (944 m) jaitsi eta gero.

Abiapuntuak: Urkillaga (1 h 45 m); Zaldarrate (1 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Santi Usabiaga

ZENBAIT IKUSPEGI

Agaotz (974 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Santi Usabiaga

ZENBAIT IKUSPEGI

Aitzear (1.286 m)

Atakaxatik ikusita

Aralar mendikateko gailurra.

Pallarditik (1.290 m) oso gertu dago, ia ez dago bereizita, oso jaitsiera txikia daukan lepo batek (1.272 m) banatzen baititu biak.

Brinkate zulo lepoak (1.180 m) banatzen du Ttutturretik (1.282 m). Lepo hori dolinaz jositako lapiaz-eremu latza da.

Abiapuntuak: Guardetxea, 10. km (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Aizkoate (774 m)

Aralar mendikateko tontor txikia, ia tontorra ere ez da. Intzartzuko haitzen parte da eta Aralegiko zirkua ixten du iparraldetik.

Ia ohartu ere ez gara egingo gain honetaz. Aizkoateko pasabidetik (620 m) ekialdera dago, eta benetan, Aizkoatetik hegoaldera dagoen muino harritsuak (637 m) eduki beharko luke izen hori. Hala ere, hor dugu tontorra buzoi eta guzti, Intzartzuko haitzetako gailurrik sortaldekoena.

- Aizkoateko pasabidetik gailurrera iristea ez da zaila. II. graduko pauso erraz bat gaindituta ertzera helduko gara, eta handik tontorrera (Erraza).

Autoz Amilleta baserriraino (530 m) heldu gaitezke, Muntzuetakoa (525 m) atzean utzita. Bertan, baserrirantz eta Aralegiko leporantz (612 m) doan pista utzi behar da. Amilletatik arazorik gabe helduko gara Aizkoatera Intzartzuko haitz zoragarrien azpitik.

Ataun San Martin edo Elbarrendik (204 m) Aitzarteko haranera sartzeko Arratetako zulo ikusgarritik (270 m) joango gara, kareharrizko ezproi handien azpitik. Iparraldeko ezproia Jentilbaratza da eta Intzartzuko haitzak bertan hasten dira. Eskalada-eskola dago han eta zenbait bide dauzka. Jentilbaratzeko haitz horien goiko aldean, harrobiaren gainean, dorre bat egon zen, eta bere hondarrak bertan daude oraindik. Jentilbaratza izenak berak adierazten duen bezala, zenbait kontakizunek, hondar horiek izaki mitologikoen, jentilen, etxebizitzekin lotzen dituzte.

Abiapuntuak: Amilleta (45 m); Ataun San Martin (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa

ZENBAIT IKUSPEGI

Aizkoate (774 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Akaitz (1.078 m)

Aralar mendikateko gailurra. Kareharrizko gailurreria osatzen du eta Enirioko harana, iparraldean, eta Akaitz Errekakoa, hegoaldean, banatzen ditu. Azken sakan horretatik jaisten den ura Lareoko urtegian biltzen da.

Tontor interesgarria da, besteetatik bereizia eta harritsua. Lapiaza da nagusi bertan, eta horren arrakaletatik pagoak hazten dira. Horrek hain zuzen ere interesa galarazten dio, ikuspegia oztopatzen baitu, eta bertatik ibiltzea nekagarri bihurtzen baitu. Ipar-isurialdetik zuzenean igo daiteke, pagadi garbitik, baina kontuz ibili behar da amaierako kareharrizko muinoan pasabide errazak aurkitzeko. Bestela, hegoaldetik ere badago igotzeko modua, baina neketsuagoa egingo zaigu, pagoz jositako lapiazetik motel ibiliko baikara.

Arratezabalgo atakak (1.038 m) mendi-adar hau eta Jazkuru mendia (1.250 m) lotzen ditu. Jazkuru mendia Aralarren erdialderantz sartzen da Errenagara (1.288 m) heldu arte.

Enirioko haranean, Zaldibian (183 m) hasten den harrizko galtzada bat dago. Galtzada Zaldibiako biltegietatik abiatzen da (450 m).

Enirioko galtzada Jentilek eraiki zutela esaten da, eta Igaratzatik jarraitzen zuen, Errenaga, Intzazelai, Guardetxe, San Migel, Ata, Madotz eta Irurtzundik, eta handik Iruñea zaharrera edo Lizarrara.

Ausa Gazteluko tontorreko gazteluak komunikazio-bide hori babesten zuen. Bideak 3.000 edo 4.000 urte izango ditu.

Abiapuntuak: Lizarrusti (2 h); Zaldibia (3 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona

ZENBAIT IKUSPEGI

Akaitz Txiki (942 m)

(Akaitz Txikiko tontorra Lareoko urtegiaren gainean)

Aralar mendikateko gailurra, Akaitz (1.078 m) ahizpa nagusitik gertu. Hiruerreketako pasabideak (775 m) banatzen ditu biak. Lepo horretatik zailtasunik gabe igo daiteke sortaldeko gailurreriatik zuzenean (Erraza).

Biarrateko pasabidea (750 m), aldiz, garrantzitsuagoa da. Gailurretik mendebaldera dago, eta bertatik, mendiaren beste isurialdean dagoen Enirioko haranera joan daiteke.

Tontor harritsu eta malkar honek mendean hartzen du Lareoko urtegia (757 m); hain zuzen ere Malkorburu (861 m), Alleko (1.018 m) eta Akaitz Txiki (946 m) mendiek inguratzen dute urtegia. Lapiaz itxurako hegaletan zenbait kobazulo garrantzitsu dauzka.

Ibilaldi ona egin dezakegu Lizarrustin (622 m) hasita, meategietako trenbide zahar baten bidetik. Haitzean zizelkatutako bidexka polit eta izugarri hori Lizarrustiko haitzen azpitik doa eta Akerreta ingurura iristen da, Lareoko urtegiaren hasierara. Urtegia eskuinetik inguratuz Biarratera helduko gara, eta handik gora tontorrera.

Biarrate ingururainoko ibilbide beretik, Akaitz Errekako haranean gora Larretxikiraino (1.202 m) eta Errenagako aterpetxeetaraino (1.212 m) joan gaitezke, Aralar mendikatearen erdian.

Abiapuntuak: Lizarrusti (1 h 45 m); Zaldibia (2 h 45 m); Ataun San Martin (2 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Akaitz Txiki (942 m)

Lareoko urtegia, Biarrateko pasabidea eta Akaitz Txikiko tontorra.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Akier (1.124 m)

Ata haranetik ikusita

Aralar mendikatearen sortalde-sortaldeko gailurra. Ata haranaren gainean dago eta bailara iparraldetik ixten du.

Akier zein Eguerdimuño 1.124 metroko tontor beraren izen bi direla ematen du. Hala ere, lehenak ingurua oro har izendatzen duela ematen du eta bigarrenak gailurra bera (Eguerdi-Muño = Eguerdiko muinoa).

Eguerdimuñotik mendebaldera 1.107 metroko beste tontor bat dago, Eguerdimuñotik bereizita, eta han, Akier izena daukan mugarri geodesiko bat dago. Tontor horrek, berez, ez dauka inolako izenik, Akier edo Eguerdimuño sortaldeko gailurra baita (1.124 m). Bigarren izendapen horri dagokionez, badirudi orduari nolabaiteko erreferentzia egiten diola, mendiaren itzalak eguerdia gutxi gorabehera noiz den zehazten lagundu dezakeelakoan. Mendigunea ekialderantz jarraituta Irumugarrieta ingurua (tontorra baino, ingurua) (1.081 m) azalduko zaigu.

Ipar-isurialdean pagadi mardulak daude, eta Larraun ibaiaren Autzarretako iturburua. Larraungo haranean, besteak beste, Iribas (641 m), Mugiro (643 m) eta Madotz (754 m) herriak ditugu. Larraun ibaia Aiztondo haitz handiaren azpian sortzen da, Aralarko ur guztiaren zati handi bat hartzen duen Aitzarratetako iturburuan (618 m). Horko ura

lurpean sartzen da 800 metro aurrerago eta gainean bailara lehor bat uzten du. Iribas herriaren azpian agertuko da berriro ura, Basakaizko iturburuetan.

Iribastik (641 m) Basakaitzera jaitsi daiteke, edo Aitzarratetara (618 m) doan bidexka balizatutik joan. Han errota zaharraren hondarrak ikusiko ditugu, eta ura era ia magikoan agertzen den haitzuloaren barrualdera sartu ahal izango gara.

Iribastik (630 m), Burnigurutze lepotik (963 m) tontorrera igo gaitezke. Lepoan, izenak berak dioenez, burdinazko gurutzea dago. Pagadiz inguratutako lepo hori Ata haranerako pasabidea da, eta bertan, Burnigurutze eta Ziñeko Gurutzeko trikuharriak daude. Atako haranaren beheko aldera heldu eta gero Errolan Harria (955 m) dagoen lepora joan behar dugu. Handik, aldapa malkartsuan gora egin behar da harrizko tontorreraino. Gailurrean landaredia nagusi da, eta horrek ikuspegia oztopatzen du (Erraza).

Madoztik (754 m) igotzea laburragoa da. Errolan Harriraino bertaraino doan pista batetik abiatuko gara. Errolan Harria mendiaren azpialdean dago eta giza itxurako harri bat da, iruinarri edo menhirra beharbada. Tradizioaren arabera Errolan mitikoak Aralarko San Migeldik jaurti zuen Madotz herria txikitzeko asmoz. Hala ere, ez zuen lortu bere helburua, jantziekin katigatuta geratu baitzen, eta Atako haran zintzilikatuaren gainera jausi zen. Harriak ebaki itxurako marka misteriotsu batzuk dauzka; Pirinioetako heroi ospetsuaren atzamarrenak omen dira.

Atako haranera San Migelera igotzen den hormigoizko pistatik ere joan daiteke. **Uharte Arakildik gora** santutegirantz goazela, bertara heldu baino 4 bat kilometro lehenago dagoen bihurgune baten ondoren, pista baten hasiera ikusiko dugu eskuinean (905 m). Handik, Atako arratea (979 m) zeharkatuz Atako haranean barneratuko gara. Soroaundiko mendigunea (1.045 m) eskuinean utzita Atako sakonunerantz jaitsiko gara eta Madozko bidera irtengo gara.

Abiapuntuak: Iribas (2 h 15 m); Madotz (1 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Akier (1.124 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Akier (1.124 m)

Errolan Harria.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Alborta (1.228 m)

Aralarko gailurra, Malloaren alderik sortaldekoenean dago, baina ez da asko nabarmentzen bere gainetik. Abateko lepoak (1.158 m) mendebaldean dagoen Ttutturretik (1.282 m) bereizten du. Tontor harritsu eta zorrotza da, eta mendebaldean basoren bat edo beste dauka.

Lekunberritik Guardetxerako errepidetik, 10. kilometrora heldu baino lehen, pista batek Etzantzako zelaietako Atakaxarreko lepora (1.170 m) eramango gaitu. Handik, hego-isurialdeko lapiazetik zuzen igo gaitezke gailurrera.

Baraibartik (635 m), Bioznako errekaren haranean barrena heldu gaitezke Atakaxarrera.

Intzan (313 m) ibilbide luzeagoa hasten da. Handik joanda Abateko lepora (1.158 m) iritsiko gara; bertan tumulu bat dago. Lepo hori asko erabiltzen zen Aralar mendikaterako pasabide moduan, baina gaur egun ez da hainbeste jende ibiltzen Guardetxeko errepidea eta bertatik egin dituzten pistak direla eta. Abateko lepotik gailurra hurbil dago ekialderantz.

Abiapuntuak: Guardetxea,10. km (1 h 30 m); Baraibar (1 h 45 m); Intza (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Alborta (1.228 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Aldaon (1.411 m)

Aokitik ikusita.

Malloako gailurra, Aralar mendikatean.

Baratzail edo Elkomuts lepoaren (1.305 m) beste aldean gertu dagoen Intzako Dorrearen (1.431 m) ondoren eta Ganboaren (1.402 m) atzetik tontorrik garaiena da.

Intzako Dorretik azkar heldu daiteke gailur honetara. Baratzailgo lepora zuzenean jaitsi beharrean, metro gutxiago jaitsiko gara Usalden Jasoarriena (1.352 m) lepora irtenez gero, Baratzailgo lepoa baino mendebalderago. Handik, Malloako kareharrizko tontor zorrotza gertu dago.

Iparralderantz, Malloako tontorrak Balerdiraino (1.195 m) luzatzen dira, eta mendean hartzen dituzte Araizko bailara gozoa eta bertako Gaintza, Intza, Azkarate edo Lekunberri herrixkak.

Abiapunturik arruntena Guardetxea (1.035 m) da, baina igoerarik izugarrienak Araizko bailaratik egiten direla esan beharrik ere ez dago, esate baterako, Gaintza (388 m) edo Intzatik (313 m) hasita.

Guardetxetik (1.035 m) Errenagako aterpetxeetara doan ibilbide jendetsua hartuko dugu eta Trikuharri leporaino (1.243 m) joango gara. Intzako Dorrearen (1.431 m) azken maldak mendebalderantz zeharkatuz Usalden Jasoarriena (1.352 m) lepora helduko gara. Ezkerretik gailurrera iritsiko gara arazorik gabe.

Gaintzaren (388 m) goiko aldean, bide argi batek Larremearreko zelaietara (1.000 m) eramango gaitu, Intzako Dorrearen azpian. Bidexka bat pagadian sartzen da eskuinaldetik eta zirku menditsu batera (1.150 m) doa, Baratzailgo lepoaren (1.305 m) azpian. Bide garbian gora lepora iritsiko gara. Malloako gailurreriara helduta eskuinerantz joko dugu Aldaonera (1.412 m) igotzeko.

Intzatik (313 m), Larremearreko zelaia baino lehenago, bide honekin elkartu gaitezke, baina handik joanez gero bidea ez dago hain ondo.

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h 15 m); Amezketa (3 h); Gaintza (2 h 15 m); Intza (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Aldaon (1.411 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Alleko (1.018 m)

Aralar mendikateko gailurra, HMko ertzean.

Mendi xumea da, baina Euskal Herriko Mendien Katalogoan ageri da. Alleko pikoa, Alleko aitze edo, besterik gabe, Alleko izendatzen duten tontor honetan Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga dago.

Lizarrustiko portutik (622 m) zenbait modutan igotzeko aukera daukagu. Esate baterako, meategietako trenbide zaharraren bidetik abiatu gaitezke, Lizarrustiko Haitzen (750 m) azpitik. Izen esanguratsuak dauzkate haitzek; hona hemen ekialdetik mendebaldera: Kantera, Malkorbizkarra, Intxusaeta eta Leizalde.

Lareoko urtegiaren hasiera den Akerretako pasabidera (685 m) iritsi aurretik, haitzen azken horma igaro ondoren, zuzen igo behar da banalerroko gailurreriatik tontorrera.

Lizarrustitik bertatik, Errenagako aterpetxeen bidetik (GR-12) abiatu gaitezke. Bide hori, portutik Etxarri Aranatzerantz joanda kilometro batera dagoen bihurgune handian (590 m) hasten da. Bidetik Iraioko zelairantz (890 m) joango gara eta mendebalderantz ibiliz tontorrera igoko gara.

Akaitz Errekako haranak gailurra eta Akaitz mendia (1.057 m) banatzen ditu, eta bertatik, pagadian barrena ere igo daiteke.

Abiapuntuak: Lizarrusti (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Alleko (1.018 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Alleko (1.018 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Aoki (1.317 m)

(Aoki Uzkuiti eta Ganboa artean, Oatik ikusita)

Aralar mendikateko tontor belartsu eta laua.

Arritzagako sakanaren gainean ondo bereizita eta gertu dagoen Uzkuitirekin (1.332 m) batera Muitzeko zirkua mugatzen du hegoaldetik.

Lizeozko ordekako lepoa (1.299 m) Aoki eta Uzkuiti banatzen dituen zelaian dagoen jaitsiera txiki bat da.

Gailurraren hegoaldean dagoen sakonuneak Katxine du izena. Uzkuiti eta Aokiz gain, sakonunearen inguruan kareharrizko Ganboa (1.402 m) eta Ganbo Txiki (1.377 m) gailurrak daude eta belarrezko Arrubi gaina (1.320 m).

Larraiztik (401 m) edo Amezketatik (201 m) Muitzeko sakan politean gora joan gaitezke. Sakana Larrunarriren (1.346 m) ekialdean dago, eta mendi hori eta bera bezain zorrotza den Larraone (1.198 m) banatzen ditu. Zirkua goiko alderaino jarraituz gero Aokira iritsiko gara.

Abiapuntuak: Larraitz (2 h); Amezketa (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Aparein (1.261 m)

Aralar mendikateko gailur bikoitz apala da.

Garaiera bertsuko tontor bi dauzka, baina sortaldekoa apur bat altuagoa da (1.261 m). Gailur aldean laua da, eta hegoaldetik ixten duen Ormazarretako sakonunea ikusteko leku ona da.

Mendebaldean Urrustatsoko pasabidea (1.211 m) dago. Pasabide horrek gailurra eta Hirupagoeta edo Oroinganeko tontorra (1.246 m) banatzen ditu. Lepo horretatik, Lizarrustiko portutik (621 m) Errenagako aterpetxeetarako (1.212 m) bidea doa.

Tontorraren azpian, ipar-isurialdearen gainean, Ormazarretako zelaia dago. Aralarko eremurik interesgarrienetakoa da espeleologiarako. Nabarmentzekoa da Ormazarretako leizea: 576 metro sakon eta 6.700 metro luze. Gipuzkoako sakonena dela uste dute.

Guardetxetik (1.035 m) ibilbide erraz bat hasten da. Intzazelaiko larreen (1.155 m) bidea hartu behar dugu; larre horiek Pagomarikoak direla ere esaten da, baina hori izendapen okerra da. Bide horretatik Mandarrateko lepora (1.230 m) igoko gara Errenagako aterpetxeen bidetik. Handik mendebalderantz jarraituko dugu muinoa, Apareingo tontorretik (1.261 m) nahiko gertu pagaditik irten arte. Hortik gora igoera lasaia baino ez da geratzen.

Lizarrustitik (621 m) igoz gero, Errenagako aterpetxeen bide klasikotik Urrustatsoko lepora (1.211 m) joango gara. Ondoren ekialdetik zuzenean igoko gara gailurrera.

Abiapuntuak: Lizarrusti (1 h 45 m); Guardetxea (1 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia

ZENBAIT IKUSPEGI

Arastortzeko gaina (813 m)

Aralar mendikateko gailurra. Aitzarteko harana mendean hartzen duten **Intzartzuko haitzen** parte da eta Aralegiko zirkua iparraldetik ixten du. Mendikate osoko alderik ezezagunenetakoa.

Inguru honetako mendirik garaiena da. Goiko aldean belartsua, aldapa gogorrak dauzka zirkua mendebaldetik ixten duen Aralegiko leporantz (617 m). Sarastarri (996 m), Agaotz (974 m) eta Leizadi (952 m) mendien kareharrizko gailurreriatik jarraitzen du.

Tontorrik politena, baina, mendebalderago dago: Intzartzu (813 m). Aralar mendikateko malkartsuena da, baina erraz igo daiteke gandorretik, ekialdetik zein mendebaldetik, eskalada pausoak eginez (Erraza).

Ipar-isurialdetik ere igo daiteke, Errekarte edo Ameztiko lepotik (550 m).

Ataun San Martindik (196 m), Arratetako pasabide izugarritik Aitzarteko haranera doan pista hartu daiteke. Horrela Aralegiko lepora helduko gara (612 m). Handik, hegoaldeko aldapa pikoan gora tontorrera iritsiko gara.

Leku beretik Errekarte edo Ameztiko lepora ere joan daiteke, eta ondoren tontorrera iparraldetik igo.

Abiapuntuak: Ataun San Martin (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Santi Usabiaga

ZENBAIT IKUSPEGI

Arastortzeko gaina (813 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Fernando Zabaleta.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arbelo (1.332 m)

Aralar mendikatean, Arritzagako sakanaren goiko aldearen eskuinean, besteetatik bereizita dagoen tontorra.

Tontorra Igaratzako eremu lau eta belartsutik iparraldera dago. Inguru hori Aralarren erdialdea dela esaten da, eta bertan, norabideak adierazten dituen seinalea eta eremu megalitikoa daude.

Igaratzako inguruotan Amabirjin Harria ere badago. Artzain batek ardiren bat galtzen duenean diru-limosna eskaintzen dio San Migeli eta harri horren gainean uzten du.

Tontorretik gailurreria bi hasten dira. Bata Etzaalgo gailur txikitik (1.302 m) doa eta Aritzagako sakanaren ikuspegi ederra duen Labeongo puntan (1.293 m) amaitzen da. Bestea aurrekoaren ekialdean dago, eta Arbelotik gutxi banatutako Kobegaine tontorretik (1.324 m) doa.

Gailurrera leku hauetatik joan daiteke:

Amezketatik (201 m), Aritzagatik.

Guardetxetik (1.050 m), Igaratzatik (1.171 m) gertu dauden Errenagako aterpetxeetatik.

Abiapuntuak: Amezketa (2 h 45 m); Guardetxea (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arbelo (1.332 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arriolatz (1.176 m)

(Arriolatz eta Etzantzako zelaiak)

Aralar mendikateko gailurra, Malloaren alderik sortaldekoenean.

Ekialderantz beste gailur batzuk egon arren, tontor honekin Araizko bailararen gainean Malloaren gailurreria malkartsua hasten dela esan liteke, izan ere, ekialderagoko mendi horiek ez daude oso bereizita eta, pagadiak estaltzen dituenez, ez daukate inolako ikuspegirik. Hala ere, hona hemen gailur horien izenak: Gaztelu (1.098 m) eta Txurtxur (1.063 m). Bigarrenak gailurra bera garbi dauka baina basoz inguratuta dago.

Arriolazko tontorra (1.176 m) Frantsesa eta Bioznako larreen gainean dagoen haitza da. Buzoi batek gailurra zein den adierazten du, baina oker dago, Txurtxur izena jartzen baitu.

Biderik errazena **Lekunberritik Aralarko San Migelera doan errepidearen 10. kilometrotik** hasten da, Guardetxera heldu baino lehen (940 m). Bide batek Etzantzako zelaietara eramanago gaitu; bertan Atakaxarreko lepoa (1.170 m) dago. Handik, zuzenean igo daiteke gailurrera, edo nahiago izanez gero, Arteiako Mugarriko lepora (1.120 m) joan daiteke eta handik tontorrera igo ekialdeko isurialdean pausorik errazenak bilatuz.

Baraibartik (635 m) Malloako sortaldeko tontorretara igotzeak ez du ahalegin handirik eskatzen. Pagadian barneratzen den pista bat hartuko dugu Etzantzako zelaietaraino.

Abiapuntuak: Guardetxea, 10. km (1 h 30 m); Baraibar (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arriolatz (1.176 m)

Olatxikiko zelaia, Arriolatzen azpian

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arriolatz (1.176 m)

Arriolazko tontorra eta atzean Uarraingo gailurra.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arrubigaina (1.318 m)

Aralar mendikateko belarrezko mendixka. Ganboa (1.402 m) eta Larrunarriko (1.346 m) tontorrak, Gipuzkoako Aralarreko bi gailur esanguratsuenak, elkartzen dituen gailurrerian dago.

Tontorrak Alotzako zelaiak hartzen ditu mendean eta ekialdetik ikuspegia ixten die. Ekialdean Arrubiko landak daude. Tontor hau eta Ganbo Txiki (1.382 m) lotzen dituen lepo zabal eta belartsua ere Arrubiko lepoa (1.282 m) da. Gailurarren ipar-mendebaldean, Larrunarrirantz doan gailurrerian, iruinarri bat dago lurrean botata, zati bitan apurtuta: Arrubiko iruinarria da.

Larraiztik (401 m) igo gaitezke bertara. Erdian seinale bat duten Alotzako zelaietarantz abiatutako gara, eta handik azkar igoko gara tontorrera.

Leku beretik hasita Arrubiko zelaietaraino joan gaitezke, Muitzeko sakanetik Muitzeko amaierako zirkuraino igoz.

Abiapuntuak: Larraitz (2 h 30 m); Amezketa (2 h 45 m);

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Arrubigaina (1.318 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Fernando Zabaleta.

ZENBAIT IKUSPEGI

Artubi (1.263 m)

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Malloen zirkua ixten du iparraldetik.

Astunaldeko lepoak (1.216 m) gailur hau eta Oakorri (1.306 m) banatzen ditu. Lepo hori Gizpukoako Goierriko Amezketaren (201 m) eta Araizko bailarako Azkarateren (460) arteko pasabide logikoa da.

Mendi honen sortaldeko ezproi harritsua Balerdiko gailurrean (1.195 m) amaitzen da. Gailur horretatik Goierri eta Araizko inguruen ikuspegi bikaina dago. Amezketatik (201 m) edo Azkaratetik (460 m) hasi daiteke igotzen.

Amezketatik (201 m), Arritzagako haranean zehar ibiliko gara, Anduitzeko kareharrizko tontorraren azpian, meategietako antzinako instalazioetaraino (850 m). Handik Astunaldera igo gaitezke.

Azkaratetik (460 m), Astunaldera doan bideak Balerdiren hego-ekialdeko ertz malkartsua inguratzen du Astunaldeko kanal handiaren azpira heldu arte (700 m). Handik igoera gogorra dago sigi-sagan leporaino.

Amezketatik (210 m) Larrondoko zelaietara (650 m) igo daiteke. Larrondoko lautada handia Arritzagako sakanaren eskuin hegalaren gainean dago. Hara heltzean, gain-gainean dugun Zabalegi mendiaren

(1.114 m) ipar hegaletik Zabalegiko lepora (1.072 m) igo gaitezke. Bertatik Artubiko gailurrera (1.265 m) iristea erraza da.

Larrondotik (650 m), Arangoeneko bordara (958 m) ere joan gaitezke bide balizatutik, eta handik ekialde-ipar-ekialderantz igoko gara leporaino eta ondoren tontorreraino.

Arritzagako haranak U itxura dauka, eta ondorioz jatorri glaziarrekoa dela pentsa daiteke. Buruntzuzingo meategietan aurkitutako jalkinek ere uste hori sendotzen dute, batzuek aurrealdeko morrena direla egiaztatu baitute. Hala ere, jalkin-pilaketa horiek oso aldi hotzetan sortu ziren arren, baztertu egin da glaziarra egon izana, baina badirudi elur eta izotz-metaketa handiak (elurtegiak) izan zirela.

Abiapuntuak: Amezketa (2 h 30 m); Azkarate (2 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Artubi (1.263 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Artxueta (1.343 m)

Aralarko San Migeldik ikusita.

Nafarroako Sakana menderatzen duen Aralar mendikateko gailurra, ia 1.000 metroko desnibelekoa.

Errepikagailu bat dauka gainean, eta horren ondorioz, baita pista bat ere Aralarko San Migelen (1.237 m) ondoan dagoen Putzuzar lepotik (1.218 m). Pistatik autoz igo daiteke arazorik gabe. Mendebalderago basoz estalita dagoen gailur txikia Posteko haitze (1.194 m) da.

Artxueta gailur nabarmena da egiazki. Tontorrera heltzean argi geratzen da hori, izan ere, ikuspegi zabala dauka alde guztietarantz, eta bertatik, Euskal Herriko mendi pilo bat ikusten dira Pirinioetaraino. Errepikagailuen instalazioek, baina, gailurrean zabortegikoak ematen duten txatarra eta burdina-piloak egotea eragin dute.

Zenbait urte lehenago, errepidea Guardetxean (1.035 m) amaitzen zen, eta Aralarko San Migelen Santutegira (1.237) joateak Erregeneako pagadien gaineko gailur panoramiko honetara igotzea zekarren. Dena den, San Migelera Lekunberritik (505 m) edo Uharte Arakildik (475 m) autoz igo daitekeen arren, oraindik egin ditzakegu leku santu horretarako erromes-ibilbide handiak, eta gero, denbora laburrean (20 m) gailur honetara igo. Uharte Arakildik abiatzen dena nabarmen interesgarria da.

Uharte Arakildik (475 m), santutegira doan hormigoizko pista jarraitu behar da Aiztondo haitzaren azpitik. Pixka bat aurrerago, markatutako bide bat hasten da, eta aldapa pikoetatik Amorlekuko goi-lautadara (840 m) igoko gara; bertan San Migelen metalezko irudi bat dago. Soroburuko muinoa (991 m) mendebaldetik inguratuz Otsopasajeko lepora (971 m) helduko gara, eta bertan trikuharri bat ikusiko dugu. Ondoren, zuzen igo behar da, eta 1.115 metroko altueran errepidea hartu. Gogoa izanez gero zuzen jarraitu dezakegu santutegiraino, edo bestela errepidetik joango gara.

Lekunberritik, mendebalderantz San Migel eta Guardetxea lotzen dituen errepidea Azurtako langako lepotik (1.107 m) doa. Oso hurbil daude basoz inguratutako Debatako gailurra (1.139 m) eta bertako trikuharria. Inguruan beste monumentu megalitiko ugari dago, eta batzuk errepidetik bertatik oso gertu. Esate baterako, Guardetxetik hurbil trikuharriak daude, Mozkoko gainean ere bai (1.099 m) eta baita Albiko zelaian (990 m) ere.

Abiapuntuak: Uharte Arakil (2 h 30 m)

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Artxueta (1.343 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Artzate Haitza (656 m)

Aralar mendikateko gailurra, Ataun (204 m) gainean, Aitzarteko haran ezkutua ixten du mendebaldetik. Bailara horretatik, mendiguneko tontor handietatik datorren Aralar errekaren ubidea jaisten da. Erreka haranetik ezin irtenda geratuko litzateke urak Arratetako pasabide estu eta ikusgarria (265 m) ireki izan ez balu. Haitzarte horretatik Ataungo San Martin (204 m) auzora irteten da erreka, eta Agauntzarekin elkartu ondoren, Lazkaotik (170 m) Beasainera (140 m) jaisten da eta Oriarekin bat egiten du.

Ondo bereizitako hiru mendigunek inguratzen dute **Aitzarteko harana**: 1.- Iparraldean, Intzartzuko haitzek osatutako Aralegiko zirkua dago. Haitzak Arratetako pasabidearen iparraldean hasten dira, eta eskalada-bideak dauzkan Jentilbaratzeko gailurreriatik lehenengo tontorrera (637 m) heltzen da Aizkoateko pasabidearen (621 m) ondoan. Handik, gailurrak gora egiten du nagusitasunez Aizkoate (774 m), Intzartzu (813 m) eta Arastortzeko tontorretatik (832 m) eta Aralegiko lepora (612 m) jaisten da.

2.- Lepo horren beste aldean, hegoaldean, kareharrizko beste gailurreria bat dago. Sarastarri (996 m), Agaotz (974 m) eta Leizadi (952 m) mendiek osatzen dute eta Aitzetako muino harritsuan (930 m) amaitzen da. Gailurreria horrek Agaozko zirkua osatzen du.

3.- Hirugarren eta azken mendiguneak Azpildegi (hegoaldean) eta Aralar (iparraldean) erreken ubideak banatzen ditu. Aurrekoak baino xumeagoa

da, baina haiek bezain ikusgarria. Artzateko haitzak (656 m) dira. Hegoaldetik iparraldera lerrokatuta daude eta modu basatian jaisten dira Arratetako haitzartearen ezker hegalaren gainera.

Haitz horien mendebaldeko isurialdetik, Urkillagako gainetik (513 m) datorren Artzate erreka jaisten da. Artzate erreka Agauntza errekarekin elkartzen da Ataun San Martingo Arrondoan.

Hegoaldetik hasita, Artzateko Haitzen lehen gailurra Muñaango puntako (605 m) muino harritsua da. Mendixka hori Artzateko Haitzen (656 m) tontorrik handienarekin lotuta dago, eta ez da iparralderago dauden Loibeko haitzak (627 m) bezain ikusgarria, Loibekoak zerra baten hortzak bezain zorrotz eta malkartsuak baitira.

Ataungo San Martin auzotik (204 m), Arratetako pasabidera (270 m) doan gurdibidetik abiatuko gara. Pasabidea igarota eskuinerantz joko dugu, eta Aralar erreka eta Azpildegi erreka banatzen dituen Bedamako zelaiko lepora (479 m) helduko gara. Aurrerago Bedama baserria (475 m) dago. Lehenago gurdibidea utziko dugu. Gurdibideak, ezkerretik, Beamaburuko muinoa (752 m) inguratzen du hegoaldetik, eta Erremedioetako bainuetxe zaharretik aurrera doa, Bostbidetako lepo eta bidegurutzeraino (733 m), Agaotzen (974 m) mendebaldean.

Bedamako zelaiko lepotik (479 m), pista bat pinudian sartzen da eta iparralderantz jotzen du Artzateko Haitzen azpitik. Dena den, pista utzi egin beharko dugu, pinudian barrena inolako biderik gabe tontorrera zuzen igotzeko.

Abiapuntuak: Ataun San Martin (1 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Atallorbe (1.275 m)

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Laua eta belartsua da eta ez dauka garrantzi handirik. Mendigune txiki bat osatzen du Mendiaundi (1.307 m) eta Kurutzeagako (1.308 m) tontorrekin batera.

Inguruko lekurik interesgarriena Argañetako zelaia da. Bertan, Aralarren ohikoak diren kupuladun txabola batzuk daude, oso ondo zainduta. Bestalde, Argañetako karsta ikusi beharrekoa da.

Abiapuntuetako bat Guardetxea izan daiteke (1.035 m). Hara joateko errepidearen 10. kilometroan, Etzantzako zelaietara doan pista hasten da, eta bertatik, erraz heldu daiteke Malloaren sortaldeko gailur guztietara.

Guardetxetik bertatik Pagomarira (1.155 m) joan gaitezke eta Urrutiko Lurriñako pasabidea (1.216 m) iparraldetik zeharkatzen duen bidea hartu. Pasabidearen ondoren Unagako landetara jaitsiko gara eta handik erraz igoko gara tontorrera.

Unagako landetan, Unagako putzua edo Unako putzua (1.175 m) izeneko laku txiki bat dago. Nabarmentzekoa da lakua egotea, ez baita oso arrunta eremu karstikoetan horrelako putzuak sortzea, izan ere, halako lekuetan ura lurpean sartzen da eta bertatik ibiltzen da lur azpiko galeria-sistema korapilatsuetan barrena, haranetan iturburuetatik irten arte. Lakuaren inguruan, ubide txiki bat metro gutxi ibili eta gero arrakala batean sartzen ikus daiteke.

Urmael honen inguruko zenbait kondaira daude. Hala ere, lakua, benetan, putzu natural bat baino ez da, eta buztin iragazgaitzek ura lurpera sartzen uzten ez dutelako sortu da. Hondorik ere ez daukala esan izan da, baina, egiazki, metro batetik gorako sakonera dauka.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Atallorbe (1.275 m)

Unako Putzuko hobia.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Atallorbe (1.275 m)

Unako Putzua.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Atume

Aralarren amaiera Atumetik. Gailurreria honek Azpirotz herritxoa mugatzen du ekialdetik. Atzean, Balerdi dugu, Aralarko iparraldeko aitzindaria, Nafarroa eta Gipuzkoa lurralde senidetuen muga Azkarate eta Bedaio herrixken artean. Han urrun, Bizkaia, eta Anbotoko haitza bere ordezkari.

Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa.

ZENBAIT IKUSPEGI

Auntzizegi (1.248 m)

Aralar mendikateko gailur xumea. Larrunarri (1.346 m) hurbilak mendean hartzen du iparraldetik. Zaldiarrate (1.148 m) eta Egurral (1.152 m) lepoek tontor biak banatzen dituzte.

Zaldiarratetik (1.148 m), tontorra gertu dago, belarrezko gandor baten gainetik. Gandorra Arrubigainetik (1.320 m), Arrubiko lepotik (1.282 m) eta Ganbo Txikitik (1.377 m) Ganboaren gailurreraino (1.402 m) doa. Eskuinean Alotzako zelaiak dauzkagu, eta ezkerrean Arrubikoak.

Larrunarrira igoz gero tontor apal honetara ere joan gaitezke. Era berean, Zumalerdiko muinotik (1.215 m) Saltarrira (1.119 m) jaitsiz gero, artzainek apustuetarako erabiltzen zuten harria ikusiko dugu: harriaren gainetik luzeran jauzi nork egingo ibiltzen ziren.

Abiapuntuak: Larraitz (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Auntzizegi (1.248 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Fernando Zabaleta.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ausa Gaztelu (904 m)

Aralar mendikateko iparraldeko gailur bereizgarria. Mendi honen siluetak gertu dagoen Larrunarrirenaren (1.346 m) antza dauka, baina inondik ere ez dauka haren garaiera eta ospea.

Tontorrean zegoen Erdi Aroko gazteluak eman zion izena. Enirioko sakana zeharkatuz Gipuzkoako Goierri eta Irurtzun lotzen zituen Enirioko galtzada babesteko zen gaztelu hori. Gailurrean, 19 metroko diametroko eraikin

zirkular baten hondarrak dira haren arrastoa. Nafarroako erresumako mugak babesteko erabili zuten XIII eta XIV. mendeetan, eta antzina jentil-familia bat bizi omen zen bertan.

Mendiaren hegoaldean Errekontako lepoa (766 m) dago. Erraz igo daiteke bertara Larraiztik (401 m) edo Zaldibiatik (165 m). Lepoan hobi bat dago, eta handik sartzen den ura mendiaren beste aldean azaltzen da, Osinbeltzeko iturburuan, Errekontatik hego-mendebaldera.

Zaldibiatik (165 m), Olako zelaira (465 m) igo behar da; bertan aterpetxe bat dago. Handik Errekontako lepora (766 m) joango gara Ausokoegiko artzain-larreetatik (755 m); larreen inguruan tumulu bat dago.

Ibilbide horretarako beste aukera bat dugu Arkaka txikiko biltegietatik (485 m) hasiz gero; bertara Zaldibiatik joan daiteke. Han Enirioko galtzada ospetsutik abiatuko gara, eta Aitzarteko ezproia (560 m) igaro eta gero, Almitzetako larrera (635 m) joateko desbideratuko gara, eta ondoren Errekontako lepora iritsiko gara.

Larraiztik (401 m), Errekontara doan ibilbidea Larrunarrira igotzeko ohiko bidearen azpitik doa, eta ez dauka inolako zailtasunik. Gaztesuiko langara (500 m) iritsi behar dugu, eta gero, pistatik jarraituko dugu, Larrunarrirako bidea alde batera utzita. Gaztesuiko iturria (525 m) agertuko zaigu ondoren, eta pista Zapata zubian (595 m) amaituko da; zubiak, eraiki zuenaren omenez dauka izen hori. Orduan, Gongarretako zelaia (685 m) eskuinean utzita igoko gara. Aldats labur batetik Errekontara (766 m) iritsiko gara. Handik, maldatik dagoen igoera gogorrean gora Ausako gailurrera helduko gara (904 m).

Abiapuntuak: Zaldibia (2 h): Larraitz (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ausa Gaztelu (904 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ausa Gaztelu (904 m)

Errekontako lepoa eta Ausa-Gazteluko gailurra.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ausa Gaztelu (904 m)

Gailurra.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ausa Gaztelu (904 m)

Gailurra.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Fernando Zabaleta.

ZENBAIT IKUSPEGI

Balerdi (1.195 m)

Aralar mendikateko gailurra. Ez da garaiena, baina, beharbada, Malloetako gailurreriako tontorrik bereizgarriena da.

Mallozarra edo Kaxa ere esaten diote Balerdiri (1.195 m). Malloen mendiguneko ertz batean dago, eta bere itxura ikusgarri eta mehatxariak mendean hartzen du Azkarate herria (460 m) zazpiehun metro baino beherago. Mendiak badu entzutea, baita zaila izateko ospea ere, leku batzuetan zorrotza den gandor batetik igo behar baita, baina gandorrak ez dauka zailtasunik eta atsegin handiz igotzen da bertatik. Bestalde, gandorrean, hildakoak eragin dituzten istripuak gertatu direla nabarmendu behar da, beraz, kontuz ibili beharra dago, batez ere euria edo elurra denean.

Ibilbiderik garrantzitsuena **Azkaratetik** (460 m) hasten da. Mendiaren lehen zatia babesten duen harrizko horma eskuinean utzita (horma horretan eskalatu egiten da, eta Gaintzako Harria da lekurik nabarmenena), haran batetik igoko gara maldan gora (Astunaldeko kanal handia), eta bertatik, atseden hartzeko aukerarik gabe, Astunaldeko lepora (1.216 m) iritsiko gara.

Gaintzatik (388 m) lepo horretaraino heltzeko kanal beretik joango gara. Lepotik Artubira (1.263 m) igoko gara; Balerdi (1.195 m) baino garaiagoa da, baina ez da hain ikusgarria. Tontor horretatik hurrengo lepora (1.150 m) jaitsi eta ertz beldurgarriari ekin beharko diogu. Ertzetik bidexka bat doa, eta bereziki ikusgarria da bide erdian, kontuz ibili behar baita harkaitz bat igarotzeko, isurialde bietako amildegien gainean. Oztopo hori gaindituta tontorrera helduko gara.

Azkaratetik, mendiaren beste aldetik ere igo daiteke Balerdira. Urdilleko lepora (718 m) igo beharko dugu; bertatik ederto ikusten da mendia. Handik, oraingoan zuzen igo beharrean, Larrondoko zelaira joango gara

bide onetik, eta ondoren errazago igoko gara gailurrera. Goranzkoan Zabalegitik (1.114 m) eta Artubitik (1.263 m) igaroko gara.

Hegoaldeko eta hego-ekialdeko ertzetatik eskalatu egin daiteke. Hala ere, haitza kalitate txarrekoa izanik eta igoera batere aldapatsua ez denez, interes gutxikoak dira, baina Malloen inguruko edertasuna eta tontor polit honen estetika ikusteko aukera emango digute. Oso eskalada-pauso gutxik daukate zailtasun apur bat (III).

Amezketatik (201 m), Arritzagako harana zeharkatu behar da. Anduitzeko kareharrizko tontorraren azpitik igaro eta meategietako aspaldiko instalazioetara (850 m) joango gara. Handik Astunaldera igo daiteke.

Hko ETA HEko ERTZAK

Piramide-formako tontor eder hau Euskal Herriko gailurren arteko ikuspegirik ikaragarrienetakoa da.

Mendi honetara igotzeko bide arrunta **Azkaratetik** (460 m) hasten da, eta Astunaldeko lepotik (1.216 m) eta Artubiko tontorretik (1.264 m) doa; Balerdi bera baino altuagoa izan arren itxura lasaiagoa dauka mendi horrek. Artubi eta Balerdiren arteko gandorrak ez dauka inolako zailtasunik, baina kontuz ibili beharko dugu amildegien gain-gainetik doan zatiren batean (Erraza).

Balerdiren beheko aldeko horma 150 bat metro garai da. Kareharri bikainean gora kirol-eskaladako bideak daude, nolabaiteko zailtasunekoak. Inguru horretan Gaintzako Harria nabarmendu behar da. Amaierako hormatik, aldiz, gutxitan igo izan dira, amildegira doazen belarrezko malda zorabiagarrien gainean baitago. Aldapa belartsu eta irristakor horiek biktimak eragin dituzte.

Abiapuntuak: Azkarate (2 h); Amezketa (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa.

ZENBAIT IKUSPEGI

Balerdi (1.195 m)

Balerdiko gailurra.

Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa.

ZENBAIT IKUSPEGI

Balerdi (1.195 m)

Balerdiko gailurrera igotzeko ertza.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Balerdi (1.195 m)

Balerdiko gailurreko gurutzea.

Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa

ZENBAIT IKUSPEGI

Beaskin (1.242 m)

Aralar mendikateko tontor xumea. Borobildua eta belartsua da, eta Errenagako aterpetxeetatik nahiko gertu dago.

Aralarko aterpetxeak Errenaga edo Ernara mendiaren (1.288 m) hegaletan daude. Mendi hori Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga da. Jendeak Igaratzako aterpetxeak ere esaten dio inguru honi, baina izen hori ez da zuzena, Igaratzako lautadak kilometro bat iparralderago baitaude, Aritzagako sakanaren hasieran. Igaratzako inguruari Perileku (feria-leku) ere esaten diote.

Errenagako gunea 1.220 metrora dago, eta bertan zenbait aterpetxe daude (bat publikoa da, eta bertan lo egin daiteke), eta Aralarko ama birjinaren (Andra Mari) baseliza ere bai. Antzina mikeleteentzako etxe bat eraiki zuten bertan, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko pasabideko aduana zaintzeko. Etxe horri Igaratzako aduana izen okerra jarri zioten, eta horrek eragin du gerora toponimia-nahastea. 1928an Aralarko lagunen elkartearen aterpetxea eraiki zuten mikeleteen etxearen zimenduen gainean.

Beaskin-Igaratza eremuak, mendikatearen erdigune nagusia izateaz gain, monumentu megalitiko ugari dauzka. Beaskingo tumulua eta harrespil edo cromlecha ikus ditzakegu, hala nola, Igaratzako trikuharriak (iparraldekoa eta hegoaldekoa) eta euren ondoko tumulua, harrespila eta monolitoa.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beaskin (1.242 m)

Errenagako aterpetxeak.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beldarri (1.405 m)

Kurutzeaga ingurutik ikusita, atzean Artubi eta Balerdi.

Aralar mendikateko gailurrik altuenetakoa da, laugarrena hain zuzen. Hala ere, ez da oso ezaguna, Intzako Dorretik (1.431 m) garrantzi gabeko lepo malkartsu batek banatzen duen muino txikia baita. Dorretik HMrantz dago, 200 metrora.

Mendi honen toponimoa ez dago oso argi. Tontorrari Beldarri esaten diote. Elosegik Zamarmentoak izena bildu du Malloaren gainean erortzen den Beoingo (1.350 m) hegalari izendatzeko, baina Araozko haranean, Zamarmento Intzako Dorrearen (1.431 m) ekialdean kokatzen dutela ematen du, eta beraz, gailurra Zumarmentoko haitza litzateke.

Tontorrera iristeko, Intzako Dorrera edozein bidetatik igotzea da onena. Ondoren, HMko gandorra jarraituz gailurrera helduko gara minutu gutxiren buruan.

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h 15 m); Intza (3 h 15 m); Gaintza (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beldarri (1.405 m)

Beldarri eta Kurutzeaga Mendiaunditik.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beleku (1.256 m)

Alotzako zelaiak

Gañetako zirkuko gailurra, Aralar mendikatean. Iparraldeko gandor aldapatsu eta belartsua, Kilixketa izenekoa, Errekontako leporantz (769 m) erortzen da, eta horrela, Gipuzkoako Goierriko zaintzaile txikia den Ausa Gaztelurekin (904 m) elkartzen da. Zaintzaile txikitzat jo beharko Ausa, Txindoki edo Larrunarri (1.346 m) senide handia inguruotako nagusi baita.

Tontor honek zelai bikainez osatutako Alotzako sakonunea ixten du. Bellekuko gailurra belartsua da eta ez oso garrantzitsua, eta handik iparraldera Saltarri izeneko harria dago.

Abiapuntuak: Larraitz (2 h 30 m); Zaldibia (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beleku (1.256 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Fernando Zabaleta.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beleku (1.256 m)

Oroimen-monumentua Alotzako zelaietan.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beleku (1.256 m)

Saltarri.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beloki (1.271 m)

Aralar mendikateko gailur bereizgarria. Unaga eta Etzantzako zelaiak hegoaldetik ixten ditu; iparraldetik Malloa harritsu eta nahastezinak egiten du muga.

Unagako landetan Unagako putzua izeneko laku karstiko txikia dago. Kontraste handia dago mendiaren ipar-isurialdeko larreen eta hego-isurialdeko baso zabalen artean. Guardetxera (1.050 m) igotzen den errepiderantz dauden baso horiek Erregeneako basoak dira. 2.200 hektareako pagadi erraldoia da eta Sakanako eta Araizko bailarako herriek erabiltzen dute.

Beloki (1.271 m), Malloarekiko paralelo dagoen mendilerroko gailur nagusietakoa da. Honako tontorrek osatzen dute mendilerro hori: Belokik (1.271 m), Txamenik (1.299 m), Desamendi txikik (1.249 m), Desamendik (1.310 m) eta Errenagak (1.288 m). Hauen eta Malloaren artean belarrezko pasabide zabala dago Igaratzako lautadetaraino (1.190 m). Belokiren ekialdean garrantzi gutxiko gailur txiki bat dago: Putretoki (1.245 m). Tontor hori moztuta dago iparralderantz (Prantses erreka) eta zuhaitzak dauzka goiko aldean.

Guardetxetik (1.035 m) ibilbiderik erosoenetakoa abiatzen da. Handik joanez gero kontuz ibili beharko dugu (eraman mapa eta iparrorratza) Erregeneako basoan ez galtzeko, hain itxia denez ez baita gauza handirik ikusten, eta are gutxiago sarritan azaltzen den behe-lainoa agertuz gero. Edonola ere, Otadiko trikuharria ikus dezakegu, eta Urdangoeneko lepora (1.193 m) heldu beharko dugu, Txameni eta Belokiren artean.

Albiko zelaia (980 m) errepidearen ondoan dago, Guardetxera iritsi baino kilometro pare bat lehenago. Albiko trikuharria ikusi eta gero bide batetik abiatuko gara, eta geroago bidexka balizatu batetik jarraituko dugu Mugardi eta Bustintza inguruetan barrena. Argiune batean gurutze bat ikusiko dugu bidean. Ezkerrean kupuladun txabolen hondarrak daude (Arkuek izeneko txabolak). Aurrerago haran txiki batean sartuko gara eta Urdangoeneko lepoa (1.193 m) ikusiko dugu. Gailurra eskuinean dago.

Oso ibilbide interesgarria da, mendikateko larreekin kontraste handia egiten duten Erregeneako basoak zeharkatzen baititu.

Urdangoenera (1.192 m) heltzean zuzenean joko dugu tontorrerantz. Handik, azpian dauzkagun Etzantzako zelaien ikuspegi paregabea dago.

Baraibartik (625 m), antena bat daukan Izarriteko gainera (904 m) doan pista hartu dezakegu. Ekialderantz jarraituko dugu Belutako langaraino (930 m). Bidea HMrantz joango da eta Txurtxureko gailurra (1.069 m) inguratzen duten pagadi itxiak zeharkatzen ditu. Pago artetik irten eta Prantses errekaren (1.020 m) goiko arrora helduko gara. Olatxikiko txabola (1.040 m) ezkerrean utzita Etzantzako zelaiak hartzen dituen haran ederretik gora joango gara Atakaxarreraino (1.180 m). Lepo hori, zeharkatzen gabiltzan haranaren goiko aldea da. Ezkerrean tontorra dago eta zuzenean igoko gara bertara.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 15 m); Baraibar (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beloki (1.271 m)

Buzoia gailurrean eta Etzantzako zelaiak.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beloki (1.271 m)

Bustintzako gurutzea.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beoin (1.350 m)

Malloetako gailurra, Aralar mendikatean, Egurbideko atakaren (1.301 m) (hegoaldean) eta Oakoaren (1.188 m) (iparraldean) artean. Malloako gailur guztietan bezala, honetan ere, Araizko haranerantz erortzen den isurialdea belarrezko aldapa oso pikoa da eta amaieran harrizko bihurtzen da.

Ibilbiderik erosoena, betiko legez, **Guardetxean** (1.035 m) hasten da. Errenagako aterpetxeetatik Trikuharriko lepora (1.243 m) joango gara. Ondoren, Intzako Dorrea (1.431 m) eta Aldaon (1.411 m) inguratuz, Egurbideko lepora (1.301 m) iritsiko gara. Handik, gertu daukagun Egurbideko haitz txikira (1.317 m) igo gaitezke, eta jaitsi ostean (1.295 m), gailurreko azken aldapei egingo diegu aurre.

Amezketatik (201 m), Arritzagako sakanean gora joan gaitezke, Arritzagako txabolaraino (960 m). Handik Oako lepora (1.188 m) igoko gara, eta gailurreriatik, hegoalderantz joango gara Beoineraino, belarrezko aldapa pikoetatik.

Azkaratetik (460 m) edo Gaintzatik (388 m) Oako lepora (1.188 m) joatea zailagoa eta gogorragoa da, alde batetik igo beharreko metroengatik, eta bestetik, ez dagoelako bidexka argirik. Astunaldeko atakara (1.216 m) doan Astunaldeko kanalaren hasierara (700 m) joan beharko dugu.

Ez gara harantz igoko, baizik eta ezkerrerantz joz Sonbeluko lautadan (925 m) agertuko gara. Pagaditik, goian dagoen beste lautada batera igoko gara, Aloixa gainera (1.025 m). IMtik Axurda muñoraino (1.025 m) helduko gara. Handik Oako lepora (1.188 m) igotzea erraza da, eta zailxeagoa Egurbeako lepora (1.301 m) ateratzea. Beoingo tontorrera (1.350 m) iristeko hobe da lehen aukera hartzea.

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h 15 m); Amezketa (2 h 30 m); Azkarate (3 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Beoin (1.350 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Debata (1.139 m)

Debatako trikuharria gailurrean.

Tontor hau Guardetxetik (1.058 m) San Migelen santutegira doan (1.237 m) errepidetik oso gertu dago. Lau aldeetan daukan **eremu megalitiko garrantzitsuagatik** da interesgarria.

Tontorrean bertan Debatako trikuharria (1.139 m) dago. Mendebaldean, errepidearen ondoan, Erbilleri eta Pittin-arriko trikuharriak (1.072 m) daude. Pixka bat aurrerago Elurmenetakoa eta Elordikoa (1.065 m) ikusiko ditugu Txagaingo lepora eta trikuharrira (1.051 m) joateko bidean. Lepo horrek Debata eta Saldiasko tontorra (1.076 m). banatzen ditu.

Debataren iparraldean Mozko (1.099 m) dago. Garrantzi handirik gabeko mendixkatxoa da, baina horrek ere badu monumentu megalitikoa.

Oso azkar heltzen da bertara San Migelerako errepidetik, Azurtako langako lepotik (1.107 m) zehazki, gailurretik ekialdera. Lakuntzatik (490 m) Guardetxera (1.058 m) igoz gero aukera ona izango dugu gailur ahaztu honetara joateko. Guardetxetik, aipatutako trikuharri guztiak ikusteko ibilbidea egin daiteke, noski.

Abiapuntuak: Azurtako langa (10 m); Guardetxea (20 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Desamendi (1.305 m)

Aralar mendikateko gailurra. Errenaga edo Enara (1.288 m) mendian, Gipuzkoako mugan bertan, hasi eta Malloako tontorrekin paralelo ekialderantz Txameni (1.299 m) eta Belokiko (1.271 m) tontorretatik doan mendiguneko gailurrik handiena da.

Hala ere, belarrezko muino handi hau ez denez Euskal Herriko Mendien Katalogoan agertzen pixka bat baztertuta geratu da; Errenagako aterpetxeetarako bide jendetsutik hurbil egonda bertara heltzea oso erraza den arren. Gailurra Desaomendi ere izendatzen dute, eta Deesamendi idatzi ohi da.

Guardetxetik (1.035 m), Intzazelai edo Pagomariko zelaietara (1.155 m) doan pista hartu behar da, eta Mandarrateko atakatik (1.230 m), Errenagako aterpetxeetarako ibilbidea jarraituko dugu.

Errenagako tontorrera iritsi aurretik eskuinerantz joko dugu, Desamendiko muino zabalerantz.

Gomendagarriagoa da Pagomaritik iparraldera joatea, jende gutxiago ibiltzen baita. Desaoko aterpetxera eta Urrutiko lurriñako lepora (1.216 m) helduko gara, Desamendi eta Desamendi Txikiren artean. Sortaldeko hegal belartsutik tontorrera igoko gara.

Desaotik zuzenean joan daiteke tontorrera, leporaino iritsi gabe.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Desamendi (1.305 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Desamendi Txiki (1.261 m)

Aralar mendikateko gailurra, Desamenditik (1.310 m) ekialdera. Urrutiko lurriñako lepoak (1.216 m) biak banatzen ditu.

Ekialdean Lekoain lepoa (1.198 m) dago, eta gailur hau eta Txameni (1.299 m) lotzen ditu.

Guardetxetik (1.035 m) erraz heldu gaitezke mendi txiki honen gailur lau eta zabalera. Intzazelairako (1.155 m) bide jendetsua hartuko dugu. Intzazelai, eta ez Pagomari, gehienek txarto esaten duten bezala. Iparralderantz Desaoko aterpetxera (1.205 m) helduko gara, eta aurrerantz jarraituko dugu, Unagako zelai handietarako pasabidea den Urrutiko lurriñako lepoa (1.216 m) igarotzeko.

Eskuineko muinotik tontorrera helduko gara, eta ezkerrekotik Desamendira igoko ginateke.

Monumentu megalitiko pilo bat dago Aralarko goi larreetan Desamendi edo Desaomendi eta Malloako gailurren artean. Hona hemen monumentuen zerrenda zehatza:

Gipuzkoa eta Nafarroa banatzen dituen **Trikuharriko lepoan** (1.243 m) trikuharririk interesgarrienetakoa dago. Trikuharri du izena hain zuzen ere.

Iparralderantz, Aralarko gailurrik garaiena gertu dago: Intzako Dorrea (1.431 m). Handik, mendi-hegalak Unagako zelaietarantz eta Unagako putzua izeneko laku txikirantz (1.175 m) jaisten dira, eta bidean, Obioneta edo Obionta eta Maantsako trikuharriak daude.

Unagako putzura heldu baino lehen, bidearen eskuinaldean Zeontzako gailur (1.218 m) xumea dago, Desamendi Txikira (1.249 m) ia erabat lotuta. Zeontzako tontor lauan beste trikuharri bat dago.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Egurtegi (1.320 m)

Egurtegiko gailurra eta atzean Beoin eta Aldaon.

Aralar mendikateko gailurra. Malloen parte izan arren ez dago ardatz nagusian, baizik eta sartaldeko isurialdean, Arritzagako sakanaren gainean. Beoindik (1.350 m) mendebaldera dago, eta bien artean lepo txiki bat (1.278 m). Gailurra, Aldaonen (1.411 m) sartaldeko hegala osatzen duen Urkute edo Urgoitirekin (1.328 m) nahastu daiteke, eta hain zuzen ere, maparen batean, tontor honi Urgoiti izena jarri diote. Tontorrak dolina handi bat dauka hegoaldeko hegalean.

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Egurtegi (1.320 m)

Buzoia.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Elorrigaina (1.063 m)

Aralar mendikateko gailur honek Atako harana ixten du iparraldetik, ekialderago dagoen Akier edo Eguerdimuño (1.124 m) mendiarekin batera.

Ata ingurua eremu megalitiko garrantzitsua da. Besteak beste, Burnigurutze eta Seakoaingo trikuharriak daude bertan, baina monumentu nabarmenena Errolan harria da. Antzinako kondairek Errolan mitikoarekin lotzen dute harria.

Atako harana Aralar mendikateko alderik sortaldekoenean kokatuta dago, batez beste 950 metrora itsas mailatik gora. Haran estu horren beheko aldean pagadiek inguratutako larreak dira nagusi, eta denen gainetik kareharrizko tontorrak ageri dira.

Atara joateko lekurik garrantzitsuenak hauek dira: **Madotz** (765 m), Errolan Harri ospetsua ezkerrean uzten duen pista-bide batetik; Iribas (641 m), Burnigurutzeko lepotik (963 m), lepo nahastezina bertan dagoen burdinazko gurutzea dela eta; eta Uharte Arakildik (475 m) San Migel In Excelisuserako errepidea, errepidea santutegira heldu baino 2,5 km lehenago utzi eta Atako Arratera edo Zubigoiengo lepora (976 m) igotzen den bidea hartuta.

Atako bailaratik gailurrera igotzeko, basoan barrena eta harkaitz artean joan behar dugu Elorrigainak (1.063 m) eta Akierreko sartaldeko tontorrak

(1.107 m) osatzen duten lepora. Handik, lapiazean gora gailurrera igoko gara (Erraza); bertan, harkaitzen artean pago txikiak ageri dira.

Abiapuntuak: Madotz (1 h 30 m); Iribas (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Erlabeltzeko Puntie (1.312 m)

Gailurreria.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Erlabeltzeko Puntie (1.312 m)

Larrunarritik ikusita.

Larrunarri edo Txindoki (1.346 m) mendiko gailurraren aurreko tontor harritsu txikia, Aralar mendikatean.

Gainean gurutze txiki bat dago, Larrunarriko tontorretik erortzean hil zen Gasteizko San Inazio mendi-taldeko neska gazte baten omenez.

Gailurrera igotzeko biderik errazena Larrunarriko tontorrean hasi eta gandorretik doa (I). Ez da gomendagarria bide hori eguraldi txarra dagoenean edo euria zein elurra denean egitea.

Larrunarriren sartaldean, zenbait eskalada-bidek mendira igotzeko aukera ematen dute. Garrantzitsuena sartaldeko gandorraren eskalada

historikoa da (1956koa). Gandorraren beraren oinarrian hasten da, Ameztiko lepoan (961 m). Hasieran pauso errazak dauzka (II), diedro batera (IV) heldu arte. Ondoren, zenbait irtengune gainditutz (III) gandorraren ertzera iritsiko gara. Ebaki batera jaitsiko gara (III), eta amildegiaren gainean urrats bat emanez tximinia batean sartu eta handik igoko gara (III+). Hego-isurialdera pasatuko gara (III) eta, erlaitz batetik, berriro gandorrera eramango gaituen tximiniari ekingo diogu (III). Helduleku txikiko plaka lau bat aurkituko dugu (Frontoia deituriko pausoa), eta gero hego-isurialdera jaitsiko gara. Belarrezko kanal batek (II) irteerako diedrora eramango gaitu; diedroan eskuinetik sartuko gara (IV) eta zuzen jarraituko dugu. Bidea ixten digun hegalkin bat agertuko zaigu eta ezkerretik saihestuko dugu (IV). Belarrezko aldapa batera irtengo gara (II+) eta han gandorra hartuko dugu. Zenbait irtengune errazetatik (I) Erlabeltzeko puntara (1.312) helduko gara, eta ondoren Larrunarrira (1.346 m). (350 m, Zaila)

Hego-isurialdean honako bideak nabarmenduko ditugu: Frontoi bidea (120 m, Oso Zaila), hiru luzekoa, lehenengoa eta azkena errazak dira baina arriskutsuak (III+), eta erdikoa 40 metroko plaka tentea da (V, A1); Hegoaldeko ezproia (Zaila, 120 m); Petrel bidea (Nahiko Zaila gorena, 120 m); Plaka horiak (Oso Zaila, 60 m) eta Hegoaldeko uharra (Erraza gorena).

Abiapuntuak: Larraitz (iraupena, bidearen araberakoa).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Errenaga (1.282 m)

Arbeloko landetatik ikusita.

Aralarko gailurra, mendizaleen artean nahiko ezaguna. Jende asko joaten da, Guardetxetik Errenagako aterpetxeetara doan pista gailurretik igarotzen baita. Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga da, eta sartaldeko isurialdean Errenagako aterpetxeak eta Aralarko Andra Mariren baseliza babesten ditu. Aterpetxeetako bat publikoa da (bertan lo egin daiteke). Mendi honetan aduana jarri zuten lurraldeen arteko merkantzien joan-etorria zaintzeko. Sasoi hartako mikeleteen etxea 1928an eraiki zuten, eta

gaur egun Aralarko lagunen aterpetxea da. Nafarroan Ernara izena erabiltzen dute.

Guardetxetik doan bidea (1.035 m) oso klasikoa da. Basoko etxe hori Erregeneako pagadietan dago, Lekunberritik Aralarko San Migelera doan asfaltozko pistaren 13. kilometroan. Kolosabarneako (1.140 m) pasabide harritsutik pista bat doa Intzazelaiko landetaraino (askotan, oker, Pagomari deitutako landak). Lehen autoz heldu zitekeen horraino (edo aurrerago). Pistak Saltamuñoko atakaraino (1.240 m) jarraitzen du. Gailurrera igotzeko aski da belarrezko gandorra jarraitzea.

Lizarrustiko portuan (622 m) edo Lakuntzan (460 m) Errenaga ingurura heltzeko **ibilbide interesgarriagoak** hasten dira. Lizarrustiko gaina baino apur bat lehenago, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugan, Etxarri Aranatzerantz dagoen bihurgune itxi batean hasten da ibilbidea (570 m). Pagadian bidexka bat sartzen da eta Kalelantegi edo Etxarri Aranazko pasabidera (1.189 m) doa. Urrustatsoko lepoan (1.211 m) basotik aterako gara, eta Larretxiki eta Ormazarretako zelaietatik Otsoarrateko pasabidera (1.230 m) helduko gara. Hantxe gandorretik abiatuko gara, eta Kargalekuko gainetik (1.253 m) eta Saltamuñoko atakatik (1.240 m) gailurrera iritsiko gara.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 15 m); Lizarrusti (2 h 15 m); Lakuntza (3 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lakuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Errenaga (1.282 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Errenaga (1.282 m)

Aralarko baseliza Errenagan.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Errenaga (1.282 m)

Errenagako aterpetxe librea (Igaratza).

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Errenaga Txiki (1.277 m)

Saltamuño atakatik ikusita.

Aralar mendikateko gailur xumea, gehienak bertan dagoela ere ez dira konturatzen. Errenaga edo Ernara mendiko (1.288 m) gailurraren aurreko tontorra da. Errenaga ezagunagoa da, aterpetxeen (1.220 m) gainean baitago eta Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga baita. Bustiitako lepo txikiak (1.268 m) tontor biak banatzen ditu. Errenaga Txikitik mendebaldera Saltamuñoko ataka (1.240 m) dago.

Erregeneako **Guardetxean** (1.035 m), Lekunberritik 13 kilometrora, Kolosobarneako pasabide harritsutik (1.185 m) Intzazelai edo Pagomariko landetara (1.155 m) doan pista zabala hartuko dugu. Gorantz jarraituta Mandarrateko pasabidera (1.230 m) helduko gara, eta Ormazarretako zelaiak ezkerrean utzita, Errenaga edo Ernarako muinoan (1.288 m) dagoen Saltamuñoko atakara (1.252 m) igoko gara. Beherago aterpetxeak daude. Eskuinetik, Errenagaren aurreko tontorra den Errenaga Txikiko gailur apalera (1.277 m) iritsiko gara.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Etitzegi (1.196 m)

Aralar mendikateko gailur harritsu txikia. Etitzegiko lepoaren (1.146 m) (hegoaldean) eta Otolakoaren (1.167 m) (iparraldean) artean.

Larraoneko tontorretik (1.198 m) gertu dago, baina inondik ere ez dauka beste horren itxura. Mendiari izena eman dion Etitzegiko lepoaren beste aldean Uzkuitiko gailurra (1.332 m) dago, iparraldean belarrezko malda pikoa eta guzti.

Mendikateak zirkuluerdia egiten du Larrunarri (1.346 m) eta Larraone (1.198 m) artean eta Muitzeko zirkua osatzen du. Zirkua, mendi zorrotz eta harritsu bi horiek banatzen dituen Muitzeko sakanaren goiko aldea da. Inguruotatik jaisten den errekak ur-jauzi txiki ugari eratzen ditu euri edo elur sasoietan.

Larrunarriko tontorraren (1.346 m) igoera alde honetatik, kontrako isurialdean egin daitekeena baino politagoa eta originalagoa da. Gainera, bide bakartiagoa da, jendetzarik gabekoa.

Abiapuntuak: Larraitz (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Etitzegi (1.196 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Etitzegi (1.196 m)

Ipar-isurialdea.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Etitzegi (1.196 m)

Zaldiak Otolan bazkatzen eta atzean Etitzegiko gailurra.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Eulatz (1.281 m)

Eulatz Desao ingurutik.

Aralar mendikateko gailur hau nahiko ezezaguna da, baina ondo bereizita dago. Benetako toponimoa Intzazelai izan arren mendizaleok, oker, Pagomari (1.155 m) izendatzen dugun tokitik oso hurbil dago. Parke Naturala sortu aurretik honaino autoz heltzea ohikoa zen, eta inguru hau aparkaleku moduan erabiltzen zen. Gaur egun debekatuta dago automobilez ibiltzea, eta Guardetxean (1.058 m) aparkatu behar da.

Guardetxetik Pagomariraino joateko 35 minutuko ibilalditxoa egingo dugu.

Pagadi itxi batek Eulatzeko tontorreko lapiaza estaltzen du, eta Aralar zaleak baino ez dira ohartzen gailur honetaz. Ipar-ekialderantz Txamenira lotuta dago Ipuzmeakako lepo eta muinotik (1.216 m).

Guardetxetik (1.035 m) Intzazelaira (1.155 m) joan behar dugu, eta handik, mendiaren iparraldean dagoen Ipuzmeakako lepora (1.217 m) igoko gara bide garbitik. Gandorra hegoalderantz jarraituko dugu eta pagadian sartuko gara. Lehenengo Ipuzmeakako tontorrera (1.226 m) iritsiko gara eta ondoren Eulatzekora (1.283 m). Intzazelaira heldu baino lehen Kolosobarneako lepoa (1.139 m) dago harkaitzean. Bertatik tontorrera bide malkartsua dago pagadi itxian barrena.

Behe-lainoz, basoak estalitako lapiaz hauetatik ibiltzea zaila izan daiteke orientatzeko baliabide egokiak eduki ezean.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Eulatz (1.281 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Gañeta (1.323 m)

Malkorritik ikusita.

Aralar mendikateko gailurra, Enirioko sakana iparraldetik menderatzen duen Gañetako zirkua osatzen duten mendietako bat. Inguru menditsu honetako tontorrik garaiena gertuko Uarrain (1.343 m) izan arren, hau da ezagunena eta jendetsuena zalantzarik gabe. Mendebaldean dagoen muinotxo txikia Bustiako punta da (1.280 m) eta ez dauka inolako interesik.

Enirioko haranean Zaldibiatik (183 m) abiatzen den harrizko galtzada bat dago. Bidea Zaldibiako Arkaka txikiko biltegietan (450 m) hasten da. Galtzada jentilek egin zutela esaten da, eta Igaratzatik jarraitzen zuen, Errenaga, Intzazelai, Guardetxe, San Migel In Excelsius, Ata, Madotz eta Irurtzundik, eta handik Iruñea zaharrera eta Lizarrara. Ausa Gazteluko tontorreko gazteluak, 3.000 edo 4.000 urtekoak, komunikazio-bide hori babesten zuen.

Larraiztik (401 m) gailurrera igotzeko Alotzako zelaietatik joan behar da.

Guardetxetik (1.050 m) hasiz gero Irazustako leporantz (1.264 m) joan beharko dugu Errenagako aterpetxeetatik.

Zaldibiatik (183 m), Uiduiko larrera (860 m) iritsiko gara biltegietatik; larre hori Aralarko handienetakoa da eta zenbait trikuharri daude bertan, tokiaren antzinatasunaren lekuko. Zearregoenako trikuharritik (1.024 m)

igaroz igo behar da. Iparralderantz joanda lautada batean dauden Uelogoenako trikuharrietara (1.085 m) helduko gara. Gorago, Bustiako puntaren (1.280 m) eta Gañetaren (1.323 m) arteko lepo txikira (1.265 m) iritsiko gara, eta bertatik tontorrera ez dugu inolako zailtasunik izango.

Abiapuntuak: Zaldibia (2 h 30 m); Larraitz (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Gañeta (1.323 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Gaztelu (1.085 m)

Malloak, Araizko bailaratik gora mila metro baino gehiago igotzen den harrizko mendi-hegalaren izena da, eta Aralar mendikateko lekurik interesgarrienetakoa da.

Lehen tontor malkartsua Arriolatz (1.175 m) da, baina hori baino lehenago basoz guztiz estalitako mendi bi daude: Gaztelu (1.085 m) eta Txurtxur (1.063 m).

Pagadian sartzean benetan antzemango dugu bertako erliebe indartsuaren itxura, ordura arte landaretza-estalkiaren azpian ezkutatuta egongo baita. Ziurrenik, baso hori dela eta ez da etortzen hainbeste mendizale hona, eta gehienek nahiago dituzte tontor garbi eta dotoreak, Ttutturre (1.282 m) esate baterako.

Hain zuzen ere, Etzantzako zelaietatik, pagadiak estalitako kuxin-itxurako gailurrak ematen dute, baina benetan ez da guztiz horrela. Hainbat gailurrek daukate gaztelu hitza izenean, gehienetan, gotorleku naturalen itxura daukatelako edo tontorrean gaztelu-motaren bat egon zelako edo hala uste delako. Mendi hau lehen multzokoa da. Gaztelu, ia dozena pare bat metroko kareharrizko horma da, eta aurrez aurre dagoen Arriolatzen (1.175 m) gailurreriak osatzen duen ardatzarekiko paralelo jarrita dago. Argitu beharra dago Malloen alde honetako gailurrerien orientazio nagusia IE-HM dela, eta halakoa da Arriolatzen, Zubizelaigaine-Uarrainen, Albortan, Ttutturen, Pardarri-Aitzearren eta abarretan. Lekurik garaiena aurkitzea nahasgarria izan daiteke, baina mendebaldeko isurialdearen gainean dagoen horma itxurako harkaitz bat dela argitu behar da; handik Arriolatzen gailurreriaren ikuspegia dago. Horma horretatik gora tximinia bat dago eta bertatik zuzen eskalatu daitezke hamabost bat metro (Nahiko Zaila gorena).

Baraibarren (624 m), Izarritako errepikagailura (903 m) doan pista hartuko dugu. Ondoren bide balizatutik mendebalderantz jarraituko dugu Belutako langaraino (930 m) eta gero hego-mendebalderantz joko dugu. Pagadia nahasgarria izan daiteke, behe-lainoz batez ere, eta lapiaz malkartsuak zeharkatu beharko ditugu tontorrera zuzenean igotzeko. Hori dela eta, komenigarria izan daiteke Prantses errekako arrora doan bidea jarraitzea eta Olatxikiko bordaren (1.043 m) inguruetara heltzea, Gaztelu (1.085 m) eta Arriolatzen (1.175 m) artean. Handik errazagoa izan daiteke gailurra aurkitzea.

Albiko zelaietatik (982 m) abiatuta beste ibilbide batzuk egin daitezke. Handik joanez gero, Urdangoeneko lepoa (1.192 m) zeharkatuko dugu, **Txameni** (1.299 m) eta Belokiren (1.271 m) artean, eta bertatik, Olatxikiko bordara jaitsiko gara Etzantzatik. Borda gailurra baino lehentxeago dago.

Abiapuntuak: Baraibar (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Hirupagoeta (1.235 m)

Puttarritik (1.299 m) iparraldera dagoen gailurra. Mendi bien artean Kalelantegi edo Etxarri Aranazko lepoa (1.187 m) dago.

Elkorriko bihurgunetik (580 m), Lizarrustiko portua (621 m) baino beheraxeago, Kalelantegiko lepora (1.187 m) igotzen den bidea hartu behar da.

Ezkerretik tontor txiki honetara iritsiko gara.

Eskuinetik Puttarrira (1.299 m) igoko gara. Beste mendi xume batzuk nahiko hurbil daude, eta guztietatik igaroz ibilbidea egin daiteke inguruotatik: Aparein (1.261 m), Uazkuru (1.249 m) eta Kargaleku (1.253 m).

Abiapuntuak: Lizarrustiko portua/Elkorri (1 h 35 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Hirupagoeta (1.235 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzartzu (811 m)

Arastortzeko gainetik ikusita.

Altuera apala daukan arren, Aralar mendikateko tontorrik aldapatsu eta malkartsuena da.

Iparralderantz sakonune okertua osatuz Arratetako pasabidetik (265 m) Aralegiko leporaino (612 m) doazen Intzartzuko Haitzen erdialdean dago. Haitzek Aralegiko zirkua iparraldetik ixten dute, eta honakoak dira bertako tontorrik nabarmenenak: Aizkoate (774 m), lehenengo gailurra Aizkoateko pasabidetik (620 m) ekialderantz; Intzartzu (813 m), tontor dotorea, harrizkoa isurialde bietatik; eta Arastortzeko gaina (832 m), garaiena, belarrezko gailurra dauka eta mendi-hegal aldapatsuetatik Aralegiko lepora (612 m) jaisten da.

Hego-isurialdean **eskalada-bide labur batzuk** daude, eskolakoak. Gandorraren zeharkaldia Aizkoatetik (620 m) ez da zaila (Erraza). Pauso bat (II) baino ez dugu gainditu beharko ertzera heltzeko. Handik Aizkoateko tontor txiki eta apalera (744 m) iritsiko gara eta ertzetik haitzeko gailurrera igoko gara, amildegien gainean.

Arastortzeko gaineko (832 m) tontorrera igotzea erraza da tarteko lepotik (762 m) joanez gero. Amildegien gainetik doan ibilbide honek Aitzarteko haran ezkutua ikusteko aukera emango digu; haranak Arratetako sarbide naturala (270 m) baino ez dauka. Arratetako iparraldeko ezproian Jentilbaratzeko eskalada-eskola dago.

Iparraldetik gailurrera heldu gaitezke, Ataun San Martindik Errekarte edo Ameztiko lepora (550 m) igotzen bagara.

Abiapuntuak: Amilleta baserria (1 h 15 m); Aralegiko lepoa (1 h 15 m); Ataun San Martin (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzartzu (811 m)

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzartzu (811 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzako Dorrea (1.431 m)

Aralar mendikateko gailurrik garaiena da, ondorioz, ezagunenetakoa eta jende gehien hartzen duenetakoa da, Larrunarri edo Txindokirekin (1.346 m) batera.

Tontorra Nafarroan dago, baina Gipuzkoako mugatik oso gertu. Irumugarrieta izenez ere ezaguna da, baina ez da zuzena, toponimo hori gailurretik HMrantz 100 metrora dagoen toki bati baitagokio. Izenak berak dioenez, leku horretan hiru eremu banatzen dituen mugarria dago: Gaintza, Intza eta Erregenea.

Elkomuts izena ere gutxitan erabiltzen da mendi honetarako.

Bide arrunta nahiko erosoa da. **Guardetxetik** (1.035 m) abiatzen da, Lekunberritik Aralarko San Migelerako errepidean. Handik Intzazelai edo Pagomariko landetara (1.155m) doan pista hartuko dugu. Bideak aurrera egingo du Errenagako tontorretik (1.288 m) igaroz, Gipuzkoako mugan, azpian aterpetxe ezagunak ditugula. Pagotako mendixka xumetik (1.271 m) muinoa jarraituz Trikuharriko lepora (1.243 m) jaitsiko gara; hantxe, herrialdeen arteko mugan bertan, trikuharri bat dago. Tontorra aurrez aurre dugu, eta iparraldetik igoko gara haraino.

Tontor handi honetara 1.000 metro beheragoko Araizko bailaratik ere igo gaitezke, Gaintzatik (388 m) edo Intzatik (313 m) hasita. Bietako edozeinetatik abiatuta Baratzailgo lepora (1.305 m) igo beharra dago, tontorraren mendebaldean.

Intzatik doan ibilbidea zaindu gabe dago eta sasiz beteta, beraz, hobe dugu Gaintzatik hastea.

Amezketatik (201 m) **doan ibilbide luzea** ere aipatu beharra dago. Bidea Aritzagako sakanaren beheko aldetik doa. Amezketan, Berazeagako zubitik (470 m) eta Anduitzeko bordatik (569 m) abiatuko gara, eta Saltarriko hegalean dagoen Anduitzeko haitzorrotzaren azpitik joango gara. Gorago, bidea sigi-saga doa Akelo ingurunetik eta Bizutsako ur-jauzira helduko da. Jauzitik behera ura Betelutseko ubidetik doa. Azkenik, bideak kareharrizko irtengune bat gaindituko du, Basaizko arratea (850 m), eta Aritzagako meategietara eta meatzarien antzinako herrixkaren hondarretara (935 m) eramango gaitu. Gorago Pardelutseko iturrira (1.050 m) iritsiko gara, eta geroago Ama Birjin harrira (1.125 m). Harkaitz horretan ama birjinaren irudi txiki bat dago, eta artzainek txanponak eskaintzen dizkiote ardiren bat galtzen dutenean. Azkenik Igaratzako arratea (1.190 m) zeharkatuko dugu eta Igaratza adierazten duen zutoinera (1.190 m) helduko gara. Handik Trikuharriko lepora (1.243 m) azkar eta erraz igoko gara, behe-lainorik ez dagoenean behintzat.

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h); Gaintza (2 h 15 m); Intza (2 h 30 m); Amezketa (3 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzako Dorrea (1.431 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzako Dorrea (1.431 m)

Tontorra Irumugarrieta izenez ere ezaguna da, baina ez da zuzena, toponimo hori gailurretik HMrantz 100 metrora dagoen toki bati baitagokio. Izenak berak dioenez, leku horretan hiru eremu banatzen dituen mugarria dago: Gaintza, Intza eta Erregenea.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzako Dorrea (1.431 m)

Anduitzeko haitzorrrotza.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Intzako Dorrea (1.431 m)

Ipar-isurialdea Araziko bailararen gainean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Kargaleku (1.253 m)

Aralar mendikateko gailurra, mendikatearen erdialdean dauden Errenagako aterpetxeetatik hurbil.

Akaitz menditik (1.079 m) Jazkurura (1.250 m) eta Kargalekura (1.253 m) igo eta Errenagako tontorrean (1.288 m) amaitzen den mendigunean dago.

Mendebaldean Otsoarrateko pasabideak (1.233 m) mugatzen du mendi hau, eta ekialdean Saltamuñoko atakak (1.240 m).

Lehen lepo horretatik, Lizarrustitik (622 m) Errenagarako bidea doa. Bigarrenetik, Guardetxetik (1.035 m) datorren bidea igarotzen da. Ondorioz, ibilbide hauek tontorrera heltzeko egokienak dira.

Mendi honen hegoaldean, Nafarroako lurretan, Ormazarretako zelaia dugu. Bertan, Ormazarreta II leizea dago, Aralarko sakonena eta luzeena: 576 metro sakon da eta 6 kilometro baino luzeagoa. Leizearen sarrera Mandarrateko pasabidetik (1.230 m) 300 metrora dago.

Kargaleku toponimoa, Ormazarreta eta Larretxikiko zelaietan egin zituzten harrobi-lanetatik edo meategi-laginetatik dator.

Abiapuntuak: Lizarrusti (2 h 15 m); Guardetxea (1 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Kargaleku (1.253 m)

Kargalekuko gailurra.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Kobagaina (1.324 m)

Aralar mendikateko gailur txikia, ia ez dago bereizita ondoko Arbelo tontorretik (1.332 m). Mendiak aho biribileko kobazulo bat dauka eta horrek eman dio izena. Haitzuloa Kuebakoa haranean dago. Haran horrek, mendia eta Aldaondik (1.411 m) datorren Urkute mendixka (1.328 m) banatzen ditu.

Abiapuntuak: Amezketa (2 h 30 m); Guardetxea (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Kobagaina (1.324 m)

Gailurra.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Kurutzeaga (1.308 m)

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Aralarko tontor nagusia den Intzako Dorretik edo Elkomutsetik (1.431 m) 1.500 bat metro ekialderago dago. Arrutako lepoa (1.258 m) gertu dauka, eta handik igarota, tontorra baino 1.000 metro beherago dagoen Araizko bailaratik igo daiteke. Arrutako gaina edo Arrutako Kaxkoa ere esaten diote gailurrari.

Guardetxea (1.035 m) leku egokia izan ohi da Aralarko tontorretara igotzeko, baina badira igoera alpinoagoak eta interesgarriagoak, Araizko bailaran hasten diren guztiak esate baterako.

Intzatik (313 m), bide bakarti batek Arrutako lepora (1.258 m) eramango gaitu; bertan, Basaungo iturria dago. Handik, gailurreriatik igoko gara tontorrera inolako arazorik gabe. Guardetxetik datorren bidea Unagako putzutik (1.175 m) doa, eta haraino Pagomaritik (1.155 m) eta Desamendi (1.310 m) eta Desamendi Txikiren (1.249 m) arteko Urrutiko lurriñako lepotik (1.216 m) heltzen da. Bestela, Desamendi Txiki eta Txameniren (1.299 m) arteko Lekoaingo pasabidetik (1.198 m) ere joan gaitezke Unagako putzura.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 30 m); Intza (2 h 30 m).
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Kurutzeaga (1.308 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Labeongo Punta (1.293 m)

Igaratzako lautada eta Labeongo ezproi harritsua.

Aralar mendikateko gailurra, Aritzaga sakaneko goiko aldean.

Etzaalgo gailur apaletik (1.302 m) doan gandorrak Labeongo Punta eta Arbelo (1.332 m) banatzen ditu, Igaratzako lautaden gainean. Ez da guztiz bereizitako mendia, baina talaia bikaina da.

Tontorraren iparraldean, Arritzagako sakanaren barrenean, Aintziriko ordeka dago, eta bertan, Pardelutseko txabolak. Handik gailurrera igo daiteke Amezketatik (201 m) etorriz gero.

Guardetxetik (1.050 m), Igaratzako arratera (1.176 m) joan behar dugu Errenagako aterpetxeetatik. Handik, tontorrerantz igoko gara maldaren erdialdetik, eta Etzaalera (1.302 m) irtengo gara edo Labeondik banatzen gaituen atakara (1.283 m).

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h); Amezketa (2 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Labeongo Punta (1.293 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lecuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larraone (1.198 m)

Larraone-Etitzegiko multzo harritsua Egurralgo lepotik.

Aralar mendikateko gailur ikaragarria.

Muitzeko sakanaren beste aldean hurbil dagoen Txindoki edo Larrunarriren (1.346 m) basatasunaren antzekoa dauka. Tontorrak aipatutako sakana eta Arritzagakoa banatzen ditu. Txindoki eta Larraoneko tontorrak batera hartuta Amezketako Malloak izendatu izan dituzte, Nafarroan, Araizko bailara menderatzen duten Malloekiko parekotasunagatik.

Gailur dotore honetara **igotzeko Larraiztik** (401 m) **hasi** eta Muitzeko sakanetik joan gaitezke. Bestela, Amezketatik (201 m) abiatuko gara eta aipatutako sakana edo Aritzagakoa aukeratu ahal izango ditugu.

Bigarrenetik joanez gero, Ondarreko langara (775 m) heltzean, zuzenean igo behar da Etitzegiko lepora (1.146 m), eta ondoren, hurbil dagoen Otolako pasabidera (1.167 m). Pasabide bi horien artean Etitzegi (1.196 m) tontorra dago, Larraone baino apur bat txikiagoa. Otolatik inolako arazorik gabe helduko gara tontorrera.

Sortaldeko ertzetik, hau da, Urdanaitzeko ertzetik doan **ibilbidea alpinoagoa** da. Arritzagan hasten da eta 350 metroko desnibela dauka (Erraza).

Abiapuntuak: Larraitz (2 h); Amezketa (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larraone (1.198 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lecuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larrunarri (1.346 m)

Aralar mendikateko, eta ziurrenik Gipuzkoako, tontorrik ezagunena da eta gehien igotzen dena. Euskal Herriko mendirik bereizgarri, eder eta ezagunenetakoa da, eta gehiegizkoa izan arren, Aralarko Cervino ezizena ere jarri diote.

Jatorrizko izena Larrunarri da, edo Ñañarri, haren laburdura. Gailurraren ekialdean, Amezketako lurretan, Txindoki izeneko artzain-txabola dago erortzekotan. Txindoki, beraz, ez da tontorra, eta izatekotan ere, Txindokiko punta izango litzateke. Mendi zorrotz eta misteriotsu honen inguruko kondairen arabera, Mari jainkosak bere bizileku ugarietako bat hemen izan zuen (Marizulon), Euskal Herriko beste mendi nabarmen askotan bezala, hala nola, Gorbeian, Anboton, Puttarrin, Murumendin, Aketegin... Larrunarri, noski, derrigorrezko erreferentzia da Gipuzkoako Goierrin, zerua urratzen duen lantzaren punta da. Aralar azpiko jendearen irudimena askarazi du aro guztietan, eta milaka urtetan bizi izandako erlijio-kulturaren inspirazio-iturria izan da.

Haitz-puskaren oinarrian Larraizko santutegia (401 m) dugu, gailurra baino ia mila metro beherago. Tailua XII. mendekoa da, eta

Abaltzisketako elizan gordeta dago; baselizan ikusiko duguna XIV. mendeko beste bat da.

Larraitzera **Zaldibiatik** edo **Alegiatik** iritsiko gara autoz. Larrunarrira igotzeko abiapunturik garrantzitsuena da.

Larraizko lautadatik (401 m), aparkalekua zeharkatu eta Zumuako langa igaroko dugu. Hesiaren beste aldean, pistak eskuinerantz jotzen du, eta mendiaren ipar-isurialdea inguratuz gorantz hasten da.

Bidearen ezkerraldean Neskarri dago. Harri horrek neska bat harrapatu omen zuen azpian, leku horretan zegoen iturritik ura hartzekotan zegoela. Bertako iturburua zein iturria desagertu egin ziren.

Pista Urruztiko sakanerantz doa, eta ezkerretik jarraituko dugu Gaztesuiko langa (540 m) gurutzatu arte.

Bidean aurrera, mendebaldeko isurialderako pasabidera helduko gara, Amiztiko harkaitzera (610 m). Han beste hesi batekin topo egingo dugu. Bidexka, sarritan lokatzezkoa, gorantz doa pinudi txiki bat eskuinean duela; Labaingo inguruan gaude. Denbora laburrean Oria iturrira (860 m) helduko gara.

Gainean dugu Larrunarri, baina haraino igotzeko, bide arruntak itzulingurua egingo du. Bidexkatik jarraituta hesi bat zeharkatuko dugu eta eskuinerantz igoko gara Zigarate edo Ziateko larreetarantz. Lehen zelaia Ziate behekoa da (920 m), eta gainean dugun gandorra igaro eta gero helduko gara hara. Gero, ezkerrerantz ibiltzen jarraituko dugu eta bidearen ondoan iturri bat utziko dugu Ziate Goikoara (1.008 m) iritsi aurretik. Bideak inolako arazorik gabe eramango gaitu une oro.

Ezkerrean, sakonune baten barrenean babestuta, Elutsetaneko larrea (1.086 m) dago. Gero, ozta-ozta Zaldiarrateko lepoaren (1.148 m) azpitik igaroko gara, eta harrizko ingurunea (1.173 m) atzean utzita Egurralgo lepora (1.154 m) iritsiko gara. Pixka bat beherago izen bereko larrea dago.

Belarrezko malda piko bat baino ez zaigu geratzen tontorreraino. Bertatik doan bidexka jarraitu besterik ez dugu egingo eta gailurraren eskuinaldean dagoen lepo batera (1.290 m) irtengo gara. Handik gora gandor errazetik joango gara gain-gainera heldu arte. Gailurreriatik jarraituta erraz iritsiko gara gurutzea daukan Erlabeltzeko puntara (1.316 m).

Muitzeko ibilbidea **beste aukera bat** da. Handik joanda goian azaldutako bidearekin bat egingo dugu. Igoera honetan mendikateko ingururik erakargarrienetakoa zeharkatuko dugu: Muitzeko sakana eta zirkua. Bide arruntean bezala hasiko dugu ibilaldia. Gaztesuiko langa (540 m)

zeharkatu eta gutxira bidexka bat hartuko dugu ezkerrerantz. Zidor horrek zeharkaldia egiten du kontrako norabidean, ipar isurialdean, Urtzabalgo zelaietatik. Bidean aurrera Urtzabal goikoko lautadara iritsiko gara. Erraz jakingo dugu non dagoen, harrizko itxitura bat baitago han. Bertara heltzeko laburragoa da Larraiztik Urtzabal goikoan dagoen antenara zuzen igotzea.

Bidezidorrak Mallaki ingurua zeharkatzen du, eta Larrunarri (1.346 m) eta Larraone (1.199 m) arteko sakan zoragarrian sartzen da, Muitzeko erreka edo Punteango erreka izenekoan. Sigi-saga egingo dugu gorantz, ibilbide ederretik, ubidearen jaitsiera malkartsuak osatzen dituen ur-jauzien ingurutik. Muitzeko langa zeharkatu eta Muitzeko zirku belartsuaren oinarrira helduko gara, izena ematen dion artzaintza-larrearen ondoan.

Arrategorriko pasabidea zeharkatuko dugu, mendi-hegalean. Bertatik Marizulo kobara joaten da. Txindoki bordaren hondarren albotik igaroko gara (borda hori erabili da mendia izendatzeko, baina ez da oso zuzena). Egurralgo larretik izen bereko lepora (1.154 m) iritsiko gara, eta handik gailurrerako igoerari ekingo diogu.

Ibilbide alpinoagoak ere badira. Ipar-isurialdea erraza da eta egiteko modukoa (Erraza gorena). Bidea Larraizko landen gainean dagoen antenatik hasten da, Urtzabal goikotik. Azkenean, belarrezko kanal pikoetatik mendebaldeko gandorrera irten behar da. Mendebaldeko gandorrean eta hego-isurialdean maila handiagoko eskalada-bideak daude (begiratu Erlabeltzeko puntako azalpenean dagoen zerrenda).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net
Erref. grafikoa: Ostoaren artxiboa.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larrunarri (1.346 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larrunarri (1.346 m)

Buzoia gailurrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larrunarri (1.346 m)

Txindokiko sartaldeko gailurreria. Hegoaldeko hegalean mendiko oinarriko jalkinak nabarmenak dira: gailurreriatik jausten diren harriek osatutako hartxingadiak. Neguko hotzak eta udamineko eguzkiak hurrenez hurren eragindako uzkurduren eta dilatazioen eraginez, eta urak izoztean egiten duen falka-efektuaren ondorioz, haitza pitzatu egiten da, eta aipatutako hartxingadiak dira horren emaitza.

Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa.

ZENBAIT IKUSPEGI

Larrunarri (1.346 m)

Txindoki, Muitzeko goiko aldetik. Beste behin ere kareharrizko geruza urgondarrak ikus daitezke, antiklinalaren ipar-isurialdea sortzen dutenak hain zuzen ere.

Erref. grafikoa: Etor-Ostoaren artxiboa.

ZENBAIT IKUSPEGI

Leitzadi (921 m)

Mugarri geodesikoaren hondarrak gailurrean. Atzean Arastortzeko gaina.

Aralar mendikateko gailurra, Ataun San Gregoriotik Biarrateko atakaraino (750 m) Leitzaditik (952 m), Agaoztik (887 m) eta Sarastarritik (996 m) doan kareharrizko gailurrerian dago.

Leitzadiko tontorra (952 m) pagadiz estalita dago, baina ikuspegia dauka iparralderantz. Gailurra baino 200 bat metro beherago Leizebeltzeko sarrera-aho izugarria dago. Tontorraren mendebaldean dagoen harrizko muino txikia Aitzeta (930 m) da, eta ez dauka interes handirik, ez baitago oso bereizita.

Leitzadi izenak (*leize-di*) inguruotan dauden koba, leize eta harpe ugariei egiten die erreferentzia. Haitz hauen goiko aldea jentilen bizileku izan omen zen. Jentilak, ikaragarrizko indarra zeukaten izaki mitologikoak ziren. Harriak leku urrunetara eramateko jaurti egiten zituzten. Behin batean, zeruan oso izar distiratsua azaldu zen. Jentilak, elkartu, eta hark esanahirik ba ote zeukan galdetu zioten zaharrenari. Zaharrak ezin zituen begiak zabaldu, eta beste jentilek lagundu behar izan zioten begiak irekitzen palanka eginez. Izarra ikustean, zaharrak esan zuen: Kixmi

dator, gure aroa amaitu da! Bota nazazue amildegitik behera!. Hala egin zuten jentilek, eta pixkanaka denak lurrazaletik desagertzen joan ziren.

Abiapuntuak: Urkillaga (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Santi Usabiaga.

ZENBAIT IKUSPEGI

Madalenaitz (860 m)

Mendi xume baina ikaragarria, Aralar mendikateko alderik hegoaldekoenean. Badirudi Santa Magdalenaren omenezko baseliza bat egon ei zelako daukala izen hori, eta ez mendiaren morfologiak jateko magdalena baten itxura daukalako.

Benetan mendi luzanga bat da, Aralar mendikateko elementu tektoniko handi bat. Mendi-hegalak nahiko malkartsuak dira eta landaretza ugari daukate (ezpela). Ipar-isurialdea hormatzar lau bat da, eta apur bat kanporantz irtenda dago. Tontorrean bat egiten duten kareharrizko ezproi ugariek zailtasun tekniko handirik gabe igotzeko modukoak ematen dute, baina zikin itxura daukate. Mendebaldeko ezproiak, zehazki, ez dauka inolako zailtasunik (Erraza). Dena den, igoera arrunta, Olazabalgo atakatik (675 m) gailurreria luze eta zabala mendebalderantz igotzean datza. HMko isurialdearekin lotutako toponimo batek (Burteko txamenie), Irañetatik gailurrera zuzenean igotzen zen bide bat zegoela pentsarazten digu.

Olazabalgo atakara **Hiriberritik** (448 m) joan behar da. Ekialdean harrizko monolito polit eta ikusgarria daukan V formako sakanean sartu beharra dago. Bestela, haran horretako eskuineko ezproia ere igo daiteke erraz eskalatuz (Erraza). Ezproi horren oinarrian iturri bat dago, eta pixka bat gorago bertan behera utzitako txabola bat. Handik zuzen irtengo gara tontorrera (759 m), Olazabalgo atakaren gainean. Sakana zein den jakiteko, landa eder baten erdian dagoen Berastegiko baseliza erromanikoa hartuko dugu erreferentzia moduan, sakana haren ekialdean baitago.

Uharte Arakildik (470 m), Aralarko San Migelerako pista Mikel Berriren baselizatik hartuta, Urrunzureko sakanean sartuko gara, gailurraren

iparraldean. Olazabalgo leporaino, mendiak osatzen duen kareharrizko frontoiarekin liluratuta joango gara. Lepotik tontorrera igoko gara.

Abiapuntuak: Hiriberri (1 h 45 m); Madotz (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Madalenaitz (860 m)

Mendebaldeko isurialdea.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Madalenaitz (860 m)

Hego-isurialdea.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Malkorri (1.329 m)

Gañetako zirkuko erdiko gailurra, Aralar mendikatean. Antxitxardiko punta ere esaten diote. Jesus Elosegik bildu zuen Malkorri toponimoa, baina

Uiduiko larre hurbileko artzainek ez dute inoiz entzun. Dena den, izen horrek tradizio handia dauka mendizaleen artean, eta horren lekuko gailurrean zegoen aspaldiko buzoia (1943).

Uiduiko larrea (870 m) Enirioko sakanekoetatik garrantzitsuena da. Gañetaren (1.323 m) HMan dago. Inguruan dauden trikuharriek eta historiaurreko bestelako arrastoek (iruinarriek), gizakia duela milaka eta milaka urtetik hemen ibili dela adierazten digute.

Inguruaren garrantzi espeleologikoa ere ez da ahaztu behar. Malkorriko lezea (1.265 m) 289 metro sakon da (30T 574870 4761210). Gañeta mendiaren inguruan zenbait haitzulo txikiago daude (Aizeako arzuloa eta Aizeako leizeak). Bustiako puntaren (1.280 m) ingurumarian Bustiako leizetxikia dago.

Zaldibiatik (165 m), errepide bat Arkaka txikiko biltegietara (485 m) doa, eta Enirioren aurrez aurre jarriko gaitu. Uiduira (870 m) iritsiko gara, baina bidea ez da han amaituko. Olasoroko larretik (1.005 m) Igaratzaraino (1.193 m) jarraitzen du, Gañetako zirku osoa hegoaldeko isurialdetik inguratuz.

Hori dela eta, Uiduitik (870 m) Igaratzarantz doan bidea alde batera utziko dugu eta IErantz igoko gara, Zerregoena eta Uelegoenako hilobi-monumentuetatik hurbil. Diagonaletik zeharkatuko dugu gailurreriaren bila. Han, harrizko tontor txiki bat nabarmentzen da buzoi eta guzti: Ondar txuri (1.220 m). Gailur horretatik aldapan gora jarraituko dugu bide garbitik Malkorriren (1.329 m) ondora heldu arte. Tontor honetatik IErantz oso gertu itxura bertsuko gailur bat dago, hau baino txikixeagoa (1.320 m).

Larraiztik (410 m), Larrunarrirako ohiko bidea hartu, eta aurrerago utzi egingo dugu Alotzako zelaietarantz joateko. Zelaien sarreran Saltarri (1.116 m) iruinarri etzana ikusiko dugu. Aurrerantz joango gara omenaldi-monumentu bateraino (1.127 m). Bideak Irazustako leporantz (1.246 m) jarraitzen du, baina guk ez daukagu haraino zertan heldu. Monumentua igarota pixka bat gorago joango gara (1.185 m), eta bidea behin betiko utzita eskuinerantz igoko gara bide garbitik leporaino (1.253 m). Lepo horrek Gañeta (1.323 m) eta Bustiako punta (1.280 m) banatzen ditu. Gañetara (1.323 m) igo eta berehala dagoen lepora jaitsiko gara (1.302 m). Tarteko beste puntu batera (1.316 m) igo eta gero apur bat jaitsiko gara berriro (1.299 m), eta Malkorrirako (1.329 m) azken igoerari ekingo diogu.

Alotzako zelaietatik bestelako aukerak daude, tontorrera nahiko zuzen igotzeko modukoak.

Abiapuntuak: Zaldibia (2 h 45 m); Larraitz (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI



Malkorri (1.329 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Mendiaundi (1.307 m)

Irudiaren erdian, Pallarditik ikusita.

Araizko bailara menderatzen duen Malloako gailurreriako tontorra, Aralar mendikatean. Mendi honen eta Malloako gandor berean gertu dagoen Kurutzeagaren (1.308 m) artean lepo bat (1.261 m) eta dolinaz jositako haran bat daude.

Mendiaundi eta Atallorbe (1.275 m) mendien inguruotan Arkuek izeneko txaboletako batzuk ikus daitezke. Kupuladun txabolak dira, eta esaten dutenez, Jentilen bizilekuak omen ziren. Beste batzuen ustez, aldiz, artzainen aspaldiko bizitokiak ziren. Edonola ere, eraikin zoragarri horiek isilpean gordetzen dute sekretua mendiaren iparraldeko eta ekialdeko isurialdeetan, Argañetako karstaren gainean. XX. mendearen erdialdean mendikatean zebiltzan otsoak inguru horietan ezkutatzen ziren.

Guardetxetik (1.035 m), Pagomariraino (1.155 m) joan gaitezke pistatik. Iparralderantz jarraituko dugu Desaoko aterpetxetik (1.206 m) eta Urrutiko lurriñako lepotik (1.216 m), eta Unagako putzura (1.175 m)

jaitsiko gara. Azkenik, hegoaldeko mendi-hegal belartsuetatik gailurrera igoko gara.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Mendiaundi (1.307 m)

Zeontzako trikuharria eta atzean, eskuinean, Mendiaundi.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ondar-txuri (1.220 m)

Buzoia gailurrean. Mendixka txikia. Bitxia da Gañetako zirkutik igotzen den gailurreria baino metro bat eta pixka bat altuagoa besterik ez izatea. Dena den, norbaitek bertatik dagoen ikuspegi ikaragarria kontuan hartu eta buzoia jarri zuen mendizaletasunaren aldetik balio handirik ez daukan puntu hau markatzeko.

Tontorra Malkorritik (1.329 m) HMrantz dago, norabide horretan Eniriorantz jaisten den gandorraren gainean. **Uiduitik** (897 m) **abiatuta**, Malkorrirako (1.329 m) eta Uarrainerako (1.346 m) ibilbidea erabiliko dugu haitz xume honetara heltzeko.

Abiapuntuak: Zaldibia (2 h).

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ontzanburu (1.281 m)

Igaratzako zelaiak eta Ontzanburuko gailurra

Aralar mendikateko gailurra, Aritzagako sakanaren goiko aldea ixten du ezkerraldetik. Iparraldean, tontorraren aurretik dagoen gailurrak Muñotxikia (1.259 m) dauka izena, eta ez du interesik.

Pardarriren (1.396 m) ekialdean dago, eta Igaratzako arrateak (1.176 m) Arbelo (1.332 m) - Labeon (1.293 m) mendigunetik banatzen du. Igaratzatik bertatik igo daiteke, baina kontrako isurialdetik errazagoa da, **Olamuñoko landetatik**.

Pardarrik (1.396 m), Muñotxikitak (1.259 m), Ontzanburuk (1.283 m) eta Olamuñok (1.261 m) osatutako gailur-multzoak Otadizuloko sakonunea ixten dute.

Guardetxetik (1.035 m), Errenagako aterpetxeetarako (1.220 m) bide klasikoa hartuko dugu, eta ondoren iparralderantz jarraituko dugu, mendikatearen erdi-erdian dagoen Igaratzako lautada (1.190 m) zoragarriraino.

Ezkerrean, zelaietan kareharrizko geruza markatuak dauzkan muino bat dago: Ontzanburuko gailurra da. Inolako galbiderik gabe igo daiteke bertara zuzenean.

Amezketan (201 m) hasten den ibilbidea luzeagoa da. Aritzagako sakana zeharkatuz Igaratzako arrateraino (1.176 m) doa, eta handik gailurrera.

Abiapuntuak: Amezketa (3 h); Guardetxea (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ontzanburu (1.281 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Otsabio (801 m)

Uzturreko mendi-hegaletatik ikusita

Aralar mendikateko alderik sartaldekoeneko gailurra, Araxes eta Oria ibaien arroen artean. Eremu megalitiko garrantzitsua da, historiaurretik datorkigun artzain-kulturaren aztarna. Gainera, pagadiak eta hariztik dauzka oraindik, ez baitituzte pinuekin ordezkatu.

Harkaitzez eta basoz osatutako gailur hau Altzo (100 m) eta goragoko Altzo Muino auzoaren (217 m) gainean dago. Auzo horretan Migel Joakin Elizegi jaio zen, Altzoko erraldoia. Batere ohikoa izan ez arren 2Õ40 metro luze izan zen, eta 184 kilo eduki zituen. Ipintza Zaharra baserriaren ondoan pertsonaia horren tamaina bereko erliebea dago.

Altzo Muinotik (217 m) Otsabiora igotzeko Arrimako lepotik (330 m) joan behar da. Lepoa Elordiko muinotik (370 m) ekialdera dago eta gas-instalazio bat dauka. Bertatik zuzenean igo daiteke tontorrera. Oso ohikoa ez den beste aukera bat ere badago. Otsabioko (801 m) mendi-hegalak inguratzen dituen pista bat hartu behar da Artaerrekako harrobirantz. Arteaiko borda hondatura (493 m) iritsiko gara, harrobiaren mugan. Bideak kontrabandistek erabiltzen zuten galtzadaren arrastoak dauzka. Bertatik salgaiak Gipuzkoa eta Nafarroa artean eramaten zituzten zergarik ordaindu gabe. Aralar mendikateko larreetarantz zihoan ganaduak ere bide hau erabili ohi zuen.

Bidean gora, Arteain edo Austokietako lepora (745 m) iritsiko gara malda pikotik. Iparralderantz bidexka bat dago Muuneko tontortxoraino (789 m). Gailurra gertu dago; pagoz inguratutako haitza da. Arteaingo lepotik (745 m) ehiztarien paradez jositako gandor basotsua jarraitzen badugu Austokietagaineko gailurrera (767 m) iritsiko gara, eta handik Pagoaundiko lepora (727 m) jaitsiko gara; bertan tumulu bat dago.

Araxesko bailarako **Lizartzatik** (145 m) ere igo daiteke, baina bidea ez da Altzo Muinokoa bezain argia.

Otsabioko gailurreria HErantz doa Zarateko leporaino (477 m), Gipuzkoako Goierriko Bedaioren (350 m) eta Nafarroako Araiz bailarako Azkarateren (435 m) artean. Gandor honek Otsabio bera baino tontor altuagoa dauka erdialdean: Lapar edo Pagotxiki (810 m). Kareharrizko substratuak zaildu egiten du bertatik ibiltzea. Handik aurrera gandorrak beherantz egiten du pixkanaka Zarateko leporaino (477 m).

Abiapuntuak: Altzo Muino (1 h 15 m); Lizartza (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Santi Usabiaga.

ZENBAIT IKUSPEGI

Otsabio (801 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Pagota (1.271 m)

Pagotako muinoa Errenagako zelaietatik

Aralar mendikateko gailur txikia, garrantzi handirik gabekoa. Errenagako aterpetxeen inguruan dago, Igaratzako zelaietatik hegoaldera.

Tontorra Errenaga edo Ernara mendiko (1.288 m) gailurrerien parte da, eta mendi horren iparraldean dago, lepo txiki batek (1.250 m) banatuta.

Gailurretik ekialdera Trikuharriko lepoa (1.220 m) dago, trikuharri eta guzti. Mendikateko tontorrik handienera, Intzako Dorrera (1.431 m), joateko pasabidea da lepoa.

Pelotalekuko gaina ere esaten diote mendi honi, inguruetan artzainak pilotan aritzen zirelako (ondo landu gabeko tenisaren antzeko jokoan ibiltzen ziren).

Guardetxetik (1.058 m) Errenagako aterpetxeetarainoko bidea nahiko ezaguna da. Zoru oneko pista batetik doa Kolosobarneako pasabide harritsutik (1.139 m) zehar, eta Eulatz basotsua (1.283 m) inguratuz Intzazelai edo Pagomariko lautadara (1.155 m) heltzen da. Gero, Mandarrateko pasabiderantz (1.230 m) eta Saltamuñoko atakarantz (1.240 m) jarraitzen du, eta handik aterpetxeetara jaisten da zuzenean. Errenagako muinoan zehar (1.288 m) Pagotatik (1.271 m) banatzen gaituen leporaino (1.250 m) joan behar da. Pagota muino labur bat da.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Pallardi (1.290 m)

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Malloako alderik sortaldekoeneko garaiena da, baina hala ere, hurbil dagoen Ttutturreko gailur harritsua (1.282 m) ezagunagoa da, bere itxura dela eta.

Pallardiko (1.290 m) goiko aldean basoa dago, baina tontorra garbi dago Araizko bailararantz. Gailurrak multzo bakarra osatzen du hegoalderagoko Aitzear (1.286 m) xumearekin.

Brinkate zuloko lepoak (1.180 m), lapiaz eremu malkartsua, Tutturre eta Pallardi banatzen ditu.

Guardetxetik (1.035 m) eta inguruetatik egin daitezkeen igoerez gain, **ibilbiderik interesgarriena Intzan** (313 m) **hasten da**. Jende gutxi ibiltzen da bertatik eta bide gogorra da. Illobiko lepora (1.194 m) igotzen da, Pallardiren mendebaldean.

Abiapuntuak: Guardetxea, 10. km (1 h 45 m); Intza (2 h 45 m); Baraibar (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Pallardi (1.290 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Pardarri (1.393 m)

Aralar mendikateko harrizko gailur garrantzitsua. Hegoaldean gailurraren aurreko tontor txiki bat dauka, Putreaizko punta (1.382 m) izenekoa.

HMko hegalean, antzina ziurrenik mendikateko goi-lautada osoa estaltzen zuen pagadia dago oraindik. Larretarako leku gehiago behar zela-eta landaretza desagerrarazi izanak basoa mendien beheko aldean geratzea eragin du, Erregenea inguruan izan ezik. Paisaiaren aldaketa horretan mendikatean egiten ziren ikazkintza-lanek ere zerikusia izan zuten.

Errenagako aterpetxeetatik (1.221 m), bertaraino Guardetxetik joango gara (1.035 m), tontorrera igo daiteke Ontzanburu (1.283 m) eta Pardarri bera banatzen dituen lepotik (1.225 m).

Hala ere, ohikoena **Lizasoko lepora** (1.296 m) **joatea** da, Pardarri eta Ganboaren (1.402 m) artean. Lepo horretara Guardetxetik (1.035 m) joango gara, edo Larraiztik (401 m) Alotzako zelaietan zehar. **Amezketatik** (201 m) ere haraino igo gaitezke Aritzagako sakanean barna.

Abiapuntuak: Larraitz (3 h 15 m); Guardetxea (2 h 30 m); Amezketa (3 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Pardarri (1.393 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Puttarri (1.299 m)

Aralar mendikateko gailurra, Sakanaren gainean.

Harritsua da eta pagadiz estalia, eta Burunda ibarretik edo Arakildik begiratuta ez da oso erakargarria. Hala ere, hor dugu Puttarri, beste tontorretatik bereizita, inguruotako bide guztien zaindari: Lizarrustiko portuan (620 m) hasi eta Kalelantegi edo Etxarri Aranazko lepotik (1.189 m) Aralar erdiraino, Errenagako aterpetxeetaraino (1.212 m) doan bidea,

edo Guardetxeraino (1.035 m), edo Lekunberriraino mendikatea zeharkatu eta Araitz edo Larraungo bailaretara jaisteko asmoa badaukagu.

Aralarko mendirik garrantzitsuenetakotzat jo behar dugu. Beti azaldu da artzainen eta beste herritarren kondairetan. Horien arabera, Mari jainkosaren bizilekuetako bat zen, eta besteetara joateko, Mari suzko bola handi batean bilduta abiatzen zen, adibidez, Larrunarri edo Txindokiko kobara joateko, Murumendikora, edo Aketegi, Anboto eta Gorbeiakoetara. Batek baino gehiagok ikusi omen zuen Mari urrezko orrazi batez adats hori luzea orrazten... Mendi honetan, gainera, Eko izeneko jeinua bizi omen da. Ekok, mendiaren barrualderantz hitz egiten duenari erantzuten dio, eta Puttarri alderik alde zeharkatzen duen kobazuloan bizi omen da. Koba horretako sarreretako batean, hagin baten sustraien azpian urrezko zahagi bat ezkutatuta dago...

Lizarrustitik (621 m), Elkorriko bihurgunetik abiatuta, Etxarriranzko norabidean portua baino beheraxeago, bide on bat Kalelantegirantz (1.189 m) doa. Lepo hori mendiaren azpian dago, eta bertatik azkar igoko gara tontorreko kareharrizko piramidera.

Kalelantegin hasten den igoeretako batean, marka horiz balizatutako bidexkak oso haitzulo bitxia zeharkatzen du.

Lizarrustiko portutik (620 m) Kalelantegira, Iraioko zelaietatik (890 m) Alleko (1.018 m) inguratuz ere joan gaitezke. Lizarrusti eta Lekunberri arteko GRa bertatik doa.

Lakuntzatik (490 m) ere igo gaitezke gailurrera, Algorriko pasabidetik (875 m) mendikatera igotzen diren bide ez oso argietatik.

Azkenik, **Guardetxetik** (1.035 m) ere abiatu gaitezke. Intzazelaitik (1.153 m) eta **Mandarrateko atakatik** (1.230 m) Errenagara doan bidea hartuko dugu. Mandarraten mendebalderantz joko dugu, eta Kalelantegi igarota tontorrera iritsiko gara.

Abiapuntuak: Lizarrustiko portua (2 h); Guardetxea (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Puttarri (1.299 m)

Lareoko urtegiaren ingurua gailurretik

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Serlo Gaina (919 m)

Puttarriren (1.299 m) hegoaldean, Abringo ubidetik bereizita, zuhaitzez jositako gailurreria luzea dago ekialdetik mendebaldera: Serlo gaina (919 m) da.

Ohiko ibilbideetatik kanpo, mendi ezezagun honek, bere bakardadearen lasaitasunean, jende gutxi ibiltzen den pagadi zabalak gordetzen ditu sakan ikaragarrien gainean. Beraz, Aralarko txoko ezkutu eta ahaztuetako bat da, Puttarri (1.299 m) mendi mitikoaren aldamenean.

Gauden lekuan egonda, ez dago bide guztiz argirik igotzeko, baina hala ere ez dugu zailtasunik izango gailurrera iristeko. Etxarri Aranaztik Lizarrustira igota, Elkorriko bihurgunea baino lehenago, Abringo sakan zoragarrian sartzen den pista bat hasten da eskuinean. Bertatik abiatuko gara, baina azkenean, pista desagertu eta erdi ezabatutako bidexka batek jarraituko du errekaren ondotik. Errekaren goiko aldera heltzen garenean arrasto guztiak desagertuko dira. Pagadi aldapatsutik igo beharko dugu, eta bertan, antzinako txondorren hondarrak aurkituko ditugu. Gorago pista horizontal batekin elkartuko gara, baina hori ere ez doa tontorrera, beraz, onena, malda pikoan gora jarraitzea da, gailurrera iritsi arte. Gain-gainean Lakuntzako muga adierazten duen mugarri bat dago. Horma oker bi angelu bat eginez elkartzen dira han, ezarritako mugaren jarraipen moduan.

Beste ibilbide batek Serlo gaineko ipar-isurialdeko eta Abringo pagadiak saihesten ditu, baina, trukean, bidexka txiki batetik mendiaren muino osoa zeharkatzeko aukera ematen digu (zidor hori gomendagarria da jaisteko). Leku beretik, errepidetik atzera egingo dugu pixka bat Etxarri Aranatzerantz, gandorraren oinarrian jartzeko.

Hasieran babes gisa daukan harrizko irtengunea gainditzeko zenbait aukera daudela ematen du. Bertan dago ibilbideko zailtasuna. Basoan barneratu gaitezke, baina erakargarria da luiziek eta harrobiko lanek sortutako eremu harritsutik joatea, inguru garbian gora. Handik igota harrizko irtengune batzuetara joango gara, eta bertatik Lizarrusti inguruak ikusiko ditugu. Azkenik, gorago, malda ikaragarri txikitzen da eta bidexka batek gailurrera eramango gaitu arazorik gabe.

Abiapuntuak: Lizarrustirako errepidea (1 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Serlo Gaina (919 m)

Lizarrustitik ikusita.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Soroaundi (1.045 m)

Atako harana Artxuetako gailurretik

Aralar mendikateko Soroaundi mendia (1.045 m) ez da oso ezaguna. Mendikateko lekurik bakartienetakoa ixten du hegoaldetik: Atako haran zintzilikatua.

Haranerako sarbide erraza den Atako arratetik (975 m) ekialdera dago gailurra. Ipar-isurialdetik ebakita dago, beraz, igotzeko modurik errazena, Atako arratetik abiatuta mendebaldeko gandorra zeharkatzea da.

Artzaintzan jarduteko basoetan sartu ziren antzinako gizakientzat leku honek garrantzia izan zuen, eta horren lekuko dira monumentu megalitiko ugariak. Bertako trikuharrietan, jendeak altxor preziatuak daudela uste du.

Historiaurreko aztarna guztiotatik Errolan Harria da garrantzitsuena. Lurrean sartutako harri bat da, metro eta erdikoa gutxi gorabehera. Euskal Herrian aurkitutako lehen iruinarrietako bat da, baina harkaitzak dauzkan ebaki itxurako marka bitxi eta misteriotsuek eman diote ospea. Kondairak dioenez, Errolanek, Madotz herria txikitzeko asmoz, San Migelen santutegitik jaurti zuen, baina harkaitza Atan erori zen. Beste kondaira baten arabera, harri horrekin jentilak San Migelen santutegia puskatzen saiatu ziren, eta harkaitzaren markak jentil baten atzamarren markak dira.

Madoztik (765 m), bide bat Atako haranean barneratzen da Errolan Harria ezkerrean utzita. Handik, haitzen artean pausu errazak bilatuz tontorrera igo daiteke (Erraza).

Uharte Arakildik (475 m) San Migelerako **pistan**, Atako arratera doan bide bat hartu daiteke, eta handik, mendiaren gandorretik gailur garbiraino joango gara.

Abiapuntuak: Madotz (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Soroaundi (1.045 m)

Atako harana eta Soroaundiko gailurra

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Zubizelaigaina (1.209 m)

Uarrain eta Zubizelaigaineko gailurrak.

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Uarrain menditik (1.222 m) oso gertu. Etzantzako zirku belartsuaren gainean dauden tontorretako bat da. Kontuz baina, Etzantzako zirkuak ez du zerikusirik izen bereko mendiarekin, mendia Gañetako zirkuan baitago, Aralarren baita ere.

Uarrainek (1.222 m) eta Zubizelaigainak (1.209 m) osatzen duten gailurreriari Auntzarrate esaten zaio.

Malloarantz gehien begiratzen duen gailurretako bat da, eta ondorioz, bertako ikuspegi ederra dauka.

Igotzeko biderik errazena Lekunberritik Guardetxerako (1.035 m) errepidearen 10. kilometroan hasten da, Guardetxera heldu baino pixka bat lehenago (940 m).

Handik Etzantzako zelaietara (1.170 m) joango gara, eta Malloarantz jarraituta Arteiako mugarriko lepora (1.120 m) iritsiko gara. Ezkerrean Arriolatz (1.176 m) ikusiko dugu. Lepotik, pixkanaka eskuinera joanez mendiaren gailur zapalera igoko gara. Handik, gandorretik hegoalderantz joanda, laster helduko gara Uarraingo tontor nagusira (1.222 m).

Baraibartik (635 m) ere badago bidea, baina luzeagoa da.

Abiapuntuak: Guardetxea, 10. km (1 h 30 m); Baraibar (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ttutturre (1.282 m)

Aralar mendikatean, Malloaren alderik sortaldekoenean jendeak gehien igotzen duen tontorra da, eta baita inguru horretako esanguratsuena, garaiena Pallardi (1.290 m) izan arren.

Araizko bailaratik muino erregularra ematen du, baina gertutik, kareharrizko benetako piramide baten itxura dauka, eta horrek, inguruotako tontorrik bereizgarriena bihurtu du.

Gailurraren izen osoa Urdenasko Ttutturre da. 1950eko hamarkadan, mendizale talde gogotsu batek Aitzorrotxeta izena jarri zion bere itxura zela eta, baina izenak ez zuen arrakastarik izan...

Lekunberritik Aralarko San Migelerako errepideak, Araizko bailaratik mendi honetara igotzeko zegoen bide arrunta aldatu du. Errepide horretako 10. kilometrotik, pista bat Atakaxarreko lepora (1.170 m) doa, Etzantzako zelaietan (1.055 m). Handik Ttutturre eta Albortaren (1.228 m) arteko lepora joan behar da, Abateko lepora (1.158 m) alegia. Oraindik igoera aldapatsua daukagu aurretik gailurreraino. Bidexka batek lapiaz malkartsua erraz zeharkatzen lagunduko digu goraino iristeko.

Baraibartik (635 m), mendebalderantz abiatu beharra dago. Dolboan (895 m) dagoen errepikagailutik gertu joango gara eta Izarrite ingurura (880 m) helduko gara. Hantxe hasten da Malloen harrizko eremua. Laster Belutako langara (915 m) iritsiko gara. Bideak gorantz jarraitzen du pagaditik zehar Etzantzako zelai garbietaraino (1.055 m). Handik, Abateko lepotik (1.158 m) igarota tontorrera igoko gara.

Intzatik (313 m) igotzea oso gomendagarria da, ibilbidea alpinoagoa eta klasikoagoa baita. Abateko lepora (1.158 m) joan beharko dugu. San Migelerako errepidea dela eta, lehen baino askoz jende gutxiago igarotzen da lepotik.

Abiapuntuak: Guardetxea, 10. km (1 h 30 m); Intza (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ttutturre (1.282 m)

Gurutzea eta gailurra ezkerrean.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Ttutturre (1.282 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Txameni (1.299 m)

Aralar mendikateko gailur hau izendatzeko Txemiñe izena oso ezaguna da, baina benetan, jatorrizko izenaren, Txameniren, moldaketa da. Mendebaldean Lekoaingo lepoa (1.198 m) dauka, eta ekialdean Urdangoenekoa (1.193 m). Urdangoeneko lepoak Txameni eta Beloki (1.277 m) banatzen ditu.

Txameniren gailurraren aurreko sortaldeko tontorra Txorrotxeta (1.279 m) da.

Lapiazak estalitako mendi harritsu hau hegoaldean dauden Erregeneako pagadi handien gainetik nabarmentzen da. Iparraldean, paisaia erabat desberdina da, han Unagako zelai zabalak baitaude, eta erdian Unagako putzua (1.175 m).

Gailurrera igotzeko abiapuntuetako bat **Guardetxea** (1.035 m) da. Aukera bat Erregeneako basoetatik zehar Urdangoeneko lepora (1.193 m) heltzea da. Handik Txameniren sortaldeko gandorra jarraituta, Lerritz izenekoa, Txorrotxetako gailurretik (1.279 m) igaroko gara tontorrerako bidean.

Basoa zeharkatuz gero kontuz ibili beharko dugu ez galtzeko (eraman mapa eta iparrorratza).

Beste aukera bat, Intzazelaira (1.155 m) doan bide zabala hartzea da. Askok Pagomari esaten diote Intzazelairi, baina izen hori okerra da. Iparralderantz, Eulatz (1.283 m) mendia inguratu eta Ipuzmeakako lepora (1.217 m) iritsiko gara. Handik benetako Pagomariko larreak ikusten dira ekialdean. Iparralderantz joanda lapiazean sartuko gara eta sartaldeko gandorretik gailurrera igoko gara.

Albiko larreetatik (980 m) ere joan gaitezke, Lekunberritik Aralarko San Migelerako errepidean, Guardetxera heldu baino kilometro bi lehenago, tarte zuzen baten amaieran. Handik, balizatutako bide zahar eta hondatu bat Erregeneako baso nahasgarri eta korapilatsuetan sartzen da, eta Mugardi inguruetatik eta Bustintzako kupuladun txaboletatik aurrera doa. Haran karstiko bat zeharkatuko dugu eta Urdangoeneko lepora irtengo gara, inguru irekian dagoeneko. Lerritzeko gandorretik (mendebaldea) Txamenira igoko gara.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 30 m); Albi (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Txameni (1.299 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Txorrotxeta (1.273 m)

Tontor dolomitiko original honek Lescungo zirkua (905 m) mendean hartzen du, zirkuaren erdi-erditik.

Bere horma zorabiagarriak 1.000 metro beherago jaisten dira, eta eskalada zailetarako aukera ematen dute, Pirinioetan dauden eskalada luzeenetakoak (1.000 m). Beste batzuek bezala, mendi honek ere tontor bi dauzka. Handiena Grand Billare (2.318 m) da, eta haren IEan txikiena dago, Petit Billare (2.238 m). Urkulu batek (2.090 m) tontor batetik bestera joatea oztopatzen digu. Mendebalderantz, mendi hau Hiru Erregeen Mahaiko (2.444 m) mendigunearekin lotuta dago Pic de Lhurs (2.299 m) eta Pene Blanquen (2.390 m) bitartez. Pic de Lhursek, Pinadé (2.176 m) piramide-itxurako tontorrarekin batera Lhurseko zirku glaziarra (1.691 m) mugatzen du. Bide normala Lescunetik (905 m) abiatzen da eta Sanchez plateau-tik jarraituta Anayeko sakanean sartzen da. Anayeko sakana Insole edo Anayeko lepora (2.052 m) doa, Añelarra (2.349 m) eta Hiru Erregeen Mahaiaren (2.444 m) artean. Anayeko Caiolars-ak (1.513 m) atzean utzita, tontorraren ipar-isurialdeko mendi-hegal eta hartxingadietako igoera gogorrari ekingo diogu gailurra baino apur bat eskuinerago. Goiko aldeko gandorrera iritsiko gara, eta inolako zailtasunik gabe, ertzetik bertatik igoko gara. Ertzean eskalada-pausu errazen bat aurkituko dugu (Erraza). Abiapuntuak: Lescun (3 h 45 m)

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Txorrotxeta (1.273 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Txurtxur (1.069 m)

Aralar mendikateko gailur ezezagun hau Malloen alderik sortaldekoenean dago. Mendi harritsua da, baina inguratzen duen baso ikaragarri zabalak beste itxura bat ematen dio.

Prantses errekako sakana Etzantzako zelaien goiko aldean sortzen da, eta Beloki mendiko (1.271 m) gandorra eta Malloen lehen tontorrak banatzen ditu: Txurtxur (1.069 m), Gaztelu (1.085 m) eta Arriolatz (1.175 m). Lehenengo biek pagadiak estalitako lapiaza daukate, eta azkena garbia da, pagadiak sortaldeko mendi-hegal harritsuak estaltzen dizkion arren.

Prantes errekatik jaisten den ubidea hobi batean (890 m) sartzen da haranera iritsi aurretik.

Baraibartik (624 m), Usotegietako bidea hartu eta Izarriteko gaina edo Izarrita (903 m) mendira igoko gara. Mendebalderantz jarraituko dugu Belutako langaraino (930 m), eta handik, HMrantz jo eta Txurtxur (1.069 m) eta Gazteluren (1.085 m) arteko pagadia zeharkatuko dugu. Pagadiaren goiko aldera (1.010 m) heldutakoan eskuinetik joango gara tontor honetako muino harritsuraino (1.069 m).

Errazkindik (4333 m) ere, ibilbidea Belutako langatik (930 m) doa.

Baraibartik Guardetxera doan errepidean 2,5 km egin eta gero bide bat aurkituko dugu eskuinean. Handik Aizkorriko ganbelara (788 m) joango gara Aizpiardiko iturritik. Prantses errekako sakonunetik Etzantzako zelaietarantz (1.040 m) igoko gara. Bertara heltzean eskuinera joko dugu eta bidexka batetik Gaztelu eta Txurtxur artean dagoen pagadia zeharkatuko dugu.

Abiapuntuak: Baraibar (1 h 30 m); Errazkin (1 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uakorri (1.306 m)

Uakorri eta Balerdi Beoindik

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Ardigain ere esaten diote batzuek. Izenaren jatorria Oakorri litzateke, Oako harriren laburdura, Oako lepoaren (1.188 m) gainean baitago. Uakorri, jatorrizko izen horren aldaera fonetikoa da.

Araizko bailaratik zoragarri ageri da Malloen azpian.

Amezketatik, aldiz, ganaduak bazkatzeko belarrezko mendi-hegal egokiak dauzkala ikusten da (hortik dator Ardigain izena = ardien gaina). Larre belartsu horiek Arritzagako sakanerantz jaisten dira.

Arritzagako sakanean kobre-meategi garrantzitsu batzuk egon ziren, Buruntzuzin izenekoak. Bertan, 400 pertsonak ere egin zuten lan. Gaur egun, Ilargikoa ematen duen inguru honetan, aurriak eta bertan behera utzitako hondakindegiak baino ez daude. Meatze-lanak 1732.ean hasi ziren, diru kontuetan porrot egindako konde baten ardurapean (Maneteko kondea). 1800.ean produkzioa gogor jaisten hasi zen, eta handik gutxira itxi zituzten. 1960.ean inguruotan berriro meatze-lanetan hasten saiatu ziren, baina zorionez, asmoak ez zuen aurrera egin... Arritzagan ez ezik, Aralarko beste leku batzuetan ere meatze-lanak egin zituzten.

Amezketatik (201 m) edo **Azkaratetik** (460 m) tontorrera joatea gogorra da, metro asko igo behar baitira. Bietako edozeinetatik Astunaldeko lepora (1.216 m) iritsi beharra dago, tontorretik iparraldera.

Amezketatik (201 m) igoz gero Arritzagako sakana Buruntzuzingo meategietaraino (830 m) zeharkatuko dugu. Handik, Astunaldeko lepora (1.216 m) joan eta eskuinetik tontorrera igoko gara.

Azkaratetik (460 m), Urdilleko lepora (711 m) joan behar da. Balerdi ikaragarriaren (1.195 m) haitzen beheko aldea ezkerretik inguratuko dugu eta Astunaldeko kanaleraino helduko gara (700 m). Kanala aldapa gogorrean gora igotzen da sigi-saga ondo markatu gabeko bidexkatik, leporaino (1.216 m) heldu arte.

Gaintzatik (380 m), herritik irtetean Gaintzako monolitoaren azpitik doan bidea hartuko dugu. Bideak eskuinerantz eramango gaitu, eta ordurako kanala ikusiko dugu. Kanalaren hasieraraino jarraitu beharko dugu.

Abiapuntuak: Amezketa (2 h 15 m); Azkarate (3 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uakorri (1.306 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uarrain (1.346 m)

Puttarritik ikusita.

Aralar mendikateko gailurra, Gañetako zirkua osatzen dutenetatik garaiena. Mendi-zirku horretan tontor hauek daude mendebaldetik ekialdera: Belleku (1.253 m) , Bustiako punta (1.280 m), Gañeta (1.323 m), Malkorri (1.329 m) eta Uarrain (1.343 m).

Gailur horiek forma ahurreko mendigunea osatzen dute Larrunarrirantz (1.346 m). Mendigune hori Errekontako lepoak (769 m) eta Irazustako lepoak (1.264 m) mugatzen dute. Errekontakotik, mendigunea Ausa Gaztelurekin (904 m) elkartzen da eta Irazustatik Ganboarekin (1.402 m).

Tontorrean cairn handi bat dago, beharbada lurraldeak banatzeko mugarri gisa. Alotzarantz jaisten den ipar-isurialdean larre ederrak daude, eta hegokoan, aldiz, karsta nagusi da eta ingurua latzagoa da.

Zaldibiatik (185 m) tontor honetara heltzeko **ibilbide ona** dago Enirioko sakanean barrena. Sakanetik antzin-antzinako galtzada bat doa. Arkaka txikiko biltegietatik (485 m) hasiko gara Uiduiko larreraino (879 m); Uiduikoa Enirio osatzen dutenen arteko garrantzitsuena da.

Han bertan bidea utziko dugu. Bidea Igaratza eta Errenagako aterpetxeetarantz doa, eta guk IErantz joko dugu Zearragoenatik gandorrerantz. Erraz bereiziko dugu gandorra Ondar txuriko (1.220 m) gailur harritsuari esker; Ondar txurin buzoia dago.

Leku horretatik, gandorrean gora igoko gara mendi hauen goiko aldera irten arte, Malkorritik (1.329 m) gertu. Malkorri ezkerrean utzita pixka bat jaitsiko gara eta Uarraineraino (1.346 m) heltzeko azken igoerari ekingo diogu. Igoeran ikuspegi zoragarria izango dugu.

Larraiztik (401 m) hasiz gero Alotzarako bidetik joango gara Irazustako leporaino (1.264 m). Gailurra lepotik nahiko hurbil dago. Bidean Saltarriko iruinarri etzana ikusiko dugu, Alotzako larre zabaletan botata.

Abiapuntuak: Larraitz (2 h 45 m); Guardetxea (2 h 30 m); Zaldibia (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uarrain (1.346 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uarrain (1.221 m)

Malloako gailurra, Aralar mendikatean. Mendi hau ez da nahastu behar mendikate bereko Gañeta zirkuan dagoenarekin; beste hori Euskal Herriko Mendien Katalogoan ageri da.

Tontor honek multzo handia osatzen du Zubizelaigainarekin (1.209 m) batera. Zubizelaigaina Araizko bailararen gainean ageri den balkoi biribildua da eta Uarrain, aldiz, harritsua da eta Aralarren barnealderantz begira dago.

Etzantzako larreetatik igotzea da ohikoena. Haraino **Baraibartik** (635 m) heldu gaitezke, edo, erosoago, Lekunberritik Aralarko San Migelerako errepidearen 10. kilometrotik, Guardetxera iritsi aurretik.

Abiapuntuak: Guardetxea, 10. km (1 h 30 m); Baraibar (1 h 45 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uarrain (1.221 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uazkuru (1.249 m)

Kargalekuko (1.253 m) gandor berean dago, baina hura baino nabarmenagoa da, tontorraren inguruan pagadiak estalitako lapiazetik ibiltzea neketsua den arren. Gailurraren hegoaldean Larretxikiko dolina handia dago, eta sakonune horrek mendi hau eta Hirupagoeta (1.246 m) basotsua banatzen ditu.

Lizarrustitik (622 m), uren banalerroko bide klasikotik igo gaitezke. Handik Kalelantegi edo Etxarri Aranazko lepora (1.189 m) irtengo gara, Puttarriren (1.189 m) iparraldean.

Hirupagoeta edo Oroingaine (1.246 m) ekialdetik inguratuz, Urratatsoko lepoa (1.233 m) igaro eta Larretxiki ingurura iritsiko gara. Handik tontorrera igoko gara.

Guardetxetik, ibilbidea erraza da. Pagomaritik, Saltamuñoko atakatik gertu dagoen Otsoarrateko lepora (1.233 m) joango gara.

Abiapuntuak: Guardetxea (1 h 30 m); Lizarrusti (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Urkute (1.328 m)

Aralar mendikateko gailurra. Malloen parte da, baina tontorren lerro nagusitik kanpo dago, Aldaonen (1.411 m) mendebaldean. Urkute eta Aldaon artean lepo bat (1.283 m) dago.

Urgutte edo Urgoiti ere idatzi ohi da mendi honen izena.

Kareharrizko muino honetara joateko ondoko Aldaonen igoera berberak erabili ditzakegu.

Abiapuntuak: Guardetxea (2 h 15 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Urkute (1.328 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uzkuiti (1.332 m)

Aralar mendikateko gailurra. Aoki muino zapalarekin batera Muitzeko zirku txikia mugatzen du hegoaldetik. Aoki Uzkuititik gertu dago eta Aritzagako sakanaren gainean ondo bereizitako tontorra da.

Lizeozko ordeka (1.299 m), jaitsiera txiki bat da Aoki eta Uzkuiti banatzen dituen larrean. Uzkuitiren isurialdeak oso desberdinak dira, izan ere, iparraldean eta ekialdean belarrezko malda pikoak daude eta hegoaldean eta mendebaldean ez dauka ia desnibelik.

Gailurraren hegoaldean Katxine sakonunea dago, eta haren inguruan honako mendi hauek ditugu: Ganboa (1.402 m) eta Ganbo-txikiko (1.377 m) kareharrizko tontorrak eta Arrubi gaina (1.320 m) belartsua, Uzkuiti eta Aokiz gain.

Larraiztik (401 m) edo Amezketatik (201 m) Muitzeko sakan ederra zeharkatu daiteke, Larrunarriren ekialdean. Sakanak Larrunarri eta hura bezain zorrotza den Larraone (1.198 m) banatzen ditu.

Zirkua goiko alderaino jarraituz Uzkuitira iritsiko gara. Gailur honek Arritzagako sakanaren lehen zatia mendean hartzen du.

Amezketatik, Ondarreko langaraino (775 m) joan gaitezke sakanean gora. Handik Etitzegiko lepora (1.146 m) igoko gara, gailurraren iparraldean, eta ondoren tontor belartsura helduko gara.

Abiapuntuak: Larraitz (2 h); Amezketa (2 h 30 m).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Uzkuiti (1.332 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Zabalegi (1.114 m)

Zabalegi mendia (1.114 m) Artubitik (1.265 m) IMra dagoen tontorra da, Malloetatik apur bat bereizita.

Amezketatik (201 m) San Martin baselizara (311 m) igoko gara GR-20ren bidexkatik (GR-20k Aralar inguratzen du beheko aldetik). Larrondoko zelaira (650 m) heldu behar dugu, eta haraino, besteak beste, Altun Goena baserritik (412 m) heldu daiteke.

Handik, GR-20 eta GR-121en (Gipuzkoako itzulia) bideek, biak Arangoenetik (958 m) elkar datoz, Balerdiren (1.195 m) iparraldeko beheko aldea inguratzen dute eta Urdilleko leporantz (718 m) doaz.

Larrondon Larrondoko tumulua eta Urritzako trikuharria ikusi ditzakegu.

Marka zuri-gorrien bidetik joango gara orain, Arangoeneko txabolarantz (958 m), Zabalegiren (1.114 m) sartaldeko isurialdea inguratuz. IErantz igoko gara, Zabalegiko leporantz (1.072 m). Lepoa dolinaz josita dago eta Aralarren ohikoak diren kupuladun txabolen hondarrak daude. Tontorra oso gertu dago.

Larrondotik (650 m) aukera zuzenagoa dago. Zabalegiren ipar-hegaletik doan bidexka hartu eta leporaino igo behar da.

Anduitzeko monolitoa

Zabalegiren sartaldeko isurialdea Arritzagako sakanaren gainera erortzen da, eta bertan hasten da sakana. Hantxe Anduitzeko haitzorrotza (648 m) dago, Beratzagako zubiaren (470 m) gainean hain zuen ere. Zubi horretatik, Amezketatik (201 m) datorren Arritzagako pista doa. Batzuek Saltarri esaten diote Anduitzeko haitzorrotzari, baina benetan, Saltarri, Anduitzeko tontor harritsuaren gainean dagoen haitza da. Amezketarren batek bertatik salto eginez bere buruaz beste egin zuelako esaten diote Saltarri haitz horri.

Anduitzeko monolitoa 1934.ean eskalatu zuten lehenengoz. Rafael Carranquek eta Lino Argomanizek igo zuten, eta ordubete behar izan zuten gutxi gorabehera. Jaisteko rappela egin zuten, eta orduan erabili zuten lehenengoz teknika hori Gipuzkoako mendi batean. Handik astebetera Eusebio San Migelek igo zuen bakarrik, eta hogei minutu behar izan zituen. Bitxikeria legez, aipatu beharra dago, jendeak esaten zuela igoera horiek baino lehenago Altuna izeneko artzain bat tontor estu horretara igo zela.

Amezketatik gertu Zazpi Iturriko eskalada-eskola (375 m) ere badago. Bertan, igoera klasikoak dauzkaten hiru orratz nabarmentzen dira, baina kirol-eskaladako zailtasun handiko bideak ere ireki dituzte: Ortiz orratza (Normala, hegoaldean, Nahiko Zaila gorena), Berrio orratza (Normala, ekialdean, Nahiko Zaila), Itziar orratza (Ipar-isurialdea, Zaila).

Abiapuntuak: Amezketa (2 h).

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Zabalegi (1.114 m)

Buzoia gailurrean.
Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Andres Lekuona.

ZENBAIT IKUSPEGI

Zabalegi (1.114 m)

Artubitik ikusita, atzean Goierri.

Erref. grafikoa: www.mendikat.net. Javier Urrutia.

2.

IZADIA

BEREZKO ESPAZIOA

Aralarko ezkutuko natura

Aralar Mailoa, nahiz eta neurriz eta mugaz handi ez izan, inguruko mendimultzoen arteko osotuena eta bitxiena da berez: gailur, sakon, larre eta pagadi... alderdi desberdin asko dituelako batetik, baina baita historiaurreko aztarnak eta folklore-agerpenak ere ugari dituelako.

Gure antzinako arbasoek utzi zizkiguten elezahar eta ipuin askoren artean -oso ugari dira Euskal Herrian ,eta, Aralar inguruetan, bereziki-, San Migel arkanjeluaren agerraldi miresgarria dugu, noski, ezagunena eta zabalduena: Goñiko Teodosiok, zaldun nafar ospetsuak, hain zuzen mendi honen gainean «Nor Jaungoikoa bezala?!» deiadar egin eta herensuge beldurgarriaren atzaparretatik bizirik ateratzea lortu zuenekoa, alegia. Infernutar herensugea, Mikel zerutarraren laguntzaz hil eta bere kate astunetatik aske eta salbu gertatu omen zen Teodosio: bere gurasoak ezpataz hil zitueneko okerra ordaintzearren baitzebilen kate handiak gerritik arrastaka zituela.

Historiaurreko trikuharri eta antzinako beste aztarna asko eta balio handikoak dauzkagu Aralar Mailoaren zabalera osoan. Ez da harritzekoa, beraz, iragan aldien ezkutuko sakonak aztertzera, ikerlari jakintsuak mendi honetara erakarriak gertatzea; eta gure lurraldeko gauzen maitale garenok ere erakartzen gaitu, ezezagun diren garaietatik jendeztatua edo askoren bizileku bihurturik ikusten baitugu Aralar, oraindik dirauten oroitarriak ikustean.

Haitzulo eta leizeen barren sakon eta goiko eta beheko orratz ikusgarri, eta kareharrizko beste itxura asko daude ikusle ederzalearen atseginerako; hortaz gainera, udaldiko sargorietan haitzuloetako hozkirrigiroa benetan atsedengarri gertatzen da ibiltari begiluzearentzat.

Izadian berezko diren gertakariak ere baditugu, batzuk hain gutxitan ikusiak eta harrigarriak direnez, pentsakor eta harriturik jarrarazten gaituztenak; adibidez, honako hauek: antzinako etxe zahar bat erori ondoren tente dagoen horma bakarrean sendo eta indartsu hazi den pago lerdena; edo eta haritz urtetsuaren enborrean kokatutako harritzarraren ikuskizuna, haritzak haztean, zorutik erauzi eta berekin gorantz eramana baitu.

Edozein eratako zaletasunek aurki dezake hemen bere gogo eta ametsak asetzeko egokiera. Honela, ziza edo perretxikozaleak, pagadi, harizti eta

pinudi itzaltsu eta izugarrietan, esan ezin adina ziza eta perretxiko mota aurkituko ditu benetan opagarri eta gozo.

Txundituta geldituko da argazkilaria edertasun bikaina duten artzain bizierako ikuspegi ugari eta desberdinen aurrean: ustekabeko bazter ikusgarri eta ezkutukoak aurkituko ditu, bere argazki-tresnaz bi berdinak hartuko ez dituen bezain bitxiak. Argia eta itzala, eguzkia eta lainoa, askotan elkarrekin nahasturik izaten direnez, horietatik sortzen diren margo desberdin eta beti berriak hartu ahal izango ditu argazkilariak bere artelan ederraren oroitzapen iraunkorrerako.

Azkengabeko oihan edo baso sartezinak astiro begiztatzeko, nahiz bertan ibiltzeko, egokiak diren belar gurizko gune zabalak; gailur-lerroaren ertz edo ebaketa ikaragarriak, zutikako amildegi edo aldapa biziak; horra zenbait gauza ikusgarri, gehiagoren artean, mendi hauetara igotzeko nekearen saritzat izadizaleak aurkitu dituenak. Izan ere, bazter bakar eta zoragarri honetan era askotako edertasunak aurkituko baititu bere begien eta bere ederzaletasunaren atseginerako.

Itzez zehazki azaldu ez dezakegun lilura du Aralarrek mendizalearentzat. Egia esan, mendi harro, ikaragarri, arriskutsu eta eragozpen edo zailtasunez betea den batekin ez dezakegu alderatu; eta, dirudienez, horrelako igoera latzak dituztenak aukeratzen dituzte gaur zenbaitek beretzat gauza handitzat. Gure mendi hau, alderantziz, sotil, apal eta bildua da: zabalera eta sail izugarririk ez du, beste lurraldeetarako ikuspegi harrigarririk ere ez. Baina, hala ere, gauza eder eta atseginek barruan sortzen dizkiguten zirikada, bihotz-ikara eta erakarpen bizi-bizirik gugan erne edo sortu gabe ez gaitu utziko Aralarrek. Eta bertako giroaren lilura eta atsegina gero eta sakonago nabarituko ditu mendizaleak; azkenik, bidea galarazi eta estuasun handiak sortzen dituen laino maltzurrak berak ere, zalantza eta arrisku artean bertan, badu halakoxe zerbait kilikagarria.

Laino itsuak ibilgune garrantzizkoetan norabideari jarraitzea galarazten badigu, eta bestelako arriskuak sortzen bazaizkigu ere, gure mendi-bidean, joan gaitezela lasai eta pozik mendi honetara; batez ere, hainbeste gauza ikusi eta ezagutu baititzakegu bertan. Ibilian, ezagutzen eta gauzak ikasten hartuko ditugun nekeak, oparo sarituta gertatuko zaizkigu ziur baino ziurrago.

Erref. bibliografikoa: Colección Mendiak, Tomo 2, Patxi Ripa
Irudi erref.: Eusko Lurra 2. El relieve, págs. 32-33.

BEREZKO ESPAZIOA

Enirio eta Aralarreko Errege-sailen arteko elkartasunak

Euskal Herriaren bihotzean daukagu Aralar mendi-multzoa, ikusgarria eta erakarpen handikoa, gorabehera eta gertakizun askoren lekuko, dugun artzaintza tokirik zaharrenetakoa eta berezko edertasuna duten pagadiez inguratua. Horixe da gure ohar labur hauetan harrotuko dugun gaia. Eta hor sartuko ditugu beste alderdi hauek ere: bertako elkartasunen sorrera, lurren erabilera, larreei eta zuhaitzei gozamena ateratzeko era, eta gainerako antolabide eta arauketaren alderdirik nagusienak.

Nafarroa eta Gipuzkoaren artean daukagu Aralar; guztira, 5.690 ha lur hartzen dituen mendi-sail handia. Horietatik 3.500 ha dagozkio Gipuzkoari, eta 2.190 ha Nafarroari.

Baina Aralar esatean, inongo udali zuzenean ez dagozkion sailak aipatuko ditugu hemen; hau da, Enirioko elkartasuna eta Errege-saileko elkartasuna aztertuko ditugu soil-soilik. Mendiz inguraturik daude sail horiek, eta mendi gehienak pagadi aberats eta ikusgarriak dira. Nafarroako eta Gipuzkoako zenbait udaletakoak direlarik ere, gehienak behintzat, Aralarren sartuta hartzen ditugu hemen.

Aralar mendi hau oso desberdina ageri zaigu: Nafarroa aldea pagoz estalirik baitago gehiena; hau da, 1.378 ha. lur eta 812 ha. bakarrik daude soil eta garbi. Gipuzkoa aldea, berriz, soil daukagu gehiena; hau da, 3.100 ha. lur baitira larre-sail maiatzetik urrira artaldez beteta; eta bitartean 450 Ha. lur daude zuhaitzez estalita, su-egur eta ikatzetarako moztu zituzten zuhaitzetatik sortuak gehienak.

Mendiaren alderdi biak, larreak eta zuhaiztiak, alegia, banaka edo bereizita azalduko ditugu hemen, elkartasunaren barnean bereizketa edo etenik gabeko batasuna duten arren. Zergatik? Aipaturiko banaketa neurria, gozamena ateratzeko era, eta beraietako antolabidea ere berdinak ez direlako. Bestalde, sail desberdinen batasun bitxi hori, ongi zaindu eta hobetu beharrekoa dela aitortu behar dugu gehienen iritziaz batera.

ARALAR: GIPUZKOAKO ALDEA

Elkartasunen sorrera

Amezketako elkartasuna eta Ordiziako elkartasuna Enirio eta Aralar mendietako sailei dagozkienak dira. Antzinako «comunidades de la tierra» edo lurrarekiko elkartasun haietatik orain irauten duten hondar batzuk ditugu. Baina aurrerago adieraziko dugunez, gauza batzuen gozamena bakarrik ateratzen dute elkartasunean, eta, hortaz gainera, egurra ateratzen dute udalek beren ondasun balitz bezala.

Enirio eta Aralar mendietako sailak «Convenio y Ajuste» izeneko itun-agiriaren bidez eskuratu zituzten Amezketako eta Ordiziako elkartasunek; betiko eskuratu ere, 1409. urteko azaroaren 14an, Ordiziako Santa Maria elizan agiria izenpetuta, Martin Ibañez de Aramburu eta Lope Perez de Laskaibar eskribauen aurrean, hain zuzen. «*Transigiendo lo que ambas Uniones sostenían*» esaten du agiriak; hau da, Elkartasun horiek Juan de Amezketaren aurka zeramaten auzia erabakita gelditzen zela, alegia. Izan ere, Gaztelako Enrike III.a erregeak 1400.urteko urriaren 27an Juan de Amezketa horri eman zizkion sail horiek. Elkartasun biek, ordea, askoz ere lehenagoko eskubideak zeuzkatela aitortzen zuten, eta ez zeuden uztekotan. Delako « Convenio y Ajuste» agiria, Gaztelako Juan II.a erregeak baieztatu zuen, bere izenpea Valladoliden 1412. urteko martxoaren 21ean emanez.

Amezketako Elkartasuna taldean, aldi berean Bozue Handia ere deitua, Amezketa, Abaltzisketa, Ikaztegieta, Orendain eta Baliarrain herriak zeuden sarturik. Ordiziako elkartasuna edo Bozue Txikia delakoan, herri gehiago zeuden: Ordizia, Legorreta, Itsasondo, Altzaga, Arama, Gaintza, Zaldibia, Ataun, Beasain eta Lazkao.

Babesik gabeko herriek burutzat hartzen zuten hiribilduaren babesean elkar indartzeko sortuak ziren Elkartasunak, bai nafarrengandik eta bai Gipuzkoa barruko talde borrokalariengandik babesteko, hain zuzen ere: «una mejor defensa de orden militar contra las incursiones de los navarros separados entonces de la corona de Castilla, y contra las depredaciones de los bandos que entre sí peleaban dentro de la provincia». Ordiziako Elkartasuna 1399. urteko apirilaren 8an, Ordiziako Santa Maria elizan, sortua da, toki eta egun berean izenpetu baitzuten agiri bat Martin Ibañez de Aramburuk, Otso Barrenak eta Ataungo Lope de Ochoak eskribauen aurrean; eta, gero, 1402. urteko abuztuaren 5eko agiriaren bidez onartu zuen Turéganon Enrike III.ak.

Juan de Amezketari «Convenio y Ajuste» izeneko agiriaren bidez Elkartasun biek kendu zizkioten Enirio eta Aralarko sailak; benetan eskuratzeko, «*1.400 florines de oro fino y justo peso*» ordaindu behar izan zituzten, Aragoiko diruz, alegia, eta Ordizia eta Amezketako Elkartasunek erdi bana ordaindu ere.

Hiribildu eta Elkartasun bakoitzak ordaindu zuen zatiak badu garrantzia, kopuru horren araberako eskubideak baitzituzten gero Enirio eta Aralar mendietako sailetan. Baina antolaketan eta aginpidean ez dute benetako alderik izan, herri bakoitzeko herritarrek eta beren ordezkariek zituzten autarkietan ez baitute egiazko eta benetako ezberdintasunik izan, ordain-zatia baino herritar bakoitza aintzakotzat gehiago hartuz. udal bakoitzaren ordain-zatia eta jatorrizko eskubidea. Honela ziren: Erdi bata Amezketako Elkartasunak, eta erdi horren hirutik bateko bat Amezketak eta beste bat Abaltzisketak; seitik bateko zati bat Orendainek, hamabitik bateko bat Baliarrainek eta bestea Ikaztegietak. Beste erdia, berriz, Ordiziako Elkartasunak ordaindu zuen, herrien artean honela banatuta: zazpitik edo zazpiren bat, Lazkaok ordaindu zuen; gainerako guztia, zortzi zati berdinetan ordaindu zuten Ordizia, Legorreta, Itsasondo, Gaintza, Zaldibia, Ataun eta Beasainek, eta zortzigarren zatia Altzagak eta Aramak erdi bana. Diru eta eskubide-banaketa hori ontzat emanik gelditu zen 1505. urteko urtarrilaren 31n, Tolosan hartutako arbitraje-epaiaren bidez, eta, geroztik, ez dute eztabaidarik izan beren artean.

Irabaziak nahiz galerak direnerako, udal bakoitzaren eskubideak honelaxe banaturik daude ehunekotan: Amezketak 16,666, Abaltzisketak 16,666, Orendainek 8,333, Baliarrainek 4,166, Ikaztegietak 4,166, Lazkaok 7,1428, Beasainek 5,3571, Legorretak 5,3571, Itsasondok 5,3571, Ordiziak 5,3571, Arama-Altzagak 5,3571, Ataunek 5,3571, Zaldibiak 5,3571 eta Gaintzak 5,3571.

«Elkartasun» horiek beren arteko borondatezko batasun bat eginik jokatu dute beren kondairan, bakoitzak bere nortasuna galdu gabe, eta beren gogoz batuta. Bakoitzaren eta udalen iritzi eta eskaerak, berriz, guztien arteko Zuzendaritza-Batzordean azaltzen zituzten.

Elkartasun horietako hamabost udaletako alkateak nahiz horien ordezkoak dira Zuzendaritza-Batzorde hori osotzen dutenak, Ordiziako alkatea Lehendakari dutelarik. Hala ere, esatekoa da, Ordiziako eta Amezketako alkateak lehendakarikide direla biak, Ordiziakoak ohorezkoa daramalarik, eta, haren eskuinetara Amezketakoa delarik. Batzorde hori urtean behin batzartzen da ohiko bilkuran, Ordiziako Udaletxean, hain zuzen ere, Agorreko Andra Mari edo Ama Birjiaren jaiotegunaren (irailaren 8an) hurrengo astelehenean. Beste arazoez gainera, urteko sarrera-irteeren kontuak garbitzea da eginkizuna. Urtean behin egiten duten batzarraren egiteko nagusia, ondorenean herri bakoitzeko ordezkariari, irabazirik denean, dagokion zatia ematea da. Urte barruan gerta daitezkeen arazo soilagoak erabakitzeko, batzorde iraunkorra daukate: Lehendakaria eta Elkartasun bakoitzetik ordezkari bana, alegia; bi ordezkari horiek urtero aldatzen dira, Elkartasun bakoitzeko herrien izenen arabera txandatuz.

«Elkartasun» horiek beren eskuz antolatzen dituzten ondasunak hauek dira: Enirio mendia eta Aralar Mailoaren Gipuzkoako alderdia, guztira 3.500 hektareako lurra hartzen dituzten sail handiak, artaldeentzako

larrez oso aberatsak, baina tamalez oso urriak zuhaitzez; hobeto esanda, urritu eta eskastuak, zuhaiztiei dagokienez. Mendi-sail horien legezko deitura, «*patrimonial-comunal*» dugu, Elkartasunen esku baitaude. Honela, larreei, urari, iratze edo garoari eta su-egurrari dagokienez, benetako herri-lur dira, hamabost udaletako herritarrek baitute gauza horien gozamenean eskubide. Bestetik, gainerako zuhaitz-enborren gozamena, -gaur hain urriturik dagoena- «*patrimonial de propios*» deiturapean, ondaretzat utziak dira udalen esku, 1821eko azaroaren 22ko agirian idatzirik dagoenez.

Gizakia Euskal Herrian den bezain antzinakoa da gizakiaren agerpena Enirio-Aralar mendietan. Goierriko gure aurrekoen agerpenak -guztiz antzinakoenak, gainera- hor ageri zaizkigu hil-harri diren trikuharrietan, kobetan, bideetan eta beste aztarna ugaritan. Beren bizitza neketsu eta latza «hainbestean ere elkartasunean» eramanez, atera zuten bertako ondasun diren larre, ura, egur eta iratze edo garoaren gozamena.

Enirio eta Aralar mendietatik XVIII. mendeko azken bi herenetan atera zuten emaitza ere aipatzekoa dugu: Arritzaga, Pardeluts eta inguruetako meatzetatik kobrea atera zuten.

Jesus Elosegi Irazustak idatziriko «Las minas de cobre de Aralar (1732-1804)» liburua, irakurtzeko eskatuko genieke Aralarzale diren guztiei. Bertan aurkituko ditu irakurleak mila zehaztasun: gertaerak, toki-izenak, han ibili zirenen izenak, eta, horien artean bat, Fernando Bengoetxea, hain ezaguna eta ipuin ugariz jantzia dugun «Fernando Amezketarra». Urte haietako joan-etorri eta ekintzak gogoratuta, gaurko artzain-leku bare eta baketsuak baino areago dirudite Aralarko bazter horiek, Ameriketako urreketari edo urrezaleen toki istilutsuak.

Gauzak horrela, hain aldapatsu eta latza den *mando-bidea*, badakigu 1790ean egina dela «*desde Urdilleko lepoa (muga de Gipuzkoa-Nabarra) por Inpernu-erreka, Larrondo, Andreonako lepoa, Esatoitzeko zuloa, empalma entre Akelo y Aitzelo, con el pedregoso sendero que desde Amezketa, por Beatzaa, sube a Arritzaga*».

Liburu berean irakur dezakegu, XVIII. mendearen bukaera aldera, «Bozue Handia Elkartasunaren» lurretan 1735ean eraikitako lantegia, urik eza aitzakiatzat hartuta, Nafarroako Erreinuan dagoen Etxarri-Aranatzeko Elkorri mendira eraman nahi izan zutela. Nafarroa Erreinuko agintarien aurrean Gipuzkoak bitartekotza egin zuenari esker, lantegia ez zuten tokiz aldatu, meatzari askori lana kentzea ekarriko baitzuen aldaketak. Lizarrusti mendatetik hurbil, «Quifosa» izeneko lantegi bat ere bazen 1930etik 1960ra bitartean, pago-egurraren iraztegia, «ácido acético» deitua ateratzen zuena.

Behin baino gehiagotan izan dira eztabaidak, larreak eta lurrak berak ez baina, zuhaiztiak Elkartasunetako udalen artean banatzeko gogoak

eraginda sortuak. Eta hamabost herrien eskubideak erabakirik gelditu ziren 1797ko urriaren 27an «Real Provisión de la Chancillería de Valladolid» delakoaren bidez.

Baina geroago, 1821ean, hasi zen benetan zatiketa hamabost *Errepublika* haien artean, guztia guztien artean erabili eta gozatzeko batasun hura zatitu egin zen. Elkartasunek egindako agirian dagoenez:

«Mediante haber manifestado la experiencia que las cosas que permanecen indivisas y correspondientes a muchos dueños, no suelen ser las mejor cursadas ni producen aquellas ventajas que podrían sacarse estando divididas y cuidadas cada cual de por sí, por este motivo y porque los Decretos de Cortes ordenan la división de tales montes y que salgan de manos muertas, han intentado las Uniones, la división y partición de los referidos montes»... (1).

Oker handia izan zen, geroak argi eta garbi erakutsi duenez. Bai orduan eta bai orain, pagadiek ardura handia eskatzen dute, bai ongi zaintzeko eta bai zuzen antolatzeko ere. Baina hori ezinezkoa gertatu zen hamabost udalentzat. Zergatik? Gudaldietako zorrei erantzun beharrak, eta herrietan egin beharreko berritze-lanak handiegiak ziren pagadiak ongi zaindu ahal izateko, eta, horregatik, saldu zituzten pagoak eta mendiak soildu.

Enirio eta Aralarreko mendi-sailak zatitu eta banatzeko agiria 1821eko azaroaren 22an idatzi eta izenpetu zuten Abaltzisketako Suegi sailean, Amezketako Migel Ignazio de Agirrezabala eta Ordiziako Esteban de Gaztañaga eskribauen aurrean; hain zuzen ere, hamabost *Errepublika* haietako ordezkari eta ahaldun bereziak batzarturik eta izenpetzaile zirelarik.

Hona hemen hitzez hitz, eta, gaztelaniaz, idatzi zuten banaketa-agiria edo zatiketakoa:

« 1ª Primeramente de que en la partición explicada no hayan de comprenderse en modo alguno yerbas y aguas de los montes expresados de Fnirio y Aralar que son correspondientes a las dos Uniones representadas por los Señores otorgantes, pues que todos pastos y aguas que existen en ellos, hayan de quedar así como han estado hasta ahora indivibles para que puedan pasturar libremente los ganados de las quince repúblicas y los productos que resultaran por pasturage del ganado foráneo hubiesen de ser repartibles así como hasta ahora a iguales partes entre ambas Uniones.

2.ª Que consiguiente con lo asentado en el capítulo anterior la partición haya de limitarse únicamente al montazgo o arbolado existente en el día, bien entendido que el que en lo sucesivo procurase o fomentase respectivamente por cada pueblo o por sus cesionarios o poseedores sucesivos por razón de compras en el término o porción que toque en esta

partición a cada pueblo harán también suyo todo poseedor, sea cual fuese éste, empero con la prevención de que no deberán considerarse por dueños absolutos de ambos dominios (el útil y directo) sino que deberán conservarse todas las porciones que resulten de la partición, abiertas y en libre uso para la pasturación del ganado, respecto a que como se deja dicho en el capítulo anterior, deben quedar los pastos y aguas de toda la extensión dedos montes partibles proindivisos y en comunión para las quince repúblicas quedando su domicilio, posesión y disfrute en favor de los mismos.

3.ª Que la hojarasca y helecho de los mismos montes que se tratan partir, deberá quedar por común de las quince repúblicas y de sus habitantes quienes podrán aprovecharse libremente sin que por ello tengan que contribuir con costa alguna a las repúblicas y lo mismo podrán aprovecharse del fiemo o abono que resulte del ganado que pasture en los montes así partidos sin que los pueblos tengan derecho a impedir el aprovechamiento de lo uno y otro a ningún habitante de las quince Repúblicas; pues que cualquiera de ellos hará privativo suyo toda la hojarasca, helecho, fiemo o abono que pueda recoger en todas las porciones que resulten de esta partición.

4.ª Que todos los despojos de montazgo arbolado inservibles para el uso de maderamen o para poder reducir a carbón deberán considerarse también por comunes para todos los habitantes de las quince Repúblicas y de su privativo aprovechamiento en igual forma que los abonos de que se hace suscrito en el capitulo anterior.

5.ª Que respecto de haber en dichos montes comunes algunos seles correspondientes a las casas de Lazkao y Amezketa, siendo privativo de las Uniones el arbolado existente en ellos y perteneciendo las yerbas y abrevaderos del ganado del sitio que ocupan aquellos seles de las mismas casas, se debiera dejar a estos en libre uso de sus derechos procediéndose únicamente a la partición del arbolado que exista en ellos.

6." Que en atención a que los Señores, Don José Manuel de Emparan y Martín Antonio de A rgaya vecinos por su orden de las villas de Azpeitia y Legorreta, son interesados en los montes que se tratan dividir, como cesionarios de Don Diego de Arcelus vecino la villa de A taun a saber: el primero en sesenta y dos mil quinientos reales vellón según resulta del acuerdo o transacción hecha en este mismo sitio, entre estas Uniones y dicho Sr. Fmparan en veintidos de Junio de mil ochocientos diez y nueve y el segundo en quince mil ochocientas cargas de carbón de leña, según aparece de la tasación pericia/ hecha con intervención de todos los interesados en fecha de once de Abril del año último mil ochocientos veinte, deberán tenerse presentes en la partición estos dos créditos así como lo que con posterioridad hubiesen recibido a cuenta y pago estos mismos Señores acreedores respectivamente el primero en metálico y el segundo en leña para carbón, de modo que en el residuo que les

corresponda que haber, no experimente el menor perjuicio resultas de esta partición.

7.ª Que bajo las bases y principios establecidos en los seis capítulos anteriores y que se estamparon en los dos que siguen a éste, deberán verificarse la indicada partición de los Montes de Enirio y A ralar propios y privativos de las dos Uniones expresadas a quienes representan los Srs. otorgantes entre las quince repúblicas de que se componen aquéllos, procediendo en primer lugar, a la partición de todos los expresados montes por mitad a iguales partes entre ambas Uniones y sucesivamente cada uno de estas dos Uniones la de su respectiva mitad entre los pueblos de que se componen según la parte en cada uno de ellos es interesado supuesto que a unos les corresponde más que a otros según la cantidad que se contribuyó por los pueblos en tiempo y ocasión que se verificó la compra de los mismos montes; bien que esta última partición se verifica este mismo día por los que representa a la Unión de Villafranca en diversos documentos y queda a discreción de la de Amezqueta, al hacer entre sus cinco pueblos cuando le acomode, bien entendido de que hechas la primera y segunda partición deberá hallarse la posible igualdad tirando las suertes, de modo que decidan ellas la mitad respectiva con que deban quedar una y otra Unión y la parte proporcional que en las mismas dos mitades deba quedar para cada una de las quince Repúblicas expresadas; y por cuantono se comprenden en la primera partición los efectos y extremos de la según da que debe hacerse distintamente por cada unión entre sus pueblos en las respectivas separadas escrituras que otorguen las dos Uniones en orden a esta última partición, harán individual expresión de las respectivas partes que los pueblos de cada uno de ellos interesan en sus respectivas mitades de montazgos para su, justa aplicación y noticia sucesiva.

8.ª Que en atención a los gastos y dispendios que deben resultar de llevar a efecto estas particiones y de no hallarse en los pueblos por sí en disposición de costearlos en un todo, se declara que los que causen los Peritos y prácticos que trabajen en nombre de ambas Uniones deberán ser satisfechos por estos mismos y los que resulten de dichas y salarios de comisionados que acudan respectivamente en representación de los pueblos deberán ser satisfechos por éstos, de sus privativos fondos, y de los de las Uniones.

9." Como para una y otra partición se necesitan Peritos y Carboneros prácticos que tengan conocimiento de estos montes, así como comisionados que asistan en representación de los pueblos se nombran por tales Peritos Agrimensores a saber.' por la parte de la Unión de Villafranca a Don Martín de Latiegui y Don Manuel Antonio de Machain vecinos por su orden de las villas de Ichasondo y Villafranca y por la de Amezqueta a Don Juan Bautista de Insausti y Don Pedro Ignacio de Plazaola en clase de sujetos inteligentes en la evaluación de montazgos (estos dos también por parte de la Unión de Villafranca no de la de

Amezqueta como se supone) y por la Unión de Amezqueta a Don Ignacio de Garmendia Maestro Perito y Don Miguel de Artola sujeto inteligente para la evaluación de montazgos quienes asociados con los Comisionados que asistan en representación de los pueblos evacuarán según las bases asentadas la ya proyectada partición de modo que las quince Repúblicas deberán estar y pasar por lo que ellos hicieren, supuesto que no se tratará de perjudicar a ninguna de ellas.

Agiri idatzian erabakita zegoenez, peritu batzuek berehala ekin zioten mendiak ikertzeko lanari: pagadien egoera, zenbat eta nolako pagoak zeuden kontuan hartuz, eta, aldi berean, bertara iristeko bideak urruti ala hurbil zeuden ere aztertuz. Eta, horrela, sei zati erabaki zituzten.

Sei zatiei zegozkien papertxoak han sartu zituzten ontzi batean, eta Elkartasun bietakoren batak, sei zatietatik lehenengoa, hirugarrena nahiz seigarrena ateratzen bazuen, Elkartasun hari berari zegozkion hiru zatiak, eta besteari beste hirurak; hau da, bigarrena, laugarrena eta bosgarrena.

Amezketari gertatu zitzaion lehenengo hiru zatietako bat, eta, beraz, harentzat ziren lehenengoa, hirugarrena eta seigarrena, 227. orrialdeko irudian margo gorrixkaz daudenak, hain zuzen. Ordiziako Elkartasunarentzat, berriz, beste hiru zatiak; hau da, irudian margo berdez daudenak. Banaketa egiterakoan, lehenengo hiru zatiak urdinez margotu zituzten mapa batean, eta beste hirurak gorriz.

Sei zatiak banaka adierazten ditugu hemen, mugak eta beste zehaztasunak deskribatuz.

Horra hor, galdu behar ez genituzkeen toki-izen jakingarri ugari:

I. Zatia.- Izenez Agotz-aldea. Sortaldetik hauek dauzka mugan: 2. zatia, Baiarrateko sarrera eta Laredo muinoaren mendi-bizkarra, eta zuzenean Alleko gaiña mendi-bizkarreraino. Hegoaldetik, Allekoren mendi-bizkarra eta Balmedianoko markesaren mendiak. Sartaldetik, Malkorbururen mendi-bizkarra eta Ataungo mendiak. Iparraldetik, Sastarriren mendi-bizkarra eta gaina, eta 6. zatiaren *Napar iturrialdea*.

2. Zatia.- Izenez Iraioko Akaitz-txikialdea. Sortaldetik, 3. zatia, Danbolinborda-burua deritzon tokia eta Enirioko Iturritxoa,gero, Aldeko erreka, Akaitz arriartea eta Arrioko gaina ditu mugan. Hegoaldetik, Etxarri-Aranatzeko Iraio eta Alleko mendien bizkarrak, eta Balmedianoko markesarenak. Sartaldetik, I. zatia. Eta iparraldetik, Baiarratera jaisten den erreka eta 6. zatia.

3. Zatia.- Izenez Abizegiko Akaitzburua. Sortaldetik, 4. zatia, Ezkizu gaina izeneko sakonunea, Dona Iturri mendiaren bizkarra, zuzenean behera jota, Maizegi erreka gurutzaturik, Jauzburu Aitza igaroz, Lezeta barrenaldea sakonunea jaitsi ondoren, Iraioko mando-bidea jarraituz,

Iraio mendiaren bizkarreraino. Hegoaldetik, Iraio-Alleko mendiaren bizkarra eta Etxarri-Aranatzeko mendiak. Sartaldetik, 2. zatia. Iparraldetik, gurdi-bidea, Ezkizu erreka, eta 6. eta 5. zatiak.

4. Zatia.- Izenez Errena-azpia-Zamiola, Lezetaren bi mendi-hegalak eta guzti. Sortaldetik, Errenagako gaina deritzon bidea, eta Araitz haraneko Errege-mendiak. Hegoaldetik, izendaturiko mendiak eta Etxarri-Aranatzeko beste batzuk. Sartaldetik, 3. zatia. Iparraldetik, 5. zatia.

5. Zatia.- Izenez Pagabe Onzanburu. Sortaldetik eta iparraldetik, Enirio-Aralarreko larre-sailak dauzka mugan. Hegoaldetik, 4. zatia eta 3.zatiaren alde bat. Sartaldetik , 6. zatia, Ezkizu sakonunea, Katxuspeko otadibarrena eta Peatzatako harrartea.

6. Zatia.- Izenez Napar-Iturrialdea. Sortaldetik, 5. zatia, Katxuspeko otadibarrena deritzon harrartea eta Ezkizuko sakonunea ditu mugan. Hegoaldetik, l., 2. eta 3. zatiak. Iparraldetik, Enirio-Aralarreko larre-sail askeak. Sartaldetik, Sastarri mendiaren bizkarra eta Haitza, eta Enirio-Aralarreko larreak.

Sei zati handi horiek beste gehiagotan zatitu zituzten, 227. orrialdeko irudian ageri den bezala, Ordiziako Elkartasuneko sei udalen artean banatzeko, baina zutik zeuden zuhaiztiei zegokienez bakarrik.

Berehala hasi ziren eztabaidak eta gorabeherak, eta horiek ekarri dute Gipuzkoako alderdi garrantzitsu horren gaurko egoera.

Arduratsuago antolatuko zutelakoan egin bazuten ere zatiketa, gerora alderantziz gertatu zen. Izan ere, berehala hasi ziren larre-sailen mugako pagadiak soiltzen eta hondatzen.

Hurbil zeuden artzain-txaboletako beharren eta lanen ondorioak laster agertu ziren beren ekintzetan: su-egurra ateratzea, ardientzat larreak zabaltzea, sail batzuk erretzea, e.a. Horrela, larre-sailen mugetan berehala hasi ziren pagadiak soiltzen edo husten.

Irizpide burutsurik gabe hasi ziren pagoak mozten, errazen eta egokien zeudenak lehenengo zirela; pago bakan batzuk gelditu ziren zutik, haien ondoren berriz ere landaretza indartzeko ezertan lagundu gabe. Azkenik, laster indar hartuko zuten elorri zuriek eta garo edo iratzeek, larre-sail garbiak zabaltzea lortu gabe.

Hurrena, elorri eta gainerako zuhaixkak garbitzeko, erreketak egingo zituzten, noski, larreak zabaldu nahirik. Horrela, Maizegi errekatik iparraldera zuhaizti guztiak zeharo garbitzeraino iritsiko ziren. Eta ez da halabeharrez gertatua; zergatik soildu ziren hain laster Itsasondo, Beasain, Ordizia, Lazkao, Ataun eta Zaldibiako udalei zegozkien sailak? Udal horietatik urrutieneko sailak direlako, eta lehenengo lau herriek

artzain gutxi zituztelako; ez da harritzekoa, beraz, gutxi zaindu eta oso erraz hondatu izana.

Hori guztia hondamen txikia izan balitz bezala, hona hemen Lazkaoko Udalak zer egin zuen. Zatien banaketa egin, eta handik hogei urte geroago, hain juxtu ere, 1841eko abuztuaren 26an, ageriko enkante edo nork gehiagoan atera zuen berari zegokion 5. zatiko zuhaitz-saila. Zehazki esateko, Onzanburu, Donaiturrieta, Jauzburu, Lezeta eta Pagabe ipini zituen salgai, eta 3.500 erreal izan zen salneurria. Okerrena ez da hori: askozaz burugabeagoa da zuhaiztiak betiko saldu izana; hau da, Udalak bere ondaretzat hartu zituen lurrak, baina haietako urak, belarrak, larreak, garo edo iratzeak eta orbelak besterentzat izateko baldintzarekin.

Pagadien truke hartutako dirua, Udaletxearen aurreko enparantza ixteko erabili zuten. Izendatu ditugun bost sail horietako zuhaiztiak, jakina dago zertan geldituko ziren: 1841 eta 1844 bitartean zenbait partikularri saldu baitzizkieten. Horrela, Pagabe, Onzanburu eta Donaiturrietan ez dago gaur pagorik.

Orain, ordea, Lazkaoko Udalak berreskuratzeko asmoa du; hau da, mende eta erdi pasa ondoren partikularrei saldutako sailak berriz erosi egin nahi baititu, lurrak ez ezik, haietako ondasunak ere bere esku edukitzea lortu nahi du.

Oso garai txarrak ziren herri-sailentzat, aurkako giroa sortu baitzen, eta Enirio eta Aralar mendietako sailak saltzeko arriskuan egon ziren, desamortizazioa edo legeak zirela bide.

Enirio eta Aralar mendiak, 1855eko maiatzaren 1eko desamortizazioaren agindura, saltzetik aske gelditu ziren; hori egia da, baina, zergatik? Elkarteko erabilerari esker, eta, batez ere, bertako larreei esker izan zela uste dute gehienek, baina ez da horrela; bertako zuhaiztiei esker lortu zuten saldu gabe eustea. Egia da, bai, 1862an egin zuten eskaeran bertako ondasun guztien erabilera eta gozamena elkartean zituztela aurkeztuz eskatu zutela, saldu gabe eusteko baimena lortzeko. Baina, gero, 1886an eskaera berria egin behar izan zuten Enirio eta Aralar Elkartasunek, 1863ko maiatzaren 24ko legearen 2. atalaren arabera, zuhaitzez (pagoz) jantzitako mendiak zirela, eta 100 hektarea. baino gehiagoko sailak zirela jakinarazteko. Eta, horrela, 1886ko irailaren 18ko Errege Ordenaren bidez eman zien baimena Sustapen ministroak, saldu gabe eutsi ahal izateko, eta, aldi berean, herri-onura izendatu zituen.

Arriskua uxatu ondoren, 1821eko erabaki idatziaren arabera, Elkartasun horiek eta herriek ondasunak erabiltzen eta gozatzen jarraitu zuten, arau eta zehaztasun guztiak zintzoki zainduz. Baina 1896an eztabaida gehiago sortu ziren, honako honengatik «*por considerarse damnificados los pueblos de Ichasondo y Legorreta con la observancia del régimen concordado en 1821, en cuanto que la inferioridad de su riqueza pecuaria*

comparada con la de otros pueblos de la Unión, la existencia de pastos suficientes en sus términos municipales y la distancia a que se encuentran de los montes comunales les colocan en condiciones desventajosas para el disfrute de los aprovechamientos de éstos, en términos de no reportar utilidad alguna directa» (2).

Itsasondo eta Legorretak, bertan larrerik aski bazutelako eta Elkartasunekoak urrutiegi zeudelako, ondasunen erabilera Enirio eta Aralar Elkartasuneko herritarren artean enkantean edo nork gehiagoan ateratzeko eskatu zuten; eta eskaera onartzen ez bazitzaien, zatitzea eskatzeko eta mendiak saltzeko asmoa agertu zuten. Eskaera hori zela-eta, batzorde bat izendatu zuten arazoa aztertzeko, eta, gero, batzarra egin zuten Elkartasuneko guztien artean; azkenean, gehienen iritzira, 1821eko itunaren arabera jokatzeko erabakia nagusitu zen.

Baso-berritze saiakera

Enirio eta Aralarko larreetan bake samarrean zebiltzala uste dezakegu. Maiatzetik azaroa bitartean 25.000 ardi gutxi gorabehera ibiltzen ziren larrean, eta bestelako abere asko ere bai, Elkartasunekoak, jakina, baina baita beste zenbait herritatik eramanak ere.

Elkartasunak erabaki bat hartu zuen 1911ko urtarrilaren 16an, zenbait urtez garrantzia izan zuena; eta hori bera onartu eta sendotu egin zuen Gipuzkoako Aldundiak bere batzorde baten bidez. Eta hauxe zen erabakia: 1821eko Itunean zatika banaturik gelditu ziren zuhaizti-sail osoan zuhaitz-landareak sartzea, eta landatu heinean, zatika abereei sarrera ixtea. Guztira, bazen 1.000 hektareako lur-saila.

Zergatik jo zuten horretara? Zuhaiztiak zeharo urritu eta sailak soildu zirelako, inork landare berri bat sartu gabe, Zaldibiak landatu zituen pago batzuk izan ezik. Horrela zioten, gainera, orduan bertan: «*Al hacer desaparecer de estos terrenos (el montazgo de Fnirio-Aralar) todo el arbolado, las aguas al correr por sus pendientes pronunciadas sin encontrar obstáculo a su acción erosiva han arrastrado la poca tierra que recubría la roca caliza del subsuelo deforma que ni árboles, ni pastos, ni helechos se obtienen hoy en aquellos terrenos*».

Batzorde bat izendatzea erabaki zuten 1909ko irailaren 13ko Batzar Nagusian, eta Amezketa, Baliarrain, Beasain eta Legorretako alkateek osatzen zuten batzordea. Zer eginkizun ipini zioten batzordeari? Artalde eta abereen beharrak ahaztu gabe zaindu, eta zuhaiztiak berritu eta indartzeko neurriak aztertu eta egitasmo bat aurkeztu behar zuten, Elkartasuneko herrientzat onurarik handiena ateratzeko eran.

Batzordeak, azterketa-lanaren ondorioz, asmo jakin batzuk aurkeztu zituen 1911ko abenduaren 16ko Batzar Nagusian. Batetik, Batzorde Iraunkor bat izendatzea; bestetik, zuhaitz-landare berriak sartzeko eta

zaintzeko bideak aurkeztu zituen, eta, era berean, sailak zatika hartu eta ixteko, eta ez guztiak batera, abereak larrerik gabe geldi ez zitezen; hurrena, zuhaizti berriak zaintzeko, gizon trebe batzuk baso-zain izendatzea, Elkartasun bakoitzetik bana; eta, azkenik, baso-berritze eta beste kasuetarako zerbait aurreratzearren, mendi horietan larratzen ziren artaldeei eta txabolak erabiltzen zituztenei zergatxoren bana ezartzea, eta iratze edo garoaren erabilera antolatzea.

Batzordeak aurkezturiko egitasmoaren aurka atera ziren herri hauetako ordezkariak: «*Ataun, Amezketa, Abaltzisketa, Gaintza, Lazkao y Zaldibia con un escrito ampuloso en la relación de hechos, y deficiente bajo el punto de vista, jurídico por ser una sistemática oposición al antedicho proyecto aún en aquellos puntos que eran compatibles con la Concordia de 1821*» (3).

Felipe Arin eta Dorronsororen iritzira, nahiz presaren presaz, eta nahiz aholkulari burutsuen faltaz, aukera bikain hori galdu egin zuten, eta arazoari irtenbide egokia eman gabe gelditu ziren. Batzordeak aurkezturiko egitasmoa, -aurkarien jarrera aintzakotzat hartu gabe- onartu egin zuen Batzar Nagusiak 1911ko urtarrilaren 16an, bederatzi herri baiezkoaren alde eta sei ezezkoan zirelarik.

Aurka zeuden udalek askotan jo zuten gora, eta horretan tarteko izan ziren Abella, La Cierva, Rekondo eta Bandres abokatuak. Baina Aldundiak ez zituen aintzakotzat hartu, eta erakunde horretako Basozaintza Zerbitzuko batzordeak baso-berritzeko beste egitasmo bat aurkeztu zuen 1919. urtearen azkenetan. Aldundiak onartu aurretik, arazoan tartean ziren herriei azaldu zieten aurkako arrazoiren batzuen jakinarazteko, aldaketaren bat egiteko.

Elkartasunaren 1920ko urtarrilaren 26ko Batzar Nagusian, baso-berritzeko egitasmoa ontzat hartzea eskatu zuen Lehendakaritzak, baina eztabaida luzearen ondoren, erabaki garbia hartzerik ez zuten lortu: egitasmoaren alde eta eginbiderik egokiena Aldundiak berak antolatzearen alde eman zuten erabakia bederatzi herrik, baina Abaltzisketa, Amezketa, Gaintza, Orendain eta Zaldibiak aurkako botoa eman zuten; Ordizia, berriz, erdian gelditu zen, ez alde eta ez aurka.

Aldundiko Batzordearen egitasmoa onarturik gelditu zen 1920ko irailaren 20an. Bai, baina hona hemen zer dioen Felipe Arin eta Dorronsorok bere txostenean:

«Sin desestimar en forma la oposición formulada por los cinco mencionados pueblos en la Junta General de 26 de Fnero del mismo año, ni hacer mención alguna de tal oposición, no habiéndose comunicado a los pueblos en debida forma la aprobación del proyecto para que los perjudicados pudieran interponer los recursos legales. Debió, sí, remitirse a Villafranca un proyecto de repoblación que era el mismo que la junta

discutió pero sin firma alguna y sin hacerse constar que se había aprobado por la Diputación, y el Alcalde de Villafranca dio a los de los pueblos de la Unión copias simples del proyecto, sin notificarles resolución alguna en forma».

Oker hasi zen kontua... Herriek onartu egin zuten berme gehiagorik gabe hartutako erabakia, eta zuhaitzak landatzeko egitasmoaren aurka zituzten arrazoiak aintzakotzat eduki gabe hartutakoa. Horrelaxe hasi zen Aldundia, egitasmoaren lehenengo faseari zegozkion zuhaitz-landareak sartzen.

Berehala agertu zituzten aurkako arrazoiak: Sail hartan abereentzako iturri, edateko leku, bide, atseden-toki eta antzekoak zeudenik ere aintzakotzat hartu gabeko egitasmoa zela batetik, eta hogei sendi baino gehiago bizibiderik gabe uztea zela bestetik, eta Aldundiak inolako ordainketarik ez zuela haientzat eratu. Horrela ulertu zituen gauzak Elkartasuneko Batzordeak, eta sailka itxiturak ipintzeko lanak hilabetez atzeratzea erabaki zuen; gauza bera eskatu zioten Elkartasuneko herriek Aldundiari. Baina horrek ez zituen eskaerak onartu. Konponbidera iristen ote ziren ikusi arte, itxiturak ipintzea alditxo batez atzeratzeko eskatu zieten basoetako zaindariei artzainek beren aldetik. Eta, orduan, kontu handirik gabe erantzun ziren Aldundiak: landaketak aurrera jarrai zezan, mikeleteak bidali zituen, indarrez babestu eta zaintzeko.

Enirio mendipean basozainentzako etxea ere eraiki zuten, landaketan aritzen ziren langile ugariri ostatu emateko; mintegi batzuk ere jarri zituzten; eta gastu guztiak Aldundiak aurreratzea erabakirik zegon. Itxiturak ipintzeko gastuak, berriz, Elkartasuneko herrien artean ordaintzekotan ziren, herri bakoitzari zegozkion sailetan egingo zituzten landare-zuloen arabera.

Oraingo egoera

Porrot egin zuen baso-berritzeko asmoak, mintegiak galdu egin ziren, basozainen etxea ere hondatu egin zen apurka; larre-tokiak betiko era berean erabiltzen jarraitu zuten artzainek; zuhaiztiei dagokienez, aurrez burutsuki inolako egitasmorik egin gabe jarraitu zuten zuhaitzak botatzen, bai ikazkintzarako, bai zur-enborrak kanpora ateratzeko; egurra atera behar zutenean, kablez egiten zuten, eta, gainerakoak, mando-bideetan barna, mandoz; bide horietako batzuek Lizarrustira zuten irteera.

Gudaldia zela-eta, burdina lantegietan erregai ugari behar zutelako, jo eta ke ekin zioten ikazkintzari, pagorik gehienak botatzeraino.

Zenbaitetan, eragozpen bereziak eragin zituzten larre-abereek, zuhaiztiak berez berritzea galarazten baitzuten; horrela, Jaizkibeldik eramandako betizuak ibili ziren garai batzuetan Aralarren, eta, hain juxtu ere, pago-landare gazteen kimu berriak ziren haien janari, ardienaz gain.

Aldi luzean desagertutako *BasoBarruti* izenekoaren ardurapean egon ondoren, eta, gero, ICONAren esku ere bai, etekin eta onura handirik ez diete atera zuhaiztiei. Orain, ordea, badituzte zenbait asmo Udalbatza berriek, burutsuki eta gaurko giroaren arabera jokatuz etekin hobeak ateratzeko bidean. Horrela, 1979. urteko abenduaren 19ko Batzarrean, Ordizian, Aldundiari eskaera batzuk egitea erabaki zuen Zuzendaritza Batzordeak. Hain zuzen ere, Enirio eta Aralar mendietako arazoak aztertu eta irtenbideak emateko eskatu zioten Aldundiari, honako alderdi hauek argituz:

- Gipuzkoako egoera ekologikoa azterturik, Enirio eta Aralarko oihan edo basoek alor horretan duten egiteko garrantzitsua argitzea.

- Elkartasuneko Udalen behar eta eskubideak aztertzea.

- Antzinatiko artzain iraunkorren egoera eta beharrak ikertzea.

- Lurraldearen errealitate soziala gogoan hartuta, mendi-sail horien egoera eta etorkizuna argitzea.

Arazoak zailtasunak badituenik ezin ukatu, batzuen eta besteen asmo eta beharrak elkarren aurkakoak baitira. Nolanahi ere, garbi dago konponbiderako hari nagusia: artzainen etorkizuna eta zuhaiztiena, urak zaintzea eta erabiltzea, inoren kaltean izateko ordez, guztien onerako izango den eran antolatzea. Hortaz gainera, gero eta gehiago dira Aralar aldea bezalako sailetan toki egokiak eskatzen dituztenak, nahiz mendian ibilbideak egiteko, nahiz atseden hartzeko, eta hori ere kontuan edukitzeko alderdia da.

Abeltzainen artean aurkitzen dugu lehenengo zailtasuna; izan ere, behiak eta behorrak jaregin eta lotu gabe larratzea nahi dute batzuek, baina abere larri horiek larreak oinpean zanpatzen eta simaurrez zikintzen dituzte, eta, gero, artaldeek ezin jan izaten dute; abeltzain eta artzainen arteko arazo hori nola konpondu? Artzainek beren eguna eta lana oso-osorik beren artaldeekin dute urtean sei hilabetez, eta hori dute beren bizibidea. Behorren jabeak,berriz, batzuk salerosle edo tratulari dira, eta beste zenbait kaletar soilak, oso-osorik horretatik bizi ez direnak. Gauzak horrela, artzainen alde erabakitzekoa da auzia, haiek dutelako, nolabait ere, lehentasuna.

Pagadientzat tokirik egokienak aukeratzea, eta berriz ere pagadi bihurtzea, oso beharrezko gauza da. Horretarako, ordea, iritzi eta behar desberdinak dituztenak jokabide batera etortzea lortu ondoren, pago-landaketarako egitasmo bat eratzea litzake beharrezko gauza. Landaketak egitearekin batera letorke, jakina, itxiturak ipintzea ere; larre-sailentzat inolako galerarik izango ez litzakeen eran egin behar, ordea, itxiturak, eta, aldi berean, txilarrak, iratze edo garoak eta heriotzorriak kendurik, larreak garbitzea lortzeko eran.

Atseden eta jolaserako toki ere izan daiteke mendia, horrela nahi dutenak gero eta gehiago baitira; eta, horretara joaten direnentzat muga batzuk izan behar ditu mendiaren erabilerak: abereak, txabolak, zuhaitzak, iturriak eta larreak begirunez zaintzea lehenengo; bestetik, motoz, beribilez nahiz bestelako mendi-tresnaz igotzen direnentzako zehaztu beharko lirateke arauak.

Azkenerako utzi dugu bizi-bizirik dabilen arazo bat, bikoitza bera: hau da, batetik, artzain eta beste abeltzainek zenbat buru dauzkaten, kontu zehatzik eman behar ote duten; eta bestetik, larreetara abereak sartu aurretik urteroko ordainketaren bat egin behar ote duten. Zehaztasunei dagokienez, nortzuk diren larreetan dabiltzanak, eta zenbateraino edo zer neurritan erabiltzen dituzten larreak, zehazki jakitea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Ordainketari dagokionez, berriz, larreen erabilera edo gozamena beti hutsean izan delakoa oinarritzat hartuta, zerbait ordaintzea, gutxi bada ere, oso beharrezkoa dela esango nuke nire aldetik, larreak, txabolak eta askak hobetzeko lagungarri ona izango litzakeelako horretan bildutako dirua, gainerakoak gainerako. Bestela, horrelako arduraz zaindu eta hobetu ezik, mendiarentzako kalteaz gainera, hamabost herrietako artzainentzat izango lirateke galerarik handienak, onura eta mesedeak izateko ordez.

Ref. bibliográfica y gráfica: Jorge Ascasibar. Mendiak. Tomo 2, pág 226-234.

BEREZKO ESPAZIOA

Enirio eta Aralarreko Errege-sailen arteko elkartasunak

Aralar: Nafarroaldea

Nafarroak oihan-zaintzarako bere legedi berezia baldin badu -Espainiako «Mendiei buruzko legearen» antzekoa delarik ere- 1841eko abuztuaren 16ko «Lege Paktatu» edo nolabaiteko adostutako legeari esker dauka.

Lege horrek bere 10. atalean erabakirik daukanez, Nafarroak, aurrerakoan probintzi izateko, bere Erreinu izaera galdu zuelarik ere Madrilek kenduta, eskubide horiei eutsi ahal izan zien: «*administración de productos de las propias ventas, efectos vecinales, arbitrios y propiedades de los pueblos y de la provincia*», hau da, lehen «Consejo de Nabarra» eta «Diputación del

Reino» ziren erakundeek zituzten eskubide berak edukiz jarraituko zuela, aurrerakoan «Diputación Provincial» izango zenak, baina gai horietan.

Delako «Lege Paktatu» hori 1841ean erabakitzerakoan, Nafarroan indarrean irauten zuten legeen arabera, bertako Aldundiari zegozkion «*la administración y fomento de los montes y plantas e intervenir en la formación de las ordenanzas municipales*»; beraz, mendiekiko araubideak - antolatzea ere berari zegokion. Eta Nafarroako «Cortes» edo Batzarretako (1828-29) Legearen agindura, bertako «Consejo» zeritzaion Erakundeak zuen eskubidea herri-sailak saltzeko baimena emateko eta herri-eskubideak zaintzeko (4).

«Aralarko Elkartasuna» edo «Realengo», hau da, «Errege-sailak», Estatuak bere esku zeuzkan mendiak dira, baina, hala ere, Erdi Arotik hasita, -Urbasa, Andimendi, Planilla eta Aezkoa mendiek bezala- mendi horiek ere lotura handiak zituzten ondorengo herri hauen guztien mesedetan: Etxarri-Aranatz, Lizarraga-Bengoa, Arbizu, Lizarraga, Dorrao, Unanua, Arnazu, Lakuntza, Irañeta, Hiriberri-Arakil, Iabar, Betelu, Aribe, Atallu, Azkarate, Uztegi, Gaintza, Intza eta Errazkin.

Aralarko Elkartasuneko herriek dituzten eskubide eta betebeharrak zehazki dauzkan agiririk berriena, l862ko uztailaren l0eko idazki bat dugu. Hona hemen bertako arau guztiak gazteleraz hitzez hitz emanik:

l.ª Primeramente se reconocerá a los expresados pueblos y villas el derecho gratuito y perpetuo de gozar con todos sus ganados, menudos y de cerda, las yerbas, aguas y pastos de los Reales Montes de A ralar, todos los tiempos del año que se permita la introducción del ganado con arreglo a las leyes del país y la costumbre.

2.1 Se reconoce también el derecho de poder levantar chozas y cubiles para albergar el ganado, cortando los árboles y el ramaje necesario, así como la leña indispensable al acogimiento y necesidad de los pastores; para los hogares, villas y particulares que hayan de levantar el cubil, deberán ponerlo en conocimiento del sobreguarda, cuatro días antes de principiar su construcción, sin que puedan tampoco destruirse las expresadas chozas y cubiles. El aviso al sobreguarda tiene por objeto el que los cortes necesarios, señalamientos del sitio y demás, lo haga la intervención.

3.u Podrá todo vecino cortar leña o madera para sus propios usos y el de sus edificaciones y reparos de éstos, así como para aperos de labranza, mas cuando necesiten hacer algún corte de consideración para algún edificio pasando de dos hayas las que se necesiten deberá hacerse el pedido en los seis primeros meses del año al Señor subdelegado, para que pueda tenerse a la vista solverse en éste, justificando los interesados en cada caso la necesidad que tengan de las piezas pedidas y usos a que las destinan, lo que deberá acreditarse con certificado del Alcalde de pueblo

respectivo. Concedido el permiso conforme a la posibilidad del monte el Sobreguarda o quien haga sus veces procederá al señalamiento y-marqueo, teniendo presente la proximidad mayor del pueblo donde haya de utilizarse los materiales. Estas operaciones se verificarán con arreglo a las Ordenanzas de bosques y RR 00., pero el corte de leña para su cocina, como también para aperos de labranza o para alguna recomposición de casa podrán los vecinos hacerlo con un solo certificado del Alcalde del pueblo o villa que lo expedirá bajo su responsabilidad. Se previene que la leña para la cocina deberá hacerse de despojos o ramaje, prohibiéndose, absolutamente quitar las guías a las hayas.

4.ª,Se concede a los expresados pueblos el poder arrancar y llevar para usos de su casa, tan solamente la hgjaresca, el helecho y la hoja del fresno, para el ganado y también el ,fresno.

5.ª Podrá el Real Patrimonio hacer cercados para la formación de viveros y plantaciones para el mayor fomento del arbolado, prohibiéndose la introducción de ganado en los viveros.

6.ª Con respecto a los irascos o cabras, se observarán las leyes del país relativamente al número y paraje que puedan pastar.

7.1 Se les concede a los vecinos de los lugares y villas el que puedan elaborar carbón, esto es, los sujetos que lo necesiten debiéndose hacer primeramente con despojo y ramaje, dejando siempre la guía principal cuando se corte el ramaje de árbol vivo y con la limitación que luego se dirá. Pero si el número de cargas que para cada pueblo quedara señalado, no pudiera elaborarse con despojo y ramaje el representante del Real Patrimonio vedor o sobreguarda, señalará el modo con que deba cubrirse la falta que resulte para el completo de las cargas señaladas.

A la villa de Lakunza, se señalan 100 cargas anuales, y 30 a la de Arruazu. Y respecto a la villa de Etxarri-Aranaz, los tres pueblos de valle de Frgoiena, villa de A rbizu y lugar de Lizarraga-Bengoa, se previene en la escritura de convenio otorgada en 6 de diciembre de 1855, se concedieran cargas de carbón a saber

A Etxarri Aranaz 200 A los tres pueblos del Valle de Ergoiena 200
A la villa de Arbizu 150
A Lizarraga-Bengoa 20

Y como este carbón se concedió en dicha escritura en los Reales Montes de Andía, Entzia y Urbasa, escritura que versó sobre arreglos de derechos en los mismos se establece ahora que si los referidos pueblos pueden extraer más número de cargas de carbón que las señaladas en aquella escritura, quedan en libertad de elaborarlas, ya sea en Ándia, Urbasa o en A ralar. La elaboración deberá hacerse desde marzo hasta septiembre inclusive de cada año, debiendo estar provisto el con- . ductor de un

certificado del Alcalde del pueblo, especificando los nombres de los vecinos para quien hace el carbón, y el número de cargas y debiendo también ponerlo en conocimiento del señor subdelegado o sobreguarda antes de principiar la elaboración. Se advierte que el carbón concedido debe entenderse tan solamente para el uso privativo- de las familias en sus cocinas y ,braseros, prohibiéndose todo otro uso de venta y cesión aun entre los vecinos de un mismo pueblo. Fl infractor de esta parte incurrirá en la plena del quintuplo del valor del carbón vendido o cedido, perdiendo además por tiempo de diez años el derecho que podrá tener con arreglo a estas bases.

8.ª Los contraventores a lo que queda estipulada o dañadores en cualquier sentido y compradores de duela, y demás, serán perseguidos con arreglo -a la Ley, estando obligados los vecinos a denunciarles y los Alcaldes a castigarlos.

9.ª Los pueblos, a sus espensas podrán nombrar guardas para el cuidado del monte además de los que están por cuenta del Real Patrimonio.

Arretaz eta burutsuki egindako lanaren ondorio dira arau horiek, lehendik zeuden eskubide, auzien epai eta beste agiriak aztertuta landuak baitira. Horrela, Enirio eta Aralarko elkartasunek 1821eko beren Itunean baino arauketa zehatzagoa daukate nafarrek; eta, gainera, oihan edo basoak eta larreak elkarren artean konpontzeko egokiagoak direla esan behar dugu.

Estatuak bere ondasuntzat Nafarroan dituen mendiekiko administrazioa eta kudeaketa teknikoa Nafarroako Aldundiaren esku ipini zituen 1927ko abuztuaren 15eko Errege-dekretu baten bidez. Gero, 1930eko ekainaren 30eko Errege-dekretu baten bitartez zehazki arautu zuten.

Hurrengo urtean, 193lko urtarrilaren 29ko Errege-ordena baten bidez osoturik gertatu zen aurreko arauketa. Benetan garrantzizkoa delako, hona hemen 9. artikulua:

«*Al proceder a la reunión de los proyectos de ordenación que están en ejecución así como en los nuevos Proyectos y Planes que se formulen, será objeto preferente el estudio de los pastizales para procurar que se armonicen los intereses de la ganadería con la conservación del monte actualmente poblado, reduciendo la extensión y número de los acotamientos a los extrictamente indispensables, determinando su más conveniente localización y aumentando su producción por medio de cultivo intensivo que sustituya el extensivo a cuyo fin la Diputación procurará inculcar a los ganaderos la necesidad de establecer métodos de pastoreo que los que en la actualidad se practican*».

Hitz horiek gaurko ere balio handia dutenik ezin ukatu; batez ere, mendiak eta haietako zuhaiztiak batetik, eta abereentzako larreak

bestetik, elkarren artean ongi uztartzea eskatzen duelako; baina baita ardi-larretarako sailak, lurrari etekin hobea ateratzeko bidean, hobeki zaintzea eskatzen duelako ere.

Oraingo egoera

Aralartik Gipuzkoari eta Nafarroari dagozkien zatien artean alde eta desberdintasun handiak daudela esanez hasia dugu idazlan hau.

Gipuzkoakoan baino zuhaizti aberatsagoa dago askoz ere Nafarroa aldeko Aralarren; batetik, iparrera eta. sortaldera dagoen alderdia delako, eta, beraz, egokiagoa pagoarentzat; baina bestetik, ez du garrantzi gutxiago izan agintarien aldetiko antolabideak, Estatuaren esku lehenengo, eta mende erdi batez Nafarroako Aldundiaren esku ondoren, gorago esan dugunez. Izan ere, burutsuki zaindu dute, eta mesedegarrien dena, etenik gabe zaindu.

Aralar mendiak Nafarroako sailetan edo Errege-sailetako Elkartasuna delakoan, 2.190 hektarea lur hartzen ditu. Sail horretarako bada antolamendu egitasmo bat, 1912koa, eta, hain zuzen ere, orain ari dira hirugarren berrikuspena egiten.

Ez da Aralar mendiaren Nafarroa alde osoa, zati bat baizik, eta, 227. orrialdeko irudian ageri denez, lau laurdenetan banaturik dago; hona hemen bakoitzaren xehetasunak:

Laurdena	Zuhaiztia (hektarea)	Baso soila.(hektarea.)	Guztira
A	-	531	531
B	282	261	543
C	559		559
D	537	20	557

Mendi-sail horietako zuhaitzetatik 1.400 m3 edo tona egur atera daitezke. Egur hori ia erabat RENFEk ustiatzen du, Nafarroako Aldundiarekin eginik daukan itun bat dela bide (*).

Su-egurrak berriz ere eske gehiago duen garai honetan, herriak eskean hasiak dira. Eta herrien beharretarako gutxi gorabehera 1.200 m3 edo tona egur nahi dituzte. Horrela, ordea, zuretarako egurra gutxitzea dator.

Gudaldiaren ondorengo agintera zorrotzaren garaietan egin zuten antzera, orain ere, behar bada, herri-sailen gozamena eta erabilera arau zehatzen bidez neurtzea oso mesedegarri izan daiteke. Hau da, egurra eta zura basotik ateratzeko baimena herritarrei ematean, bakoitzaren beharretarako bakarrik izan dadila, eta ez aroztegietarako, ezta irabazian besteei saltzeko ere (5).

Abelazkuntzari dagokionez, Aralarko Nafarroa aldean hogei-hogeita hamar artalde larratzen dituzte udaberritik udazkenera, gehienak Aribe, Atallu, Gaintza eta Lekunberritik igoak, jakina. Eta hain zuzen ere, mapan A eta B hizkiz adierazirik dauden laurdenetan.

Aralar aldea bai larretarako eta bai basogintzarako egoki zaindu ahal izateko, gaur arduraz hartu beharreko alderdia da; hau da, moto eta beribilen gehiegizko eta beharrik gabeko sarrera eta ibilerak kontrolatzea, hondatu gabe iraun dezan mendiak.

Lekunberritik gorantz San Migeleraino doa asfaltozko errepide berria, estua bezain sendo egina bere 16 kilometro luzean. Azkenera baino lehen, basozainen etxea dago, *guardetxea,* bide-ondoan; hain juxtu ere, une horretatik abiatzen da mendi-bide bat, Pagomarin aurrera, Igaratzaraino doana.

Arazoaren alderdi kaltegarria honetantxe dago: lurra bustiegi ez dagoenetan, beribil asko eta asko sartzen dira larre-sailetan aurrera, larretarako belardien kaltetan, eta ez da bazter bateko arazoa bakarrik, tamalez.

Nafarroako eta Gipuzkoako Aldundiek batera eta elkarrekin aztertu beharreko arazoa da, Aralar mendi bikainari zor zaion irtenbide edo antolaketa egokia bien artean eman ahal diezaioten. Hiru alderdi daude hor arretaz zaindu beharrekoak: artzaintza, batetik; mendizale eta izadizaleen arazo garrantzitsua, bestetik; eta pagadiak zaindu eta ugaltzea, azkenik. Pagadiei dagokienez, izan ere, luzarora begira lehengo pagadi-sail handiak lortzera jotzea oso beharrezkoa baldin bada, dagoeneko hasi beharra daukate Aldundiek egitasmo batzuk abian jartzen. Zerbaiti izatekotan, pagoari dagokio Reclus-en honako esaldi polit ura:

«*Cada hoja retiene su perla y con un rato de lluvia, llora el bosque todo el día*».

Ref. bibliográfica y gráfica: Jorge Ascasibar. Mendiak. Tomo 2, pág 226-234.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Antiklinorioak eta sinklinorioak

Egitura-eskema. Antiklinorioak eta sinklinorioak Euskal Mendietako tolesturen kokapenaren eskema.

Gorriz adierazten da kanpoko antiklinorio-arkua.

Irudi-erref.: Eusko Lurra, 2. Erliebea, 173. or.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA



Kanpoko antiklinorio-arkua

Bortzirietako mazizotik mendebalderantz Somorrostroko mendietaraino hedatzen da, Bizkaiko edo Bilboko hego-antiklinorioa bilduz.

Honek taxutzen du multzoko unitate morfoestrukturalik garrantzitsuena, inplikazio handiak dituena eremua osatzen duten gainerako faktoreetan, bera baita isurialde kantauriar eta mediterraniarraren arteko banalerroa. Mendebaldetik ekialdera hedatzen den lerrokadura osatzen du, Aralar, Aizkorri, Elgea, Arlaban eta Gorbeiako mendiekin batera: «Bilboko antiklinorio»aren hegoaldeko aldea taxutzen duten kareharri urgondarretan zizelkatutako erliebe monoklinalak dira.

Mendebaldetik Aurrepirinioetako barne-mendizerrekin bat egiten du.

Izatez, sail hau aurrepirinioetako mendizerren mendebaldeko jarraipena da; jarraipen hau argia da Nafarroako mendebaldeko sektorean eta Gipuzkoako ekialdekoan, Aralarren hasi eta Aizkorri, Elgea, Arlaban eta Gorbeian jarraitzen duen lerrokadurarekin.

Unitate honek forma bihurria du, mendebaldeko zonaldean, hegoalderanzko ahurtasunaz, eta iparralderanzko ahurtasunaz ekialdekoan, Aizkorriren 1.544 metroko gehienezko altuerarekin.

Hegoalderanzko okermendu handia duen malda monoklinal itzela da, eta oso egitura konplexua du, zamalkadura eta faila ugariz, besteak beste.

Ref. bibliográfica y gráfica: Colección Geografía de Euskal Herria. Tomo 2. Pág. 173. Edit. Etor.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Nafarroako mapa geologikoa

Litologia edo mendilerroan azalerazten den harria Goi Triasikotik Kretazeo Goienera doan arokoa da, elkarren segidan, etenik gabe agertzen da; hori guztia, Bigarren aroaren edo Mesozoikoaren barruan.

Lehen azaleratze garrantzitsuak **Triasiko** aldian hasten dira: buztingorria eta karniola, baina hedadura gutxi hartzen du; batez ere, aurrealdeko zamalkaduran ageri da.

Hurrengo periodoak mendigunearen hedadura handia hartzen du, itsasoko **Jurasikoa**, oso osatua, oso ondo bereizten diren maila gogorrez eta bigunez eratua; oso nabarmen geratzen dira paisaian, batez ere iparraldeko hegalean.

Serie jurasikoari kareharrizko zerrenda batek ematen dio hasiera, eta goiko aldean da serie karekizkoena.

Jurasikoaren bigarren aldian, kareharri gris zerrenda handia du, metro erdi eta metro bateko zatiko geruzak ondo bereizten dira. Kareharri tupatsuak ere tartekatuta daude, batez ere, mendilerroaren mendebalde aldean.

Jurasikoaren hirugarren eta azken zatiketa, kareharri gris segida batek osatzen du, baina badu berezitasun bat: maila horietan silexeko noduluak eta zati detritiko hareatsuak daude. Aldi honen bukaera aldera, kareharri argi ugari azaleratzen dira, gainaldea oso karstifikatua duela.

Erref. bibliografikoa: Ibaiak eta Haranak tomo 7, pág 64. Edit. Etor.
Irudi erref.: El mundo subterráneo en Euskal Herria, págs. 230-237. Edit. Ostoa.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Erliebe unitate handiak

Endokarsta

Espeleologia-jarduera oso lagungarria da endokarsta edo karekizko mendiguneen lur azpiko osaera hobeto jakiteko.

Aralarren kasuan, barrunbe-dentsitateari dagokionez, kilometro bakoitzeko 4,1 daude (Ugarte F. 1985), eta, horietatik asko dira handiak (100 metro baino gehiagoko sakonera duten simak eta 500 metro baino gehiagoko barrunbeak).

Aralar beste mendiguneren batekin alderatuz gero, esate baterako, Languedoc -eko ekialdean, 1.140 kilometrotan 25 daude, oso handiak; eta, Gipuzkoa aldeko Aralarren, berriz, 56 kilometrotan 17 daude. Frantziako mendigune horretan bertan, kilometro bakoitzeko 1,6 barrunbe daude (Ugarte F.1986).

Barrunbeen eraketa eta garapena litologia-baldintzen araberakoa da (harriaren kaltzio karbonato maila), eta eraketaren araberakoa (tolesturaren norabidea, pitzadura, geruzen inklinazioa...).

Aralarren barrunbe kopururik handiena arrezifeetako kareharrizko tarteetan daude (%60).

Jurasiko aldiko kareharrietan gainazal-azpiko barrunbe motak nagusitzen dira, eta horren bi adibide ditugu, karstean pixka bat sartu direnak: *Ondarreko zuloa* eta *Basolo.*

Kareharri urgoniarren kasuan, mendilerroaren hegoaldean kokatuak, hiru barrunbe mota sailkatu dira (Felix Ugartek Aralarri buruzko doktorego-tesian hitzez hitz aipatzen duenaren arabera), eta honako hauek dira:

1.- Gainazal-azpiko barrunbeak, urgoniar zerrendaren ertzean garatuak, failen parean. Esate baterako, Auntzarretako leizeak 7 metroko sakonera du eta hondoa lohiz betea du.

2.- Aldaparen atzealdeko goiko sektorean eratutako barrunbeak. Esate baterako, Leizebeltz, 1.250 metroko garapena du, eta 288 metroko altuera. Beste barrunbe batzuk, esate baterako, *Sastarriko leizea* eta *Sastarriko kobea*, garai batean bide izandakoaren zati izan daitezke.

3.- Hirugarren taldekoak gaur egungo sistema hidrologikoan barrunbe baliagarriak dira. Gainazaleko ura errazen infiltratzen den zonaldetan eratzen dira (sakonuneak, haranak). Sistema hau Larretxiki-Ormazarreta guneari dagokio, aurrerago deskribatuko duguna.

Ausa Gaztelu urgoniarraren kasuan. Barrunbe bereizgarria Errekonta errekako kobatxoa da. Galeriek tolesturen norabidea hartzen dute, altuera desberdinetan tartekatutako galeriak ditu, eta, badirudi, funtzionamendu hidrodinamikoaren mailei dagozkiela.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria, págs. 230-237. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Eusko Lurra 2. El relieve, pág. 39. Edit. Ostoa.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Mapa geologikoa

Testuinguru geologikoa. Morfologia

Aralar mendilerroaren egitura-itxurak ez du aldaketa handiegirik izan jatorrizko geometria geologikoan; eta erliebeen egiturak nabarmen azalerazten dira paisaian (Ataungo Domoa, egitura antiklinalaren mendebaldeko ertza, mendilerroaren goiko aldeko gunea, iparraldeko zamalkadura...).

C. Floquet egileak mendilerrorako zenbait egitura-unitate definitu ditu, eta lurralde gipuzkoarrari eragiten diotenak aipatzen ditu.

1.- *Ataungo Domoa*
2.- *Txindokiko antiklinala*.
3.- *Aralarko ezkata.* Egitura hau Nafarroan garatu da, batez ere.

Gainerako egiturak, esaterako, erdiko sinklinala eta Oderitzeko antiklinala, Nafarroako Lurralde Historikoan daude.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria, págs. 230-237. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Eusko Lurra 2. El relieve, pág. 35. Edit. Ostoa.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Mapa geomorfologikoa

Exokarsta

Aralar mendilerroak gaur egun duen erliebea ezaugarri geologikoen (tektoniko- eta litologia-egitura) eta klima-baldintzen ondorioa da, garai bateko Kuaternario aldian izandakoak batez ere, gaur egungo morfogenesia ez baita oso handia.

Baldintza horiek berek, geologia- eta litologia-egiturak, paisaia desberdinak eragin dituzte. Ekialdetik mendebalderako norabideari jarraituz, lehendabizi Ataungo Domoa definitutako egitura daukagu.

Ataungo Domoa Agauntza ibaiak inguratzen du, eta haren ertzetan Ataun udalerria osatzen duten zenbait auzo finkatu dira. Aralarko egitura bereizgarriena da, mendilerroaren beheko aldean kokatua. Egitura geologiko hau gune batek osatzen du, eta, horren erdian, Beamaburu mendia nabarmentzen da.

Erremedio eta Arrateta ubideak; domoan jaioak, Agauntza ibaiarekin bat egiten dute aurrerago.

Domoa inguratzen duen karekizko gailur-lerroari honako gailur hauen bidez jarrai diezaiokegu: *Intzartzu* (826m), *Itaundieta* (621), *Leizadi* (921), eta *Agaoz* (951); azken bi gailur horietatik sekulako bistak daude.

Ausa Gazteluko urgoniarra

Mendilerroaren iparraldean kokatuta dago, eta Txindokiko antiklinalaren iparraldeko hegalaren zati da.

Balerdi-Txindokiko urgoniarra

Aurrekoak bezala, Txindokiko antiklinalaren iparraldeko hegalaren zati da.

Gune hori honakoek osatzen dute: *Balerdi* (1185 m), *Artubi* (1264 m), *Larraone* (1162 m) eta *Txindoki* (1348 m); mendilerroaren barnealdeko mendien kota berdintsuak dituzte. Mendilerroaren kanpo aldean kokatua dagoenez, eta ia erabat karekizkoa denez, erliebe bertikal edo aldapa handiekin, altuera desberdineko kontraste askoko pasaia osatzen dute, mendiaren oinaren aldean.

Erdialdeko Jurasikoa

Gune hau mendilerroaren goiko aldean kokatuta dago, *Arritzaga haranetik Osinberderaino, Ganbo* (1412 m), *Pardarri* (1395), *Uarrain* (1346), Alotza, eta abar zeharkatuz.

Gainazalean ez dago drainatze antolaturik, Alotzako sakonunean eta Muitze hasten den tokian izan ezik, karekizko tuparrietan zulatuak horiek.

Litologiak ere eragiten du paisaian. *Alotza inguruan* dauden kareharri tupatsuak sakonune baten iturburu izan dira. Sakonune horretatik, zenbait gainazaleko ur-laster pasatzen dira, eta gainazaleko iturri txikiak dira horien jatorri. Ur-laster horiek isuri jakinetan urperatzen dira, karekizko litologia handienera iristean.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Pág. 230-237. Edit. Etor.
Irudi erref.: Eusko Lurra 2.El relieve, pág. 38.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Aralarko gune hidrogeologikoak

Nafarroa aldeko Aralar

Mendigunearen isurialde mediterraneoa

Aralar mendilerroak 350 kilometroko hedadura hartzen du, gutxi gorabehera, eta horietatik bi heren Nafarroako lurraldean daude, eta gainerakoa Gipuzkoan.

Gehienezko altitudea 1.427 metrokoa du, eta klima atlantikoa du, oso euritsua (urtean, batez beste, 1500 eta 2000 mm/m artean);ur atlantiko eta mediterraneoen banalerroa da.

Fenomeno karstikoak oso garatuak daude, eta, gainazaleko urak mugitzen badira ere, azkenean infiltratu egiten dira. Barrunbe kopuru handiak eta lurrazpiko bestelako fenomenoek mendigunearen drainadura ziurtatzen dute, eta, ondorioz, iturburu handiak sortu dira.

Orografia malkartsua du, kota altuenak, besteak beste, honako mendien tontorrak dira: Irumugarrieta (Intza dorrea (1.427 m), Txindoki (Larrunarri 1.341), Putxerri (1.296) Usustikoleizea (1.321) eta Altxueta (1.343 m).

Mendilerroaren eta kanpoko aldearen artean altuera alde handiak daude.

- Mendigunearen iparraldeko gunean, Araxes ubidearen gainaldean ebakidura ia bertikal bat dago, Mailoa izenekoa, eta 1.200 metroko altuera du.

- Mendigunearen hegoaldeko muga Burunda-Sakanako sakonuneak egiten du, Arakil ibaia pasatzen den tokitik.

Landaretzari dagokionez, 600 metrotik gora ugariena pagadia da; hala ere, pago asko bota dituztenez, soildua dago, eta larrez eta garoz betetako gune zabalak daude.

Kotarik txikienetan, pagadiaren ondoan, badira haritzak, eta, ubideen ertzetan, lizarrak eta zumarrak.

Pago-basoan haginak eta gorostiak ere badira.

Kareharri konpaktua dagoen zonaldetan, oso hareatsua, 700 metrotik behera, arte multzo trinkoak daude, garai bateko klima beroen ondorio.

Estalki trinko horren ondorioz, ebapotranspirazio portzentaia oso handia da, 700 mm-koa izan daiteke, eta isurketak eragindako galera minimoa da.

Hidrogeologia

Aralar mendilerroa Jurasiko eta Kretazeo aldiko sedimentu serie handiez osatua dago, eta, azaletik esan daiteke, egitura antiklinal bikoitzekoa dela, ipar partean zamalkadura duela. Iparraldeko gunean, Jurasiko aldiko materialak azalerazten dira, baita Oderitz herriaren egituraren nukleoan ere.

Labur-labur esango dugu Jurasikoak hiru zati dituela. Beheko aldekoan, karniolak, dolomiak eta kareharriak; erdikoan, tupatsuak; eta goiko aldekoan, karekizkoak.

Aralar mendilerroaren hidrogeologiari dagokionez, litologiak eta egitura konplexuak baldintzatua, faila motakoa batez ere, zenbait akuifero daude, independenteak. Hiru Urgoniarrean eta bi Gipuzkoa aldeko Jurasikoan, eta bi urgoniar eta beste bat Jurasikoan mendilerroaren ekialdeko ertzean, Nafarroako aldean.

Atal honetan, Nafarroako Lurralde Historikoan daudenei buruz arituko gara, arro mediterraneoan daudenak, gainera.

Zonalde honetan honako akuifero hauek daude:

Hegoaldeko Urgoniarra, arrezifeetako kareharriz osatua, eta ekialdera joan heinean, karekizko zenbait zerrendetan bereizten dira, zati buztintsuz eta hareatsuz bananduak, karekizkoak, nolabait. Kareharrien arteko lotura failen bidez egiten da, y *Irañeta eta Amurgineko ubideetan,* Arakil bailaran husten dira.

Erdi aldeko Urgoniarra, aurrekoaren ezaugarri litologiko berberak ditu, baina huste-guneak Jurasikoak hartzen duen ingurua ere hartzen du, Oderitz herriaren egitura-nukleoa. Aurreko akuiferoa eta hau elementu tektoniko handi batek, eta Weald fazies eratutako zati iragazgaitzak eta Kretazeoko buztin hareatsuek banatzen dute.

Aitzarreta edo *Larraungo ubideak* (Baraibar) drainatzen du; ubide hori Ertzilla ibaiaren iturburu da, eta material iragazgaitzeko eremu txikiak zeharkatu ondoren, hustu egiten da erabat karstifikazio handiko mailara iristean; maila hori Purbeck fazieseko eta Jurasikoko kareharriz osatua dago, eta behera egin ahala lehor geratzen da ubidea. Oso gutxitan dauka eraman dezakeen baino ur gehiago ubideak, eta, halakoetan, soberan duena haranaren beheko aldetik ateratzen da, Lezegaldeko siman galdu arte.

Aralar mendilerroaren Jurasiko aldia eta Purbeck fazies aldia, aurreko paragrafoan aipatu direnak, multzo karstifikatu handi samarra osatzen dute; berezkoaz gain, Ertzilla ibaiaren karga ere badu, eta hustu Larrunen sorburuaren bidez egiten du.

Mendebaldetik muga egiten du arro kantabriar eta arro mediterraniarraren artean.

Aralar mendilerroa mendigune karstikoa denez, arroen mugapen geografikoa kanpoko aldeko erliebea interpretatuz ez da posible, arroen artean lekualdaketa gertatzen baita lur azpian. Hori bera gertatzen da ezaugarri horiek dituzten mendigune gehienetan, eta baita Aralarren ere. Kareharri jurasikoak eta Purbeck garaikoak, Aralarren ezkata izenekoan daudenak, eta Jurasikoa eta Txindoki mendiko antiklinala banatzen dituenak Amabirginarriko failaren bidez (ikusi Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aralar izeneko atala), arro-muga izango lirateke; horrela, isurialde mediterraneokoak izango lirateke geografikoki gune kantabriarrak diren honako hauek: Igaratza, Arbelo, Koagaine eta Aldaon.

Mugapen hori inguruan egiten diren espeleologia lanei esker egin ahal izan da; izan ere, ur-emari txiki bat zuen sima baten hondora iritsi ziren, eta kolorazioagatik frogatu ahal izan zuten Larraun ibaiaren sorburuaren lur azpiko goi-ibarrari dagokiola. Leku horretan bertan, beste sima baten bidez, 550 metroko sakoneran lur azpiko ur-sarera iristea posible izan da.

Ipar parteko Jurasikoa izeneko akuifero hau Nafarroako lurraldean ere sartzen da, lehen aipatu dugun zonaldean sartzeaz gain. Balerdi, Intzako Dorrea, Krutzeaga, Tutturre, Pallardi eta beste batzuetako kareharri jurasikoak eta Purbeck garaikoak.

Egiturari dagokionez, gune horrek mendigunearen ipar parteko zamalkadura hartzen du, eta ipar alpea eta erdiko sinklinalaren ipar alpea osatzen du, eta, era berean, multzo oso karstifikatua osatzen du, zabala eta garrantzi handikoa, geruza iragazgaitzez inguratua eta mugatua.

Ref. bibliográfica y gráfica: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Mapa hidrologikoa

Isurialde atlantikoa

Mapa hidrologikoa, kantabriar eta mediterranear arroen muga

Hidrogeologia

Material iragazkorrak eta Aralar mendilerroan lur azpiko akuiferoak eratzen lagundu dutenak Jurasiko, Purbeck eta fazies Urgoniar aroetako kareharriei dagozkie.

Lur azpiko akuiferoen eraketa azalerazten den harriak eta egitura geologikoak baldintzatzen dute. Gainazalean geratzen den euri-ura infiltratu egiten da eta lur azpiko ur-sareak osatzen dira, eta horiek dira mendilerroaren ur-baliabide nagusiak. Sare horiek ubideetatik azaleratzen dira, mendilerroaren oinarrian daude, eta Agaunza, Amondarain eta Amezketa (isurialde atlantikoa) ibaietako arroen goi-ibarra osatzen dute; horiek guztiak Oria ibaian isurtzen dira.

Egitura- eta tektoniko-baldintza horiei esker (kareharrizko geruzen norabidea eta inklinazioa, failak eta pitzadurak, kareharri iragazkorrak eta iragazkorrak ez diren beste material batzuen arteko erlazioa, tuparriak eta buztintsuak, esaterako) lur azpiko banakako arroak sortzen dira, nork bere hartze-arroa, ur-urak infiltratzeko gunea, eta, normalean, drainatze-puntu edo ubide bakarra dutela.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. 230-237 or. Edit. Etor.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA



Karsta

Paisaia karstiko eraketa. Aralar, Urbasa-Andia.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA



Paisaia alderantzikatua

Paisaia alderantzikatu eraketa. Sakana, Beriain, Ergoiena eta Andia

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA



Aralarko ebakidura geologikoa

Iturria: Lur azpiko urak Nafarroan. Proiektu Hidrogeologikoa.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

---

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Txindokiko antiklinala

Txindokiko antiklanalaren ebakidura. Aralar

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

---

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Ataungo domoa

Ataungo domoaren ebakidura geologikoa.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Aralarko ebakidura geologikoa

Aralar mendizerra mendi-mazizo a-tlantiar ertaina da, ikaragarrizko kararri masa osatzen duena, itsas atzeratze bati egokitzen zaion harearri-episodio txiki batekin. Egitura astuna du, tolestura antiklinal, disimetriko, irauli eta iparraldera zamalkatu bati dagokiona. Egitura-izaera markatua du eta Rat eta Floquet-ek serie mesozoikoaren urraduratzat definitu dute, zokaloaren parte hartzerik gabekoa itxura, serie honen iparralderako narrasdura, bi muturretaranzko blokeo suerte batez, eta kararrizko nukleoaren gorakada ia estrusiboa buztin-harearrizko multzo baten baitan. Oro har, estilo estrusiboa kararri aski zurrunekin erlazionaturik dago, hainbatetan masa konpakto bat eratzen dutelarik hauek materia plastikozko enbalaje batean; honako hau Keuper fazieko buztinak azpian eta serie para-urgoniarrak alboetan jarriz osatzen da.

Unitate honetan egitura-erliebeak nabarmentzen dira, Aralarko tontorrik ederrenetarikoa den Txindokiko gailur harri-tsuak eta Balerdikoak esaterako, antiklinaleko I-ko aldea bere okermendu txit markatuekin, sub-

bertikaleetaraino iritsiz fazie urgoniarren gainean, egituraren mendebaldeko azken zatia den Ataungo domoa, edo mendizerrako sektore garaia, hots, kararri jurasikoetan landuriko antiklinalaren gunea eratzen duten Ganbo, Uarrain edo Pardarri. Gainera mendizerrak, oro har, urraketa-failen, zizailduren eta beste zenbaiten eragin sakona jasan du.

Litologikoki kararriak dira nagusi, eta honen funtsezko bi gertakizun eragiten ditu: alde batetik, multzoaren drenajea funtsean mendizerrako zonalde periferikoetan kokaturiko ur-sorburu karstikoen bidez egiten dela, eta modelatu karstikoa nagusi izatea bestetik; modelatu honek elur-karst izaera du zonalde garaietan (Unakoputsoa), eta dolina eta lenar eremuak ikus daitezke Pardarri-Ganbo inguruan edo San Migelerako igoeran. Jakina, forma endokarstikoak ere ugariak dira zalantzarik gabe, antiklinalaren nukleo jurasikoan bezala albo urgoniarretan (1985.ean tamaina handiko 17 fenomeno atzeman ziren, 100 m. baino gehiagoko leizeak edo 500 m. baino garapen handiagoko husguneak). Beraz, esan daiteke exokarstaren kasuan zein endokarstarenean dolinen kokapena, galera karstikoak, leize eta lenarrak egitura-alderdiekin harreman zuzenean aurkitzen direla, hots, litologiarekin, kararrien lodierarekin eta lerro tektoniko nagusienekin. Izan ere, dolinen lerrokadura azpimarratu behar da, zeinaren erakuntzak IE-HM norabideko faila bertikal handiak jarraitzen dituen; bidebatez, ahulezi-lerro hauetaz baliatzen dira kararria disolbatzeko eta sakonune hauek sorrarazten dituzte, berauen genesian izozte-urtze prozesuek ere parte hartzen dutelarik beren ekintza mekanikoaren bitartez.

Aralarren glaziare-aztarnak daudela esan izan dute Arritzagako morrena-formazioetan eta mendizerrako iparraldeko neve-morrenetan oinarrituz (Buruntzuzin eta Eritzegi), nahiz eta aztarna hauek, batetik, urriak diren eta fenomenoaren hedadurari eta garrantziari buruzko interpretazio genetikoa aho batekoa ez izan. Nolanahi ere, badirudi bazela harana hartzen zuen glaziare bat, hots, Errenaga eta Irumugarrietaren (1.412 m.) arteko uren banalerrotik hasi eta Buruntzuzinerainokoa, 4-5 km.ko harana zuena eta 900-1.000 m. inguruko altueran kokatzen den frontearekin.

Manifestazio periglaziarrak puntu jakinetan daude, Aralarko I eta IM-ko isurialdeetan, Larraitz-Txindoki aldean batez ere, agerikoak diren groize eta greze (higakin ordenatuak) motako kolubioi pilaketak eratuz, horrek guztiak morfogenesi periglaziar garrantzitsu baten ekintza adierazten duelarik.

Sektore honetan nabarmentzea merezi duen prozesu morfogenetiko batzuk ematen ari dira egun; hala, Igaratza, Beaskin eta Dona-Iturrietaren arteko isurialdeetan karstifikazioa prozesu funtzionala dela esan dezakegu, eta fenomeno solifluidalak eta buztin-limo izaerako malda handiko mazeletan masa-mugimenduak ematen ari direla, hau guztia, grabitatearen eraginarekin batera, landaretzaren narraste mugimenduak eta giza eraikuntzen desplazamendu txikiak eragiten ari baita (Aia-

Iturrieta sektorea). Beste batzuetan masa-mugimenduen hasiera gehiegizko artzantzarekin lotzen da, landaretzaren desagerpena eragiten duelako eta ondorioz prozesua bizkorrago garatzen delako (Arri-tzaga).

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: Colección Geografía de Euskal Herria. Tomo 2. Pág. 173. Edit. Etor.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Artubi

Kareharri urgoniarrezko kanpoaldeko bildukina, Artubi.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa. Irudi erref.: Félix Ugarte.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Ganbo-Uarrain faila

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa. Irudi erref.: Félix Ugarte.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Katxine

Katxine, Jurasiko aldiko bi litologien arteko lotura.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Félix Ugarte.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Uzkuitiko antiklinala

Uzkuitiko antiklinalaren nukleoa, Jurasikoko material zaharrenak azalerazten den gunea.

Irudi erref.: Félix Ugarte.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Txindokiko antiklinala

Txindokiko antiklinalaren ipar aldeko alpea; multzo urgoniarraren materialei eragiten dien faila, lehen planoan.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Txomin Ugalde.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Pardarri

Lapiaz Pardarri.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Félix Ugarte.

GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Jurasikoko zamalkadura

Jurasikoko zamalkadura mendilerroaren iparraldean. Muitzeren goi-ibarra, Txindokiko antiklinalaren ipar alpea atzean duela.

Aralar mendilerroaren egitura-itxurak ez du aldaketa handiegirik izan jatorrizko geometria geologikoan; eta erliebeen egiturak nabarmen azalerazten dira paisaian (Ataungo domoa, egitura antiklinalaren mendebaldeko ertza, mendilerroaren goiko aldeko gunea, iparraldeko zamalkadura...).

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Félix Ugarte.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Mendigune karstikoak

Aralar mendilerroa Euskal Herriaren erdian dago, Gipuzkoa eta Nafarroako Lurralde Historikoen artean. 250 kilometroko hedadura du, eta horietatik 105 arro kantabriarrean daude, eta, gainerakoak, Ebroko arroan. Mendigunea forma luzatukoa da, 27,5 kilometro neurtzen duen ardatz nagusia ekialdetik mendebalderako norabidean dago, eta 10 kilometro neurtzen duen bigarren ardatza iparraldetik hegoalderako norabidean, horrek masa ahula izatea eragiten du.

Gehieneko kota Irumugarrietan dago (1.427 metro itsas mailatik gora), eta gutxienekoa, 200-250 m, isurialde kantabriarrean dagoen mendiaren oinean. Azkenik, itsasora dagoen zuzeneko distantzia 36 kilometrokoa da.

Mendilerroaren mugak dira: ipar-ekialdean, Araitz bailara, Araxes ibaiaren ura du; iparraldean, Bedaio eta Amezketako bailara; hegoaldean, Agauntza bailara; eta, ekialdean, Larraungo bailara, Ebroko arroaren iturburua.

Atal honetan, Gipuzkoako lurraldean dauden mendigune karstikoei buruz ari garenez, berari dagozkion mendilerroaren zatiak baino ez ditugu aipatuko, eta, zehaztu nahi dugu, zonalde horren mugek bat egin dutela, nolabait, lehen aipatutako arroen arteko isurialde aldaketarekin.

Mendilerroaren Gipuzkoako aldean Zaldibia, Amezketa, Ataun udalerriak eta Enirio-Aralar mankomunitatea daude.

Ezaugarriak

Felix Ugartek, Recherches Geomorphologiques dans le Karst de Aralar-Mendi doktorego-tesian esaten duenaren arabera, 1985. urtean egina, eta askotan aipatuko duguna, Aralarko gaur egungo erliebea euskal-kantabriar mendien artean oso ohikoa da; honako ezaugarriak ditu:

- Masa ahuleko mendi-multzoa.

- Altura alde handiak bailararen eta mendigunearen artean.

- Malda handiak, egitura geologikoaren eraginez.

Altura kontrasteak, malda handi horiekin, gehieneko koten artean eta kanpoko aldeko bailaren koten artean alde txikia dagoelako da; mendiak: (Ganbo 1.412 m, Irumugarrieta 1.427, Aldaon 1.410, Txindoki 1.346...); bailak: (Araxes 239 m, Amezketa 215, Zaldibia 164). horiek, isurialde kantabriarrean 1.000-1.200 metroko altuera desberdintasuna eragiten dute, eta isurialde mediterraneoan 500-700 metrokoa.

Alderdi geomorfologikoari dagokionez, ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Kantabriar Ebroko arroen banalerroa lurralde endorreikoan (lur azpiko drainadura), lurpean landare-organo ugarikoa (hipogeo).

- Mendigunearen erdialde atlantikoa oso konpaktua, eta egitura geologikoa oso nabarmena.

- Karst atlantiko oso berezia, barnealdean zenbait eraketa litologiko oso karstifikatuak eta bananduak elkarrengandik.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria, pág. 230-237. Edit. Ostoa.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Nafarroako akuiferoak

Nafarroako akuifero garrantzitsuenen mapa.

Irudi erref.: Ibaiak eta Haranak, tomo 7, pág. 66.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Aralarko mapa geologikoa

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

---

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Sistema karstikoa

Horrela azal daiteke sistema karstiko bat eskema bidez:

I.- infiltrazio eremua.
II.- urez betetako karsta.
a.- iturburu nagusia.
b.- drainatzea.
c.- erantsitako sistemak.
d.- trop-plein iturburua.
e.- lizuna.
f.- akuifero epikarstikoa.
g.- karst sistemaren lurrak, karst bihurtuko ez direnak.
(A.Mangin autorearen arabera, 1975ean).

Karsten hidrologia

Ingurune karstikoaren jokabidea, lur azpiko akuiferoen sorrerari dagokionez, ez da lege finko batzuetara moldatzen. Akuiferoak desberdinak dira eta beren jokabide propioa dute; beraz, lur azpiko urak ikertzea lan zaila eta neketsua da. Gure mendigunetako kareharrien akuiferoei buruzko ildo orokor batzuk zehazten saiatuko gara atal honetan, horienganako interesa duen irakurleak mundu horretarako sarbide apal bat izan dezan.

Lur azpiko uren jatorria. Uraren zikloa. Mendigune baten gainera erori eta lur azpira infiltratutako urak dira, eta uraren zikloaren fase bat osatzen dute.

Euri horren zati bat, lur iragazgaitzera erotzen bada (esaterako, tuparrietara edo buztinetara), lur gaineko isurketa urak izango dira; hau da, ubideetako, arroiletako eta ibaietako urak (2). Euria lur iragazkorrera erortzen bada (esaterako, kareharri karstifikatuetara), ur horren zati bat lurrundu egingo da eta atmosferara itzuliko da, beste zati bat lurraren ur erreserbetara joango da, landareek xurga dezaten (azken bi prozesu horiei ebapotransporazio esaten zaie), eta gainerako ura lur azpira infiltratuko da, lur azpiko uren erreserbak handitzeko (euri baliagarria).

Hasieran, urak jaso eta ibietatik libre ibiliz (lur gaineko ibaien moduan) antolatuko da lur azpiko uren ibilgua, harik eta, lurpean zuloak eta pitzadura urez beteta egongo diren leku batera (geruza freatikoa) iristen diren arte, lurpeko ur erreserbak osatzera. Uraren ibilera librea eta urez betetakoa edo ureztatua mugatzen duen eremuari pezometriko esaten zaio.

Isuria

Ur hori iturburuetatik irteten da, eta azken horien emaria akuiferoaren tamainaren eta eremuko euri uren erregimenaren araberakoa izango da.

Iturburu karstikoek, oro har, alde handiak izaten dituzte emarian, eroritako uraren arabera; eta, ondorioz, euri zaparrada handiak eginez gero, segundoko litro gutxi batzuk botatzetik ehunka litro botatzera igaro daiteke, ordu gutxi batzuen buruan. Eta, alderantziz, oinarrizko emarira itzul daiteke, euriak eteten badu.

Ura modu bat baino gehiagotara irten daiteke kanpora: lur gaineko arro baten goialdean, ubide bati hasiera emanez; ibaien mailan; ibaien ibilguaren azpian; edo, kostaldeko zenbait karsten moduan, itsaspean.

Zenbaitetan, ura haitzulo handietatik irteten da, eta bertan sartzeko modukoak badira, kilometrotan egin dezakegu ibaietatik gora. Beste batzuetan, berriz, urak gora egiten du ubide batetik, ura erabat estali arte. Gerta liteke, baita ere, isuria kontzentratua ez izatea, eta elkarren ondoan dauden iturburuetatik isurtzea.

Lurpeko akuiferoen uraren iraupena

Sarbegietatik drainatutako ura denbora jakin batean izango da akuiferoan; hau da, denbora jakin bat igaroko da euri urak mendi gainera erori eta iturburutik irteten den arte.

Gure mendiguneetan egindako kolorazioek adierazten digutenez, transmisio abiadura ez da beti berdina lurpean, eta batzuetan metro gutxikoa izan daiteke eguneko, eta beste batzuetan, berriz, ehun metrokoa ere izan daiteke.

Akuiferoen kutsadura

Akuiferoen kanpotik eta barrutik egindako ibilbidean, ura infiltratu, ibili, gorde eta kanpora irteten dela ikusi dugu. Ibilbide horretan zehar ez da ura garbitzeko sistema edo filtro naturalik; izan ere, akuifero karstikoek ez dute kutsaduraz babesteko modurik. Beraz, akuifero horiek babesgabe daude kutsaduraren aurre egiteko. Jarduera kutsatzaileak egiten badira akuiferoen erreferentziazko arroan, lehengo edo geroxeago, iturburuetan eragina izango du, eta, are gehiago, oso zaila edo ia ezinezkoa da horiek bere onera ekartzea; onenera jota ere, hamar urte beharko baitira, kutsaduraren kausa ezabatu ondoren, akuiferoetako uren kalitatea berreskuratzeko.

Iturburu karstiko gehienak, halaber, lur gaineko ibaien edo ubideen hasiera dira, eta horiek arroen sorrera lekuraino iristen dira. Hori hala izanda, urak kalitatea galduko luke ibaien edo ubideen sorburutik hasita.

Zorionez, debekatuta dago isuri eta jarduera kutsatzaileak egitea ingurune karstifikatuetan, horiek erraz kutsa baititzakete lurpeko akuiferoak. Hala ere, ohikoa da oraindik ingurune karstikoen dolinak kontrolatu gabeko isurketak egiteko erabiltzea eta lizunak hildako animaliak eta zaborra botatzeko erabiltzea.

Jakinaren gainean gaude, beraz, jarduera horiek egiten baditugu, deskribatutako ingurunearen narriaduraren erantzule izango garela, eta, ziurrenik, gertuko iturbururen batek ordainduko dituela gure zabarkeriaren ondorioak.

Erref. bibliografikoa: Txomin Ugalde. El mundo subterráneo en Euskal Herria, pág.28.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Konkrezioak

Hauek dira haitzuloetako konkrezio nagusiak.

1.- Estalaktitak
2.- Estalagmitak

3.- Fitulak edo espagetiak
4.- Drapeatuak
5.- Estalaktiten edo estalagmiten koladak
6.- Terrazak
7.- Eszentrikoak / kristalizazioak
8.- Perlak

Irudi erref.: Cfr. Martí et al. «Grottes Touristiques» ed. Ambroise.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK



Uraren zirkulazioa mendigune karstikoetan

1.- Euri ura lurzorura erortzen da.
2.- Ur horren zati bat lurrean geratu eta lurrundu egiten da.
3.- Uraren zati bat harrietaraino iristen da, eta lur azpian zabaltzen da bertikalean eta horizontalean.
4.- Denborak aurrera egin ahala, urak gero eta beherago egingo du.
5.- Ura iraganean nondik irteten zen adierazten digute sarbegi fosilek.
6.- Egungo sarbegiak behin betikoak izan daitezke (azpian buztina edo antzeko material disolbaezina badute), edo ura igarotzeko beste leku bat.

Irudi erref.: Martí et al. «Grottes Touristiques» ed. Ambroise.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Sistema karstikoa

Lur gaineko paisaia karstikoetan ikus daitezkeen forma nagusien irudia (eta horietako batzuk, endokarsteko galeriak eta haitzuloak).

Irudi erref.: Les mondes souterrains S.et V. Junior. nº 25.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK



Sistema karstikoa

Lurzoru karstifikatuetan, baliagarria den euri ur guztia infiltratu egingo da; izan ere, ur hori lapiazetatik, dolinetatik eta lizunetatik joango da lur azpira. Kareharri pitzatuz osatutako lurretan lur gaineko ubiderik ez bada, ur ugari infiltratuko da pitzadura horietatik.

Infiltratutako ur hori iturburuetatik irtengo da kanpora. Iturburu horiek ibaietara isuriko dituzte beren urak edo zuzenean isuriko dira itsasora, uraren zikloa osatuz.

Irudi erref.: Txomin Ugalde. El mundo subterráneo en Euskal Herria, pág. 28.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Harrien ahultasun lerroak

a: Estratifikazio planoak: kareharriak harri sedimentarioak dira, eta sedimentazioa ez da denboran jarraitua: geruzaz geruza egiten da; estratifikazio planoek bereizten dituzte sedimentazio denborak.
b: Diaklasak: harriak bertikalean hausten dira. Diaklasa guztiak ez dira sakonera, luzera eta zabalera berdinekoak.

Irudi erref.: El mundo subterráneo en Euskal Herria, pág. 21.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Haitzuloak eta leizeak Aralarren

Txindokiko antiklinalaren hegoaldeko alpean Jurasikoko azaleramenduak, eta horren itxitura periklinala mendebaldetik. Kareharrien karstifikazio-maila handia dela ikus daiteke, dolina eta lapiaz ugarirekin.

Ref gráfica: Archivo Etor-Ostoa

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Haitzuloak eta leizeak

Aralar mendilerroan diren leize eta haitzuloak hain ugari direnez, batez ere, Larraun eta Arakil haranetarako isurialdeetan, eta oraindik are ugariago dira Uhartetik Iribaserako bidean Panplonagaiñen aurrerako muturrean, zenbatu eta izendatzea bera ere luzeegi da idazti honen mugetarako.

Asko direla esateaz gainera, ezagutgarrienak behintzat aipatu beharra daukagu. Guztiak ez daude zehazki eta zeharo ikerturik, batzuetan zailtasun handiak dituztelako, besteetan arriskutsuak direlako.

Orain artekoan, beren barruan azkeneraino ibili eta azterturik daudenetan, ez dute gauza harrigarririk aurkitu, ez luze-zabalez eta ez beste ezer jakingarriz. Baina, hala ere, badituzte zenbait gauza bitxi, leizezale eta ezkutuzaleen irrika pizteko adinakoak.

Urteen joanean garrantzirik eta osperik handiena lortu dutenen izenak ipini ditugu ondorengo zerrenda labur honetan.

Alliko haitzuloa (Larraun)

Barnean 400 metro luzeko ibilbidea dauka.

Iribasko haitzuloak (Larraun)

Aurrekotik urruti ez dela, bi haitzulo daude, biak antz-antzekoak, bai luzeran eta bai beste neurrietan.

Pontsoluako haitzuloa (Goikoa): Lat. 42: 56' 15" eta Long. 1 1 45' 35"

Ata mendiaren hegaletako harkaitz batean dago zuloa, Agiriko Elize deritzon haitzartearen azkenean.

Pontsoluako haitzuloa (Behekoa): Lat. 42: 56' 15" eta Long. 1.ª 44' 10"

Aurrekotik ez dago urruti. Sarrera, mendian goitik jausi edo eroritako harriz eta gainerakoz eragotzita dago.

Basarletz haitzuloa

Arantzadi trikuharria dagoenetik hurbil dago.

Sorgiñetxea. Lat. 42: 55' 35" - Long. 1: 43' 38"

Uharte-Arakildik San Migelerako bidean, Aiztondo harkaitzean dago.

Galtzorratz haitzuloa. Lat. 42. o 56' 15" - Long. 1 : 42' 10"

Inguruko haritzak oso txiki uzten dituen harkaitz handi batean dago.

Seakoain haitzuloa. Lat. 411 57' 15" - Long. 1 : 45' 35"

Iribastik San Migelera eta Seakoain trikuharrirako bidean dago, Burnigurutz mendi-lepotik hurbil.

Haitzulo zaharrak. Izatez, haitzulo bakarra da. Panplonagañe trikuharritik dago hurbil.

Amutxate haitzuloa. Putregain mendiaren hegalean dago, Amutxate gailurretik hurbil. Harkaitzean sortutako pitzatu handi bat da.

Iutxixingo haitzuloa. Haitzarte batean dago, Kolosobarnea atakatik hego-sartalderago, harkaitz batzuen oinean.

Galoren haitzuloa. Harkaitzean sortutako zuloa da, eta ez txikia. Kolosobarenea atakatik gertu eta Sakana aldera dago; hain deitura harrigarria duen haitzulo honek. leize bi ditu hurbil.

Bide-lapur baten bizitoki, edo, gutxienez, gordeleku izan zela diote artzainek. Nafarroako Diru-Auzitegiko (Comptos) liburuetatik dakigunez, Arakil eta Sakana haranak inguratzen dituzten mendietan, eta, Aralar

Mailoan bereziki, bide-gurutzea baitzen, gaizkile asko gordetzen edo ezkutatzen ziren, zigorren iheska ezkutatu ere; baina ez nafarrak bakarrik, baita arabar, gipuzkoar eta bizkaitarrak ere. Horrela, Juan Lopez de Urrozek, Iruñeko merioak, 1309an gogor jokatu zuen Aralarren bide-lapurren bila, eta bi hiltzea lortu zuen, biak gipuzkoarrak eta lapur-taldeen buruzagiak: Beliarraingo Lopez Periz eta Lopez Martiniz,.

Auzagaztelu deritzon gaztelua eta Ataundik hurbil zen beste bat, aldi hartako agirietan aztarnak daudenez, baziren garai haietan.

Olatzko haitzuloa. Hain zuzen, Olatz mendian dago, Mandazarrateko soilguneetara daraman belardi baten aurrean.

Putxerriko haitzuloa. Ipar-sartalderantz dago sarrerako aho zabala, Putxerri gailurretik hurbil dagoen haitz-horma batean, Ormazarretatik Lizarrustirako bidea doaneko aldean.

Ormazarretako leizea. Lat. 42: 58' 10" - Long. 1 : 38' 30" Apain mendiaren maldan dago, Ormazarretatik hurbil. Barnean, beherantz, 375 metro dituenez, bera da Aralarko leizerik handiena. Izen bereko iturria, Ormazarretako dolinetan ezkutatzen da.

Lezegalde leizea. Lat. 42 : 58' 50" - Long. 1: 46' 50". Iribas herritik 600 metrora dago leize-aho zabal hau: 10 x 15 metro ditu. Hementxe sartzen dira Larraun ibaiko urak uholde handietan.

Bizkaitarraren leizea. Bizkaitarraren borda dagoen karst berean daukagu leize hau, Desaoko aterpetxea dagoen soilgunetik hurbil. Ormazarretakoaren antza du, eta 160 metro ditu beherantz.

Beingo leizea. Zuzenean 97 metro ditu bertikalean. Guardetxetik Igaratzarako bidean dago, ordu erdira. Oso hurbil ditu Galoren haitzuloa eta Olatzkoa.

Nilutz leizea. Atako inguruetan dago, Burnigurutz mendi-lepoan. Zuzenean behera, 130 metro ditu.

Artzematuta leizea. Madoz aldean dago; besteak beste, Altorrotz, Zubargate eta Aupeta leizeak ditu hantxe hurbil.

-Unako Putzuaren ingurua. Etzantzako zirkua, Beloki eta Txemiñe mendien hegalak, eta Baraibar ingurua, leize eta haitzuloz beteak ditugu, Larraun ibaiaren joanean.

Etxabeko soilgunea. Inguru horretan, besteak beste, Oberena leizea, Pontsoluako haitzuloak Irañeta ibaia eta Prasoko haitzuloa ditugu.

Sakanako eta Burundako mendi-hegalak. Haitzuloak oso ugari diren lurralde zoragarria da. Arixueta, Ata, Basterre, Basaletz, Seakoain, Txuritxoberri.

Ref gráfica: Archivo Etor-Ostoa

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Akaitz Txiki

Galeria nabarmena Akaitz Txiki haitzuloan.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Espeleoimagen.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Akaitz Txiki

Putzua Akaitz Txiki haitzuloan.

Gaur egungo sistema hidrologikoan barrunbe funtzionalak daude, eta horiek sakonunetako eta bailaretako gainazaleko ura hobeto iragazteko zonalde egokietan irekitzen dira, Akaitzeko kareharri urgoniarrak eta material buztin hareatsuak elkartzen direnean; horiek iragazgaitzak izateaz gain, gainazaleko ibai-ibilgu txikiak eratzen dituzte.

Putzu bertikalen bidez, sarpen azkarra dago goi-ibarrean, geruzapearen pitzadurak eta junturak jarraituz, bide nagusira iristen da; han, tolesduraren eta zerrenda urgoniarraren norabidea hartzen du, eta ezaugarri morfologikoak ere aldatzen dira.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa. Irudi erref.: Espeleoimagen.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Akaitz Txiki

Eraketa aberastasuna Akaitz Txiki haitzuloan.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa. Irudi erref.: Espeleoimagen.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Akaitz Txiki

Galeria Akaitz Txiki haitzuloan.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa. Irudi erref.: Espeleoimagen.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Sastarriko Leizea

Giza ingurumena

Aralar mendilerroan ugari dira aztarna eta erreferentzia arkeologikoak, historikoak eta etnografikoak. Trikuharri asko dago, duela 3.500 urte, Eneolitiko-Brontze aroan, gizakia han bizi izan zelako lekuko direnak, eta gaur egun arte etenik gabe aritu direnenak.

Bertako mendiak gure mitologiako pertsonaia askoren bizileku izan dira, eta haitzuloek ez dute oharkabean iraun. Horietako batzuetan, nabarmena da gizakia bizi izan zela, izan ere, zeramika eta harri-litio aztarnak aurkitu dituzte, baita gizakien hezurrak ere, batez ere, arbasoak Ama Lurrera bueltatzeko erabiltzen ziren haitzuloetan.

Historiaurreko zeramika-aztarnak azaldu dira honako haitzulo hauetan: Sastarri II, Armontaitz (Ataun, barrunbe honetan ontzi bat azaldu zen, ia osorik), Lareo, AkaitzTxiki, Enirio-Aralar mankomunitateko hegoalde urgoniarrean daude guztiak.

Ataungo domoan aztarnategi arkeologikoak daude honako haitzueloetan: Usategi (J.M.Barandiaranek induskatu zuen), Limurita, Pikandita eta Kobazar. Usategin, gainera, denario iberiarrak zituen altxor txiki bat aurkitu zen.

Beste haitzulo batzuek ere badituzte aztarnategi arkeologikoak: Koa, Zaldibian; Urdanaizpe Azpi, Amezketan; eta Allekoaitze, Ataunen; azken bietan gizakien hezurrak aurkitu zituzten.

Aztarnategi paleontologikoak dituzten barrunbeak ere badira. Esate baterako, Troskaeta izenekoan (Ataun) Ursus spelaeus-en aztarnak; eta Agaoz-en (Ataun) bobido handi bat (basabehi edo bisonte).

Gure pertsonaia mitologikoen bizileku ere izan dira haitzuloak: Mari Putterriko haitzuloan, Txindokikoan, bizi zen, eta Aralarko leizeetatik bidaltzen zituen ekaitzak.

Armontaitz haitzuloan jentilak bizi izan ziren, kristautze garaian beren etxeetatik kanpora bidali zituztenean, aterpea behar zuten eta. Bitxikeria

gisa, esan, haitzulo horretan eskuz egindako zeramika-aztarnak aurkitu zituztela.

Aralarko San Migel mitoak izen bereko leize bat du protagonista, eta, esaten dutenez, haren gainean eraiki zen santutegia.

Bestalde, zenbait tokitan, kareharrizko haitz batzuen kokapenak, erliebe bertikalak eta ezponda-sabaiak zituztela jarriak,Goi Erdi Aroan inguruko bideak zaintzen zituzten harkaitz-gaztelu izan ziren. Ausa Gaztelu eta Jentilbaratza mendietako gailurretan, horietako batzuen aztarnak ikus daitezke; bigarren gailur hori Arratetako haitzarte ikusgarriaren gainetik. Jentilbaratzaren oinean eraztun erromatar bat aurkitu zen.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Pág. 230-237. Edit. Etor.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Sastarriko leizea

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

---

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Sastarriko leizea

Jurasikoko kareharrietan gainazaleko barrunbeak nagusitzen dira, eta horietako bik, *Ondarreko zuloak* eta *Basolok,* nolabaiteko sarrera ere badute karstean. Putzuak harri konpaktuetan eratzen dira, eta sala handiak, berriz, kareharri hareatsuzko geruzetan; lur-jotze eta higakinak gertatutako zenbait adibide ere badira. Galeriek hartzen duten norabidea hausturek baldintzatua izaten da.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Ormazarreta eta Larretxiki

Ormazarreta eta Larretxiki mendien oinak, Aralarren

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

---

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Ormazarreta eta Larretxiki

Profila.

Ormazarreta 2 leizea
Barrunbe honetako sarrera Nafarroan dago, 1.025 metro

Hobi aktiboa da, eta hasieran 25 metro bertikal ditu. Gaur egun, harrizko hesi batez inguratua dago, istripuetatik babesteko. Putzuaren azpiko aldean gorantz egiten du, baina metro gutxi batzuen ondoren ezin da aurrera egin. Beheranzko galeria zenbait irtengunez eta lau putzuz osatua dago. 114 metroko kotatik aurrera, katazuloak eta meandro fosil oso estu ugari daude, eta, bukaeran, behar bezala hornitu behar diren zenbait putzu (P11, P9, P15, P7, P25, P4, P10, P5, P8, P15). 7 eta 8 metroko azken bi jauzien ondoren, 471 metroko kota hartzen du, eta han, lur azpiko ibaia dago.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria, págs. 230-237. Edit. Ostoa.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Larretxikixo leizea II

Larretxikiko leizea II.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Larretxikixo Leizea II

Larretxiki II.

Barrunbe honetako sarrera Nafarroan dago, 1.176 m.

233 kota bitartean putzuz eta gune estuz josita dago, eta bertikalak nagusitzen dira. Baina aipatutako puntu horretan, eskisto iragazgaitzak daude, eta barrunbea plano inklinatuan garatzen da, galeria zabalak eta zenbait sala handi daude, zoruan bloke handiak dituztela. Hondorik gabeko zenbait meandro ere badaude, eta aurrera egitea oztopatzen dute.

413 kotatik aurrera, ur-sifoiduna daraman ibilgua dugu berriz 446 metrora. Sifoi horrek zirkuitulaburrak sortzen ditu labirintuzko zonalde fosil bat zeharkatuz, han behera egin ondoren, eta, gero, pixka batean gora, higakin-kono baten gainaldera eramaten du bideak, eta, han, ibaiarekin bat egiten du.

Lur azpiko ibaia Ormazarreta 2 izenekoarekin bat egin baino lehenago dago (kota -450). Bukaera aldeko sifoirako ibilian zenbait emari jasotzen ditu, eta 3 bloke-kaos handi zeharkatzen ditu, aurrera egitea eragozten diotenak. Galeria 1-6 metroko zabalera duen meandro bat da, eta altueran, berriz, 20 metro da ia ibilbide guztian. Bloke-kaosak sala handitan daude. Azkenekoan, 513 metrora, beharrezkoa da gora egitea, fosil-sektorera iristeko, eta handik pixka bat aurrerago berriz ere ibaira iristen da. Azken zatiak, nahiko emaritsu diren zenbait ur-jauzi ditu, eta horiek pasa ondoren, azken sifoira iristen da, 576metroko sakoneran.

Ormazarretako lur azpiko ibaia hegoaldeko urgoniarraren biltzaile nagusia da, eta emaria Ataungo *Aiaiturrietako iturburuaren* bidez, husten du. Goiko aldeko muga *Desaoko hobietan* dago, beraz, 9 km luze baino gehiago da, eta horietatik 3.000 metrotan ezin da ibili. Ormazarreta-Larretxiki multzoaren garapena, guztira, 6.315 metrokoa da.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Pág. 230-237. Edit. Etor.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Larretxikixo leizea II

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa. Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Ormazarreta leizea I

Agaoz, Sastarri, Akaitz, Ormazarreta eta Pagomarik osatzen dute Txindokiko antiklinalaren hegoaldeko alpea, Agaozeko sinklinala eta Ataungo domoaren hego-ekialdea.

Hobi ugari daude. Garrantzitsuenak honako hauek dira: Ubei, Baiarrate, Maizegi, Iruerreketa, eta Akaitz bailarako 23ak, Larretxiki, Ormazarreta eta Pagomari.

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Ondarreko zuloa

Ondarreko zuloaren oina eta profila.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria. Edit. Etor

---

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Ondarreko zuloa

Lur azpiko ibaia.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Errekonta leizea

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa
Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

HAITZULOAK ETA LURPEKO IBAIAK

Pagomariko leizea

Erref. bibliografikoa: El mundo subterráneo en Euskal Herria. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: S.C. Aranzadi.

IBAIAK ETA URTEGIAK

Euskal Herriko ibaien mapa

Aralar Mailoan daukagu Mediterraneora eta Kantaurirako uren isuri-muga edo ur-gurena, hain zuzen, batez beste, mila metroko goitasunean. Honela, ipar-sartaldeko urak, Oria ibaira doaz, bertan husten baitira mendietako zenbait erreka; eta ipar-sortaldean, Pabolleta edo Azpiroz mendateko 617 m-ko tolesturen artean jaiotzen den Araxes ibaia , Nafarroako Betelu eta Atallu herriak ureztatu ondoren, Gipuzkoako Lizartzan barna. Tolosa erdian husten da Orlan, gero biak baturik Kantaurira, Orion husteko.

Iribas (623 m) herriaren gainean, harkaitz handiaren azpitik jaiotzen da Larraun ibaia, zortziehun metroko bidean ezkutuan joan ondoren, agertu eta Lekunberritik aurrera hegoaldera okerturik doa, haizpitarte estuetan barna; batez ere, hain ezagunak diren Bi Haizpea (gazteleraz Dos Hermanas eta Peñas Asita deituak) igarota aurrera; eta Irurtzun igaro ondoren, sartaldetik datorrela bidean Sakana eta Arakil harana ureztatzen dituen Arakil eta Larraun, biak elkartzen dira, gero Oskiako amildegia igaro ondoren Arga ibaian husteko. Ebro ibaian amaitzen edo husten da Arga, azkenik denen urak Tortosan, Mediterraneoan itsasoratzeko.

Erref. bibliografikoa: Colección Mendiak, Tomo 2, Patxi Ripa
Irudi erref.: Eusko Lurra 3. Clima y aguas. pág. 88-89

IBAIAK ETA URTEGIAK

Iturriak Aralaren

Aralar Mailoak bere zabalera osoan esan ezin adina iturri ditu, ur garbi eta hozkirria ematen dutenak, bai bertako artaldeentzat, eta bai artzain eta mendizaleentzat ere, udaldiko beroetan egarriaren asegarri atsegina gertatzen den ura eman ere.

Irudi bidez aditzera eman ditugun baino iturri gehiago dira Aralarren, baina horiek dira ezagunenak bai ur onez eta bai ugariz ere. Horietako askotan dauzkagu urtegiak eta haietan bildurik urak, bakoitza bere hoditxo eta guzti, errazago hartzeko. Baina aipaturiko guztiak ez daude horrela: zenbaitetan, ur ederra eta oparoa daukan putzua besterik ez da, hori bai, abereengandik harri-konkorrez babestuta, adibidez, Lozta iturria.

Aipatu ditugun iturrien antzekoak gehiago ere badira, baina ez ditugu hemen izendatu edo adierazi; batetik, saroian bertako artzainek ia-ia bakarrik erabiltzen dituztenak direlako; eta, bestetik, mendigoizaleen bideetatik bereiz edo urruti daudelako.

Erref. bibliografikoa: Colección Mendiak, Tomo 2, José Zufiaurre Goya
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

IBAIAK ETA URTEGIAK

Lareoko urmaela

Beste une batean ere esan dugunez, Aralarrek, nahiz eta ur eta elur multzo handiak biltzen dituena izan, bere baso eta zelaiak zeharkatzen dituen ubide eta errekatxorik ez du: gora-beherako gure ibilietan lagunduko diguten errekatxo soinudun eta abeslaririk ez du. Dituen gutxiak ere, jaio eta berehala ezkutatzen dira, iturburutik metro gutxitara lurperatzen direlarik. Bestela da, ordea, Larraun ibaiaren iturburua Iriben: Mailoak bere azpiko erraietan sartzen dituen urak agerian baitaramatza ibai honek. Eta berdin, Oria ibairako alderdian, ur-laster zaratatsuak, Muitzeko ur-jauste biziak ere agerian doaz.

Ur garbi, bizi eta hozkirrien iturburu edo urbegiak, berriz, edonon ageri dira. Edozein txoko eta bazter-aldetan sortzen dira berez iturriak, ur-multzo ugari eta aberatsez sortu ere; abereentzako ur-aska berezietara ipiniak daude toki askotan, baina berehala lurperatzen dira, irten zirenetik metro asko baino lehen. Lan luzea litzake, noski, iturri guztiak hemen aipatzea, eta gehiegizkoa litzake guztien. izenak hemen ematea, ikerlan berezia ez denez. Lehen aipatu ditugun haietaz gainera, Alotza, Pardelutz, Iturribeltz. Ormazarreta ditugu izen ezagunetako batzuk, guztiak aipatzeko ametsik egin gabe, hain ugari baitira Mailoan barna.

Erref. bibliografikoa: Colección Mendiak, Tomo 2, Patxi Ripa
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

IBAIAK ETA URTEGIAK

Larrun-Arakil

Irudia: Arakil ibaia Arga ibaiarekin elkartzen

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

IBAIAK ETA URTEGIAK

Araxes ibaia

Irudia: Araxes ibaia Oria ibaiarekin elkartzen

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

IBAIAK ETA URTEGIAK

Burunda

Irudia: Sakanako ibaiak Arga ibaiarekin elkartzen

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

KLIMA



Mapa plubiometrikoa

Irudi erref.: Eusko lurra 3. Clima y Aguas, 33. or. Edit. Ostoa.

KLIMA

Isohieten mapa

Irudi erref.: Ibaiak eta Haranak. 7.liburukia. 201. or.

KLIMA

Ingurumen-eskualdeak

Euskal Herriko ingurumen-eskualdeen mapa.

Irudi-erref.: Guillermo Meaza. Eusko Lurra, 4. Lurra, Landaredia eta Fauna, 38. or.

KLIMA

Klima motak

Lurralde klimatikoen sailkapena eta definizioa

Sailkapen klimatikoak interesgarriak izaten dira, ez bakarrik lurralde jakin bateko area klimatiko desberdinak bereizteko gure kasuan, Euskal Herrikoak , baita aztergai den herrialdeko klima edo klimak planetako beste klimekin parekatu eta frogatu ahal izateko ere.

Prezipitazio eta tenperaturen hileroko eta urteroko batez bestekoan oinarritzen den Köppen-en sailkapen unibertsalaren arabera, Euskal Herriak ez du lurralde klimatiko homogeneoa osatzen. Latitudinalki ebakiz gero, oro har hiru zona bereiz daitezke: isurialde atlantikoa iparraldera; Euskal Herri ertaina erdian; eta, hegoaldeko ertzean, Ebroko sakonunean sartuz, Nafarroako Erribera eta Arabako Errioxa. Hiru zona horiei beste bat ere erants dakieke, txikia bada ere, zona klimatiko desberdin gisa; alegia, Nafarroaren ipar-ekialdeko Pirinio lurraldea. Zenbait mapatan, gainera, bosgarren zona ere bereizten dute: Nafarroako hego ertzean estepako klima duena, Zaragoza probintziako erdialdeko sakonunean hedatzen dena.

Isurialde Atlantikoa. Klima atlantikoa

Isurialde atlantikoak, Bizkaia, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herri oso-osoa eta Arabaren eta Nafarroaren iparraldea hartzen dituenak, datu estatistiko jakin batzuk ditu, mesotermiko deritzon klimari dagozkionak; hau da, tenperatura epelekoa eta oso euritsua, hilabete lehorrik gabea (30 mm-tik beherako prezipitazio mailakorik gabea, alegia) eta euririk gehien udazken-neguan jasotzen duena. Köppen-en sailkapen klimatiko unibertsalean, urte sasoi lehorrik gabeko klima epel hezea, edo klima atlantikoa deitzen zaio eta Cfb hizkiez sinbolizatzen da. Europako zerrenda atlantiko osoari, Galiziaren zati bat eta Portugali izan ezik, klima mota hori dagokio.

Klima honetan Ozeano Atlantikoak zerikusi nabarmena du. Europako mendebaldeko kostalde osoa lehorretik doazen mendebaldeko haize inguratzaileen eremuaren barruan dagoelako gertatzen da hori; hau da, fluxu orokor nagusia mendebaldetik ekialderakoa den zona latitudinalean dagoelako. Beraz, ozeanoko ur epelekin bat egitean epeldutako aire

masak kostaldera iristen dira, eta horiei esker, egunaren eta gauaren arteko edota udaren eta neguaren arteko gorabehera termikoak ez dira oso nabarmenak izaten.

Horretaz gain, itsas aireak dakartzan korronte orokor horien barruan eta zurrunbilo gisan, ekaitz gogorrak etortzen dira, barruan poloetako aire masa hotzak eta aire masa tropikal epelak nahasiz eta elkarri bultza eginez dituztela. Bultzakada horiek, gertatu ahala, fronte hodeitsuak eta prezipitazioak sortzen dituzte. Baina, Euskal Herria haize horien zerrenda latitudinalaren hegoaldeko ertzean dagoenez eta, beraz, depresioguneen norabidearen ardatzetik urrun, aurrez datozen euriak nahiko arinak izaten dira. Ekaitz gogorren eta fronteen maiztasuna eta indarra ere askoz apalago izaten da udan, orduan herrialdea Azoreetako antizikloi subtropikalaren eragipen finkatzailearen barnean egoten baita.

Faktore orografikoari, erliebeari, zor zaio Euskal Herriko isurialde atlantiko osoko euri kopuru handia: urtean, batez beste, 1.200 eta 2.000 mm-tik gorako prezipitazioak. Euskal mendien eta Pirinioen hurbiltasuna dela-eta iparraldetik datozen aire masak igotzean, hoztu egiten dira eta ur lurruna kondentsatu egiten da; ondorioz, hezetasuna isurtzen zaie, eta euria bizi eta oparo egiten du. Horrela, bada, Euskal Herriko isurialde atlantikoak europar klima ozeaniko modukoa du, baina badu berezitasun bat: oso hezea da, eta hori, batik bat, kostaldetik oso hurbil dauden erliebeek iparraldetik oso maiz datozen fluxuak igoarazten dituztelako gertatzen da.

Tenperaturei dagokienez, neurrizkoak direla azpimarratu behar da; negu epelak izatea da horren adierazle nagusia. Izan ere, euskal kostaldeko neguko tenperatura minimoak Levanteko eta Kataluniako kostaldekoen antzekoak izaten dira. Horrela, bada, udak ere epelak izan arren, Euskal Herrian urteko batez besteko tenperaturarik altuenak kostaldekoak izaten dira: 14ªC, gutxi gorabehera. Udak freskoak izaten diren arren, bero sargoriko denboraldi laburrak ere izan daitezke; 40ªC-ko tenperaturara ere iristen da batzuetan. Hori udan gertatzen da batik bat, Afrikako latitudeetatik etortzen den hego haize lehorra are gehiago berotzen delako, Kantauri eta Akitaniarantz jaistean.

Banalerroko mendietan ere era horretakoa da klima, nahiz eta tenperaturak zerbait jaisten diren eta, ondorioz, elurra askoz ere egun gehiagotan izaten den. Kostaldean urteko elur egunak bi edo hiru izaten dira , eta mendietan, berriz, urtean 25 egunetik gora egiten du elurra.

Honako behatoki hauek erabiltzen ditugu, zona horren adierazgarri baitira eta datu zerrenda luzea baitute: kostaldean, Sondika, Igeldo, Hondarribia eta Miarritze; barnealdean, Artikutza, Doneztebe eta Irulegi; eta banalerroko mendilerroetan, Arantzazu.

Erdialdea. Trantsizioko zona

Euskal Herriaren erdialdeko zona Kantauri-Mediterraneo banalerroan hasten da eta Kantabriako mendilerroa Leireko mendilerroarekin lotuko lukeen lerro paraleloraino hedatzen da. Arabako eta Nafarroako zati handi bat hartzen ditu, eta trantsizio zona deritzo, klima ozeanikoaren eta klima mediterraneoaren artekoa baitu. Zona horretan, ezaugarri atlantikoak nabarmentzen dira gehienbat; izan ere, ez dago egiazko uda lehorrik.

Klima subatlantikoa

Klima horren ipar zona honako hauez osatuta dago: mendebaldean, Arabako Mendebaldeko Ibarrak eta Arabako Lautada; erdialdean, Arakileko korridorea eta Urbasa eta Andia mendikateak; eta ekialdean, Iruñeko arroa. Cfb motako klima atlantikoa da oraindik, nahiz eta isurialde atlantikoan baino prezipitazio gutxiago izaten diren. Ipar isurialdeko benetako klima atlantikotik bereizi ahal izateko, subatlantikoa dei dakioke. Zona horretan, prezipitazioak 700 mm-tik gorakoak izaten dira urtean, eta 1.000 mm-tik askoz ere goragokoak erliebe altuetan.

Klima submediterraneoa

Hegoalderago, gutxi gorabehera Trebiñu, Arabako Mendialdea, Nafarroa Ertaina eta Irunberriko arroa hartzen duen zonan, Cs motako klima mediterraneoa agertzen da, nahiz eta ez dituen klima mota horren ezaugarri guztiak. Hau da, zona horretako klima epelagoa da, uda beroagoa eta lehorragoa, eta urteko euri kopurua neurrizkoa (600 mm-tik gorakoa), eta, seguru asko, 1.000 mm-tik gorakoak izango dira Kantabria, Alaiz eta Leire mendilerroetan.

Ikuspuntu fitoklimatikotik begiratuta, banalerro hau submediterraneoa deritzonaren barruan legoke. Zonarik mendebaldekoenean, freskoagoa den arabarrean, espainiar ipar azpimesetan tipikoa den Csb aldaera mediterraneoaren tankerakoa izateko joera du; eta, zonarik ekialdekoenean, udak beroagoak dituen Nafarroan, Csa tankerakoa da (mota hori tipikoa da Ebroko Haranean eta espainiar hego azpimesetan).

Trantsizioko zona honetan adierazgarritzat ditugun behatokiak honako hauek dira: iparraldean, Boveda, Gasteiz, Altsasu eta Iruñea; eta hegoaldean, Lizarra eta Esa.

Hegoaldea. Klima mediterraneoa

Hego Euskal Herrian, Arabako Errioxa eta Nafarroako Erribera hartzen dituen Ebroko sakonunean, uda lehor eta beroko klima antzematen da; beraz, Köppen-en sailkapenean, Csa motako mediterraneoan sartzen da. Neguak nahiko hotzak eta prezipitazio gutxikoak dituenez, barne mediterraneoa edo mediterraneo kontinentala izendatu izan da.

Hor, itsasoaren eragina txikiagoa dela eta, sasoi batetik besterako oszilazio termikoak handiak dira. Udan, zenbait hilabetetan, batez besteko tenperaturak 22ªC-tik gorakoak izaten dira, eta neguan, tenperatura baxuen ondorioz, izozteak eta lainoak eratzen dira.

Publiometriaren aldetik klima mediterraneoaren ezaugarriak betetzen badira ere hau da, 30 mm-tik beherako prezipitazioko uda hilabeteak izatea, euriteen sasoiz sasoiko banaketan ez da agertzen klima mediterraneoaren desberdintasun garbi eta tipiko bat: udako hilabete lehorren eta urteko hilabeterik euritsuenen arteko aldea. Horren ordez, hileko batez besteko prezipitazioak ia beti nahiko eskasak izaten dira, 50 mm-tik beherakoak, eta hilabete guztiak elkarren antzekoak. Hori dela eta, kontinentalduta dagoela esan daiteke, nahiz eta klima mediterraneoaren barruan sartuta egon.

Erabili ditugun behatoki adierazgarriak, honako hauek dira: Logroño (Arabako Errioxaren ertzean), Marcilla eta Zarrakaztelu.

Ipar-ekialdeko ertza. Klima subpiriniarra

Nafarroako ipar-ekialde ertzeko haranetan klima subpiriniarra edo subalpetarra duen beste zona bat ere bereiz daiteke, agian. Itsas eragin baretzailea gutxiago iristen da hona eta, Cfb motako kliman sartzen bada ere, neguen gogortasuna eta iraupen luzea ditu bereizgarri. Horrela, bada, 1.000 metroko altueran dagoen herri batean, Abaurrean, urteko batez besteko tenperatura 8ªC-koa baino ez da, eta neguak irauten duen sei hilabete luzeetan zehar (azarotik apirila amaitu arte), batez besteko tenperaturak ez dira 6º C-ra iristen.

Kantauriar isurialdeko maximoak lortzen ez baditu ere, urtean 1.500-1.800 mm inguruko eurite oparoak ditu, eta klima kontinentaldua da; izan ere hilabeterik hotzenaren eta beroenaren arteko oszilazio termikoa nahiko handia da: urtarrilean, 1,6ª C, eta abuztuan, 16,8ª C. Negu guztietan egiten du elurra, eta haranetan, urtean 20 elur egun baino gehiago izaten da. Lekurik altuenetan, 1.800 metrotik gorakoetan eta horien artean Ori mendia (2.021 m) nagusitzen da , elur egunak 30 baino gehiago izaten dira, eta tenperaturak are gehiago jaisten dira. Urtarrilean tenperatura -3ª C-z azpikoa den lekuetan, Dfb motako klima alpetarra dagoela esaten da.

Hegoaldeko ertza. Estepako klima hotza

Lehen aipatu bezala, zenbait mapatan esaterako, Geografi Institutu Nazionalak argitaratutako azkenekoan , Nafarroako Erriberaren hegoaldeko ertza BSk estepa klima hotzean sartzen da, gero Zaragoza probintziako erdialderantz hedatzen dena. Köppen-en sailkapenaren arabera, talde klimatiko horretan sartu ahal izateko, zentrimetrotan adierazten diren urteko prezipitazioek (r) urteko batez besteko

tenperatura zifraren bikoitza (2t) baino txikiagoa izan behar dute, eta baldintza hori, gure datuen arabera, ez da betetzen Nafarroako lurralde honetan. Hala ere, zenbait sailkapenetan (urtean zehar diren prezipitazioen arabera Köppen-ena aldatu, eta r-en balioa 2t+14 baino txikiago izatea onartzen dutenetan) Estepakotzat har daiteke Erriberako hego ertzeko klima.

Irudi erref.: Eusko lurra 3. Klima eta urak, 11, 12, 13. or.

KLIMA

Sakana laino artean

Bailararen behealdean behe-lainoak sortzen duen ohiko egoera atmosferikoa

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

KLIMA

Txindoki

Txindoki iparraldetik. Ezkerretara, Muitzeko arroila.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa

KLIMA

Txindoki

Txindoki neguko ekaitz-egun batean.

Txindoki, gailur zara, harrotasun,
horma garai, goitar arkitektura,
lurretik zakust ortzearen lagun
kasik ez duzula nitaz ardura.
Larraitzek eusten zure soin astun,
haitzek katedrale baten burrukaz
apala bihurtzen gorengotasun,
goikoak, antza, behekoa du uka.
Moldura soil zara, geologia,
forma, tankera, igotze zabala,
makurtzen ez den zutoin soilegia.
Euskal Herria ere zu bezala
goia da, lerdena, erpindegia,
harrizkoa berak barne eta azala.

J.M.M.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

KLIMA

Aralarko San Migel

Ergoiena bailarako behe-lainoa Sakanatik behera

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

KLIMA

San Migel elurretan

Oso ohikoa da elurra egitea Santutegia dagoen altueran, eta, horrek, bakardade misteriotsu giroa ematen dio.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

KLIMA

San Migel elurretan

Aralarren elurraz gozatzea benetan ahalegina egin dutenentzat da.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

LANDARETZA

Landaretza mapa

Mapa: Landaretza potentziala Nafarroan.

Landaretzari dagokionez, Aralar mendikateak ingurune asko eskaintzen ditu, hedadura handia, altuera eta paisaia anitz dituelako, eta, horrek, flora aberatsa, anitza eta bitxia sortzea eragin du.

Larreak eta zazkardiak nagusitzen dira, garai batean baso izandakoaren ordezko zati handi batean, eta, orain, artzain-jardueran aritzen direnentzat ogibide.

Zuhaitzez betetako inguruneak ere badaude, batez ere pagoak, mendilerroaren hegoaldean. Karekizko zonaldean dagoen pagadian beste espezie batzuk ere badaude; esaterako: hurrondoak, astigar arruntak, ezkiak, lizarrak, zumarrak, haginak. Beraz, nahiz eta pagoak nagusi diren, baso misto hostotsuak ditu, zuhaitz, zuhaizka eta belar aniztasun handikoak.

Gipuzkoako Diputazioak Enirio-Aralar elkarteari buruz egindako azterketaren arabera, 1983. urtean egina, gailur-lerroaren gainaldean, eta zenbait mendi-hegaletako dolina eta pitzadura handiak eta zabalak dituzten lapiaz-basoetan, florak garrantzi botaniko handia du, ikusgarria da, anitza eta espezie bitxi ugarikoa, horietako asko endemikoak.

Bibliografia eta irudi erref.: El mundo subterráneo en Euskal Herria,230-237or. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Ibaiak eta Haranak 7, 98. or.

LANDARETZA

Mapa: pagadien kokapena

Irudi erref.: Eusko Lurra 4. Suelos, vegetación y fauna, pág 108. Edit. Ostoa.

LANDARETZA

Pagadiak

Pagadien egitura eta flora-osaera

Irudi erref.: Eusko Lurra 4. Suelos, vegetación y fauna, pág 109. Edit. Ostoa.

LANDARETZA

Irudia: pagoa

Pagadi basofiloaren seri dinamikoa

1: pagadi basofiloa.
2: arantzadia.
3: landa kaltzikola ipuruduna.
4: albiztia.
5: mendi muinoetako larraldea.
6: gailurreko eta kararrizko amildegi oineko basoa.
(iturria: Aseginolaza et al., 1988)

Pagadi basofiloak

Euskal lurraldea artikulatzen duten mazizo eta mendizerra gehienak material karbonatatuen gainean eraiki dira. Horrek pentsaraz lezake pagadi mota honek silize zoruak baino entitate handiagoko lurzoruak behar dituela. Alabaina, arestian jakinarazi dugun bezala, goi mendietako euri jasen oparotasunak eragiten duen arazketak azidifika ditzake -gaingiroki bederen- sektore zabaletako kararri lurzoruak. Horren ondorioz, pagadien bi fazieak, azidofiloa eta basofiloa alegia, mosaiko gisa banatzen dira.

Pagadi basofiloa, batez ere, Cambisol eutriko eta Leptosol rendsikoetan finkatzen da. Lehenengoak, A eta B horizonteez horniturik, malda apaletan aurkitzen dira, nutrientetan aberats direlako eta azidotasun apur bat ere badutelako. Bigarrenak, A horizonte bakarrarekin, malda handiagoko zonaldeetan kokatzen dira eta karbonatu eduki handiagoa erakusten dute.

Pagadi hauen eredurik onenak zenbait kokagune piriniarretan eta banalerroko mendilerroetan aurkitzen dira (Aralar, Aizkorri, Gorbeia) eta, batez ere, Nafarroa eta Araba bitarteko trantsizio zonako konplexu karstikoetan (Andia, Urbasa, Iturrieta, Entzia...).

Bere egitura eta konposizio floristikoari dagokionean, goi mailetan pagoaren (*Fagus sylvatica*) nagusitasuna berriro erabatekoa baldin bada

ere, kokagune harritsuetan ohikoa da espezie kaltzikolen presentzia urria baina sistematikoa, hots, hostazuria (*Sorbus aria*), astigarra (*Acer campestre*) eta hagina (*Taxus baccata*). Berriro ere oihanpearen joera orokorra eskasia izan arren, pagadi azidofiloan baino dezente oparoago ageri da belar geruza. Besteak beste, eta batez ere, iparraldeko elorri zuria (*Crataegus monogyna*), elorri beltza (*Prunus spinosa*) eta laharra (*Rubus sp.*) aurkitzen dira, basoko zaurien orbainduran eta, batez ere, zuhaiska orlan eta ordezkapen etapan hainbesteko onura egiten dutenak alegia.

Lurzoru sakonak garatu eta orbela metatzen den lekuetan (dolina hondoak, lauguneak, lenar arraildurak), fazierik eutrofikoenak ikus ditzakegu, oso ugariak direlarik bertan honako landareak: eszila (*Scilla liliohyacinthus*), baso anemona (*Anemone nemorosa*), girtangorria (*Ajuga reptans*), lilipa (*Narcissum sp.*) merkuriar iraunkorra (*Mercurialis perennis*), asun gorria (*Lamiastrum gelobdolon*), zolda belar txikia (*Symphytum tuberosum*), eta hartz-baratxuria (*Alliüm ursinum*). Nemoral, esziofilo eta higrofiloez osatzen da lore zerrenda, hala nola, ondorengo landare hauez: huntz arrunta (*Hedera helix*), suge-belar pikarta (*Arum maculatum*), esne-belarra (*Euphorbia hyberna*), gibel-belarra (*Hepatica nobilis*), bioleta (*Viola* sp.) otsababa emea (*Helleborus viridis*) eta urrebotoia *(Ranunculus sp.)*.

Ref. gráfica: Eusko Lurra 4. Suelos, vegetación y fauna, pág 110. Edit. Ostoa.

LANDARETZA

Pagoa

Pagoa (Fagus sylvatica), Euskal Herriko mendigune heze-hiperezeetako espezie enblematikoa da.

Irudi-erref.: Eusko Lurra, 4. Lurra, Landaredia eta Fauna, 115. or.

LANDARETZA



Ibai arroa

Ibai-arroa ekosistema moduan

Ibai-ekosistema ur-ekarpenaren baitakoa da, bai eta hori elikatzen duten lehorreko ekosistemek ematen dizkioten elementu kimikoen baitakoa ere. (Curlin, 1970).

Irudi-erref.: Curlin, 1970.

LANDARETZA

Nafarroako Goi Pirinioen eskema kliseriala

Nafar Pirinioak eta Kantauri Mendikatearen arteko lotune egiten duten mendilerroak ez dira 1.600 m baino garaiagoak, eta esan gabe doa mendiko maila bioklimatikoaren baitan aurkitzen direla bete-betean. Klima hotza eta euritsua gertatzen da hor, eta lainoa ere askotan eta, udako sasoiaz kanpo, ez gutxitan izotza eta elurra. Kontrajarpen litologiko eta morfologiko garbia ikus daiteke mendilerro kareharrizko eta silizeo desberdinen artean. Lehenengo horiek paisaia karstiko ongi garatua erakusten dute, eta horietan ez da gauza arraroa lenarrak eta amildegiak aurkitzea, bien bitartean mendi silizeoek soslai biribilagoak dituzte eta ez da usu gertatzen haitz konkorren presentzia.

Pagoaren eremuak (Fagus sylvatica) hartzen du lurralde honen ia azalerarik gehiena. Ingurugiroaren hezetasun altuak, laino ugarirekin, eragiten du baso hauen sustapena. Pago artean maiz gertatzen da baso mistoa esaten dena ere, tontor eta amildegi gainean, pagoarentzat desegokia diren lekuetan. Ametz arruntaren eremuak (Quercus pyrenaica) hartzen dio txanda erdi pareko hegaletan eta egutera diren esparruetan,

zeinak hezetasun gutxiago izateaz aparte, leku argitsuagoak diren, lurzoru lehorrekoak eta hareatsuak, gainera. Mugalerroko mendilerro hauen eguteratik, baina kareharrizko litologia ageri duten horietan gertatzen da ametz ilaundunaren eremua (Quercus humilis), hein handiago edo txikiagoan beronen pareko diren kareharri gaineko landareekin hibridaturik. Azken premisa geoekologiko hauek lurraldearen ekialdean batik bat betetzen dira, zeren eta erdialde nahiz mendebaldean, material silizeoetan, ametz arruntaren orban zabalak ikusiko baitituzu. Gainerako baso motak, haritz kandugabea (Quercus petraea) esaterako edota urkia (Betula celtiberica), esparru oso jakinetara mugaturik daude.

Erref. bibliografikoa eta iIrudi erref.: Eusko Lurra 4. Lurra, Landaredia eta Fauna, 40, 41. or.

LANDARETZA

Ataungo domoaren barnealdea

Ataungo domoaren barnealdea.
Irudi-erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Apoa

Apoa (*Bufo bufo*).

Europa osoan barna zabaldua da mota hau, izatez berozalea, doi-doi bada ere. Gorpuzkera potzoloa du, muturra motza eta atzeko hankak luzeak. Margoz beti ez da berdin, baina nagusien dituenak gaztaina-kolorea, nabarra, arrea eta horixka dira.

Toki bustiak ditu bizileku: basoak, baratzak, soro landuak eta bide-ertzak ere bai. Jatun handia denez, mamutxak, lehorreko zizareak, soinberak,

ehunzangoak, armiarmak eta abar jaten ditu oparo aski. Izendaturiko zomorro horietatik ugari jaten duenez, mesedegarri da lurgintzarako.

Beste mota batzuetan ez ezik, hauen artean ere ezberdinak dira aremeak: askoz handiagoak dira arrak baino emeak. Arrautza oso ugari ipintzen ditu, soka luzetan ipini ere, hasi bi milatik eta 7.000 arte. Batez beste, 10 urteko bizitza izaten dute, baina badira 30 urte bizitakoak ere.

Ilunabarrez eta gauez burutzen dituzte beren ekintzak. Arrats euritsuetan aise ikus ditzake edonork.

Anfibioen ekintza eta ibilietan garrantzirik handiena, eguratsaren edo haizearen ezkotasunak edo bustiak duala esan dezakegu. Horietako motarik gehienak gauez irteten dira beren ekintzetara, giroa orduantxe izaten delako ezkoen edo bustiena; izan ere, soina ez elkortzeko eta larruarnasa aise hartzeko, larru-azala ezkorik edo bustirik eduki behar baitute. Horrela, saldoan edo taldeka irten ohi dira gauez beren txokoetatik, batez ere gau euritsuetan, eta ez da zaila orduan ikustea. Janaritu ere gauez janaritzen dira, zapoen janari edo ehiza-gai direnak ere, hain zuzen gauez ibiltzen baitira.

Arrautzatik jaioberriak direnean hau da, bizitzako lehen zatian, aldameneko argazkian ageri denez, soinetik kanpora dituzte zakatzak. Egun batzuen buruan, ordea, estalirik gertatuko dira zakatzak eta aurrerakoan «zakatz-gela» izango dute izen. Txikiak izan ohi dira eta beltzaranak margoz. Igel eta zapo-kumeei, aldi hori bizi duten bitartean, txalburu edo zapaburu esaten diegu euskaraz.

Erref. bibliografikoa: Antonio Bea. Mendiak 2, 110. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Ibai-igela

Ibai-igela (*Rana ridibunda*).

Europa osoan barna txit zabaldua da ibai-igela. Berozalea da, soinez sendoa, muturzorrotza. Atzeko hankak oso luzeak dituenez, jauzi handiak eginez ibiltzen da. Olio-aranaren antzeko margo berdea du, batzuetan arrea; tarteka baditu beltzuneak ere.

Beti uretan bizi da, putzu, zingira eta ibaietan, alegia. Taldean ibiltzen dira, eta egon ere taldean eguzkitan berotzen, nahiz ertzeko lehorrean eta nahiz uraren gainean. Jatun handia da mota hau, mamutxak eta lehorreko zizareak eta abar ditualarik janari; askotan jan izan dute beretakoek elkar ere. Zenbaitetan, hain igel handiak irentsi nahi eta ezinean, atzeko hankak ahotik kanpora dituztelarik ari izan dira irensten.

Arrak baino handiago dira emeak eta arrautzagile ugariak, 5-10 mila ipintzen baitituzte, uretako landare-artean ipini ere.

Egunekoak direlarik ere, badakite gauez ibiltzen eta jaten. Guztiz zaratatsuak dira: taldeka abesten dute, indartsuki eta luzaro abestu ere. Goietan ez da bizi ohi, baizik eta beheetako zelaietan da ezaguna. Haziletik epailerakoa, zingiretako lohitan egiten du neguteko loaldian.

Azkeneko hamarkadan asko urritu dira ibai-igelak. Horien zapaburuak oso erraz galtzen dituzte xaboi, garbitzeko sorkari eta beste sorkari kutsakor diren horiek eta lantegietako hondakinek. Horregatik urritu dira igel-taldeak. Eta horregatik aurkitu ditzakegu orain bakanen batzuk beren ohituraz kanpoko tokietan. Zazpi urteko bizia dute batez beste.

Erref. bibliografikoa: Antonio Bea. Mendiak 2, 117. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Txantxikua

Txantxikua. (*Alites obstetricens*)

Gehienera, 5 cm, txikiagoa gehiagotan. Lurralde bustietan oso ugari den zapo txikia da: Auñamendi aldean, 2.000 metroz gora ere bizi izan da. Zapaburu den aldian zeharo urtar, gainerakoan beti lurtarra da. Gauza oso bitxia; emeak ipintzen dizkion arrautzak, arrak erabili izan ditu atzeko hanken gainean. Pozoirik gabea eta nekazaritzari mesedegarri zaiona.

Horra basoko igelaren errunaldia. Uztailean hasi ohi da arrautzak egiten. Kantauri aldeko beheko lurretan da ugarienik. Putzuak eta ur geldiak ditu tokirik gogokoenak.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, pág. 123.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Baso-igela

Baso-igela. (*Rana temporaria*)

Luzean 10 cm da gehienera ere. Zeharo lurtarra da; arrautzak ipintzera bakarrik joan ohi da uretara, eta negualdia egitera ere batzuetan bai. Auñamendietako ohían edo baso ezkoetan eta Kantauri aldean oso ezaguna da; hego-alderago, berriz, mendietako zoko bustietan bakarrik.

Nafarroako zenbait tokitan, arrautzak ipintzeko putzuetara pilatzen direnean, harrapatu egin ohi dituzte, haien izterrak oso goxoak baitira jateko.

Erref. bibliografikoa: Antonio Bea. Mendiak 1, 125. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Horma-sugandila

Horma-sugandila. (*Podarcis muralis*)

Gazteleraz izen bat baino gehiago ditu. Euskaraz hauxe dugu sugandila, luzean 16-18 cm izaten dituena. Sendoa da gorpuzkeraz; luzea du buztana; muturzorrotza da burua eta ondo bereizia du lepoa. Bizkarreko

margoari dagokionez, era askotakoak dira: marroiak, berdeak, arreak, oliokerakoak, beltz sarea dutenak, bizkar osoan marra ilun bat dutenak...

Gorrixkak izaten ditu saihetsak, eta sugandila arrek begitxo urdin txikiak izaten dituzte. Albo bietan zerrenda sare iluna izaten dute. Sabela, berriz, zurixkatik gorrixka bitarteko margoduna izaten dute; zenbaitetan ez dute beltz sarez ilundua izaten.

Oso ugaria da mota hau. Bestalde, Euskal Herriko iparraldean hauxe da ezagunena. Horretaz gainera, menditarra ere bada, 2.300 metroko garaieran ere bizi baitaiteke.

Edozein eratako ingurugiroan bizi ohi da.

Tokirik gogozkoenak, harresiak, harritzak, bide-hormak eta abar ditu. Goi-mendietan ere mota hauxe da ugariena eta zabalduena, batez ere harri-pila, bide-ertz, otalur eta antzekoetan.

Oso ekintzailea da sugandila: eguzkitan bere soina berotu duenean, bizitasun handiz ibiltzen da janari bila eta abar. Ohituraz, beti toki berekoa da. Sugandila arrek oso gogor zaintzen dute beren ingurua: emeak eta ar gazteren bat izan ezik, beste guztiak uxatzen dituzte.

Arren artean borroka latzak egin izan dituzte udaberriz, emeak umatzea lortzeko, ar lehiakide edo arerioen artean noski. Batez beste, 4-10 arrautza erruten ditu eme bakoitzak. Udaran jaiotzen dira umeak, hortxe 5 cm luzekoak.

Erref. bibliografikoa: Antonio Bea. Mendiak 4, 96. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Horma-sugandila

Horma-sugandila, ekialdekoa edo arrunta. (*Podarcis muralis*).

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Horma-sugandila

Horma-sugandila, ekialdekoa edo arrunta. (*Podarcis muralis*).

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Horma-sugandila

Horma-sugandila, ekialdekoa edo arrunta. (*Podarcis muralis*).

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Arrabioa

Arrabioa (*Salamandra salamandra*)

Luzeran 18-25 zentimetro da. Ezagutzen erraza da, dituen margo beltz eta hori biziei esker. Toki bustietan du bizilekua. Kantauri eta Auñamendi aldeetan oso ugari izaten da; lurralde lehorretan, berriz, tokirik hezeenetan.

Ugaltze edo ernaberritzekoan izan ezik, lurrean bizi ohi da, basoen inguruetan gehienik. Gautarra da; harri azpian nahiz orbelpean du bere

txokoa egunez; eguraldi euritsuetan egunez ere irten izan da. Pozoitsua delako ustea oso zabalduta dagoen arren ez da hala: larruak jariatzen dion isurkaria besterik ez da, eta hori aho-sudur-begientzat da larritasun edo sumin sortzaile: horretantxe argi ibili behar.

Erref. bibliografikoa: José Mª Faus. Mendiak 1, 122. or.
Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa.

FAUNA

Sugegorri kantauriarra

Sugegorri kantauriarra (*Vipera seoanei*)

Nekez izan ohi da 70 cm baino luzeago. Oraintsu arte, europar sugegorriaren azpisailekotzat hartua. Arre samarra da margoz, arre gorrixka gehienetan, gainean zerrenda beltza luzera osoan, baina sigi saga eran edo hozkaduna; eta beltzune borobil samarrak albo bietan. Eztarria eta kokotsa, zurixka edota zuriak ditu. Azpia beltza du, mota zuriz nabartuta. Begi ninfa goitik behera du, sugegorri guztiek bezala.

Kantauri isurialdekoa da: Bizkai, Gipuzkoa eta Baztan aldean ageri dela da dakiguna, oraingoz. Ziztada pozoitsua duenez, arriskurik badu, baina ez da hilgarria. Bere aukerako ingurugiroa, otadi, txilardi eta garo sailetan duen arren, belardien birako sastraka eta sasien artean ere bizi ohi da.

Euskal Herriko beste sugegorrietatik berezia da, mutur harroa ez delako.

Suge ziztadak

Europako sugegorrien ziztadak gutxitan dira hilgarriak; hala ere, gaitz egin dezake osasunean, bai umeei, eta bai osasun ahulekoei. Horregatik, mendizale eta izadizale direnentzat, hona hemen aholku batzuk.

Saiatu oinetako irekiak ez erabiltzen; ezponda eta harkaitzetan igotzekoan, kontuz ipini eskuak eta oinak. Sugerik ikusiz gero, utzi bakean: ez ibili, ez harrapatzen, ez akabatu nahian. Gogoan izan, sugegorriek ez dutela eraso egiten; izatekotan ere, zirikatzen dituztenean.

Suge ziztadarik gertatuz gero, ez larritu. Aztertu itzazu ongi ziztadaren aztarnak: zulotxo bi uzten ditu sugegorriak, milimetro batzuk tartean direla; beste sugeek hortz askoren aztarnak uzten dituzte, gehienetan lerro oker bitan: horietan ez duzu larritu beharrik, pozoirik ez dutelako.

Zaindu ongi ziztada: lehenengo ordu erdian handiturik edo koskorrik ageri ez bada, pozoiduraren beldur handirik ez duzu behar, ziztada benetan sugegorriarena izanik ere.

Saia zaitez sendagilearengana ahalik eta lasterren joaten, baina, argi! ez joan lasterka eta ez asldatu! larritasunak eta urduritasunak, bizkorrago eragiten diote odolari, eta, hain zuzen ere, horrexegatik arinago zabalduko litzateke pozoia.

Ziztada EZ ebaki eta EZ zurrupatu, eta alkoholik EZ erabili, eta beste desinfektatzaile indartsurik ere ez. Garbitu ezazu zauria, hori bai. Sendagilearen laguntza berandutuko balitz, egizu orduan odola gelditzeko lotura. Saia zaitez zauritua duzun gorputz-atala ahalik eta geldien edukitzen.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, pág. 133.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA



Ibaiaren atalak

Ibaiaren atal bakoitzak bere ezaugarri fisiko-kimiko eta biologikoak ditu. Gipuzkoan hiru zona bereizten dira:

Goiko ibilbidea, ibaien goiko aldea da. Ura azkar jaisten da, eta ibilguak sakonera txikia du. Higadura da nagusi zona honetan.

Erdiko ibilbidea. Ibilgua sakonagoa eta zabalagoa da. Garraioa da nagusi zona honetan.

Beheko ibilbidea, estuarioa, ur gazikarako zona; ibaiaren azken atala. Ur geza eta gazia ditu nahasita, eta sedimentazioa da nagusi.

Irudi erref.: Recorriendo Gipuzkoa, 65. fitxa.

FAUNA



Ornogabeak

Ornogabeak harriaren azpian ezkutatuta.

Ibaien goiko ibilbideetako ornogabeak harrien azpian ezkutatzen dira, urlasterraren indar lerroek (marrazkiko geziak) indar txikiena duten lekuan. Harriaren azpian bi larba ikus ditzakegu: bat plekopteroarena, eta bestea, trikopteroarena.

Erref. bibliografikoa eta grafikoa: Antonio Bea. Recorriendo Gipuzkoa, 64. fitxa.

FAUNA

Elikadura-piramidea ekosistema urtarrean

1) Fitoplanktona.
2) Zooplanktona.
3) Ditiskoa (larbak eta helduak).
4) Karpa.
5) Lutxoa.
6) Larba.
7) Bakterioak.

Irudi erref.: La síntesis ecológica. P. Duvigneaud. Alhambra Arg..

FAUNA

Elikakate urtarra

Ibai motak

Mendietako ibilguek eta zoru elkorretatik doan urak gatz mineral gutxi daramate disolbatuta eta ur eskasak dira. Gainera, ura hotza egon ohi da eta ornogabe gutxi bizi ohi dira bertan. Ur oligotrofikoak deitzen zaie, eta horietan salmonidoak bizi ohi dira.

Lur emankorretatik eta ibaiaren beheko ibilbidetik doan urak, berriz, gatz asko darama disoluzioan, tenperatura handiagoan egon ohi da eta ornogabeen kopurua eta dentsitatea handiagoa da. Ur eutrofikoak deitzen zaie, eta horietan oso ugariak dira ziprinidoak.

Espezie gehienen ale gazteek organismo txikiak (zooplanktona) harrapatzen dituzte; beste espezie batzuek mazkarrek, esaterako ibaiaren hondoko harrien artean aurkitzen dituzten ornogabe txikiak jaten dituzte.

Zenbait espezie loina, esaterako herbiboroak dira hein batean, eta harriak eta zuhaitz enborrak estaltzen dituzten algak marruskatzen dituzte ahoarekin, algak jateko. Beste espezie batzuk lutxoa, esaterako pisziboroak dira. Eta arrain gehien-gehienak askotariko elikagaiak jaten dituzte, zenbait ornogabe klase, gehienetan.

Urmael ekosistema

Ur geldoek, ur pilatuek ekosistema sinple eta mugatua osatzen dute. Bi landare mota izan ohi dituzte:

Alga planktonikoak: alga berdeak, alga urdinxkak, diatomeoak.

Goi mailako landareak: urpean, flotatzen edo ibaiertzean zutik. Landareok fauna herbiboroak jan ohi ditu; alegia, zooplanktonak (krustazeo txiki igerilariak; esaterako, ur arkakusoa, kopepodoak eta ganbatxoak), substratuetan bizi diren gasteropodoek eta arrain landarejaleek.

Herbiboro horiek lehen mailako arrain karniboroen elikagaia dira, karparena, esaterako. Baina beste karniboro batzuek ere jaten dute

zooplanktona, eta horrenbestez, zikloa eteten dute. Horietako bat ditisko intsektua da.

Lehen mailako karniboro batzuk bigarren mailako harrapariek jaten dituzte (lutxoak, esaterako) eta, horrenbestez, zikloa itxi egiten da.

Ohikoa da ekosistemen artean trukeak egotea. Lehorreko zenbait herbiboro (beldarrak, esaterako) ezustean uretara erori eta uretako karniboroek jan ohi dituzte; eta lehorreko zenbait karniborok (martin arrantzaleak, esaterako) urmaeletako arrainak dituzte elikagai.

Landare hilak saprobioen elikagai izaten dira, eta saprobioak, berriz, zenbait arrainen harrapakin, karparen harrapakin, adibidez. Bakterioek materia organikoa usteldu edo deskonposatu eta elementu mineralak askatzen dituzte, landare berdeek berreskura ditzaten.

Erref. bibliografikoa: Antonio Bea. Mendiak 3.
Irudi erref.: La síntesis ecológica. P. Duvigneaud. Alhambra Arg.

FAUNA



Elikadura piramidea

Uretako ekosistemako elikadura piramidea

Uretako ekosistema oinarri duen elikadura piramideak erakusten du planktoneko algek eginkizun handia dutela elikagaien ekoizpen primarioan; alegia, beste organismo batzuek baliatzen duten elikagaien ekoizpenean. Animalia urtar txikiek algak eta animalia planktona jaten dituzte. Animaliok arrainek jaten dituzte, eta horiek, esaterako, gizakiaren elikagai izan daitezke. Piramideak beste gauza bat ere erakusten du: atal bakoitzean urak dituen elikagaien ekoizpenaren zati txiki-txiki bat besterik ez dela aprobetxatzen.

Irudi erref.: La síntesis ecológica. P. Duvigneaud. Alhambra Arg.

FAUNA

Arrain-espezien banaketa

Espezieen banaketaren taula, isurialde, ibai atal, aintzira eta urmaeletan.

Irudi erref.: Antonio Bea. Recorriendo Gipuzkoa.

FAUNA

Amuarraina

Amuarraina (*Salmo truta fario*)

Ibai eta erreketako ur garbietan bizi ohi da, zenbat eta mendi alderago orduan eta nahiago, ur hotz eta arnas gaiez hornituetan. Ugari izaten da bai Atlantiko alderako bai Mediterraneorako isurialdean.

Ur gezatako arrainik gogozkoena da bera, bai arrantzarako duen zailtasunagatik eta bai jateko oso ona delako.

Bertako amuarrainaz gainera, Ameriketatik ekarritako mota bat ere sartu dute gure ur gezetan. Elkarren arteko lehiaz gainera, gaitz berriak ere ekarri ditu horrek.

Erref. bibliografikoa: José Mª Faus. Mendiak 1, 120. or.
Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa.

FAUNA

Buztangorri iluna

Buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*)

Gorpuzkeraz 14 cm ditu. Gure lurraldean egoiliarra da. Edozein eratako harkaitzetan izaten du bizilekua: harrobiak, ezponda eta harkaiztiak, harritzak eta abar, bai goi mendietan bai itsasertzean. Zenbait eraikinetako hormetan ere bizi ohi dira, habia egiteko txokoren bat egin baleza behintzat. Auñamendi aldean aurkitu izan dituzte zenbait bikote 2.900 metrotik gorako tokietan.

Gauza bitxia eta polita da, noski, harkaitz muturretan buztangorria tente ikustea, bere abesti etena zabalduz eta isatsa pir-pirka duelarik ikara bizian. Erraz nahastekoa da buztangorriarekin, kidekoak direnez, baina hemen azaltzen ari garena, ez da hain ikusgarria, ilunagoa baizik; ia zeharo beltza da arra, eta hegoetan orban zurixka handi bana ditu.

Intsektujalea da. Harkaitz, etxe, horma eta haitzetako zuloetan egiten du habia, goroldioz, zaintxoz eta belarrez estalita. Lau-sei arrautza erruten ditu gehienetan.

Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa.

FAUNA

Garraztarroa

Garraztarroa (*Turdus viscivorus*)

Gure lurraldean diren zozo-birigarroetan motarik handiena da garraztarroa, gorpuzkeraz 27 cm-koa baita. Egoiliarra da Euskal Herrian, baina goragoko lurretatik honantz etorri ohi da, neguko hotzetatik ihesi. Beheko saila baino atseginagoa zaio mendia, baina zuhaiztiak baino

gorago ez du habiarik egiten. Umeak atera ondoren bai, taldeak igo ohi dira goietako belardietara, janari bila.

Oihan edo basoen ertzetan aurkitzen du bere neurriko habitata: han dauzka zuhaitzak, haietan habia egiteko, eta han dauzka belardi eta larre sailak ere, janaria bilatzeko, intsektuak eta harrak, zizareak eta barraskiloak behar izaten baititu.

Udazkena eta negua garai egokiak ditu, beste janari batzuez gainera, baia txiki edo alexkak ere jan ditzan. Besteak beste, mihuraren pikor edo pinporta likatsuak ere jaten ditu eta horregatik ematen diote latinezko viscivorus izena, mihuraren (Viscum album delakoaren) ale likatsua jaten duelako.

Birigarroaren antzekoa da lumakeraz: gainaldeak arre eta ilun arreak ditu; azpialdeak, berriz, zuri-horixkak eta orbandunak. Hala ere, birigarroa baino handiagoa da, eta albo bietan argiagoa ere bai. Ezaguna da garraztarroaren ibilera hegan, gora eta behera ibiltzen baita; eta ezaguna da haren garrasia ere, kar-kar-kar bizi eta zorrotza egiten baitu edozein arriskuren aurrean. Oso izua denez, zaila da bertatik bertara ikustea.

Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa.

FAUNA

Garrapoa

Garrapoa (*Sitta europaea*)

Neurriz 14 cm-koa da zuhaitzetako txori hau; «paridos» sendikoak adina ez bada ere, oso ugaria da Auñamendi eta lurralde bustietako basoetan. Baina oso urria Auñamendietako pinudietan.

Zuhaitz gerrian ibiltzeko era oso berezia du: buztanaz lagundu gabe, alegia. Gora eta behera, eta alboetara, beti horrela ibiltzen da.

Zuhaitzen zuloetan egiten du habia, baina zuloa lurrez txikiagotuta. Kakalardo egurjaleak eta horien harrak eta beste zenbait ornogabe ditu janari; baita zenbait ezkur, pago ezkur, hur eta azal gogorreko beste igali

batzuk ere, zirrituetan sarturik, mokoka apurtu ondoren. Bertako egoiliar dugu.

Erref. bibliografikoa: José Mª Faus. Mendiak 1, 144. or.
Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa.

FAUNA

Belatxinga mokohoria

Belatxinga mokohoria (*Pyrrhocora graculus*)

Gorpuzkeraz 38 cm-koa da. Egoiliarra da izatez. Oso eguraldi txarra denean bakarrik jaisten da janari bila, baina ostera gauerako goi mendietara itzultzeko. Berez, alpetar mailako goietakoa da, baina Euskal Herrian badira horien populazioak beherago ere: adibidez, Aralarren eta Aizkorrin; toki horietan, izan ere, zuhaiztiak soildurik, larre lur bihurtuta daudenez, bere giroko bizilekua aurkitzen du bete-betean.

Lotarako eta umeak ateratzeko, harkaitzetako zulo eta zirrituetan babesten da: eta horrelako egokirik ezean, baita haitzulo eta leizeetan ere. Auñamendi aldean badira horien populazioak, 2.500 metrotik gorago bizi direnak. Eguneroko hegaldietan, berriz, gailurrik altuenak baino gorago ere aise hegatzen dira. Gehienetan, ordea, goietako belardietan taldeka ibiltzen dira, betiere ehizean, hegaka nahiz lurrean dabilen edozein animaliatxo harrapatzeko irrikaz; matxinsaltoak, kilkerrak, barakuiloak, kakalardoak, zizareak eta abar lasaiki jaten ditu, mendizaleen janari apurrak ere utzi gabe.

Zeharo beltza da lumaz, belakide edo korbido guztiak diren bezala. Horregatik, belatxinga mokogorriarekin nahastea oso erraza da. Hauek dira, ordea, bereizgarriak: belatxinga mokogorriak moko luzeagoa, okerra eta gorria du. Belatxinga mokohoriak, berriz, moko laburragoa, zuzena eta kolorez horia. Azken horien kantua ere aztertzekoa da, bereizgarri baita.

Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa.

FAUNA

Zapelatza

Zapelatza. (*Buteo buteo*)

Neurriz, 51-56 cm-koa, harrapari koskorren edo erdi-mailakoen artean, hauxe berdinen zabaldua Euskal Herri osoan eta Europako zatirik handienean. Edonondarra denez, zelaietan, mendi-hegaletan, muino eta mendietan, alde guztietan du bizileku, habiagintzarako zuhaiztirik eta ehizarako toki garbirik izanez gero; zakardi, belardi eta soroak ditu bere ehiza-leku aukerakoak.

Lepo laburra, hego zabalak, isats zabala borobilean, horrelakoxea da. Kulunkaz bezala egiten du hegan. Beti zerbaiten gainean erne ikustea ez da zaila, sator, musker, sagu eta abar ikusi-zain egoten baita berehala ehizatzeko prest.

Zuhaitzetan egiten du habia, oso gutxitan harkaitzetan. Egur eta zotzez egin ohi du bere habia handia, bertan 2-3 arrautza zuri pintarratu ipintzeko. Karraskari asko jaten dituenez, ongarri da nekazarientzat: horregatik babesten ditu legeak hau eta beste harrapariak.

Erref. bibliografikoa: José Mª Faus. Mendiak 1, 157. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Sai arrea

Sai arrea (*Gyps fulvus*)

Gorpuzkeraz 100-110 cm eta hego-zabaleran 240-280 cm dituena, 6-8 kilo izatera iristen da. Egoiliar da bere heldutasunean, baina hegoalderantz joan ohi da gaztetan. Aranzadi Elkarteak eraztunak jarri izan dizkie Auñamendietako taldeetako txita batzuei, eta horri esker ikusi da hegazti horiek Penintsula erdialdean eta hegoan, eta Afrikako iparrean agertu direla.

Taldeka bizi ohi den espeziea denez, toki jakinetan kokatzen dira populazioak; batez ere, hormatzar harkaiztsuetan, harkaitzetako erlaitz edo kosketan, horrelakoetan baitituzte beren egonlekuak eta horrelakoetan egiten dituzte habiak ere. Oso arruntak dira hauen habiak: adarrak, zotzak eta belarra besterik ez dute erabiltzen habiagintzan; eta belarra ahitu egiten zaie, txita hazten den heinean. Arrautza bakarra erruten dute eta bera otsailean. Eta umeak habiarik ez du uzten uztaila arte.

Sai arrea, oso handia delarik ere, kokatuta dagoenean, nekez bereiztekoa da, harkaitzaren antzeko gertatzen denez; baina hegan dabilenean, ezagutzen erraza da urrutira: handia agertzen da, hego luze eta zabalak bere muturreko lumak hedaturik edo harro dituelarik; eta isatsa, laburra eta lauki erakoa. Eguraldi txarretan, kokaturik egon ohi da, harkaitz zuloetan babestuta, geldi-geldi, eguzkiak giroa berotu arte, eta orduan, haizearen goranzko eraginaz ederki baliatzen da, borobil zabaletan kulunkatuz igotzeko. Hegoen eraginez igotzea oso nekagarri eta indar asko erretzeko bide gertatzen zaio, pisuz oso astuna delako; horregatik egiten du hain gutxitan hegaldi mota hori.

Sarraskia edo haratustela bakarrik du bere janari, eta hori hegaka dabilenean ikusten du bere ikusmen zorrotzaz; baina ez uste, askok esan ohi dutenez, usainera aurkitzen duenik jakia, hegazti gehienen erara, oso motela baitu usaimena. Jaten duenari dagokionez, artzaintza eta abelazkuntza diren tokien inguruan ibili ohi da, biziko bada.

Erref. bibliografikoa: José Mª Faus. Mendiak 4, 114. or.
Irudi erref.: Etor - Ostoa artxiboa

FAUNA

Satitsua

SATITSUAK. Intsektiboroa

Mendi eta bideetan maiz agertu izan dira, hilda,ugazdun txiki batzuk, mutur luze-luzea dutenak, baina saguekin inolako ikuskizunik gabekoak, itxura pixka bat izan ezik. Intsektiboro txikiak dira. Gehienak, *Sorex* eta *Crocidura* motakoak dira, eta horien artean dira eguzkipeko ugaztunik txikienak. Adibidez, *Suncus etruscus* izenekoa, buztana neurtu gabe, bere gorputza soilik dela, ez du 5 cm baino gehiagorik luzean eta ez da 3 gramora iristen.

Gehienak, gautarrak dira, tartean bietarakoak ere izan arren. Mota batzuetakoek lurpeko ibilbideak zulatu izan dituzte, *Neomys fodiens* delakoak adibidez, eta mota honetakoak uraren inguruan bizi izan dira.

Intsektuak dira batez ere hauen janari, baina jan izan dituzte landare-jatorrikoak ere.

Intsektiboro hauek berak, berriz, arrapalari gautarren janari dira, hontzen janari, adibidez.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, pág. 166.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Azkonarra

Azkonarra (*Meles meles*)

Ugari ere ugari dira azkonarrak Euskal Herrian. Margoz zuri eta beltza da. Bi zerrenda beltz ditu buruan, alde banatara, sudurzuloa baino zentimetro bat goragotik hasi, begia eta belarri-erdia hartuz, leporaino iristen direla. Beste zerrenda beltz batek lepapea eta sabela hartzen dizkio. Gainerakoan zuria du burua. Bizkarra argia eta saihetsak arreak.

Bete-betean gau-abere da: eguzkia sartu ondoren hasi ohi da azkonarraren ekintza. Hiru zatitan banatua dela esan dezakegu gau-ekintza ori. Lehenengoan, behin eta berriz irten ohi da bere azkondegi edo etzalekutik, ibilaldi laburtxoak eginez. Bigarrenean, urrutira irten izan da, bere zulotik 2 kilometro bidean agian. Hirugarrenean, berriz ere lehenengo aldian bezalatsu ibiltzen da.

Zuhaitz adartsuen baso edo oihanetan egin izan du gehienik bere bizitza. Abere zulogilea da. Oso tinkoa ez den lurretan egin izan ditu bere azkondegiak, betiere maldan eta lurpean noski. Bere etzalekura urik sar ez dakion, haran eta ibarretan ez du egingo txokorik, gorago baizik.

Urte osoan elkarrekin bizi ohi dira ar-emeak, sendian noski. Udaberrian izaten dute ar-gose edo ume-eskea, baina, mendre edo erne-mina luzaro eduki beharrez, hurrengo neguan erditzen ditu umeak.

Untxiak, sagu eta arratoiak, barakuiloak, mamutxak eta zizareak ditu bere janari; baita esan ezin-ahala landareki ere; igaliak, sustraiak, erraboilak eta erroak bereziki direla.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, 160. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Trikua

Trikua (*Erinaceus europaeus)*

Euskal Herrian oso ezaguna da triku, sagarroi edo kirikiño izeneko abere txikia. Arantzazko morkots arre horixka dirudi. Sasi eta sastrakak, hosto lehorren azpia, edota pagondoak izaten ditu bizileku. Ez du zulorik egiten lurpean.

Gau animalia dugunez, eguzkia sartzean ekiten dio bere jarduerari eta egunsentia baino lehen amaitzen du.

Intsektuak eta zizareak ditu janari, baina ornodun txikiak, txorien habietako kumeak eta abar ere bai. Begetalak ere jaten ditu, ezkurrak, sagarrak, aranak eta gereziak, perretxikoak...

Gautar harraparien atzaparretan hildako aztarrenik ez da agertzen ia, beste intsektiboro eta karraskarien hezurrak ageri ohi diren bezala. Arerio edo etsairik gogorrena, gaur, auto-gidaria du: gauez jo eta hilik agertzen dira errepideetan, askotan.

Bizi, 10 urtez bizi daiteke. Ernaldi bakoitzean 4-7 kume egin ohi ditu, hilabete inguruko ernaldiaren ondoren.

Neguko lozorro duenez, ezkutuan iraun izan du eta bere berotasuna 10 gradura jaitsi izaten zaio.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, pág. 166.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Katagorri arrunta

Katagorri arrunta (*Sciurus vulgaris*)

Karraskarietakoa da katagorri edo urtxintxa, margoz gorrixka eta neurriz erdi mailakoa, bere buztan luzea dualarik bereizgarriena eta gehienetan bizkar gainera kiribildurik eduki ohi duena.

Egun argitako biziera egin ohi duenez, gure lurretako basatien artean maizenik ikus dezakeguna da katagorria.

Basoetan bizi ohi da, lekarien artean batez ere, eta beste zuhaiztietan ere bai.

Hauek ditu janaririk ohikoenak: ler haziak, intxaurrak, urrak, eta beste haziak. Janari hauetakorik ez dagonean, udaberrian bezala, landare azalak eta ninikak jan izan ditu.

Hilabete eta erdiko ernaldia izan ohi du hortxe otsailetik ekainilera, eta bakoitzean 24 ume egin izan ditu.

Irudi erref.: Archivo Ostoa.

FAUNA

Saguzarra

Azken urteetan asko handitu da inguratzen gaituen ingurunea ezagutzeko interesa, eta, horregatik saguzarra ere aztertu duten zenbait ikerketa egin dira. Horrenbestez, egun, zientzialari asko ugaztun txiki horien biologia eta naturan duten eginkizuna ikertzen ari dira. Horren ondorioz, askoz gehiago dakigu kiropteroei buruz eta horregatik balio handiagoa ematen

diegu, eta gehiago errespetatzen ditugu, behinolako uste eta beldurrak alde batera utzita.

Erref. bibliografikoa eta grafikoa: Tomás Alcalde. El Mundo Subterráneo en Euskal Herria.

FAUNA

Katajineta

Katajineta (*Genetta genetta*)

Neurriz, 45-48 cm-koa da. Katuen antz handikoa, baina soina luzeagoa du eta hankak laburragoak. Atzerakorrak ditu azkazalak, katuek bezala, eta horregatik ez du oin-urratsetan haien aztarnarik uzten.

Baso eta zuhaiztietan bizi ohi da, batez ere sastraka ugari den tokietan; ibaitxo eta errekak hurbil direla, gainera. Gizakien bizilekuetatik urruti ez dela ibiltzen da askotan. Hezitako katua penintsulara sartu aurretik, katajineta hauxe hezten zutela dirudi eta gizakien artean bizi zela, etxeetako sagu eta arratoiak harrapatuz.

Iberiar Penintsula eta Frantziako hego eta sartaldekoa da, "viverrido" direlakoen saileko katajineta. Euskal Herri osoan barreiaturik dugu, bai iparrean eta bai erdialdean, eta batez ere lurralde lehorrean ugarienik: zuhaiztiak eta sastraka handiak diren tokiak ditu bizileku.

Oso nekez ikus dezakegu, ia zeharo gautarra delako, batetik, eta landare-arte itxian bizi delako bestetik. Ez da erasotzailea, eta bai eskurakoi bihurtzen erraza.

Haragijale da nagusienik, karraskariak baititu janari; baina baita txoriak ere, zuhaitz-gerrian gorantz igo eta harrapatuz. Igali-mota asko jaten ditu; mamutxa batzuk ere bai.

Ez du lurrean zulorik egiten gordetzeko, harkaitz, zuhaitz-zuloak eta beste txoko batzuk izaten ditu bere babesleku.

Erref. bibliografikoa: José Mª Faus. Mendiak 2, 168. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

FAUNA

Orkatza

Orkatza (*Capreolus capreolus*)

Orkatza dugu, noski, basurdeaz batera, inolako etenaldirik gabe bizitzen iraun duena gure Auñamendi osoan eta Auñamendiaurrean edo behetan: apodun edo ungulatu basati hauek bakarrik iraun dute, beraz, historiaurretik gaur arte. Nafarroako iparraldean bizi dira, jakina, oihanez estaliriko mendietan.

Zerbido hau txikia da, txairo edo liraina, arin eta bizkorra, altueraz metro bat gehienera bere bizkar gainean. Hiruna muturreko bi adar izaten ditu, ez handiak.

Oraintsu sartu dituzten beste zerbidoak baino egokiago moldatu da lur hauetara. Elurte handiak direnean, esate baterako, Kinto mendian aurkitu izan dituzte zenbait orein eta basahuntz hotzez hilda; inguruko mendietan ere bai. Baina ez, ordea, orkatzik.

Adibidez 1978ko otsailean, animalia asko hil omen zirela-eta hezurren bila joan ginenean, orein eta basahuntzen hezurrak aurkitu genituen bai, baina orkatza bat bakarra ere ez.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 4.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Basurdea

Basurdea (*Sus Scrofa*)

Gure mendietan ez da hain urri izaten basurdea. Kantauri isurialdean bertako ehizaki larri bakarra dugu.

Basurde ehiza egiten duten tokietan, gautar bihurturik dago. Ohian edo basoan bizi ohi da. Lurrean zulo bat, haitzen baten nahiz zuhaitz eroriren baten babesean: horixe du bere urdandegia eta hantxe irauten du egunez.

Elikatzeko, berriz, basotik kanpora irten ohi da janari bila, zenbait sorotan kalterik aski egiteraino.

Landare jale da nagusienik behintzat: igaliak jaten ditu batetik, ezkur, pago ezkur, gaztaina etab., baina lurpeko erraboil, pikor eta sustraiak ere atera eta jan egiten ditu. Ugaztun txikiak, txoriak, arrautzak eta antzekoak ere bai.

Udazkenaren amaieran eta negu sarreran izaten du umeske nagusienik. Lau hilabeteko umaldia du, bakoitzean 3tik 8ra ume eginez. Taldean bizi zale da. Zahartutako basurde arrak dira bakarti.

Hamarren bat urtez bizi ohi da batez beste, batzuetan bi halako gehiago bizitzera iristeraino

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, pág. 161.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Basurdea

Basurdea (*Sus Scrofa*)

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

FAUNA

Basurdea

Basurdea (*Sus Scrofa*)

Irudi erref.: www.mendikat.net

FAUNA

Basurdea

Basurdea (*Sus Scrofa*)

Irudi erref.: www.mendikat.net

FAUNA

Basurdea (*Sus Scrofa*)

Azeria

Azeria (*Vulpes vulpes*)

Haragijalerik ugariena azeria dugu Euskal Herrian. Zeharo bakartia da, ume-eskea duenean eta umeak hazterakoan izan ezik. Era guztietako ingurugiroak ditu gogozko, baina basoa gehienik. Hala ere ez da oihan edo basoan barrura sartzen, ertzetan ibiltzen da baizik, batez ere gizakiak landutako soro eta mendietatik hurbil. Ingurugiro horretatik irteten ere badaki, ordea.

Basoetako ingurugiroan 3 km koadro hartu izan ditu azeri bakoitzak eta 10 km ere bai basotik kanporako sailetan. Toki jakinean bizitze hori ere ez du beti zehazki betetzen, batzuek eta besteek elkarri amore emanez. Ume-eskea duten aldietan, bai, zorrotzago gordetzen du bakoitzak bere lurraldea. Horrenbestez, ar bakoitzaren ingurumarian bizi izan dira eme bat baino gehiago; hala ere, eme askokoa dela dioten arren zenbait idazlek, aitorpen hori ez dago zeharo argituta.

Era askotako janariz elikatu ohi da. Azeriak bere jate-arauaren erdia hortxe-hortxe, karraskariak janez betetzen du. Horretaz gainera, untxi, erbi eta erbikume, hegazti eta arrautza, narrasti, anfibio, arrain eta mamutxak jaten ditu; igali batzuk, baita sarraski edo haratustelak ere, neguan bereziki. Gehigarri dituan janariak, gorde egin ohi ditu lurpean. Giza bizilekuen inguruetatik arkumeak eta hegaztiak harrapatzen ere badaki.

Gizakirik ageri ez den bakartegietan, gauez eta egunez, bietan ibiltzen da bere lanean. Gizakia ibili ohi den tokietan, berriz, gautar bihurtzen da, haren beldurrez, noski. Lasterka egiten ditu bere ibiliak, laukoan bereziki; igerian ere badaki.

Ume-eskea izaten duten garaia urtarriletik epailera da, eme bakoitzak hiru egunez bakarrik izaten badu ere. Egoera horretan direnean, emeek beren etzaleku eta lur-zuloak usai berezidun isurgai-jarioz adierazten dituzte. Beste zenbaiten lur-zuloetara ere jotzen dute aldi horretan, azkonarren eta untxien zuloetara, alegia, beharrik dutenak zabalduz eta haziz.

Zazpi aste eta erditik zortzitarakoa izaten dute ernaldia. Epailetik lorailera jaiotzen dira umeak eta umaldi bakoitzean 3tik 6ra izaten dituzte.

Azeri gazteak behin 9-10 hilabete dituztenerako, bete-betean gai dira haremezko lanetarako. Hamar-hamabi urte bizi ohi dira.

Erref. bibliografikoa: Jesús Altuna. Mendiak 1, 162. or.
Irudi-erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

3.

GIZA AZTARNAK

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Santutegia eta Beriain mendia lainopean

Aralarko San Migelen santutegia zelaigune batean eraikita dago itsas mailatik 1.237 metrora. Bere atzean Artxueta (1.343 m) mendia du, bizkarra ipar aldetik babesteko moduan. Gaur egun, bi errepide daude bertara joateko, Lenkunberritik eta Uharte-Arakiletik santutegira doazenak, alegia. Bi bide horien artean, gainera, beste bidexka motz bat igotzen da Altzuetako telebista errepikagailuaren zutoineraino.

Vianako Printzea Erakunde ospetsuak egin zituen berritze-lan handietan aztarna garrantzitsuak aurkitu zituela esan gabe ezin utzi. Karolinjio aldiko egitura zuen eliza bat izan zen bertan, hain zuzen ere, IX. mendekoa, berritze-lanen zuzendari izan den arkitekto jakintsuak aitortzera eman duenez. Uste hori egiztatuko balitz, Nafarroako erlijio-arkeologian mugarri izango litzateke, eta horrez gain, baita mendi alde hori kristautu zeneko argibide ederra ere. Idatzirik dagoen lehenengo agiria, 1074. urtekoa da, Peñalengo Antso IV.a erregeak eta haren emazte Plentziak santutegiari zegozkion jabetza batzuk aitortu zituztenekoa.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralako San Migel santutegiaren burualdeko ikuspegia

Bertako eliza nagusiaren barruan geroago egindako beste elizatxo bat dago: horren barruan dago *Aralarko Aingerua* izeneko jatorrizko irudia. Elizatxo horren hormatik eskegita edo zintzilik daude Goñiko Teodosio zaldun nafarrak bere penitentzia aldian erabili omen zituen kateak. Eta aldareko mahaiaren azpian, ezkerreko saihetsean, berriz, zulo bat dago: leizearen ahoa omen da eta elezaharrak dionez handik agertu omen zen

infernuko herensuge izugarria. Zulo horretara burua sartu eta kredoa errezatzeko ohitura dago.

Ekainaren lehenengo igandean, San Migel Kofradia edo Anaidian meza eta kapitulua egiteko ohitura antzinatik dute. Sortu, noiz sortu zuten aztarnarik ez dago. Hala ere, bada XII. mendeko (1911. urteko) idatzi bat eta bertan Pedro de Paris gotzain edo apezpikuak kofradiakide edo lagundukoekin hartutako erabakia dakar; hau da, Iruñako Apezpikua izango zela elkarteko buru. Indarrik gehien zuten aldian, berrogei mila lagun izatera iritsi zen elkartea; eta santutegian hogei apaiz egon ohi ziren abadea buru zutela. Haiek ongile bizien eta hilen alde egunero mezak eman eta eliz otoitzak egiten dituzte.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migel santutegiaren burualdeko ikuspegia.

Baina horra 1979ko urriaren 25etik 26rako gauean, urregintzako aditu batzuk, balen aurkako babesgarria kendu eta bi metro zabal eta berrogei zentimetro luze zituen erretaula zoragarriko hogeita hemeretzi puska edo iruditxoak banan-banan askatu eta eraman egin zituzten.

Gero, ordea, 1981eko martxoan berri pozgarria zabaldu zuten egunkariek: Lugoko Fozen jaiotako Carlos Paz Ibaceta atxilotu zutela Parisen eta hogei irudi behintzat aurkitu zizkiotela. Horri esker, esperantza piztu zen berriz, eta denborarekin gainerakoak ere han-hemenka aurkitu ostean, Iruñan dago ostera oso-osorik.

Ez zen San Migelen lapurretak egiten ziren lehen aldia. Manuel Gonzalezek eta Juan Jauregik ostu zuten San Migelen irudia, 1687an, baina berehala harrapatu zituzten, bat urkatu egin zuten eta bestea bizitza osorako espetxeratu.

Gogorrenetakoa, ordea, 1797ko maiatzaren 11ko arratsaldean Behe Nafarroako zazpi lagunek burutu zutena izan zen: ikazkin itxurak eginez sartu, santutegiko zerbitzari guztiei eskuak lotu, eta bertan aurkitu zituzten kaliza, kopoi eta baliozko beste gauza guztiak eta Aingeruaren

irudia bera ere harturik, ihes egin zuten. Aldude aldean harrapatu zituzten, sasi mugaz beste aldean, ekainaren 30ean. Horrela lapurtutako zenbait gauza kendu zizkieten ostera, baita Aingeruaren irudia ere, baina hautsirik eta bi zatitan. Haietako hiru lapur Iruñan urkatu zituzten 1800eko maiatzaren 29an. Harrezkero, Aingeruak Iruñara urtero egiten duen ikustaldian, jende taldea hantxe gelditzen da *Takonera* deritzon zuhaiztian eta hil otoitz edo *errespontsu* bat errezatzen dute, urkatu zituzteneko toki berean.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Santutegia, eta Beriain mendia elurretan

Aralarko herensugearen kondaira

Herensugea San Migel berak garaitu eta hil zuen, Goñiko Teodosioren laguntzaz. Horrela, azken horrek, egindako parrizidioaren zigor moduan arrastaka zeramatzan kateetatik askatzea lortu zuen. Elizaren barruan daude elezahar horretako kateak, eta sendatzeko bertutea dutela diote. Bertan dago baita ere Herensugea bizi zen leizearen zuloa.

Elezaharra

Zortzigarren mendean, zaldun nafar bat, Goñiko Teodosio, han zetorren gudalditik etxera Goñitik Ollorako Errotabide izeneko bidean, eta bat-batean sasi fraide bat agertu zitzaion bidean bakarti ermitauz jantzita. Hizketan gelditu ziren eta sasi fraide hark ahal bezain laster etxera joateko esan zion, bera gudaldian zen bitartean eta une hartan bertan, Teodosioren emaztea, ezkon leialtasuna hautsirik, morroi batekin elkarturik zebilela-eta.

Amorru biziz itsuturik, saldukeriari zegokion ordaina emateko asmotan joan zen. Ezkutuan sartu zen bere jauregira, eskailerak igo eta erne eta isilka sartu zen bere ezkon logelara eta... norbaitzuk, bi lagun, lasaiki eta gozoro lotan aurkitu zituen. Haserre eta saminez minduta, hantxe bertan sastatu zituen bi gorputzak bere ezpataz eta hilotzik utzi.

Ordaina eman zielakoan baretuta, atarira irten zen Teodosio, eta... nor aurkituko eta bere emaztea aurkitu zuen, Butroe eta Biandrako Konstantza, eta hau, ikusi zuen orduko, beso zabalik eta ongi etorria eginez, lepora lotu zitzaion. Nondik zetorren eta beraien logelan nortzuk zeuden galdetzean, hau erantzun zion: -«Zure gurasoak lotaratu direnean, zu onik eta laster etor zaitezen otoitz egitera joan naiz elizara». Horrela jabetu zen, bere haserre saminean itsumenean hil zituenak, hain justu bere gurasoak zirela. Teodosioren nahigabe eta saminak, nork baretu orduan?

Bere emazte zintzoari egindako iraina eta guraso hilketa hain bekatu larriak zirenez, herriko apaiz Juan Bergararengana joan zen aitortzera, eta hark Iruñako Apezpiku Martziano Donearengana bidali zuen. Apezpikuak, berriz, Aita Santuari barkapena eskatzera Erromara erromes joateko agindu zion. Aita Santuak guztia entzunik, bekatu ordain hau ezarri zion: zurezko gurutze bat bizkarrean eta burdinazko kate lodi bat gerritik zintzilik zuela ibiltzeko herririk herri aterpean lotaratu gabe, harik-eta Jainkoak nahi zuenean katea hautsi arte, orduantxe geratuko zela bere erru guztia barkatuta.

Zazpi urtez ibili zen bekatu ordain latz ura betetzen. Eta behin, Aralar aldean zebilela, leizetik sekulako herensuge beldurgarria irten zitzaion, eta ustekabean eraso egin zion irentsi nahian.

Inolako ausardiarik gabe, barauen eta penitentzien ondorioz erabat ahulduta zegoenez, zeharo beldurtu zen Teodosio. Orduan, bere sinesmen sendoaren indar guztiz eta bihotzaren barru-barrutik, garrasi bizi hau irten zitzaion: «San Migel, zatoz nire lagun!».

Tximista antzera, argitasun berezi bat agertu zen: San Migel aingerua zen, gurutze bat buru gainean zuela. Bat-batean hilik gelditu zen herensugea eta une berean Goñiri kateak eten eta lurrera erori zitzaizkion. Hantxe belaunikatu zen apalki eta pozik gure Teodosio, bere erruak zeharo barkatu zizkiolako Jaunari eskerrak ematera. Urte hura, 714. zen eta Konstantza bere emaztearekin, ahal zuten diru guztia bilduta, santutegia jasotzeari ekin zioten, San Migelek egindako mesedea beti eskertu zezaten eliza hartatik.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA



Mairuen aurkako aterpe

Erasoaldietatik babesteko aterpe moduan Leirekoa baino askoz ere seguruagoa zen, batik bat, bere goitartasun geografikoari (itsas mailatik 1.200 m-ra), eta kokalekuari erreparatzen badiogu; izan ere, inguratzen duen pagadi itxiari esker, etsaien begi-bistatik ezkutatuta dago. Aralako San Migel in Excelsis santutegia X. mendean garrantzia hartzen hasi zen hainbat kondairaren eraginez, horien artean, Goñiko Teodosiorena. Kondaira horiek garai hartako kronistek, historialariek eta nobelagileek jasotzen zituzten.

Irudi erref.: Archivo Ostoa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Sutea San Migelen

San Migelgo Ostatua erre egin zen 1942ko urriaren 30ean, baina inor ez zen zauritu, zorionez, eta santutegiari berari ere ez zion kalterik egin suak. Hogeita hamar urte igaro behar izan ziren Nafarroako Aldundiak Ostatu berria eraiki zuen arte; horrela, 1972ko irailean jarri zuten ostatua Iruñako Gotzaindegiaren esku. Hala ere, 1973ko urtarrilera arte ez zuen hartu beregain ostatua Gotzaindegiak.

Orain dela 35 urtetik, Inozentzio Ayerbe Irañeta apaiza da santutegiko arduraduna; eta horrek eta horren laguntzaile leial diren Filo Marinek, Milagros eta Dolores Huartek, Mariano eta Mitxel Zubiriak, eta Karlos Zubietak beti bezala ahaleginak egiten dituzte bisitariei harrera ona

egiteko; bai lehen (sutearen ondoren gela estu eta sastarrak besterik gelditu ez zirenean), bai orain (ostatu berri eta erosoan) bisitarien egonaldia atsegintsu bihurtzeko beren ardura eta lana eskainiz.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Sahats artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migel ermita

San Migelgo jairik nagusienen zerrenda hauxe da:

Maiatzaren 8a, Teodosiori San Migel agertu zitzaion eguna; uztailetik irailera, San Agustin hurrengo igandea, *Absoluzio* eguna, 1098an berritu eta hazi zuten eliza sagaratu zutenekoa; eta irailaren 29a, San Migel eguna.

Festa-berri edo *Gorpuzti eguna* ere bereziki aipatzekoa dugu; egun horretan mendilerroko artzainek Jauna babesten duen palioaren hagak eramaten dituzte, ohiturazko jantziak soinean dituztela: brusa beltza, galtza urdinak, abarkak eta galtzerdiak eta eskularru zuriak, artzain esku latzen apaingarri bitxitzat.

Santutegia eta ostatua daudeneko zabaldi berean dago *Trinitate elizatxoa* edo *Hirutasun Doneari* eskainitako ermitatxoa, barnean aldarea eta kanpoan burdinazko hesia dauzkana. Hortik ematen dute bedeinkapena Jaunaren prozesioan. Santutegiaren atzean dago autoentzako aparkalekua, eta handik hurbil, metro gutxi batzuetara, *Putretoki* (1243 m) izeneko irtengune bat. Bertan, harkaitzean ateratako aulkia dago eta hortik ederki ikus daitezke Andia mendilerroa, beheko harana eta lurralde eguzkitsu beroak, atzealdean Iruña ageri dela. Goialde horretako isiltasun bare eta lasaigarrian dagoenak, Euskal Herri osoak bere Zaindariari egiten dizkion otoitz eta abestien marmario bitxiak nabaritzen dituela esan dezakegu:

Mikel, Mikel / Mikel gurea! / Zaizu, zaizu, / Euskalerria!

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migel ermita

Trinitatearen ermitako sarrerako burdin hesia, Aralarko San Migelen.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migel

Irudi erref.: Las fotos de detalle, la planta y el corte transversal han sido tomados de "El arte en Navarra".

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA



Santutegiaren barrualdea

Oina

Eliz barne bakarrekoa da, abside ultra zirkulu erdikoa barrualdean eta poligonala kanpoaldean eta aurreko atarian. Koloreagatik bereizita daude XI. eta XII. mendeetan egindako zatiak.

Gaurko oinplanoa

Berdez dagoenak hasierako erromaniko elizaren trazatua adierazten du.

Lehendabiziko eliza erromanikoa, eliza barne bakar eta ultra zirkuluerdiko absidea zituena, agian 1074. urtean sagaratu zena, bukatzerik gabe geratua izango zen; garai horretakoak dira absideen azpieneko zatiak.

Ondorenean, aurrealdea berregin zen absideen altuera haziz, har buruzko erlaitzak erantsi zitzaizkion eta tronpen gaineko kupula egin edo berreraiki zen. Hiru eliza barneak eta nartexa ere eraiki ziren. Alfontso Borrokalariaren garaian beharbada hasiak izango ziren lan hauek, XII. mendean zehar luze jo zuten, baina ez da ziurtasunez bere sagaratzearen datarik azaltzen.

Irudi erref.: El arte en Navarra.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Santutegiaren barnealdea

Erdiko nabearen marrazkia, barruko tenpletearen teilatuko erreferentzia eta guzti.

Irudi erref.: Gran Enciclopedia Navarra IX.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Santutegiaren barnealdea

Eliza eta barruko kapera, P. Thomas de Burgiren arabera.

Irudi erref.: El arte en Navarra.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Santutegiaren barnealdea

Elizako absideen barruko ikuspegia.

Irudi erref.: El Arte en Navarra. Aralar, pág. 38.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Santutegiaren barnealdea

Santutegiaren arkupea edo nartexa.

Irudi erref.: Archivo Ostoa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelen irudia

San Migelen irudia, Berriobeitiko elizaren atarian (I).

Irudi erref.: Archivo Ostoa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelgo Aralarren erretaula

Esmalteztatutako aurrealdea

Erretaula esmaltezko Europako bitxi bat da. Urrezko metalezko xaflen bilduma bat da, eta esmalteak ditu egurrezko taula baten gainean jarrita, arkuterian kokatuta eta guztia beiraz apainduta. Erdian Amabirjina dago haurrarekin, eta angeluetan tetramorfoa du. Errege Magoen eta Santuen, San Migel berarena barne, irudiak dituen lau arkupeko galeria daude aldamenetan. Zenbait medailoik osatzen dute goialdea. Ikuspuntu artistikotik begiratuta, Limogesko eskolarekin lotu dezakegu, hala ere, erretaula hau, ziurrenik, urregile agian atzerritan batek egin zuen, Iruñako lantegiren batean, XII. mendean. 1979. urtean lapurtu zuten, baina ia-ia pieza guztiak berreskuratu ziren gerora. Berritu ondoren, gaur egun santutegian edozein bisitarirentzat dagoen gauza erakargarrienetako bat da.

Irudi erref.: Sahats artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

XII. mendeko bitxia

Urteetan zehar hipotesi asko izan dira noiz egina ote denari buruz. Ikerlari batzuek (Burgui, Marcotegui), ustez eta aingeru batek daraman xingolan 1028 irakurtzen den, urte hori hartu zuten erretaularen egite urtetzat; beraz, garai hartan Nafarroako tronuan esertzen zen Santxo Garzes III.a, Handia, erregeari egotzi zioten erretaula oparitzea. Beste batzuek zaharragotzat zeukaten (Arigita), VI. mendean kokatuz. Gehienek, ordea, geroago, XII. edo XIII. mendean egina dela diote (Huici eta Juaristi, Gómez Moreno, Lojendio, Uranga eta íñiguez). Berrikiago, Frantziako Ikerlan Zientifikoen Zentru Nazionaleko irakasle ikerlari den Marie Madeleine Gauthier andereak azaldu zituen xehetasunik fidagarrienak, 1982an egindako ikerketa sakonaren ondoren. Honek erretaularen egite data XII. mendeko azken laurdenaren hasieran finkatu zuen.

Berak zera dio: Gaur egun ikertuak eta sailkatuak dauden hegoaldeko hamar mila esmalte-lanen artean ospetsua da obra hau. Bere ezaugarri berezien egitura artistikoak bide ematen digu lan hau 1175. eta 1185. urteen artean egina izan zela errateko. Garai horretan Santxo VI.a, Jakintsua, zegoen Nafarroan errege, eta Paristar Pedro bezala ezagunagoa zen Artaxonatar Pedro Iruñean apezpiku. Pentsa daiteke artezko obra berezi horren jatorrian biek zuzenean parte hartuko zutela. Ezin da ahaztu une hartan Erreinuko kultura eta artea gora zihoazela; esate baterako, Iruñeko katedral erromanikoa eta beste eraikuntza esanguratsuak jasotzea bideratzen ari ziren urte haietan.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

Ama Birjina Haurrarekin

Erdiko irudi nagusiak Gizakundearen Jainko agerpena azaltzen du. Ama Maria koroitua eseririk ageri da, besoetan Jesus Haurra duela. Honek itxura maiestatikoa hartzen du: koroitua, eskuineko eskuaz bedeinkatzen eta ezkerrekoaz Bibliari eusten. Mariak bere eskuz eusten dio Haurrari, ezkerreko besaburutik eta eskuineko belaunetik, Haurraren burua Birjinaren bularraren parean gelditzen dela. Biak berde eta urdin koloretako tunikaz jantzirik daude, non tolesturak urrez markaturik ageri diren. Badira beste elementu azpimagarri batzuk ere: hala nola, Birjinaren buruaren bi aldeetan dauden alfa eta omega; alfaren azpian dagoen Agerkundearen izarra; Mariaren oinpean dagoen oinaulki artistikoa; Birjinak esertzeko azpian daukan kuxin bildua, honen bazterrak agerian gelditzen baitira; obaloari forma ematen dioten greka artistikoak; Birjinaren jarralki gertatzen den arkua eta Mariaren santutasun argi-ingurua.
Obaloa, lau angeluetako esmalteetaz osotorik, laukizuzen bihurtzen da. Lau esmalte horiek Tetramorfos edo lau ebanjelarien sinboloak irudikatzen dituzte. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera hauek dira: aingeru bat, San Mateo; arranoa, San Joan; lehoi hegalduna, San Markos; zezen hegalduna, San Lukas. Aingeruak xingola bat darama, AIO: SB ezaugarriekin. Zenbait autoreek erretaularen dataren eta egilearen aztarnak ikusi nahi izan dituzte hor, baina iritziak kontraesanak izan dira. Burgitar aita Tomasek Anno Christi 1028 irakurri zuen hor; Arigitak, berriz, egilearen izena aurkitu zuela uste izan zuen. Azkeneko iritzia eta ziurrena Ursua Irigoientar Isidorok emandakoa eta 1992an Principe de Viana aldizkarian argitaratutakoa da. Bertan Alfa eta Omegaren artean Kristoren izena laburbildurik aurkitzen dela dio, eta Apokalipsiaren aipamena litzatekeela uste du.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

San Lukas ebanjelista behiaren irudian. Erretaulako tetramorfoaren xehetasunak.

Irudi erref.: Sahats artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

San Markos ebanjelista lehoiaren irudian. Erretaulako tetramorfoaren xehetasuna.

Irudi erref.: Sahats artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

San Mateo ebanjelista gizonaren irudian. Erretaulako tetramorfoaren xehetasuna.

Irudi erref.: Sahats artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

San Joan ebanjelista arranoaren irudian. Erretaulako tetramorfoaren xehetasuna.

Irudi erref.: Sahats artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

Erretaulak 37 esmalte ditu. Erdiko obaloan edo mandorlan aurkitzen da irudi nagusiena, Ama Birjina Haurrarekin, lau ebanjelarien sinboloekin osoturik. Bi alderdietan simetrikoki hamabi arkutxo aurkitzen dira, hirunako bi lerro alderdi bakoitzean, eta arku bakoitzaren barruan esmaltezko irudi bat. Arku artean Zeruko Jerusalen adierazten duten erliebe batzuk ikus daitezke. Goi aldean lau irudi txikiago eta 16 medailoi ageri dira. Hauen artean 1979an ostu eta berreskuratu ezin izan diren bien hutsarteak daude. Beste harribitxi anitzek hornitzen dute obra osoa.

Aralarko esmalteztatutako erretaularen xehetasunak. XII. mendea

Esmalte piezak txanplebe motakoak dira. Tankera honetan esmalte likidoa kobrezko xaflatan prestaruriko gelatxo ñimiñoetan isuriz eginak dira. Esmaltea osotu egiten da gero. Horretarako irudien eskuak eta oinak zizelatzen dira, baita buruen erliebeak ere kobre urreztatuaz, non begiak esmaltatuak agertzen diren. Guzti horrek sekulako ikuspegia ematen dio lan osoari. Esmalte lan trebe honek dotoreziaz nahasten ditu koloreak: urdin mota asko berde, zuri, beltza eta gorriarekin.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

Limogesko artisau esmaltadoreak

Erretaularen egite datari buruz azaldu den iritzi aniztasun bera ematen da jatorria zehazteko orduan. Garai ezberdinetako adituen artean, Uranga, íñiguez edo Gómez Moreno autoreek Silosko eskolan egina dela diote. Arrazoia, hauxe: Burgosko museoan aurkitzen den Erdi Aroko kutxatila esmaltatuarekin duen antzarengatik. Artelan hau Silosko Domingo deunaren abadiatik dator. Lojendiok eta beste batzuek Limogesen egina dela uste dute. Interpretazio berriagoak, Marie Madeleine Gauthierren eskutik, Iruñean finkaturiko zilargin esmaltatzaile talde baten lana dela dio. Artelan hori Santxo Jakintsua erregeak eta Paristar Pedro apezpikuak espreski aginduta egingo zuten. Zilarginaren lantegian elkartuko ziren metalgintzako gizonak, urtzaileak, grabatzaileak eta zurginak. Gainera, parte hartuko zuen Limogestik etorritako esmaltatzaile maisuren batek, bere aparteko lanarekin. Honek berekin ekarriko zituen koloreztatuko beira puskak: kobre herdoilez lortutako berde, gorri edo turkesa biziak; baita antimonioz hori opakoa, eta eztainuz zuri opakoa bihurtutakoak ere. Erabilitako material zenbait balio handiko ziren: urrea, kobrea, merkurioa, beira, kristal koloreztatuak. Batzuk, urrutitik ekarritakoak: harkaitz-kristala, adibidez, Afrikako Atlasetik.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

Apostoluak, magoak eta santuak

Gaineko sei arkuen pean, hiruna obaloaren alde bakoitzean, sei apostolu irudikatzen dira, berdez eta urdinez esmaltatutako tunika eta soingainekoz jantzirik. Oinutsik daude eta gorriz esmaltatutako liburu bana daramate, ezker aldean obalotik gertuen gelditzen denak salbu, honek San Pedro ezagutarazten duen giltza baitarama.

Azpian, ezker aldean, hiru errege magoak agertzen dira urrezko kopa banarekin; eta eskuin aldean, aingeru bat odei gainean, santutasun argiz inguratutako emakume bat eta aberaski jantzitako gizon bat bere kaska eta errege-makilarekin. Azalpenik onartuena hauxe da: Iragarkunde edo Anuntziazioa gogorarazten duen bilduma dela; Gabriel aingerua eta Andre Maria izango lirateke hasierako biak, eta hirugarrena, erretaula eginarazi zuen erregea edo beste emailea. Beste batzuen ustez, ordea, aingerua San Migel bera izango litzateke, santutegiko zaindaria, alegia; eta hirugarrena, berriz, San Jose.

Erdiko irudiaren gainean lau figura kokatzen dira, plaka errektangeluar banatan. Lau apostolu dira, lehen deskribatutako beste apostoluen janzkera bera erakusten dutela, naiz eta txikiago izan. Bilduma honen bi aldeetan hamasei medailoi aurkitzen dira, landare adaxken artean borroka eszenak irudikatzen dituztela.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

Azpian, ezker aldean, hiru errege magoak agertzen dira urrezko kopa banarekin; eta eskuin aldean, aingeru bat odei gainean, santutasun argiz inguratutako emakume bat eta aberaski jantzitako gizon bat bere kaska eta errege-makilarekin. Azalpenik onartuena hauxe da: Iragarkunde edo Anuntziazioa gogorarazten duen bilduma dela; Gabriel aingerua eta Andre Maria izango lirateke hasierako biak, eta hirugarrena, erretaula eginarazi zuen erregea edo beste emailea. Beste batzuen ustez, ordea, aingerua San Migel bera izango litzateke, santutegiko zaindaria, alegia; eta hirugarrena, berriz, San Jose.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

Erretaulan ageri diren pertsonaia guztiak, hiru errege magoak eta errege emailea izan litekeena salbu, beren buruak santutasun argiz inguraturik dauzkatela azaltzen dira. Jesus Haurra, apostoluak eta bi aingeruak oinutsik ikus ditzakegu; aitzitik, Ama Birjina, bere bi irudikapenetan, hiru errege magoak eta emailea, oinetakoekin ageri dira. Bitxia gertatzen da buruaren ezarrera figura bakoitzean. Erdiko irudiko Birjina eta haurra zuzen-zuzen aurrera begira dauden bitartean, beste pertsonai batzuk beren buruak okerturik eta leku askotara begira aurkitzen dira. Horrek, erretaula bere osotasunean hartuz, harrigarrizko efektua sortzen du. Esate

baterako, magoetan lehenengoak ezker aldera bihurturik dauka burua; horren ondorioz erretaulatik kanpora begiratzen du, erdian dagoen Haurrari begiratu beharrean, horri bere eskaintza egiteko. Bestalde, Anuntziazioko Birjinak ere bere burua bihurturik dauka, baina ez bere ezker aldean dagoen aingeruarengana, errege emailaren aldera baizik. Eta aingeruak, bere aldetik, Maria dagoen kontrako aldera itzulirik dauka.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

XVIII. mendean egindako erretaularen berrikuntza

XVIII. mendean, Irigoien eta Dutaritar on Juan Lorenzo, Belateko priorra, geroago Iruñeko apezpikua izango zena, arduratu zen erretaularen garbitzeaz. 1765ean eraman zuten erretaula Iruñera. Han, Jirautar Josek, 1752an azterketa pasa zuen Iruñeko zilarginak, ekin zion garbitze lanari, esmalte, harribitxi eta pieza guztiak txukunduz eta ertza berria jarri aitzin zegoen bezala berriro armatuz. Goñi Gaztanbidek emandako berri honekin garbi gelditu da ez zela Manuel Beramendi izan frontala berriztatu zuena, Arigitak esan bezala. Manuel Beramendik soilik frontaleko hitzen grabaketa egin zuen. Berri horrek garbi uzten du frontala lehen bezala gelditu zela, piezarik kendu edo gehitu gabe eta jatorrizko antolaketa mantenduz. Eranskin bakarra erretaularen ertza inguratzen duen moldura izan zen. Hauxe bera baieztatzen da 1666ko agiri batean, Huici eta Iturendar Joserekin zurezko erretaula baten kontratua egitean, non horren barruan esmaltezko erretaula kokatu behar zela esaten den. ... aipatutako kaperan aurkitzen den erretaula, apostoluak eta Jainkoaren Amaren irudia dituena, hor jarriz . Honek data hartan erretaulak gaur egun daukan antolaketa bera zeukala baieztatzen duela dirudi.

Zortzi gizonek bizkar gainean eramanda, erretaula Aralarrera itzuli zen Zamartzetik gora. Ez zen gehiago santutegiko kaperan ezarri, beste erretaula baten barruan baizik. Horrela adierazten da frontalaren beheko aldean irakur daitekeen idazkian: Metal urreztatu eta esmaltatutako xaflez

egindako erretaula zoragarri hau, bere Iruñeko Katedraleko Sagrarioko Birjinaren Irudiarekin, zeini erantsia dagoen San Migelgo Santutegi hau, antzinean bere Kaperako ilunpean egon zen, hortik aterata Iruñean garbitu ondoren eta bera ikusteak debozioa piztu zezan, Kapera nagusi honetan ezarria izan zen 1765. urtean .

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

1979ko lapurreta eta berreskuratzea

1979ko urriaren 25etik 26rako gauean, Erik "belgikarra" nazioarteko arte trafikatzaile ospetsuaren esanetara zegoen lapur talde batek esmaltezko frontalak lapurtu zituen. Zenbait lagun arratsaldean elizako aitorlekuan ezkutatu ziren, eta gauean esmaltezko frontalak babesten zituen kristalezko kutxa 1965ean jarria indarrez hautsi eta egurrezko euskarritik banan-banan esmalteztatutako 39 piezak erauzi zituzten, baita dekorazio osagarri moduan zeuden zenbait zutabe eta arku ere.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

1979ko lapurreta

Lapurretak santutegiko zaindariei ikaragarrizko atsekabea eragin zien, eta tristezia handia, berriz, santutegia maite zutenei, eta, oro har, gizarteari. Nafarroako agintariak Aralarko bitxi artistiko nagusia berreskuratu ahal izateko edozer arrasto ikertu nahian ibili ziren. Arte lapurretan adituak ziren poliziek nazioarteko talde baten kontua izan zitekeela aipatu zuten, eta, ziurrenik, sasi muga gaindituko zutela lapurretako gau berean, Espainiako polizia saihestearren.

Fernando Redón arkitektoaren zuzendaritzapeko Vianako Printzea erakundeak (Nafarroako Foru Diputazioaren kultura organoa) lapurtutako erretaulari buruzko txosten bat egin zuen 1980an bertako piezen eta xehetasunen hainbat argazkirekin. Gaztelaniaz eta ingelesez (*The robbery of the Retable of San Miguel de Excelsis in Navarre*) idatzitako txosten hura Interpolen bidez banatu zen 20 herrialde baino gehiagotako polizia bulegoetara; hain zuzen, antzinako artelanen legez kontrako trafikoa nabariagoa zen herrietara.

Ikerketen lehenengo emaitzak 1981eko martxoaren 5ean jaso ziren. Frantziako poliziak Parisen erretaularen 20 pieza txiki atzeman zituen. Carlos Paz Ibaseta espainiarrari kendu zizkioten, autoan sartzen ari zen bitartean. Atxiloketa haren ondorioz beste bi lagun atxilotu zituzten: José Antonio Ponz Gómez eta Ignacio Rodríguez Flores, antigoalekoen saltzaile madrildarra. Horien benetakotasuna ziurtatu ostean, piezak goi aldeko lau irudi txikiak eta erretaula amaitzen zeneko 18 medailoietatik 16 Nafarroako Museora eraman zituen Jesús Malón foru diputatuak, 1981eko maiatzaren 26an. Aurkikuntza hari esker, esmalteztatutako aurrealde edo frontal osoa berreskuratzeko itxaropena piztu zen.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

1979ko lapurreta

1986ko apirilean falta zen irudi bakarra, errege mago bat, berreskuratzea lortu zen. Pieza hura Montpellierren (Frantzia) aurkitu zuten.

Pieza gehienak berreskuratu ostean, Nafarroako Museoa goitik behera eraberritu zen, eta aurrealdea edo frontala santutegira itzuli aurretik, Nafarroako Erdi Aroko esmalteei buruzko erakusketa bat egin zen, bertako piezarik garrantzitsuena erretaula izanik. Madrilen jarri zen ikusgai (Nafarroako Lankide Aurrezkiko erakusketa aretoko inaugurazio erakusketa) 1982ko apirilean, eta hurrengo hilabeteetan, berriz, Iruñan eta Tuteran.

Berritze lanak amaitu ostean, erretaula berriz jarri zen ikusgai Nafarroako Museoan 1991ko martxoaren 26a eta apirilaren 7a bitartean, eta urte bereko maiatzaren 20an behin betikoz santutegira eraman zuten. Román Felonese Nafarroako Gobernuko Kultur kontseilariak , Jesús María Omeñaca Arte Sakraturako artzapezpikutzarako delegatuak eta Santutegiaren arduradun Inocencio Ayerbe Uharte Arakilgo udal ordezkariekin batera joan ziren egun hartan, pozik, santutegira bertako gurtza elementurik garrantzitsuena, esmalteztatutako Santa Mariaren erretaula, emateko egin zen ekitaldi xumera. Erretaula hura Erdi Aroko esmaltegintzako obra nagusia, aldareko frontal moduan eraiki zen XII. mendean.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasuna

1979ko lapurreta

Urte hartako uztailaren 11n Italiako eta Espainiako poliziek elkarrekin egindako polizia operazioaren berri jakin zen. Polizia operazio hartan, erretaulako pieza nagusiak berreskuratu ziren, baita Marseillaren klan izeneko bandako hainbat kide atxilotu ere.

Esmalteak Erromako Espainiako enbaxadan utzi ziren, eta, handik, airez, Madrilera iritsi ziren azaroaren 20an. Bertan, Iñigo Cavero kultura ministroak jaso zituen, eta Barajasko aireportuan bertan eman zizkion Juan Manuel Arza Nafarroako Foru Diputazioko presidenteari. Hark, Erromatik iritsitako hiru maleta gorri berberetan eraman zituen Nafarroako Museoraino bere auto ofizialean. Hurrengo egunetan, herritar asko pasa ziren Nafarroako Museoko 31. aretotik, bertan jarri baitziren ikusgai, aldi baterako, berreskuratutako bitxiak: 15 esmalte Santa Maria del Sagrarioko lau mandorla nagusiak, ebanjelioko lau ikurrak, bost apostoluak, bi errege magoak, Deikundearen bi piezak eta errege-emailearen irudia eta 16 kolomatxoak. Bi esmalte (apostolu bat eta errege-mago bat) eta zirkulu-formako bi medailoi baino ez ziren falta bilduma guztia berreskuratzeko.

Hurrengo hilabeteetan, 1982ko urtarrilaren 28an Eric "Belgikarra" nazioarteko arte trafikatzailea Bartzelonan atxilotu ostean, arrasto guztiak Belgikako Gante herrira zuzendu ziren. Espainiak Belgikan duen enbaxadak apostolu bat irudikatzen duen esmaltea berreskuratu zuen martxoaren 8an, eta urte bereko ekainaren 9an Foru Diputazioari eman zitzaion Madrilen.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasunak

1979ko lapurreta

Erretaulako hutsuneek gaur egun agerian uzten dute bi medailoi txiki eta urrezko sei arkuteria zati txiki berreskuratu ez diren pieza bakarrak falta direla. Zorionez, horiek bakarrik dira frontal eder horrek 1979 eta 1982 urteen artean pairatutako gorabeheren lekuko. Gorabehera haien eraginez, kezkaz beteta egon ziren santutegiaren eta Nafarroako artearen maitaleak, baina horrek guztiak harribitxi hori behar bezala balioesteko eta estimatzeko balio izan zuen. Gaur egun, blindatutako kristal lodi batetik soilik ikus daiteke.

1996ko abenduaren 30ean, Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu bidez, Aralarko San Migel santutegiko erromanikoko esmaltezko frontala interes kulturaleko ondasun izendatu zuen, Europako Erdi Aroko esmaltegintzako obrarik garrantzitsuena izateagatik.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Aralarko San Migelen erretaula. Xehetasunak

1982an hasi ziren berriztatze lanak zirela eta, azterketa sakona egin zen. Hor, zurezko euskarrian gelditutako iltze zulo eta beste ezaugarrien bitartez, zera egiaztatu zen: 1765. urtearen aurretik neurri bereko irudiak

beste modu batera antolaturik zeudela. Sei apostoluak, eskuin aldeko arkuetan, hiru goian eta hiru behean; Anuntziazioko irudiak eta errege emailea, orain bezala, baina ezker aldeko goiko arkuetan; eta errege magoak, beste modura antolaturik, azpiko ezker aldean. Beharbada ez zen hori izango jatorrizko kokapena, baina ez dugu zehazteko argibiderik aski. Hala ere, arrazoi guztiz zera pentsa daiteke: egileak atal guztiei elkarlotura emango ziela artelan osoaren barruan. Zertarako, bestela, hainbeste xehetasun pertsonaiengan? Hauetako bakoitza bereizi egin baitzuen, bere itxura, janzkera, keinua eta, batez ere, bere buru nabaria emanez. Ezin da pentsatu, arreta eta trebezi handiz egindako erretaula horrek gaur ikusten diren efektu desegokiak sortuko zituenik hasiera batean.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelen irudia

Egurrezko jatorrizko irudiaren hondarrak diseinu lirainekо zilar-urrezko irudi berri batez estalita daude, hegalak zabalduta dituztela. Bere besoetan gurutze handi bat dauka eta bertan *lignum crucis* erlikia dauka jarrita. Irudiaren burua obalo bat da, eta kristalaren atzetik jatorrizko irudiaren aurpegia ikusteko aukera ematen du, erlikia moduan.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

Gorpuzti eguneko prozesioa

Gorpuzti eguneko prozesioa, San Migelen irudia aurrean dela, santutegiaren atzealdean.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelen lekualdaketa

Aingeru erromesa

Beren saindutegi eta ermitetatako tronuan ezarririk dauden santu eta ama birjina gehientsuenen aldean, erromerian datorren herria hartzen baitute, San Migel Excelcis, Aralar mendi gaineko saindutegia uzten du. Hala bada, San Donato eta Urbasa eta Antiako mendikateen aurreko paraje zoragarria, Arakilgo barrankan, utzi eta mendi gainetik jeisten da Bazko-igandean. Eta ez da bertara berriro igortzen San Joan Bezpera bitarte. Denbora horretan Nafarroa korritu ohi du elizak, komentuak, monastegiak, udaletxeak eta Sorospen etxeak bisitatuz. Tradizio hau Erdi Arotik dator eta urtero urtero berritzen da.

Hala ere, gizaseme guztiak bezalaxe, badirudi nekatzen dela -lehen gaur baino gehiago zaldiz egiten baitzuen bidaia- eta horregatik eta beste betebehar batzuk betetzeko, aldian aldian bere mendira itzultzen da eta bertan igarotzen ditu zenbait egun bidaiari berriro ekin arte.

Ibilbidea

Bere bisitak Baraibarko herrian hasten dira, Aralarko mendikatearen iparreko aldean, eta Uharte Arakilen amaitzen, hegoko aldean. Atzean ia hirurehun herritako bisita geratzen da. Baina, agian, bisitarik hunkigarriena edo maitakorrena eta jende gehiena erakartzen duena, Iruñako hirira egiten duen bisitaldia izango da, bertan aste bete igaro ohi baitu.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía del calendario festivo. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelen lekualdaketa

Oso sustraitutako tradizio bat Aralarko Santutegiko irudia urtero inguruko herri, parrokia, eskola eta beste zenbait erakundetara eramatea da.

Uste da, ibilbide horiek San Migelgo kofradiak milaka kide zituen garaian sortu zela, eta horien helburua gaixo zeuden kofradiakideei beraz, Aralarreko igo ezin zutenei erlikia sakratu horren gurtzak sortzen zuen poza eta kontsolamendua ematea zela.

Beraz, San Migel goiaingeru bidaiarik gurutzea bere buru gainean eramateko keinuaren bidez erredentzioaren misterioa iragartzeaz gain, gure etxeetara berri ona ekartzen digu, Kristo berpiztu zen Pazko garaia iragartzen digu, gure fedearen oinarri moduan.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelen lekualdaketa

Soroen bedeinkapena

San Migelen irudia herri batera iritsi eta ongi etorria egin ostean, soro eta etxeak bedeinkatzen dira; hain zuzen, herritarrak bizi eta lan egiten duten lekuak. Hori erlijio esanahi handiko errito bat da eta gure herrian oso errotuta dago.

Horretarako, Aingerua eta parrokiako Gurutzea buru dituztela lau puntu kardinaletako bakoitzera joaten dira; lehenik, ekialdera, ondoren, hegoaldera, mendebaldera eta azkenik iparraldera.

Puntu kardinal bakoitzerako bidean lau ebanjeliotako baten Mateo ekialderantz; Markos hegoalderantz; Lukas mendebalderantz eta Joan iparralderantz zati txiki bat, hiru edo lau txatal, irakurtzen da eta apaizak bedeinkapena egiten du alde bakoitzean ur bedeinkatuaren isipuaren bidez.

Irakurraldiek landako edo naturako lanei egiten diete erreferentzia; zehazkiago esanda, arrantzari, nekazaritzari, abeltzaintzari eta ardo laborantzari.

Erref. bibliografikoa: www.aralar-excelsis.com
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GIZA AZTARNAK
MIKEL DEUNA

San Migelen lekualdaketa

Iritsiera Iruñara

Aingeruaren iritsiera Iruñara Bazko astearen hurrengo asteleheneko arratsaldean ospatzen da. Takonerako atetik hurbil, justu Basotxoaren ertz batean, Navas de Tolosa kalera ematen duen gurutzaduraren parean, Miserikordiako Etxe Santuaren Aingeruaren ondoan, ehundaka iruñar izaten ditu zain; eta hain zuzen ere, aingeru honek ematen dio ongietorria Aralarkoari muñ emanez.

Behin aingeruek elkar agurtu ondoren prozesioa antolatzen da txistuaren soinuak lagundurik, baina berehala gelditzen da gurutzeria gotikoaren azpian; juxtu, San Migelen irudia lapurtzeagatik 1800. urtean urkatu zituzten hiru lapurren aldeko errespontsu bat errezatzeko. Ondoren, Basotxoaren ondoko espaloitik barrena, jendetza San Nikolasen parrokira abiatzen da, Sarasate Pasealekuan.

Agurra

Aste bete bertan igaro ondoren, eguerdian, Aingerua agurtzeko ekintza ospatzen da eta berau ere oso hunkigarria izan ohi da. Oraingoan ere txistuaren soinuak alaiturik San Migelek Miluzeko zubia gurutzatzen du eta fededunek, azkenekoz, muñ ematen diote. Eta sentimenduz betetako Mikel Gurea abestiaren eta txistularien Agur Jaunak doinu artean agurtzen dute hurrengo urtera arte.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía del calendario festivo. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Ardiak Albiasun. Atzealdean Mailoa

Gai hauei dagozkien zehaztasunak biltzen ibili nintzen 1975eko udan, eta gero, Gipuzkoako Etniker taldekoa naizenez, Arantzadi Izadi-Jakintza Elkarteak argitaratu zuen *Anuario de Eusko Folklore* 26. zenbakian. Hurrena, bi urte geroago, Euskal Mendizaleen Federazioak (EMF/FVM) bere Pyrenaica aldizkariaren 110. zenbakian argitaratu zuen gure lan hura bera.

Zehaztasun bilketa hura oinarritzat hartuta burutu dut oraingo hau, baina gaien alderdi batzuk sakonduz eta beste zehaztasun batzuk gehiago erantsiz, aita lagun hartuta egin izan ditudan igandetako mendi txangoetan xehetasun berriak aurkitu baititut. Hain heze, orlegi eta ederra dugun Aralar mendilerroa mendigoizaleentzat leku paregabea izateaz gain, ikerlari jakintsuen azterlanetan argitaraturik ageri diren arkeologia-aztarna eta etnografia-gaietan ere oso aberatsa da.

Izadia maite duen mendigoizalearentzat mendi guztiak dira ederrak gauza batengatik edo besteagatik. Batzuk, paisaia eder eta atseginak dituztelako, eta, besteak, bazter harritsu eta latzak dituztelako; azken hauetako zenbaitetan hain bakarrik sentitu izan da mendigoizalea ezen beste munduren batean dagoela iruditu zaio. Mendi tontor eta gailurrik gorenetara igotzeko irrika bizi eta eutsi ezina barruan sortzea, ez da harrigarria; goitik edertasunaz gozatu eta, aldi berean, geuk eratu dugun mundu honek sortzen dizkigun eguneroko iskanbiletatik kanpora irtenik, barrua lasaitu eta baretzeko beharrak eragindakoa baita.

Bakoitzak geure inguruko mendiak, beraietan ibilita ezagutu ondoren, urrutiagokoak ezagutu nahi izaten ditugu, batez ere, oporraldietan, bai geure eskualdean eta Euskal Herrian, bai kanpoan.

Gure eguneroko zereginetara itzultzen garenean, ordea, igande eta jai egunetaz baliatu behar izaten dugu mendiari bere edertasun askotarikoak xurgatu nahi baldin badizkiogu. Bertako haize garbi eta bizigarria eta bertako baretasun eta lasaitasuna gure oraingo laster bizitze urduriaren aurrez aurre jartzen dira, eta lasaitasun horren bila jotzen dugu inguruetan gertuen eta ezagunen ditugun mendietara.

Orduan hasten gara mendiari beste alderdi batzuetatik begiratzen, sakonkiago begiratzen; esate baterako, mendiei gizakiak erantsi dizkien gauzak eta eragindako aldaketak aztertzen. Hots, gizakiak urteetan zehar sortu duen kultura sozial eta ekonomikoa aztertzen.

Txangoak egiteko nahiz kultura giro hori ezagutzeko, Euskal Herriko erdialdean bizi garen mendizaleok mendirik ospetsuenetako baten aldamenean bizitzeko zoriona eta egokiera dugu; hain zuzen ere, Aralar mendilerrotik hurbil. Aralar, Gipuzkoa eta Nafarroaren artean daukagu.

Liburuki honetarako eratu den Aralarko mapa orokorrean, mendi ibilietarako nahiz mendia ezagutzeko jakingarri diren interes praktiko eta kulturaleko zehaztasunak ipini ditugu; hau da, gailurrak, saroiak, iturriak, trikuharriak eta abar. Baina garrantzizko ohar bat eman behar dugu hemen: eskalari dagokionez, liburuki honetako mapak dituen neurrietan, aipaturiko toki batzuetatik besteetarako tartea zehatz-mehatz neurturik adieraztea oso zaila dela esan behar da. Horregatik, Aralarren zenbait aldiz ibili den mendizaleak ezagutzen dituen gailur, bide, iturri, aterpe eta toki nagusietatik ibiltzeko argibide lagungarri batzuk baino ez direla esan behar da, neurriak ez dira erabat zehatzak.

Lehenengo begiratuan bertan ageriko zaio irakurleari linguistika arau zehatzik ez dugula jarraitu izenetan. Izan ere, mendi horietako biztanle ditugun artzainen ahotatik jaso diren moduan ipini dira izen guztiak.

Ez nuke amaitu nahi artzain horiei nire eskerrik beroena adierazi gabe, txeratsu eta pazientzia handiz hartu bainaute beti, eguna joan eta eguna etorri egin dizkiedan galdera ugariei erantzunez. Nire zalantzetatik ateratzen lagundu didaten guztiei ere eskerrak, baina bereziki Jose Migel Barandiaran jaunari, trikuharrien tokiak eta izenak eman baitizkit.

Saroiak

Aralar mendilerroan badira ia hirurogeita hamar Saroi, horietatik berrogeita bost Gipuzkoa aldean eta gainerakoak Nafarroan.

Antzina-antzinatik eraiki dituzte saroi horietan artzainek beren txabolak, bai sakabanatuta, bai elkarren inguru kokatuta.

Ezagutu ez ezik, begirunez zaintzen dituzte artzainek saroi guztiak. Hutsik daude batzuk, bost artzain daude beste batzuetan, eta bertan ilorrak, gauzak gordetzeko txabola txikiak, eta eskortak, ardiak edukitzeko itxiturak, dituzte.

Artzain berriren batek Aralar mendietan bere artalde eta guzti sartu nahi badu, lehendik dauden saroietakoren batean sartu beharko du, eta berak gogokoen duen edozein tokitan jartzerik ez luke izango, larreak guztientzakoak diren arren.

Zergatik den horrela? Antzinatik datorren ohitura edo *Lege Zarra* aipatzen dute artzainek eta hark agintzen duenez, artaldearena da txabola eta ez artzainarena; eta horregatik du artzainak txabolan sartzeko eskubidea: artaldea daramalako. Hauxe gertatu zitzaion Abaltzisketako adineko artzain bati 1928an: aita zaharregi zenez, mendira igotzea kaltegarri zitzaiola-eta, artaldea Ataungo gazte bati saldu zion semeak. Udaldia mendian egiten jarraitu nahi zuen, ordea, aitonak eta horretarako lehengo txabolan egon ahal izateko basozainarengana jo zuen. Hark, ordea, ezezkoa eman zion, saroi hartan artaldea zaindu behar zuen artzainak egon behar zuela esanez.

Mapan irudiz adierazitako saroiez gain, gehiago ere badira inguruetan, baina horietan lizar zaharren bat, erdi eroritako horma bat eta harri pila bat besterik ez daude.

Ipar haizeak kalterik ez egiteko eran daude kokatuta saroirik gehienak, bai mendiaren babesean, bai sakonune batean, bai harkaitz baten babesean, bestela asko eta asko oso goietan daudenez, haizeak bortizki erasoko bailituzke.

Artzainek beren artaldeekin Aralar mendilerroan egiten duten aldia maiatzaren aurrenetatik azaroaren aurrenetara izan ohi da gehienetan, baina urte bakoitzean garaian garaiko eguraldiak erakusten die zehazki noiz igo eta noiz jaitsi.

Beren herrian nahiz ingurukoetan gelditzen zirelako negua pasatzera ez Bizkai aldera, ez Gipuzkoako beterrira joaten ez ziren Zaldibiako artzainak, antzinatik, Mendibil saroian biltzen ziren artaldearekin eta bertan egoten ziren Eguberriak igaro arte. Hain zuzen ere, horregatik dira saroi horretako txabolak besteetakoak baino handiagoak, borda itxurakoak.

Hona hemen saroien eta artzainen izen zerrenda, artzainak nongoak diren eta non bizi diren adierazita. Hauxe da beren udaldia 1975. urtean Aralar mendilerroan egin zutenen kopurua.

Saroien kopuru osoa: 68. Artzainen kopuru osoa: 87. Artzain nafarrak Nafarroan: 26. Artzain gipuzkoarrak Gipuzkoan: 61.

Artzainak herrika

Abaltzisketa 10; Arribe 1; Aia (Orio) 3; Bedaio 1; Gaintza (N) 6; Itsasondo 2; Albiztur 1; Arruazu 1; Azkarate 3; Betelu 3; Uharte-Arakil 1; Orendain 2; Alegi 1; Ataun 7; Azpeitia 1; Errazkin 3; Itsaso lego 1; Zaldibia 15; Amezketa 14; Atallu 2; Beasain 1; Errezil 2; Intza 6.

Garai batetik hona, artzain kopurua asko gutxitu bada ere, ardiak ez dira neurri beren urritu. Bizibide latza izan arren, zerbait hobetu dela esan behar da.

Aralar mendilerroan otsoak ibiltzen ziren duela ehun urte arte. Hori zela-eta, gauero bildu behar izaten zituzten ardiak eskortan, eta gaurik gehienak erne eta itzarturik egin behar izaten zituzten artzainek. Ardiak otsoa nabaritzean aztoratu egiten ziren, eta orduan, egurrezko txingarrak piztuta irten behar izaten zuten haiek uxatzera. Gaur egun, ez daukate horrelako kezkarik.

Bestalde, joan den mendearen bukaera arte inork gutxik zuen laguntzaile moduan ardi-txakurra; horren ondorioz, artzainek egin behar izaten zituzten lan guztiak.

Aipatutako bi arrazoi horiengatik eta txabolak sendotu eta barrutik antolatuago izateagatik, antzinatean baino hiru aldiz artalde handiago edo ugariagoa zain dezake orain artzain bakoitzak.

Mendez mende datorren artzaintzaz gainera, Enirio-Aralar larreetako Mankomunitatea delakoan sarturik dauden hamabost herrietako «baserritar» batzuek eta Nafarroa aldeko beste zenbaitek, aspaldi samarretik beren zaldi eta behorrak eramaten dituzte Aralarko larreetara. Ugaritu egin dira, gainera, horrelakoak azken urte hauetan. Bestalde, abere jabe horietako gehienak, kalean eta kaleko lanetik bizi dira, abeltzaintza hau beren irabazpideen gehigarritzat hartuta.

Antzeko zerbait gertatzen da abelgorriekin ere, azkeneko hogei urte hauetan ugarituz eta goraka baitoaz artzainak kezkatzeraino. Hortik dator artzainen kezka, beraietako zenbaitek esaten zidatenez, larre sail handiak hartzen dituzte larre behiek gaueko etzalekutarako eta, aldi berean, gorotz edo simaur asko uzten dute bertan eta horren azpian belar beltza sortzen da. Udazkenean larreak urritzean, belar hori jan beharrean gertatzen dira ardiak eta horren ondorioz ume galtzeak etortzen zaizkie.

Duela hamarkada batzuk arte, doan ziren larreak, baina geroztik urtean hainbesteko bat ordaintzen dute buruko, bestela gertatu bada ere tarteren batean. Ardi bakoitzeko pezeta bat ordaintzen zen hasieran, eta buruko duro bat 1975ean. Handik urte batzuetara ardi bakoitzeko bost ogerleko edo duro ordaintzen zituzten eta berrogeita hamar ogerleko behi eta behor bakoitzeko.

Urteko zerga hori saroia dagoeneko herri elkarteari, herriari nahiz pertsona bati eman behar diote. Hala ere, inguruetan larrean dauden ardiak mugak igaro ditzakete, baina artzainak horretara bultza gabe, hots, abereei berez irtenda.

Jai egunetako meza

Aralar utzi duten lau artzainekin elkarrizketatu naiz, berrogeita hamar udaldi bertan egindakoak lauak. Igande eta jai egunetan meza entzun ahal izateko, hurbileneko berriren batera jaitsi behar izaten zuten. Gogoan daukate zein nekagarri eta astun zitzaien betebehar hura.

Betebehar hura zerbait arindu zitzaien, Lizarrustiko mikelete etxean meza ematen hasi zirenean, eta are eta gehiago erraztu zitzaien *Aralarko Adiskideak* Elkarteak Igaratzan elizatxoa eraiki ondoren. Bertara, Alberto Begiriztain aita beneditarra igandero joaten zen, Lazkaotik Lizarrustira bizikletaz eta handik Igaratzara oinez, huts egin gabe *artzainen Meza* ematen hasi zenetik.

Bai bihotz onez eskertzen zutela gure artzain apal eta jatorrek Elkarte horren ekintza! Eta zer esanik ez, aita Alberto agurgarriaren leialtasuna, laurogeitaka urtez gora izan arren, hutsik egin gabe joaten baitzitzaien meza ematera. Lehenengo hitza goratuz edo indartuz, honela aitortzen zuten beren esker ona: «Eskerrak, asko erreztu ziguten».

Peri leku

Igaratzako belardian, izen bereko trikuharrietatik urruti ez dela dago Peri leku deituriko tokia. Orain hamarkada batzuk arte hantxe egiten zuten artzainek beren ekintza soziala, azoka antzeko bat, alegia. Urteko egun jakin bat zuten horretarako, San Joan bezpera aurreko eguna; hau da, ekainaren 22a.

Hiru eginkizun nagusi zituen artzain bilera hark: ardiren batzuk saldu eta erostea; artaldeak berritu eta hobetzeko asmoz ahari trukaketak egitea; eta Arantzazuko fraideei eskupekoa ematea, horretarako bertara joaten zen horien ordezkari bat.

Artzain bakoitzak arkumeren bat edo gazta batzuk ematen zituen eskupeko edo erruki sari moduan. Fraideak, berriz, zahatotik ardoa emanez eskertzen zien, artzainek txaboletan ez baitzuten ordura arte ardorik edukitzen. Azoka edo feria ospatzeari utzi ondoren ere, zenbait artzainek oparia egiten jarraitu zuten, inguruko herrietako toki jakinetan oparia utziz. Urte batzuk geroago, ordea, beraien opariak ez, baina haien salneurria dirutan iristen zela Arantzazura jakin zutenean, opari emate hari amaiera eman zioten, beren salmenten kaltean ari baitziren.

Iturriak

Aralar mendilerroaren zabalera osoan esan ezin ahala iturri daude, ur garbi eta hozkirria ematen dutenak, bai bertako artaldeentzat, bai artzain eta mendizaleentzat ere udaldiko beroetan egarriaren asegarri atsegina gertatzen den ura eman ere.

Irudi bidez aditzera eman ditugun baino iturri gehiago dira Aralarren, baina horiek dira ezagunenak bai ur ona, bai ugaria dutelako. Horietako ura andeletan bildu da, bakoitza bere hoditxo eta guzti, ura errazago hartzeko. Baina aipaturiko guztiak ez daude horrela; zenbaitetan, ur ederra eta oparoa daukan putzua besterik ez da, hori bai, abereengandik harri konkorrez babestuta, adibidez, Iozta-iturria.

Aipatu ditugun iturrien antzekoak gehiago ere badira, baina ez ditugu hemen izendatu edo adierazi, batetik, saroian bertako artzainek ia-ia bakarrik erabiltzen dituztelako, eta bestetik, mendigoizaleen bideetatik bereiz edo urruti daudelako.

Trikuharriak

Osoko mapan ageri direnez, Aralarren trikuharri edo antzinakoen hilobi ugari daude.

Kondaira-aurreko edo historiaurreko oroitarri ezagun horiek izen desberdinak dituzte Euskal Herrian barrena. Aralar aldean, gehienbat, *jentilarri* esaten diete. Eta izen horixe bera dute Arraztaran saroitik urruti ez dauden bi trikuharrik izen berezi edo nagusitzat.

Beste trikuharrien izenik ez zekitelako, zeudeneko tokiaren izena eman zieten aurkitu zituztenek eta izen horixe dute ezaugarri.

Trikuharri horiek guztiek, Oidui saroikoak izan ezik, sortalderantz daude kokatuta.

Meategiak

Lurpetik mea ateratzen jardun zireneko aztarna eta zuloa asko daude Aralar mendilerroan. Lau meategi aipatzen ditugu hemen, era berezian, aspaldi egindako lanen aztarnarik gehienak horietan daudelako.

Arritzagako meategiak

Amezketatik gorantz Igaratza aldera igotzen diren mendizaleentzat oso ezagunak dira Arritzagako meategiak. Izan ere, ibilaldi honetan igaro beharreko mehargune sakonaren erdialdean baitaude.

XVIII. mendearen lehen erdian hasi ziren mea ateratzen. Bertatik, kobrezko mea (burdinoria) ateratzen zuten eta hirurehun meatzari lanean ari izaterainoko garrantzia lortu zuen.

Mea ateratzeko zulatutako bideak, irakurri dudanez, hiru kilometro luze ditu. Guztira 65 urtez iraun zuten bertako meatze lanek.

Mugardiko meategiak

Txemiñe mendiaren hegoaldeko hegalean daude, Mugardi izeneko tokian, Bustintza saroitik oso hurbil. Telesforo Arantzadi jaunaren idazkietan irakurri dudanez, pe edo pe-arria (kalamina) ateratzen omen zuten, baina ez du jartzen noiz hasi ziren lanean ezta zer-nolako garrantzi izan zuen ere.

Hondakin horiek ikusteko modukoak dira. Zakarki landutako harrizko aterpe askoren hondakinak ageri dira, gaina bera ere harrizkoa zutenak, harrizko apalak mailaka, aulkiak ere harrizkoak... Barrura sartzeko zeharo zulo txikiak dituzte eta are txikiagoak leihoak.

Meatze horien ondoan, badira harri hutsez egindako hiru txabola, albo bakoitzean hiru metro luze dira eta lauki formako oina eta piramide egiturako gaina dute. Hiruretatik bik erori samartuak dauzkate gainak, eta hirugarrenak ia osorik dauka oraindik, belarrez eta goroldioz estalia. Arantzadi jaunaren arabera, l850. urte inguruan eginak omen dira. Bustintzako artzain bati ezagun batek erakutsi omen zizkion 1917. urte aldera, ezagun hura inguruko trikuharriak aurkitzen zebilela.

Pagabeko meategiak

Neure begiz ikusi ez ditudan arren, Arratebeltzako artzainak esan zidanez, Pagabe saroiaren ondoan antzina burdina ateratzen zuten mea zuloak omen daude, eta mea aztarna ugari omen dago inguruan.

Iturbeltzeko meategiak

Aurrekoak bezalaxe, hauek ere burdina meategiak ziren. Gainera horien aztarnak jaso ditzakegu meategiaren barne bide eta zuloen inguruan.

Zaldibiatik Igaratzarako bidean daude, Ezkizuarren eta Doniturrieta Goikoa saroien arteko erdibidean.

Mea zuloen aurrean bi txabolaren hondakinak ageri dira. Artzainek diotenez, haietan bizi ziren mea gizonak. Txabola handienaren ondoan labea dago, kanpotik lauki formakoa eta barrutik biribila. Urteen joan-etorriaren ondorioz, zuhaitz bikain bat hazi da labearen barruan.

Jokoak eta kirolak

Gure antzinako artzainek beren joko, kirol eta dantzen aztarnak ere utzi dituzte Aralar mendilerroan. Horietako gehienak XX. mendearen hasiera arte egiten jarraitu zuten eta beste batzuk duela hamarkada batzuk arte.

Saltarria

Aralar aldeko zenbait lekutan hainbat harri daude, egiaztatzerik ez badago ere, zutarri edo iruinarri deituen itxura bera dutenak; eta ez forma, neurri eta kokatuta dauden tokiagatik bakarrik, baita inguruetan ez dagoelako horrelako harri motarik ere. Beraz, beste nonbaitetik giza lanez ekarri behar izango zituzten, agian, zerbaiten oroitarri moduan, nahiz eta gaur egun guk ez jakin garbiro monumentu horien esanahia.

Alotzako belardian dago horietako bat, Saltarri deitua, Elutsetane saroia baino goraxeago hain zuzen.

Harri horien gainetik jauzi edo salto eginez jolasten omen ziren antzina artzainak, horregatik omen du izen hori; hala diote, behintzat, oraingo artzainek. Harria luzetara igarotzera jokatzen omen zuten, bi oinak elkarturik eta abiadarik hartu gabe, gainera. Gaur lurrean dagoenak altuera handirik ez badu ere, luzean baditu hiru metro bider hogeita bost zentimetro. Kirolari trebe samarrak izan behar, beraz, hura igarotzeko.

Nirekin elkarrizketatu diren batzuek diotenez, harria erraz igarotzen zuen artzain bati buruzko erreferentzia asko entzun omen dituzte.

Beste harrien kasuetan bezala, saltarri honi dagokionez ere bada antzinako elezahar bat Barandiaran jaunak bere idazkietan argitaratua.

Probarria

Artzainik zaharrenek gogoan daukate bazirela bi harri haiek jasotzen indarrak neurtzeko erabiltzen zirenak. Eta beraiek ere neurketa horietan erabili izan zituztela diote.

Aipaturiko Saltarri horren ondoan omen zen bata, lau arroba edo berrogeita hamar kilokoa, bi eskuekin pultsuan igotzen zuten gorputza ukitu gabe.

Goriskintxo saroian, beheko txabolaren ondoan omen zen bigarrena, hamaika arroba edo ia ehun eta berrogeita hamar kiloko pisua zuen eta sorbaldara jasotzea omen zen jokoa.

Bi harriak ere galdurik dira gaur: lehenengoa apurtu edo puskatu egin omen zuten eta bigarrena mendi maldan beherantz amildu.

Korrika lekua

Adineko artzain batzuk ezagutzen ditut, artzaintza utzi eta mendian lasterka apustu horiek eginez ibili direnak, orain gutxi arte. Belardi borobil bati nork lehenago hainbeste bira eman, horixe zuten jokoa.

Igande arratsaldez elkartzen ziren, normalean, musean jokatu ondoren. Azken urteetan, berriz, Igaratzako ardandegitik apurtxoren bat alai itzultzean egiten omen zituzten lasterketak.

Azken aldian ibili ohi ziren korrika lekua zegoen tokia bakarrik ezagutzen dut. Korrika leku hori Pagabe saroiko goreneko txabolaren altueran, Igaratzarako bidean eta ikazkin txabola baino lehentxeago dago. Zelai horrek erdian zulo bat du, eta zulo horri ordeka zulo esan izan zaio.

Pilotalekua

Mendigoizale bat baino gehiago harriturik gera daiteke Aralar mendilerroan *pilotalekua* dagoela aditzean. Eta mendia eta euskaldunen oraingo pilota jokoa ezagutzen dituena, pilotarako aurre horma non dagoen galdezka edo bila has daiteke, hori gabe ez baitugu orain pilotan jokatzen.

Baina gure artzainak antzinatik ia oraintsu arte ibili dira pilota jokoan gure mendi gainetan. Artzain bat baino gehiagok esan didatenez, beren aurreko gizaldikoek esan zietenez, pilotaleku horietan partidu luzeak egiten omen zituzten.

Garai hartako artaldeak, jakina, ez ziren oraingoak bezain handiak: artzain bakoitzak hirurogei edo laurogei ardi baino gehiago ez zituen jetzi behar.

Pilotaleku horiek, ordeka edo zelai batzuk ziren, aitzurrez arrastoak lurrean eginda mugatzen zituzten; eta erdian beste arrasto bat egiten zuten alderik alde, talde bakoitzari bere saila bereizteko.

Oraingo *tenis* jokoa gogorazten digu horrek, baina aldi hartan gure artzainek mendian, sarerik eta eskuan tresnarik gabe jokatzen zuten. Zer arau zituzten jokorako eta zer-nolako pilotak erabiltzen zituzten, gauza jakingarriak lirateke, besteak beste. Adineko artzain batek esan didanez, bere aitak eta aitonak zaletasun handia omen zuten pilotarako, eta partiduak hogeita bi tantotara jokatzen omen zituzten, orain bezala; eta pilotak, berriz, ardiengandik ateratako zerbaitez eginak omen zirela uste du.

Pilotaleku horien berririk ez nuenez eta Aralar mendilerroan bazirenik ere ez nekienez etnologia gaietan aditua den Jose Migel Barandiaran jaunagana joan nintzen batean, saroiei buruzko nire bilaketaz mintzatu ondoren, *pilotaleku* direlakoak aipatu genituen. Zer-nolakoak ziren azaltzeaz gain, zenbat eta non zeuden ere artzainengandik ikasteko esan zidan, garrantzizkoa ikusten baitzuen. Hona hemen, beraz, nire ibilietan aurkitu ditudan hamabi pilotalekuen zehaztasunak.

Lareoko pilotalekua

Aralartik Lizarrustirako bidean dago, mendilerroaren hego-sartaldeko muturrean, Sastarri eta Akaitz txiki mendien arteko Baiarrate mendatean aurrera joanda.

Ataungo Urkillaga auzotik Baiarraterantz doan baso bideaz beste aldera joanda, pago gaztez inguraturik dagoen garo sailean gorantz igo eta gainera iristean, bideak eskuinera jotzen du. Gure ezkerrera daukagun basoaren gaineko ertzean aurrera joanda, beste garo sail bat aurkituko dugu. Bigarren garo sail hori erdiz erdi zeharkatu ondoren, pago zerrenda estu baten azpitik aurrera, apur bat beherantz jo eta hirugarren soilgunea aurkituko dugu, hori ere garoz estalita. Hirugarren soilgune hori da Lareoko pilotalekua. Arestian aipatutako mendi edo baso bidetik hona iristeko ez dugu sei minutu baino gehiago behar.

Haren forma ia angeluzuzena da eta ia-ia ordeka da, ehun metro luze eta hirurogei metro zabal ditu. Pagoz inguraturik dago; gainaldean, gu heldu gareneko aldean, zortzi elorri zuri eta urki bat dauzka. Gaur egun, ez da inolako arrasto edo lerrorik ageri, ezta aztarnarik ere, iratze edo garoz estalirik baitago.

Elutsbeltzeko pilotalekua

Ataundik Igaratzara eta Zaldibiatik Igaratzara doazen bideak, Pikuta izeneko tokian bateratzen dira eta bidezidor eginik doaz. Bidezidor horretan aurrera, Eluisbeltza eta Errekabeltza izeneko tokien artean daukagun zelaigune hori da pilotalekua.

Mendibilko pilotalekua

Goroskintxo saroiko artzain zahar batek aditzera eman duenez, hori izan zen pilotalekurik ezagunena eta Aralarko Gipuzkoa aldetik jenderik gehien biltzen zena. Partidu oso gogorrak jokatu omen zituzten, lehiakideak zeharo akitu edo nekatzeraino. Beste adineko artzain batek esan zidanez, bere aitak partidu asko jokatu omen zituen eta gehienetan, igandeko arrantxoa jokatzen omen zuten; hau da, gazta eta ogia ardoaz lagunduta. Gauza handirik ez, beraz.

Mendibil saroiko Antonio artzainaren txabola aurreko ordeka omen zen pilotalekua. Gaur egun ez da inolako arrasto eta aztarnarik ageri.

Pagabeko pilotalekua

Pagabe saroitik goraxeago dago, Uarrain gailurrera eta Irazustako leporako bidean. Ez da oso ordeka handia, baina beti *pilotalekua* esan diote.

Ganboko pilotalekua

Otari zuloko haitze deitzen dioten harkaitzaren gainaldean dago, haitz horren eta Ganboren artean, Irazustako lepotik Igaratzarako bidean eta Ganboko sakanetik Uarrain aldera jaitsita.

Pardelutzeko pilotalekua

Artzainek gaur ez dakite pilotaleku horren izena; horregatik, gertuen dagoen Pardelutz saroiaren izena eman diot nik hemen.

Aipatutako saroi horretatik Igaratzara doan bidean dago eta Arritzagako meategietatik gorantz doan bidearekin bat egiten du, *Amabirjina arrie* delakora iritsi aurretik.

Pardelutz saroitik abiatu eta norabide horretan berrehun eta berrogeita hamar metrora dago, elur zulo deritzon leizea baino aurrerago. Urte osoan irauten du elurrak eta hortik datorkio izen hori. Ordeka txiki bat da, artzainek pilotaleku deitua. Hemen ere ez dago arrastoen aztarnarik.

Alotzako pilotalekua

Alotzako saltarriaren ondoan dago pilotaleku hori. Badirudi, bertan hiru joko mota egiten zituztela: pilota partiduak, aipatutako harri gaineko jauzi edo saltoak eta lau arroako harria pultsuan jasotzea.

Beste gehienetan bezala, hemen ere ez da inolako arrasto berezirik ageri.

Pikutako ordeka

Esneaurreta saroia baino aurrerago, belardi zoragarri bat dago eta jentilen ipuin batean aipatutako Matxabaletako zelaia izeneko bera da.

Hauek dira pilotaleku horretan asko aritu eta oso lagun ziren artzain batzuk: Itxao saroiko Migel Antonio eta Jose Ignazio anaiak, Ezki saroiko Patxi, eta Intsentsao saroiko Jose Martin. Eskuz esku nahiz binaka, partidu asko jokatzen omen zituzten.

Uniko pilotalekua

Aurrekoaren eta beste honen berri eman zidan artzainak, ezin izan zidan eman toki jakin eta zehatzik. Uni deritzon tokian zegoela esan zidan, Buruntzuzin eta Latosa saroien arteko mendi gainean, Nafarroa eta Gipuzkoa bitarteko mugatik hurbil.

Igaratzako pilotalekua

Pardelutzekoaren antzera inork ez daki pilotaleku honen berezko izena ezta non dagoen zehazki ere. Baina orain adieraziko dudan tokian egon behar duela uste dut, horixe baita besteen antzeko leku egoki bakarra, *pilotalekuko gaiñe* esaten dioten mendixkatik hurbil, alegia.

Ordekatxo horren erdia Nafarroakoa da eta beste erdia Gipuzkoakoa, eta hain zuzen ere hantxe erdi-erdian dago MP-89 mugarria, bi probintzien arteko mugaren adierazgarri.

Igaratzako aterpetik ipar-sartaldera dago, Errenagako gaina baino aurrerago, Guardetxetik Perilekura doan mendi bidearen eskuinean. Laurogei metro luze ditu eta hogeita hamar metro zabal, eta sortaldetik sartalderako jarreran dago kokatuta, horizontalki. Hemen ere ez da ageri inolako arrastoen aztarnarik.

Antsesaoko pilotalekua

Unako putzua deituriko lekutik Ttutturre mendirako bidean dago pilotaleku hori.

Aipaturiko putzu hori baino ehun eta berrogeita hamar metro aurrerago eta Unagako zelaietan hain ugari diren bi zulo handiren ondoan dago ordeka txiki hau. Jokalekua mugatzeko erabiltzen ziren arrasto haietakorik ez da ageri hemen ere.

Inguitziko pilotalekua

Besteetan ez bezala, pilotaleku honetan antzinakoek zelaian eginiko arrasto edo ildoen aztarna batzuk ageri dira, oraindik ere.

Gainerako batzuetan bezala, pilotaleku hau ere bide batek zeharkatzen du. Bide hori Intzatik irten eta Mugardiko meategietan barna, Albiako belardiak zeharkatu ondoren San Migel Santutegira jarraitzen duena da.

Beloki mendiaren oinean dago, ipar aldean eta errekatxo baten ondoan. Errekatxo hori Unagako beste guztiak bezalaxe *zurrutegi* edo *ur zulo* batean sartzen da lurpera.

Beste batzuk

Albiako trikuharriaren aurrean, bide zabalaz bestaldera eta pauso gutxira, pinupean, mugarri antzeko harri bat dago lurrean sartuta tente; sekzio angeluzuzenekoa eta hogeita hamar bider hamabost zentimetrokoa da, lurretik gora berrogei zentimetro luzean ageri da.

Bi aurpegi zabalenetan gurutze erako arrastoak dauzka urratuz egindakoak, landu gabe.

Errege sailetan basozain den Jose Zufiaurrek erakutsi zidan eta berak dioenez, pilotajoku du izena eta ez da mugarri, aipaturiko sailen barnean baitago. Bestalde, ez dirudi inor aritu denik bertan zulatzen lurpera zenbat metro luze sartuta dagoen jakin ahal izateko asmoz.

Bide zabalean beherantz Baraibar aldera jotzen badugu, l0. kilometroa adierazten duen toki berean, bide zabala zeharkatzen duen zabalgune bat dago, gaur pagoz estalia. Zubi pilota omen da bere izena.

Dantzalekuak

Aralarko artzainek joko eta jolasak, bilerak eta dantzak, guztietatik egiten zituzten duela gutxi arte. Beren dantzak egiten zituzten bi toki oroitzen dira oraindik: Alotzako zelaia eta Mendibil saroia.

Alotzako zelaiari dagokionez, Saltarria dagoeneko tokian egin ohi zuten dantzan ilargi betea zegoen gauetan. Artzainak dantza soltean aritzen ziren dultzainaren soinupean, ilargiak sortutako itzala dantza lagun zutela.

Dultzaina jotzen zuen azkeneko artzaina Zaldibiako Agerreurreta baserriko Jose Ignazio Mendizabal izan zela diote artzainek. Haren emaztea hil aurretik berarekin hitz egitera joan nahia izan nuen arren, ez nuen lortu amonarekin hitz egiterik, gaixorik baitzebilen.

Lehen esan dugunez, Mendibil saroian elkartzen ziren udazkenean negua pasatzera oso urrun joan behar ez zuten artzainak. Artzain horiek dantzaldiak antolatzen zituzten eta bertan Zaldibiako Urtsu-Goene baserriko Juan Ignazio Garmendia artzainak dultzaina eta eskusoinua jotzen zituen, eta batzuetan, tun-tun edo danbor bat ere jotzen zuen beste norbaitek. Danborrak hori beraiek egindakoak izaten omen ziren.

Artzain horiek Gabon arratsaldean eta gauean baserriz baserri ibiltzen ziren Eguberriko kantak abestuz, dultzainero bat edo gehiago lagun zutela. Eguberri goizerako Mendibilera igotzen ziren.

Erref. bibliografikoa:: *Mendiak, tomo 2, Pág 200-220. José Zufiaurre Goya.. Edit. Etor..*
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Pagabeko txabola

Pagabeko txabola; bertan, normala den moduan gaur egungo hainbat elementuk garai bateko elementu tradizionalak ordeztu dituzte. Horren erakusgai dira txabolaren altura handia, tximinia eta leihoa. Bestetik, azkar eta denbora laburrean egin behar diren gauzak berotzeko butanoa erabiltzen da beheko suaren partez. Metalezko ontziak erabiltzen dira egurrezko beste zenbait objekturen ordez. Haatik, landa artisautza agerian geratzen da altzairuen sinpletasunean.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Oidui saroia

Artzainen borda eta txabolak ere ugari dira Aralar mendilerroko zabalera osoan, bai zelaietan, bai bailaren hegaletan. Guztiek badute hurbil iturria bat, hain beharrezkoa hainbat gauzetarako. Bitxia bada ere, Gipuzkoa aldean txabola bakanak baino ugariago dira multzoka elkartutakoak; eta alderantziz Nafarroa aldean, txabola bakan gehiago daude; Ormazarretan izan ezik, garrantzizko saroi bat baitago bertan.

Txaboletako bizitza, maiatzean hasten da, artzainak beren artalde eta abereekin igotzen direnean. Eta goietan irauten dute artaldearekiko beren lanetan, artaldeak larratzen nahiz gazta gozo jangarriak egiten; horretarako, esku trebeak eta antzinako lan egiteko forma lagun dituztela. Urriko edo azaroko lehenengo elurteekin behera jaisten dira.

Artaldeetaz gainera hainbesteko zainketa lan ardurazkorik eskatzen ez dieten abere gehiago ere (zaldi eta behorrak haien umeekin, alderdi batzuetan; behikiak beste batzuetan; gizentzeko txerriak ere agertu ohi dira udalditik aurrera, batez ere Sakana aldeko mendi hegaletan) edukitzen dituzte artzainek mendian; batez ere, toki jakinetan.

Goi lurralde horietako gizakia, artzaina alegia, apal eta sotila da, langile saiatua eta bere laguntza eskaintzeko beti prest dagoena. Ingurumaria ongi ezagutzen duenez, edozein garaitan ere mesedegarri da artzainaren laguntza, baina arriskuetan eta bide galtzeetan izaten da bereziki laguntzaile ona. Bihotz onekoa, alaia, txeratsua eta ostatu emailea denez, harrerarik onena egin izan dio mendizaleari. Lotsatia eta hitz gutxikoa, batez ere berea ez duen hizkuntza arrotzean, baina ez, ordea, euskaraz mintzatzean. Betiere hizketa bizia erabiliko du, halakoxe hitz erdi eta zirikadaz hornitua, umoretsua, irribarretsua eta trufaz betea.

Iztueta gure historialari ezagunak dionez, ia mila artzain omen ziren Aralar aldean duela ehun urte, eta 40.000 ardi omen zituzten, baita behi, idi, zaldi, behor eta txerri asko ere. Oraingo idazle batek dionez, berriz, gaur egun 160 artzain daude, aurreko kopurua baino askoz gutxiago. Larreak gutxi gorabehera berdinak direnez, eta abere buruak ere asko ugarituko ez zirenez, lasaiago eta hobeto ibiliko dira artzainak: horixe opa genieke.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak tomo 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Lukas saroia

Buruntzuzin zelaian dago Lukas saroia. Atzealdean ezkerrean Txindokiren tontorra nabarmentzen da Larraoneren gainetik. Behean Aitzalo dago, arroila amaitzen den lekuan, eta tontor harritsuaren ezkerrean Ariñate saroia ikus daiteke.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Belokiko saroia

Belokiko saroia. Lau argazki lehenago Oiduiko saroiari buruz hitz egitean aipatu den moduan, honetan ere zohiz estalitako teilatua ikus daiteke, teila modernoaz gain.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Buruntzuzin, Arritzagan

Arritzagako sakanean dago Buruntzuzin. Ardi eta behiez gain, Aralar mendilerroan zaldi azienda ugari dago. Zaldi azienda urte guztian zehar egoten da mendian, eta kasu gutxi batzutan, bat-bateko elurteek ustekabean harrapatzen dituzte. Hori gertatu zen, esaterako, 1979-1980ko neguan, Auza inguruan. Elurpean geratu zen behor talde bat eta bertan hil ziren.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Errenaga

Errenaga aldeko paisaia. Atzealdean Beriain.

Irudi erref.: Archivo Ostoa.

ARTZAINTZA

Neguko saroia. Atzealdean Larrunarri (Txindoki).

Ref. gráf: Archivo Etor-Ostoa.

ARTZAINTZA

Neguko bazka Zerainen

Jai-egunetako meza

Aralar utzi duten lau artzairekin izketaratua naiz, berrogei ta amar udaldi bertan egindakoak lauak. Igande ta jai-egunetan Meza entzun aal izateko, urbilleneko erriren bátera jetxi bear izaten zuten. Gogoan daukate zeiñen nekagarri ta astun zitzaien bete-bear ura.

Bete-bear ura zerbait arindurik gertatu zitzaien, Lizarrusti'ko Mikelete-etxean Meza ipiñi zietenean. Askoz erraztuago gertatu zitzaien, berriz «Amigos de Aralar» (Aralar'en Adiskideak) Elkarteak Igaratza'n elizatxoa eraiki ondoren, Begiriztain' dar Alberto, aita beneditarra, Lazkao'tik Lizarrusti'ra bizikletaz eta andik Igaratza' ra oiñez igota, jai-egunik utsegin gabe «artzaien Meza» ematen asi zanetik.

Bai biotz onez eskertzen dutela gure artzai apal eta jatorrek, Elkarte orren ekintza! Eta zer esanik ere ez, aita Alberto agurgarriaren leialtasuna, larogeitaka urtez gora doan arren, utsik egin gabe joaten baizaie Meza ematera. Lenengo itza goratuz edo indartuz, onela aitortzen dute beren esker ona: Eskerrak, asko erreztu ziguten».

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de los lugares simbólicos. José Zufiaurre Goya. (Parte del amplio trabajo del autor). Edit.

Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Perileku ordokia

Errenagatik, Perilekuko ordokia eta Igaratzako trikuharria. Atzealdean Putterri.

Aralarko gertaera bereziak

1548ko maiatzaren 20an, *Aralarko Elkartea* osatzen duten herriak Zaldibian batzartu ondoren erabaki hau hartu zuten: hartzen bat hiltzen zuenari sei dukat eta otsoren bat hilda aurkezten zuenari bi dukat ematea saritzat.

Santutegiaren inguruetan garia, oloa eta garagarra erein zituzten 1942an, baina etekin onik ez zuten atera, lurra ez baitzen horretarako egokia. Aitzitik, emankorra gertatu zen patata, azak, letxuak eta beste barazki batzuk landatzeko.

Santutegian telefonoa 1936. urtean jarri zuten.

Lekaime batzuk egon ziren 1938. urtean. Baita irakaskuntzako lekaime batzuk ere 1973an eta 1974ko urrian berriz itzuli ziren, baina azaroan joan ziren eta ez ziren gehiago itzuli.

Ostatu etxe berriaren egilea Jose Luis Zia arkitektoa izan zen eta haren ordezkari Julian Arteaga.

Ostatua eraikitzen 1968ko ekainean hasi ziren, 15 milioi pezetako aurrekontua zutela. Lau urte geroago amaitu zutenean, ordea, gastuak 26 milioitara heldu ziren.

Hormetako zuriketak kendu eta garbitu egin zituzten 1930. urtean eta Jabier Ziak hiru horma irudi ipini zituen.

Berritze lanen aurretik teilatua zinkezkoa zen.

1579tik 1608ra bitartean, 19 hartz eta 7 otso hil zituzten eta 1603an katamotz bat ehizatu zuten.

1936ko urtarrilaren 19an, Agiritik barrena santutegiko ateetaraino iritsi zen Tolosako Irazusta jaunaren NA 5434 matrikula zuen beldar antzeko autoa (oraingo jeep direlakoen aurrekoa).

1876. urtean, beste hartz bat ere hil zuten Aralarren, larrua kenduta ere 87 kilo zituena. Alesbesko (Villafranca) Valmadianoko markesaren barne atari edo patioan jarri zuten jendeak ikus zezan.

Joan den mendearen erdi aldera hasi ziren desagertzen Aralar mendilerrotik hartza eta otsoa. Azeriak bakarrik gelditu ziren bizirik eta horiek ere oso gutxi.

1936ko urtarrilean hasi ziren Lekunberritik gorako errepidea egiten. Bide eraikitzaileak kale egin zuenez, beste batek bukatu zuen 1965eko irailean.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak tomo 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Neguko saroia

Neguko saroia, Larrunarri edo Txindoki atzealdean dagoela.

Saroiak

Aralar mendilerroan ia hirurogeita hamar saroi daude, horietatik berrogeita bost Gipuzkoa aldean eta gainerakoak Nafarroan.

Antzina-antzinatik eraiki dituzte saroi horietan artzainek beren txabolak, bai sakabanatuta, bai elkarren inguru kokatuta.

Ezagutu ez ezik, begirunez zaintzen dituzte artzainek saroi guztiak. Hutsik daude batzuk, bost artzain daude beste batzuetan, eta bertan ilorrak, gauzak gordetzeko txabola txikiak, eta eskortak, ardiak edukitzeko itxiturak, dituzte.

Artzain berriren batek Aralar mendietan bere artalde eta guzti sartu nahi badu, lehendik dauden saroietakoren batean sartu beharko du, eta berak gogokoen duen edozein tokitan jartzerik ez luke izango, larreak guztientzakoak diren arren.

Zergatik den horrela? Antzinatik datorren ohitura edo *Lege Zarra* aipatzen dute artzainek eta hark agintzen duenez, artaldearena da txabola eta ez artzainarena; eta horregatik du artzainak txabolan sartzeko eskubidea artaldea daramalako. Hauxe gertatu zitzaion Abaltzisketako adineko artzain bati 1928an: aita zaharregi zenez, mendira igotzea kaltegarri zitzaiola-eta, artaldea Ataungo gazte bati saldu zion semeak. Udaldia mendian egiten jarraitu nahi zuan, ordea, aitonak eta horretarako lehengo txabolan egon ahal izateko basozainarengana jo zuen. Hark, ordea, ezezkoa eman zion, saroi hartan artaldea zaindu behar zuen artzainak egon behar zuela esanez.

Mapan irudiz adierazitako saroiez gain, gehiago ere badira inguruetan, baina horietan lizar zaharren bat, erdi eroritako horma bat eta harri pila bat besterik ez daude.

Ipar haizeak kalterik ez egiteko eran daude kokatuta saroirik gehienak, bai mendiaren babesean, bai sakonune batean, bai harkaitz baten babesean, bestela asko eta asko oso goietan daudenez, haizeak bortizki erasoko bailituzke.

Artzainek beren artaldeekin Aralar mendilerroan egiten duten aldia maiatzaren aurrenetatik azaroaren aurrenetara izan ohi da gehienetan, baina urte bakoitzean garaian garaiko eguraldiak erakusten die zehazki noiz igo eta noiz jaitsi.

Beren herrian nahiz ingurukoetan gelditzen zirelako negua pasatzera ez Bizkai aldera, ez Gipuzkoako beterrira joaten ez ziren Zaldibiako artzainak, antzinatik, Mendibil saroian biltzen ziren artaldearekin eta bertan egoten ziren Eguberriak igaro arte. Hain zuzen ere, horregatik dira saroi horretako txabolak besteetakoak baino handiagoak, borda itxurakoak.

Hona hemen saroien eta artzainen izen zerrenda, artzainak nongoak diren eta non bizi diren adierazita. Hauxe da beren udaldia 1975. urtean Aralar mendilerroan egin zutenen kopurua.

Saroien kopuru osoa: 68. Artzainen kopuru osoa: 87. Artzain nafarrak Nafarroan: 26. Artzain gipuzkoarrak Gipuzkoan: 61

Artzainak herrika

Abaltzisketa 10; Arribe 1; Aia (Orio) 3; Bedaio 1; Gaintza (N) 6; Itsasondo 2; Albiztur 1; Arruazu 1; Azkarate 3; Betelu 3; Uharte-Arakil 1; Orendain 2; Alegi 1; Ataun 7; Azpeitia 1; Errazkin 3; Itsaso lego 1; Zaldibia 15; Amezketa 14; Atallu 2; Beasain 1; Errezil 2; Intza 6.

Duela ehun urtetatik artzain kopurua asko gutxitu bada ere, ardiak ez dira neurri beren urritu. Bizibide latza izan arren, zerbait hobetu dela esan behar da.

Aralar mendietan otsoak ibiltzen ziren duela ehun urte arte. Hori zela-eta, gauero bildu behar izaten zituzten ardiak eskortan, eta gaurik gehienak erne eta itzarturik egin behar izaten zituzten artzainek. Ardiak otsoa nabaritzean aztoratu egiten ziren, eta orduan, egurrezko txingarrak piztuta irten behar izaten zuten haiek uxatzera. Gaur egun, ez daukate horrelako kezkarik.

Bestalde, joan den mendearen bukaera arte inork gutxik zuen laguntzaile moduan ardi-txakurra; horren ondorioz, artzainek egin behar izaten zituzten lan guztiak.

Aipatutako bi arrazoi horiengatik eta txabolak sendotu eta barrutik antolatuago izateagatik, antzinatean baino hiru aldiz artalde handiago edo ugariagoa zain dezake orain artzain bakoitzak.

Mendez mende datorren artzaintzaz gainera, Enirio-Aralar larreetako Mankomunitatea delakoan sarturik dauden hamabost herrietako «baserritar» batzuek eta Nafarroa aldeko beste zenbaitek, aspaldi samarretik beren zaldi eta behorrak eraman dituzte Aralarko larreetara. Ugaritu egin dira, gainera, horrelakoak azken urte hauetan. Bestalde, abere-jabe horietako gehienak, kalean eta kaleko lanetik bizi dira, abeltzaintza hau beren irabazpideen gehigarritzat hartuta.

Antzeko zerbait gertatzen da abelgorriekin ere, azkeneko hogei urte hauetan ugarituz eta goraka baitoaz artzainak kezkatzeraino. Hortik dator artzainen kezka, beraietako zenbaitek esaten zidatenez, larre sail handiak hartzen dituzte larre behiek gaueko etzalekutarako eta, aldi berean, gorotz edo simaur asko uzten dute bertan eta horren azpian belar beltza sortzen da. Udazkenean larreak urritzean, belar hori jan beharrean gertatzen dira ardiak eta horren ondorioz ume galtzeak etortzen zaizkie.

Duela hamarkada batzuk arte, doan ziren larreak, baina geroztik urtean hainbesteko bat ordaintzen dute buruko, bestela gertatu bada ere tarteren batean. Ardi bakoitzeko pezeta bat ordaintzen zen hasieran, eta buruko duro bat 1975ean. Handik urte batzuetara ardi bakoitzeko bost ogerleko edo duro ordaintzen zituzten eta berrogeita hamar ogerleko behi eta behor bakoitzeko.

Urteko zerga hori saroia dagoeneko herri elkarteari, herriari nahiz pertsona bati eman behar diote. Hala ere, inguruetan larrean dauden ardiak mugak igaro ditzakete, baina artzainak horretara bultza gabe, hots, abereei berez irtenda.

Erref. bibliografikoa: Mendiak, tomo 2, José Zufiaurre Goya. (Parte del amplio trabajo del autor). Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Pagabeko korrika lekua

Peri leku

Igaratzako belardian, izen bereko trikuharrietatik urruti ez dela dago Peri leku deituriko tokia. Orain hamarkada batzuk arte hantxe egiten zuten artzainek beren ekintza soziala, azoka antzeko bat, alegia. Urteko egun jakin bat zuten horretarako, San Joan bezpera aurreko eguna; hau da, ekainaren 22a.

Hiru eginkizun nagusi zituen artzain bilera hark: ardiren batzuk saldu eta erostea; artaldeak berritu eta hobetzeko asmoz ahari trukaketak egitea; eta Arantzazuko fraideei eskupekoa ematea, horretarako bertara joaten zen horien ordezkari bat.

Artzain bakoitzak arkumeren bat edo gazta batzuk ematen zituen eskupeko edo erruki sari moduan. Fraideak, berriz, zahatotik ardoa emanez eskertzen zien, artzainek txaboletan ez baitzuten ordura arte ardorik edukitzen. Azoka edo feria ospatzeari utzi ondoren ere, zenbait artzainek oparia egiten jarraitu zuten, inguruko herrietako toki jakinetan oparia utziz. Urte batzuk geroago, ordea, beraien opariak ez, baina haien salneurria dirutan iristen zela Arantzazura jakin zutenean, opari emate hari amaiera eman zioten, beren salmenten kaltean ari baitziren.

Erref. bibliografikoa: Mendiak, tomo 2, José Zufiaurre Goya. (Parte del amplio trabajo del autor). Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Kupula faltsuko txabola, Mugardin

Kupula faltsuko txabola, Mugardin.

Irudi erref.: Archivo Etor-Ostoa

ARTZAINTZA

Negua

Negua iritsi baino lehen eta belardiak elurrez estalita gelditu aurretik, artzainek artaldea transhumantzian eraman behar izaten zuten. Txabolak abandonatu egiten dituzte, eta txabola ondoko lizarrak hostorik gabe geratzen dira. Aralarko artzainek Pirinioetakoek baino transhumantzia txikiagoak egiten dituzte. Pirinioetakoak Erriberara jaisten dira, eta Aralarrekoak, berriz, kostaldera; esaterako, Irun, Lezo, Oiartzun, Orio, Zarautz, Getaria eta kostako beste herri batzuetara.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Enirio inguruko paisaia

Dantzaleku

Aralarko artzainek joko eta jolasak, bilerak eta dantzak, guztietatik egiten zituzten duela gutxi arte. Beren dantzak egiten zituzten bi toki oroitzen dira oraindik: Alotzako zelaia eta Mendibil saroia.

Alotzako zelaiari dagokionez, Saltarria dagoeneko tokian egin ohi zuten dantzan ilargi betea zegoen gauetan. Artzainak dantza soltean aritzen ziren dultzainaren soinupean, ilargiak sortutako itzala dantza lagun zutela.

Dultzaina jotzen zuen azkeneko artzaina Zaldibiako Agerreurreta baserriko Jose Ignazio Mendizabal izan zela diote artzainek. Haren emaztea hil aurretik berarekin hitz egitera joan nahia izan nuen arren, ez nuen lortu amonarekin hitz egiterik, gaixorik baitzebilen.

Lehen esan dugunez, Mendibil saroian elkartzen ziren udazkenean negua pasatzera oso urrun joan behar ez zuten artzainak. Artzain horiek dantzaldiak antolatzen zituzten eta bertan Zaldibiako Urtsu-Goene baserriko Juan Ignazio Garmendia artzainak dultzaina eta eskusoinua jotzen zituen, eta batzuetan, tun-tun edo danbor bat ere jotzen zuen beste norbaitek. Danborrak hori beraiek egindakoak izaten omen ziren.

Artzain horiek Gabon arratsaldean eta gauean baserriz baserri ibiltzen ziren Eguberriko kantak abestuz, dultzainero bat edo gehiago lagun zutela. Eguberri goizerako Mendibilera igotzen ziren.

Erref. bibliografikoa: Mendiak, tomo 2, José Zufiaurre Goya. (Parte del amplio trabajo del autor). Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Zirigarate saroia

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Oidui saroia, Enirio inguruan

Jokoa eta kirola

Gure antzinako artzainek beren joko, kirol eta dantzen aztarnak ere utzi dituzte Aralar mendilerroan. Horietako gehienak XX. mendearen hasiera arte egiten jarraitu zuten eta beste batzuk duela hamarkada batzuk arte.

Saltarria

Aralar aldeko zenbait lekutan hainbat harri daude, egiaztatzerik ez badago ere, zutarri edo iruinarri deituen itxura bera dutenak; eta ez forma, neurri eta kokatuta dauden tokiagatik bakarrik, baita inguruetan ez dagoelako horrelako harri motarik ere. Beraz, beste nonbaitetik giza lanez ekarri behar izango zituzten, agian, zerbaiten oroitarri moduan, nahiz eta gaur egun guk ez jakin garbiro monumentu horien esanahia.

Alotzako belardian dago horietako bat, Saltarri deitua, Elutsetane saroia baino goraxeago, hain zuzen.

Harri horien gainetik jauzi edo salto eginez jolasten omen ziren antzina artzainak, horregatik omen du izen hori; hala diote, behintzat, oraingo artzainek. Harria luzetara igarotzera jokatzen omen zuten, bi oinak elkarturik eta abiadarik hartu gabe, gainera. Gaur lurrean dagoenak altuera handirik ez badu ere, luzean baditu hiru metro bider hogeita bost zentimetro. Kirolari trebe samarrak izan behar, beraz, hura igarotzeko.

Nirekin elkarrizketatu diren batzuek diotenez, harria erraz igarotzen zuen artzain bati buruzko erreferentzia asko entzun omen dituzte.

Beste harrien kasuetan bezala, saltarri honi dagokionez ere bada antzinako elezahar bat Barandiaran jaunak bere idazkietan argitaratua.

Probarria

Artzainik zaharrenek gogoan daukate bazirela bi harri haiek jasotzen indarrak neurtzeko erabiltzen zirenak. Eta beraiek ere neurketa horietan erabili izan zituztela diote.

Aipaturiko Saltarri horren ondoan omen zen bata, lau arroba edo berrogeita hamar kilokoa, bi eskuekin pultsuan igotzen zuten gorputza ukitu gabe.

Goriskintxo saroian, beheko txabolaren ondoan omen zen bigarrena, hamaika arroba edo ia ehun eta berrogeita hamar kiloko pisua zuen eta sorbaldara jasotzea omen zen jokoa.

Bi harriak ere galdurik dira gaur: lehenengoa apurtu edo puskatu egin omen zuten eta bigarrena mendi maldan beherantz amildu.

Korrika lekua

Adineko artzain batzuk ezagutzen ditut, artzaintza utzi eta mendian lasterka apustu horiek eginez ibili direnak, orain gutxi arte. Belardi borobil bati nork lehenago hainbeste bira eman, horixe zuten jokoa.

Igande arratsaldez elkartzen ziren, normalean, musean jokatu ondoren. Azken urteetan, berriz, Igaratzako ardandegitik apurtxoren bat alai itzultzean egiten omen zituzten lasterketak.

Azken aldian ibili ohi ziren korrika lekua zegoen tokia bakarrik ezagutzen dut. Korrika leku hori Pagabe saroiko goreneko txabolaren altueran, Igaratzarako bidean eta ikazkin txabola baino lehentxeago dago. Zelai horrek erdian zulo bat du, eta zulo horri ordeka zulo esan izan zaio.

Pilotalekua

Mendigoizale bat baino gehiago harriturik gera daiteke Aralar mendilerroan *pilotalekua* dagoela aditzean. Eta mendia eta euskaldunen oraingo pilota jokoa ezagutzen dituena, pilotarako aurre horma non dagoen galdezka edo bila has daiteke, hori gabe ez baitugu orain pilotan jokatzen.

Baina gure artzainek antzinatik ia oraintsu arte ibili dira pilota jokoan gure mendi gainetan. Artzain bat baino gehiagok esan didatenez, beren aurreko

gizaldikoek esan zietenez, pilotaleku horietan partidu luzeak egiten omen zituzten.

Garai hartako artaldeak, jakina, ez ziren oraingoak bezain handiak: artzain bakoitzak hirurogei edo laurogei ardi baino gehiago ez zituen jetzi behar.

Pilotaleku horiek, ordeka edo zelai batzuk ziren, aitzurrez arrastoak lurrean eginda mugatzen zituzten; eta erdian beste arrasto bat egiten zuten alderik alde, talde bakoitzari bere saila bereizteko.

Oraingo *tenis* jokoa gogorazten digu horrek, baina aldi hartan gure artzainek mendian, sarerik eta eskuan tresnarik gabe jokatzen zuten. Zer arau zituzten jokorako eta zer-nolako pilotak erabiltzen zituzten, gauza jakingarriak lirateke, besteak beste. Adineko artzain batek esan didanez, bere aitak eta aitonak zaletasun handia omen zuten pilotarako, eta partiduak hogeita bi tantotara jokatzen omen zituzten, orain bezala; eta pilotak, berriz, ardiengandik ateratako zerbaitez eginak omen zirela uste du.

Pilotaleku horien berririk ez nuenez eta Aralar mendilerroan bazirenik ere ez nekienez etnologia gaietan aditua den Jose Migel Barandiaran jaunagana joan nintzen batean, saroiei buruzko nire bilaketaz mintzatu ondoren, *pilotaleku* direlakoak aipatu genituen. Zer-nolakoak ziren azaltzeaz gain, zenbat eta non zeuden ere artzainengandik ikasteko esan zidan, garrantzizkoa ikusten baitzuen. Hona hemen, beraz, nire ibilietan aurkitu ditudan hamabi pilotalekuen zehaztasunak.

Lareoko pilotalekua

Aralartik Lizarrustirako bidean dago, mendilerroaren hego-sartaldeko muturrean, Sastarri eta Akaitz txiki mendien arteko Baiarrate mendatean aurrera joanda.

Ataungo Urkillaga auzotik Baiarraterantz doan baso bideaz beste aldera joanda, pago gaztez inguraturik dagoen garo sailean gorantz igo eta gainera iristean, bideak eskuinera jotzen du. Gure ezkerrera daukagun basoaren gaineko ertzean aurrera joanda, beste garo sail bat aurkituko dugu. Bigarren garo sail hori erdiz erdi zeharkatu ondoren, pago zerrenda estu baten azpitik aurrera, apur bat beherantz jo eta hirugarren soilgunea aurkituko dugu, hori ere garoz estalia. Hirugarren soilgune hori da Lareoko pilotalekua. Arestian aipatutako mendi edo baso bidetik hona iristeko ez dugu sei minutu baino gehiago behar.

Haren forma ia angeluzuzena da eta ia-ia ordeka da, ehun metro luze eta hirurogei metro zabal ditu. Pagoz inguraturik dago; gainaldean, gu heldu gareneko aldean, zortzi elorri zuri eta urki bat dauzka. Gaur egun, ez da

inolako arrasto edo lerrorik ageri, ezta aztarnarik ere, iratze edo garoz estalirik baitago.

Elutsbeltzeko pilotalekua

Ataundik Igaratzara eta Zaldibiatik Igaratzara doazen bideak, Pikuta izeneko tokian bateratzen dira eta bidezidor eginik doaz; bidezidor horretan aurrera; Eluisbeltza eta Errekabeltza izeneko tokien artean daukagun zelaigune hori da pilotalekua.

Mendibilko pilotalekua

Goroskintxo saroiko artzain zahar batek aditzera duenez, hori izan zen pilotalekurik ezagunena eta Aralarko Gipuzkoa aldetik jenderik gehien biltzen zena. Partidu oso gogorrak jokatu omen zituzten, lehiakideak zeharo akitu edo nekatzeraino. Beste adineko artzain batek esan zidanez, bere aitak partidu asko jokatu omen zituen eta gehienetan, igandeko arrantxoa jokatzen omen zuten; hau da, gazta eta ogia ardoaz lagunduta. Gauza handirik ez, beraz.

Mendibil saroiko Antonio artzainaren txabola aurreko ordeka omen zen pilotalekua. Gaur egun ez da inolako arrasto eta aztarnarik ageri

Pagabeko pilotalekua

Pagabe saroitik goraxeago dago, Uarrain gailurrera eta Irazustako leporako bidean. Ez da oso ordeka handia, baina beti *pilotalekua* esan diote.

Ganboko pilotalekua

Otari zuloko haitze deitzen dioten harkaitzaren gainaldean dago, haitz horren eta Ganboren artean, Irazustako lepotik Igaratzarako bidean eta Ganboko sakanetik Uarrain aldera jaitsita.

Pardelutzeko pilotalekua

Artzainek gaur ez dakite pilotaleku horren izena; horregatik, gertuen dagoen Pardelutz saroiaren izena eman diot nik hemen.

Aipatutako saroi horretatik Igaratzara doan bidean dago eta Arritzagako meategietatik gorantz doan bidearekin bat egiten du, *Amabirjina arrie* delakora iritsi aurretik.

Pardelutz saroitik abiatu eta norabide horretan berrehun eta berrogeita hamar metrora dago, elur zulo deritzon leizea baino aurrerago. Urte osoan irauten du elurrak eta hortik datorkio izen hori. Ordeka txiki bat da, artzainek pilotaleku deitua. Hemen ere ez dago arrastoen aztarnarik.

Alotzako pilotalekua

Alotzako saltarriaren ondoan dago pilotaleku hori. Badirudi, bertan hiru joko mota egiten zituztela: pilota partiduak, aipatutako harri gaineko jauzi edo saltoak eta lau arroako harria pultsuan jasotzea.

Beste gehienetan bezala, hemen ere ez da inolako arrasto berezirik ageri.

Pikutako ordeka

Esneaurreta saroia baino aurrerago, belardi zoragarri bat dago eta jentilen ipuin batean aipatutako Matxabaletako zelaia izeneko bera da.

Hauek dira pilotaleku horretan asko aritu eta oso lagun ziren artzain batzuk: Itxao saroiko Migel Antonio eta Jose Ignazio anaiak, Ezki saroiko Patxi, eta Intsentsao saroiko Jose Martin. Eskuz esku nahiz binaka, partidu asko jokatzen omen zituzten.

Uniko pilotalekua

Aurrekoaren eta beste honen berri eman zidan artzainak, ezin izan zidan eman toki jakin eta zehatzik. Uni deritzon tokian zegoela esan zidan, Buruntzuzin eta Latosa saroien arteko mendi gainean, Nafarroa eta Gipuzkoa bitarteko mugatik hurbil.

Igaratzako pilotalekua

Pardelutzekoaren antzera inork ez daki pilotaleku honen berezko izena ezta non dagoen zehazki ere. Baina orain adieraziko dudan tokian egon behar duela uste dut, horixe baita besteen antzeko leku egoki bakarra, *pilotalekuko gaiñe* esaten dioten mendixkatik hurbil, alegia.

Ordekatxo horren erdia Nafarroakoa da eta beste erdia Gipuzkoakoa, eta hain zuzen ere hantxe erdi-erdian dago MP-89 mugarria, bi probintzien arteko mugaren adierazgarri.

Igaratzako aterpetik ipar-sartaldera dago, Errenagako gaina baino aurrerago, Guardetxetik Perilekura doan mendi bidearen eskuinean. Laurogei metro luze ditu eta hogeita hamar metro zabal, eta sortaldetik sartalderako jarreran dago kokatuta, horizontalki. Hemen ere ez da ageri inolako arrastoen aztarnarik..

Antsesaoko pilotalekua

Unako putzua deituriko lekutik Ttutturre mendirako bidean dago pilotaleku hori.

Aipaturiko putzu hori baino ehun eta berrogeita hamar metro aurrerago eta Unagako zelaietan hain ugari diren bi zulo handiren ondoan dago ordeka txiki hau. Jokalekua mugatzeko erabiltzen ziren arrasto haietakorik ez da ageri hemen ere.

Inguitziko pilotalekua

Besteetan ez bezala, pilotaleku honetan antzinakoek zelaian eginiko arrasto edo ildoen aztarna batzuk ageri dira, oraindik ere.

Gainerako batzuetan bezala, pilotaleku hau ere bide batek zeharkatzen du. Bide hori Intzatik irten eta Mugardiko meategietan barna, Albiako belardiak zeharkatu ondoren San Migel santutegira jarraitzen duena da.

Beloki mendiaren oinean dago, ipar aldean eta errekatxo baten ondoan. Errekatxo hori Unagako beste guztiak bezalaxe *zurrutegi* edo *ur zulo* batean sartzen da lurpera.

Beste batzuk

Albiako trikuharriaren aurrean, bide zabalaz bestaldera eta pauso gutxira, pinupean, mugarri antzeko harri bat dago lurrean sartuta tente; sekzio angeluzuzenekoa eta hogeita hamar bider hamabost zentimetrokoa da, lurretik gora berrogei zentimetro luzean ageri da.

Bi aurpegi zabalenetan gurutze erako arrastoak dauzka urratuz egindakoak, landu gabe.

Errege sailetan basozain den Jose Zufiaurrek erakutsi zidan eta berak dioenez, pilotajoku du izena eta ez da mugarri, aipaturiko sailen barnean baitago. Bestalde, ez dirudi inor aritu denik bertan zulatzen lurpera zenbat metro luze sartuta dagoen jakin ahal izateko asmoz.

Bide zabalean beherantz Baraibar aldera jotzen badugu, l0. kilometroa adierazten duen toki berean, bide zabala zeharkatzen duen zabalgune bat dago, gaur pagoz estalia. Zubi pilota omen da bere izena.

Erref. bibliografikoa: Mendiak, tomo 2, José Zufiaurre Goya. (Parte del amplio trabajo del autor). Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Artzain Eguna

Artzai Eguna Uharte-Arakilen. Aralar Mendi Elkarteak, Uharte Arakilen, Artzain eguna ospatzen du 1968az geroztik, abuztuko azkeneko igandean. Ospakizun hauek, gizaki bakarti hauen omenaldi hunkikor eta herritarra izan nahi dute, belazeetan barrena, artaldearekin eta beren zakur leialarekin batera ibiltzen diren hauen omenez.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de acontecimientos populares.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Artzain Eguna. Lehiaketak

Artzain zakurren lehiaketan, ohi denez, hiru proba izaten dira esanekotasuna, artaldea biltzea eta artegian sartzea eta hirurak eskatzen dute artzainaren eta zakurraren arteko konpenetrazioa eta are adimen handia ere. Arratsaldeetan izaten da, herribazkariaren ondoren, eta gainontzeko lehiaketak amaituta daudenean gazta, ardi-gisatuak, motzaldi, arrazako ardiak .

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de acontecimientos populares.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Artzain Eguna. Uharte-Arakil

Uharte-Arakil, Arakil ibaiaren barrankan dagoen hiri nafarra da, Iruñako edo Mendietako merindatearen barne. 1.000 biztanletik beherako herri hau Iruñatik 32 km-tara dago, hara hurbiltzeko bidea erosoa bada ere Irurtzunetik barrena A-15 autobidea hartuz; bai eta beste aldera, Altsasura eta bertatik Gasteizera joateko ere. Herritar kopuru txikia badu ere, bertako bizitza kulturala bizia da Aralar Mendi Elkartearen ekimenari esker. Uharte-Arakilgo udalerrian daude Zamartzeko ermita erromanikoa eta Aralarko San Migelen santutegia ere. Eta hain zuzen ere, hemen gordetzen da, esmaltezko erretaula erromaniko bitxia, oso estimatua eta ohoratua, bestalde,Teodosio Goñi parrizida askatu zuen goiaingeruaren jarraitzaile deboten aldetik.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de acontecimientos populares.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Artzain Eguna. Sariak

Jaiari amaiera sariak emanez eta saritutako gazten enkantearekin amaitzen da, hainbatetan prezio izugarriak izatera iristen delarik. Bestalde, enkantea irabazi duen artzainaren mesederako izaten da, urteko gazta guztiak salduta baitauzka, baina bai eta gazta hartu duenarentzat ere, merkataritza eta propaganda rol ageriko eta nabaria baitu lehiaketak. Alabaina, oraino ez da Ordiziako, Gipuzkoan, peria eta lehiaketaren arrakasta izatera iristen, han biltzen baitira baita ere Idiazabal Jatorri-Izendapenaren barne, Urbia, Gorbea, Aralar, Urbasa, Bidasoa-Baztan eta Nafarroa aldeko Pirinioetako gazta-ekoizleak.

Latxa ardia

Ardi latxak buru beltzarana edo horia dauka eta oso egokitua dago larrealdietara. Jetzi eskuz jezten dira, egunean bitan, eta 140 egun ingurutan martxotik uztailera bitarte. Esnearekin egiten den gazta ondutakoa da, prentsatutako pastakoa, egosi gabea, eta oso gantzatsua da, azal gogor eta leunekoa, nahiz eta erabilitako zapien marrak ere tarteka izaten dituen. Kolore homogeneoa du, hori argi edo gris zuriztatik arre ilunera bitartekoa izaten da eta keztatua edo keztatu gabea izan daiteke.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de acontecimientos populares.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Artzain Eguna. Txapelketak

Txapelketak eta jaia

Artzain Egunaren hasiera 1962an kokatu behar da, gipuzkoar batzuk ideia Gironako mendietatik ekarri zutenean, inguru haietan zakur txapelketak tradizio handikoak baitira. Nolanahi ere, Uharte-Arakilgo zorigaiztoko sute batek eragin zuen lehiaketa beste sei urtetan atzeratzea, baina ordutik aurrera, Aralar mendi Elkarteak urtero antolatu du, geroz eta gogo handiagoz. Eta halako arrakasta izan du, jatorrizko jaiari erantsi dizkion proposamen berriekin, ezen Artzain Egunera milaka pertsona hurbiltzen baitira egun on bat igarotzera. Egitarauaren barne, besteak beste, herri-bazkari bikain bat jasotzen da: salda, baberrunak, arkume errea eta mamia edo izozkia eta amaitzeko hirukote klasikoa, kafea, patxaran edo koinak kopa eta purua izaten direlarik.

Hasierako urteetan antolatutako ekintza nagusia Artzain-Zakurren Nafarroako Txapelketa izaten zen eta bertara, Urbasa, Leitza, Amaiur eta Auritzeko eskualdeetako lehiaketetan hobeto sailkatutako zakurrak etortzen ziren. Baina pixkanaka Aralar Mendi Elkartea artzantzarekin lotutako bestelako ekintzak sartzen joan zen eta, besteak beste, ardi-latxen lehiaketa, gazta eta motzaldi-mekanikoko lehiaketak, artisau-erakusketak eta produktu artesanalen salmenta, Idiazabal gazta, basako

fruituen likoreak, eztia... eta, horren guztiarekin batera, taloa txistorrarekin eta sagardoa edo ardoa.

Eta azken aldera beste lehiaketa bat antolatzen da, izaera gastronomikokoa eta zaharra artzainen artean: ardiki-gisatuen lehiaketa, urtero urtero hobetzen doana, Barrankako talde edo elkarte gastronomikoen esku onaren eraginez.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de acontecimientos populares.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

ARTZAINTZA

Artzain Eguna. Omenaldia

Artzainaren omenez

Aralar Mendi Elkarteak, Uharte Arakilen, Artzain eguna ospatzen du 1968az geroztik, abuztuko azke neko igandean. Ospakizun hauek, gizaki bakarti hauen omenaldi hunkikor eta herritarra izan nahi dute, belazeetan barrena, artaldearekin eta beren zakur leialarekin batera ibiltzen diren hauen omenez. Artzain hauekin, bestalde, latxa ardien esnearekin, Idiazabal Jatorri Izendapenaren barne sailkatzen diren gazta bikainak egiten dituzte.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Emblemática. Guía de acontecimientos populares.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Mariren kobazuloa

Mariren kobazuloa, Txindokin

Mari lurrazpiko emakumezko numen bat da. Mariren ohiko bizilekuak lurraren erraietan daude. Eta leku horietatik kanpoaldearekin komunikatu ahal izateko kobazuloak eta leizeak ditu.

Irudi erref.: Archivo Ostoa.

BESTE ZENBAIT

Erroldan harria

Madoztik San Migelerako bidean bada Erroldan harria izenekoa leku bat, lehenago ere aipatu duguna. Juan Iturralde eta Suit ikerlari jakitunaren iritziz, historiaurreko iruinarri, zutarri edo jentilarri horietako bat da, baina gero zehazkiago azalduko dugu.

Erroldan izeneko zaldun bulartsuak, artzainek diotenez, Orreagako haitzartera (hantxe hil zen euskaldunen guda erasoaren ondorioz) joan aurretik, igoaldi bat egin omen zuen Aralar gainera. Ez dakigu Artxuetatik ala beste gailurren batetik, baina nonbaitetik harritzar galant hura erauzi, eskuan hartu eta etsaiaren aurka jaurti omen zuen Madotzera. Bide batez aipatu behar da, ez dela Erroldanek Euskal Herrian bota omen zuen harri bakarra, gehiago ere bota omen zituen. Madotz urruti dago eta jaurtitzean besoa bere jantzietan trabatu zitzaion; eta jaurtialdiari hainbesteko indarra eman zionez, harrian atzamar markak ezarri zituen. Baina nahi

zuen tokiraino botatzerik ez zuen lortu: gutxi gorabehera erdi bidean gelditu zitzaion, gaur oraindik dagoen tokian, alegia.

Erroldan Harria: azalpena

Artzainen arteko elezaharrak dioena esan ondoren, ikus ditzagun orain Juan Iturralde eta Suit jakitunak emandako iritzi, zehaztasun eta azalpenak, 1895eko azaroaren 16an ikertu baitzuen harria berak. Honela dio, bada:

«Sobresale desde el suelo hasta la parte superior 1,13 m.; el lado o frente donde se ven los misteriosos surcos, tiene una anchura media de 0,56.; es de planta triangular y los surcos son seis, ligeramente curvos y paralelos entre sí; comienzan en la arista que nJira a oriente y llegan aproximadamenté al centro, hacia abajo; entre el segundo y tercero de la parte superior hay uno, corto y recto, que los une. Sin género de dudas han sido producidos por un cincel rudo, y su antigüedad es remotísima.

La excavación alcanzó 1,87 m. de profundidad y a su final apareció una variación en su forma, porque de la arista donde arrancan los misteriosos surcos o signos, nacía una especie de rama o brazo pegado a dicha arista, cuya parte más gruesa está en la parte más baja, cual si formase el hombro de una estatua invertida.

Hasta el punto donde se abandonó la excavación, la piedra alcanzaba una longitud de 3 m. y se hundía aún en la tierra, conservando siempre, salvo el brazo que he hablado, su forma triangular.».

Iturralde jaunak bukaeran galdera hau egiten du : Inguruetako trikuharri, harrespil eta haitzuloek bai ote dute ikuskizun edo loturarik misteriozko harri horrekin? Nire iritziz, historiaurreko mugarri bat baino areago, Iruinarri edo jentilarri bat da, berezia, hori bai, oso gutxik baitituzte idazkun edo ikur zizelkatuak.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak tomo 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Jentilarriko trikuharria

Trikuharri hori euskal mitologiako lekurik esanguratsuenetako bat da. Elezahar bat oinarritzat hartuta, Euskal Herriko historia kulturaleko une gogoangarri bat dakar gogora. Jentil ospetsuen hilobia. «Elezaharrak dionez, behin batean jentilak Aralarko Argaintxabaletako lepoan olgetan ari zirela, ekialdetik hodei argitsu bat zetorrela ikusi zuten. Adineko jakintsu bati galdetu omen zioten zer adierazi nahi ote zuen hark, eta jakintsuak hau erantzun zien: Kixmi jaio da! Gure arrazaren amaiera iritsi da! Gureak egin du! Eta, orduan, adineko hark amildegitik behera jaurtitzeko eskatu zuen. Horrela egin zuten, eta gainerako jentilek, hodeia atzetik zutela, korrika ihes egin zuten mendebaldera, eta Arraztaran bailarara iritsi zirenean, harri zabal baten azpian ezkutatu ziren. Harrezkero, harri hari Jentilarri esaten zaio; hots, *jentilen hilobia*. Elezaharrak dionez, horrela amaitu zen jentilen garaia». (J.M. Barandiaran.)

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Jentilarriko trikuharria

Barrualdetik begiratuta. Trikuharri hori euskal mitologiako lekurik esanguratsuenetako bat da. Elezahar bat oinarritzat hartuta, Euskal Herriko historia kulturaleko une gogoangarri bat dakar gogora. Jentil ospetsuen hilobia. «Elezaharrak dionez, behin batean jentilak Aralarko Argaintxabaletako lepoan jolasean ari zirela, ekialdetik hodei argitsu bat zetorrela ikusi zuten. Adineko jakintsu bati galdetu omen zioten zer adierazi nahi ote zuen hark, eta jakintsuak hau erantzun zien: Kixmi jaio da! Gure arrazaren amaiera iritsi da! Gureak egin du! Eta, orduan, adineko hark amildegitik behera jaurtitzeko eskatu zuen. Horrela egin zuten, eta gainerako jentilek, hodeia atzetik zutela, korrika ihes egin zuten mendebaldera, eta Arraztaran bailarara iritsi zirenean, harri zabal

baten azpian ezkutatu ziren. Harrezkero, harri hari Jentilarri esaten zaio; hots, *jentilen hilobia*. Elezaharrak dionez, horrela amaitu zen jentilen garaia»». (J.M. Barandiaran.)

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Albiko trikuharria

Albiko trikuharria.

Irudi erref.: www.mendikat.net . Andrés Lekuona.

BESTE ZENBAIT

Albiko trikuharria

Albiko trikuharria. Ohikoa zen trikuharrietara harriak botatzea otoitz bat bailitzan.

Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Artzabalgo trikuharria

Aralarko mendilerroan Trikuharri, Tregoarri eta Jentiletxe izena eman izan zaie, eta izen horiek euskal mitologiarekin lotzen dituzte estuki. Jesus Eloseguiren Euskal Herriko trikuharrien katalogoaren arabera, hogei inguru daude Gipuzkoan oso ongi zenbatuta eta deskribatuta, eta Nafarroan, berriz, berrogeita hamarren bat.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak tomo 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Seakoain II trikuharria

Seakoain II trikuharria

Irudi erref.: www.mendikat.net . Javier Urrutia.

BESTE ZENBAIT

Ausokoi trikuharria

Ausokoi trikuharria.

Irudi erref.: www.mendikat.net. Andrés Lekuona.

BESTE ZENBAIT

Trikuharri izeneko dolmena

Trikuharri izeneko dolmena, hondoan Desamendi dagoela.

Irudi erref.: www.mendikat.net. Andrés Lekuona.

BESTE ZENBAIT

Labeongo Punte (1.293 m)

Pardelutzeko iturria.

Irudi erref.: www.mendikat.net. Andrés Lekuona.

BESTE ZENBAIT

Ama Birjina Harria

Arritzagako sakana, bertatik pasatzen direnek ama birjinari opariak ematen dizkiete.

Amezketatik gorako bidean eta Pardelutzeko iturritik ez oso urrun, harkaitz bitxi bat dago eta artzainek *Ama Birjina Arriye* esaten diote.

Elezaharrak dionez, haitz horren gainean egun batez Ama Birjina agertu omen zitzaion Loidiko mutiko bati. Tximista baino azkarrago itzuli omen zen mutikoa baserrira gertakizun zoriontsuaren berri gurasoei ematera. Hauek, harritzekoa ez denez, ez omen zioten sinistu.

Itzuli omen zen mendira gure mutikoa, eta berriz ere hantxe omen zegoen Ama Birjina zain. Joan zen berriz ere lasterka gurasoengana ikusi zuenaren berri ematera, baina bigarrenean ere ez zioten sinistu. Gainera, ez sinisteaz gain, mendira berriz joatea debekatu zioten gurasoek.

Orduan, Ama Birjinak bere agerpenaren oroigarritzat, bere oinaren urrats bat utzi zuen harkaitzean. Geroztik, han barrena igarotzen diren ibiltariek San Migelerako eskupekoak hantxe oin urratsean uzteko ohitura dute. Gero erromesek eramaten dituzte santutegira.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak tomo 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Iturbeltzeko meatzeak

Iturbeltzeko burdina meatzeetako meatze ahoa.

Meatzaritza

Aralarko mendilerroan meatze lanen presentzia handia dago. Meatzeen aztarnak eta prospekzio galeriak ikus daitezke bertan, batik bat, inguruetan.

Horrelako jarduerak nabarmenago ikusten dira Arritzaga bailaran, mendilerroaren iparraldean, eta zehazkiago esanda, Buruntzusin paisaian aurki ditzakegu. Aralarko kobre meatzeak (Elósegui J.: 1976) 1735ean hasi ziren martxan, eta horien inguruan, azpiegitura oso handia jarri zuten martxan. Gaur egun, Buruntzusin inguruan ikus daiteke, batik bat, azpiegitura hori. Gaur egun irauten duten meatze galerietarako sarbidea arriskutsua da eta hobe da bertara ez sartzea oso egoera txarrean baitaude.

Meatze jardueraren beste hondar garrantzitsu batzuk daude Ataungo Domon, zehazkiago esanda, Itaundieta haitzetan, handik erauzten baitzuten galena.

Erref.. bibliografikoa eta grafikoa: El mundo subterráneo de Euskal Herria, págs. 230-237. Edit. Etor.

BESTE ZENBAIT

Meategien hondakinak. Arritzaga.

Meategiak

Lurpetik mea ateratzen jardun zireneko aztarna eta zulo asko daude Aralar mendilerroan. Lau meategi aipatzen ditugu hemen, era berezian, aspaldi egindako lanen aztarnarik gehienak horietan daudelako.

Arritzagako meategiak

Amezketatik gorantz Igaratza aldera igotzen diren mendizaleentzat oso ezagunak dira Arritzagako meategiak. Izan ere, ibilaldi honetan igaro beharreko mehargune sakonaren erdialdean baitaude.

XVIII. mendearen lehen erdian hasi ziren mea ateratzen. Bertatik, kobrezko mea (burdinoria) ateratzen zuten eta hirurehun meatzari lanean ari izaterainoko garrantzia lortu zuen.

Mea ateratzeko zulatutako bideak, irakurri dudanez, hiru kilometro luze ditu. Guztira 65 urtez iraun zuten bertako meatze lanak.

Mugardiko meategiak

Txemiñe mendiaren hegoaldeko hegalean daude, Mugardi izeneko tokian, Bustintza saroitik oso hurbil. Telesforo Arantzadi jaunaren idazkietan irakurri dudanez, pe edo pe-arria (kalamina) ateratzen omen zuten, baina ez du jartzen noiz hasi ziren lanean ezta zer-nolako garrantzi izan zuen ere.

Hondakin horiek ikusteko modukoak dira. Zakarki landutako harrizko aterpe askoren hondakinak ageri dira, gaina bera ere harrizkoa zutenak,

harrizko apalak mailaka, aulkiak ere harrizkoak... Barrura sartzeko zeharo zulo txikiak dituzte eta are txikiagoak leihoak.

Meatze horien ondoan, badira harri hutsez egindako hiru txabola, albo bakoitzean hiru metro luze dira eta lauki formako oina eta piramide egiturako gaina dute. Hiruretatik bik erori samartuak dauzkate gainak, eta hirugarrenak ia osorik dauka oraindik, belarrez eta goroldioz estalia. Arantzadi jaunaren arabera, l850. urte inguruan eginak omen dira. Bustintzako artzain bati ezagun batek erakutsi omen zizkion 1917. urte aldera, ezagun hura inguruko trikuharriak aurkitzen zebilela.

Pagabeko meategiak

Neure begiz ikusi ez ditudan arren, Arratebeltzako artzainak esan zidanez, Pagabe saroiaren ondoan antzina burdina ateratzen zuten mea zuloak omen daude, eta mea aztarna ugari omen dago inguruan.

Iturbeltzeko meategiak

Aurrekoak bezalaxe, hauek ere burdina meategiak ziren. Gainera, horien aztarnak jaso ditzakegu meategiaren barne bide eta zuloen inguruan.

Zaldibiatik Igaratzarako bidean daude, Ezkizuarren eta Doniturrieta Goikoa saroien arteko erdibidean.

Mea zuloen aurrean bi txabolaren hondakinak ageri dira. Artzainek diotenez, haietan bizi ziren mea gizonak. Txabola handienaren ondoan labea dago, kanpotik lauki formakoa eta barrutik biribila. Urteen joan-etorriaren ondorioz, zuhaitz bikain bat hazi da labearen barruan

Erref. bibliografikoa: Mendiak, tomo 2. José Zufiaurre Goya. (Parte del amplio trabajo del autor). Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

BESTE ZENBAIT

Aralarko aterpeak

Igaratzako aterpea (1233 m)

1927an Tolosan sortu zen *Aralarko Adiskideak* izeneko Elkartea, ehun adiskideren presidente Pantxo Labaien zutela. Eta hurrengo urtean zabaldu zuten Igaratzako aterpetxea; hain zuzen ere, lehengo mikelete etxearen hondakinen gainean, hantxe Errenagan Iturbetziturriaren ondoan, Ernara mendiaren sartaldeko hegalean.

Ondorengo urteetan gauzak hobetzen jarraitu zuten, aterpe erosoaz gain, elizatxo bat egin zuten eta, 1946ko irailaren 15ean bertan, Gipuzkoako Zaindari Arantzazuko Ama Birjinaren irudia bertan zutela bedeinkatu zuten. Gerora, *Igaratzako Jaietxea* deitzen dioten artzainen taberna ipini zuten, eta azkenik, edozeinentzako aterpe publikoa.

Harrezkero, igande eta jai egunetan hutsik gabe izaten da meza santua eguerdi aldean.

Orain inguruan badira beste mendi etxe txiki pribatu batzuk.

Desaoko aterpea

Bustintza taldearena da, beraiek eraiki baitzuten, talde horretako presidente Tomas Lopez Sellés mendizale nafar ospetsua zela. Bertako inaugurazioa, hainba ekitaldi eta guzti, 1945eko urriaren 21ean egin zuten.

Desamendi mendiaren hego aldeko hegalaren oinean dago, iturri eder eta oparoa hurbil duela.

Intzazelaira daraman bidearen inguruan ere partikular batzuk mendi etxe eta aterpe antzeko bat egin dute.

Aralarko Guardetxea (1040 m)

Guardetxe deitzen zaion Basozainaren etxe hori *Errege Sailen* barnean dago. Baso ederreko 2.190 lur-hektarea horiek garai batean Nafarroako Erregeenak izan ziren, gerora, ordea, Estatuak bereganatu zituen.

Baraibartik gorantz doan errepidea, bitan banatzen da Guardetxe honen parean: errepide batek San Migelera darama eta besteak Igaratzara.

Arruazu eta Lakuntzatik gorantz doan bidean ere antzekoa gertatzen da. Aipaturiko Errege Sail osoa hegotik iparrera zeharkatu ondoren, Mugardi mendi lepoan barna, Unagako zelaietara heltzen da. Beraz, bide garrantzitsuen bidegurutze nagusia denez, toki egoki eta ezin hobean dago. Horrela, bada, etxearen irudia hobetzeaz gain, ingurune oso atsegina sortzen da etxea inguratzen duen basoari esker.

Aspaldiko urteetatik bizi da bertan Jose Zufiaurre, basozain ezaguna eta, bere sendiaren laguntzari esker, belaunaldi askotako mendizaleei harrerarik onena egin izan die gizon horrek mendizaleak zerbaiten eske joan direnean. Gaur egun erretiratuta egon arren, baina aterpean beharrezkoa izateagatik, administrazioak tratu berezi bat eman dio eta aterpearen buru jarraitzen utzi dio. Bere ardurapeko barrutian gertatzen den guztiaren berri ongi jakiteaz gain, bertako zuhaiztiei buruzko ezaupide berezia du, urte askoz zaindu dituelako. Ez da erraza izango gizon horren hutsunea betetzea.

Zentzu onekoa, argia eta atsegina denez, ez da alferrikakoa izaten edozein une eta arazotan gizon honengana jotzea, jakin baitakigu txeratsu eta harrerarik jatorrenaz hartuko gaituela.

Erref. bibliografikoa: Patxi Ripa. Mendiak tomo 2. Edit. Etor.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

4.

BIDEAK

GAILURRETARA

Akierrera Madoztik

0 h 0' Madotz: Elizaren aurretik karrikan beherantz jo, Sartaldera, eta azkenean gurdibidea hartu, eskuinetara jarraitzeko harkaitz batzuei bira emanez. Berehala zelaigune bat dago eta bertan, eskuinetara, iturri bat.

Harresiz inguraturiko baratze baten aurrera iristean, ezkerretara doa bidea Sartalderantz, harresiaren ondoan. Pagadian sartzen da berehala eta han jarraitzen du bideak luzaroan, beti ere gorantz eta norabidea aldatu gabe.

0 h 36' Mendi-lepoa, eta aurrean garbigune zabala. Aurreraxeago, beherantz dute joera belardiek. Eskuinetara, zuhaitzez estalirik ageri da Akier mendiaren goialdea.

Jo eskuinetara gorantz, biderik gabeko zuhaiztian aurrera, beti ere gailurraren bila. Ez dago ez bide eta ez antzekorik, eta zenbat eta gorago orduan eta aldapago gertatzen da azkena.

0 h 51' Akier gailurra. Bertan txartel-kutxa bat dago.

Ikuspegia

Sortaldera, hurbil daukagun Iruaundiko Malkorra, eta urrutirago Erga eta Eltxumendi ageri dira. Sortaldetik Hegoaldera, Oskia eta Gaztelu gailurrak, Satrustegi menditzar luzatua eta Beriain ageri dira. Sartaldera, berriz, Artxueta eta Aralarko Mailoa.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Aldaonera Amezketatik

Aldaonera Pardeluts iturritik

0 h 0' Amezketatik abiatuta, Arritzagako sakanetik barrena Igaratzara igotzeko erabiltzen den bidean Pardeluts iturria dago.

2 h 15' Pardeluts iturria. Ezkerraldetik, Iparraldera, bailaratxo bat zabaltzen da. Harantz igo, irtengune txiki bat gainditu z aurrera doazen bidexka batzuetatik zehar. Bailararen behealdetik jarraitu, pixkanaka larreetatik gora eginez, haietan ageri diren igarobideetatik barrena. Tarteka saroiren baten ondotik pasako gara. Eskuinetara, hogeita hamar edo berrogei bat metro gorago, trikuharri baten arrasto moduko batzuk daude.

2 h 27' Bailaratxoaren amaiera. Bailararen erdian, sakonune leun baten erdigunean, bi mugarri daude, hareharrizko zaharra eta gaur egungoa. Jarraian eskuinetara igo Sortaldera joz, garbi markatuta dauden xendretan aurrera. Malda bortitza da, eta gorago ibarbide labur batean sartzen da.

2 h 41' Larrez estalitako eta hegal harritsuez inguratutako sakonune biribil batera helduko gara. Eskuinean, ez askoz gorago eta alde horretan dagoen harkaiztiaren gainean, kobazulo edo meategiko ataka bat dago. Ezkerretarantz igo, Iparraldera. Segituan saroi baten aldamenetik igaroko gara. Bertan igarobide bat dago, eta jarraian goiko aldera doan malda luze belartsu bat. Maldaren erdialdean, ezkerraldera okertu gune harritsu batetik barrena, goraino iristen den beste malda belartsu batera helduz.

2 h 55' Aldaoneko tontorra. Gurutze bat dago bertan, hildako mendizale baten oroigarri, eta ondoan txartel-kutxa.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Aldaonera Igaratzatik

0 h 0' Errenagako aterpea. Beste ibilaldietan bezala abiatu, baina sakonunea igaro ondoren, alboetako bideei jaramonik egin gabe, Iparrerantz jaitsi zuzenean Igaratzako zelaietara. Aurrez aurre, urrutira eta zertxobait eskuinetara, bi zuhaitz ageri dira zelai borobil baterako sarreran. Jo zuzenean haietara, haien ondoan eskuinetik igaro, gurutzatu berehala belardia eta zuzenean gorantz jo zulogune batetik igotzeko.

0 h 20' Mendi-bizkarraren gaina lortzean, sakonune bat ageri da aurrean: jarraitu beherantz bidezidor batetik sakonunea ezkerretik inguratzeko, eta berehala beste sakonune bat, zabalagoa, agertuko da; hori ere igaro ezkerreko ertzean aurrera. Gero, Iparralderantz jo: zuzenean malda belartsuan gora igo, gainak hartu arte; gainean alanbre-hesi bat dago gailurreria osoaren luzeran, amildegian erortzetik zaintzeko. Alanbre-hesiaren parez pare jarraitu ezkerretara edo Ipar-sartalderantz, gorabehera labur batzuk eginez, hesia gailurretik metro batzuetara igarotzen baita.

0 h 55' Aldaongo gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Allekora Lizarrustitik

0 h 0' Lizarrustiko gainetik Ataun aldera jaitsi, Gipuzkoako mugazainen etxeraino. Etxearen eskuinetik eta Nafarroako muga adierazten duen kartelaren ondotik bide bat irteten da, kartelaren atzetik langa batera iristen dena. Langa igaro eta hogei metrora, bidebanatze bat: hartu ezkerreko bidea, pagadian zehar eta aldaparik gabe jarraitzeko,

eskuinetara daukan harkaitz-horma luzearen ondotik aurrera. Bidea pintura-markez egoki seinaleztaturik dago.

0 h 14' Bidezidorren banatzea: seinaleei kasurik egin gabe, behera ezkerretik doana markatzen baitute, eskuineko bidezidorretik jarraitu: berrogei metrora beste bidebanatze bat dago, hor ere eskuinaldera jarraitu. Alde horretako mendi-maldan gorantz sigi-saga eginez, aldapa ederra gaindituko dugu.

0 h 25' Alleko mendi-lepoa: lipar batez aldapa bukatzen den pagadian dago. Jo ezkerretara zuhaiztian barrena. Aurrera joan ahala, galdu egiten da bidea, eta aldapa gogortu. Jarraitu aldapan gora, apur bat eskuinera eginez, zuhaiztitik irtetean bizkarrera iristeko. Hortik aurrerakoan, mendi-bizkarraren zabalera osoan lasai ibiliz igo gintezke, gailurra jo arte.

0 h 58' Alleko gailurra. Lurretik doi-doi nabarmentzen da txartel-kutxa.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Arastortzekogañera Ataundik

Aiztondo baserritik Irastortzekogañera

0 h 0' Ataundik Sortalderantz, Aitzarte auzoko baserrietara daraman errepide-adar bat irteten da. Ibilbidea hortik abiatu.

0 h 5' Arrabeta Etxea. Itxuraz behintzat hutsa, etxe hau aurrean ikusten den harrobira heldu baino lehen ezkerretara dago. Leku horretan errepidea utzi eta ezkerraldean behera doan bidea hartu, errekaraino jaisteko. Erreka igaro eta aldapa pikoan gora igo, pinudi baten ertzetik aurrera.

0 h 12' Aiztondo baserria. Etxearen atzetik doa bidea, ordekan aurrera jarraituz.

0 h 21' Ezkerretara txabola bat eta aurrerago bidegurutze bat: zuzenean erditik jo eta ehun metro aurrerago, eskuinera, gurdibide bat dago, eta horixe hartu behar dugu. Jarraitu aurrera eta, langa bat igarota, aldapan

gora jo. Berehala, bidebanatze bi aurkituko ditugu: zuzenean gora jarraitu bidezidor mehean aurrera, aldapa gogor eta luzea garaitzeko.

Bidezidor hori mendi-lepora igo baino dezente lehenago galtzen da, eta oteak agertzen dira: oteen eskuinetik igaro behar dugu. Elorri-hesi bat dator hurrena, zelai baten ixtura: ezkerretik inguratu.

0 h 51' Aizkoateko lepoa: mendi-lepo horretatik begiratura, gure ezkerretara Hego-sortaldera dagoen harkaitz-hormaren artetik, Arastortzekogaña ageri da nagusi.

Lepotik behera jo eta ezkerrera doan bidezidorra hartu, iratze edo garo artean aurrera. Goraxeago, pago baten ondotik igarotzean, ia antzemanezina gertatzen da bidezidorra: arreta osoz begiratu behar da, beraz, hegalera apur bat lerratuz maldan gora goazen bitartean. Harkaitzen oinera iritsi baino berrehun metro lehenago, ezkerretara jo. Une horretan, gailurreriaren gainean dagoen atakara daraman bidezidorra aurkitu: tontorren gainez gain joan, gailurretik oso hurbil dauden pagoetarantz. Pagoak igaro ondoren, haitz batzuen gainera igo; horien atzean leize bat dago, behean amildegira zabalik dagoena. Jarraitu zulo horren ezkerretik, eskuinetik joatea arriskutsua baita.

1 h 23' Arastortzekogaña gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Arastortzekogañera Ataundik

AITZARTE AUZOKO BASERRIETAN BARRENA, ARASTORTZEKOGAÑERA

0 h 0' Ataundik Sortalderantz abiatu, Aitzarte auzoko baserrietara daraman errepide-adarretik eta, herritik irtetean, itxura batean hutsik dagoen Arrabeta Etxea ezkerretara utzirik, aurrera jarraitu.

0 h 7' Errepidean aurrera, ezkerretara dauden harrobien ondotik igaro, arroila edo haitzarte estuan sartuz eta aldi berean aldapan gora ekinez.

Bidebanatze bi aurkituko ditugu aurrerago, biak ezkerrerantz. Bietan biderik zabalena jarraitu, hau da, eskuinekoa.

0 h 20' Beste bidebanatze bat: oraingoan, besteak ez bezala asfaltaturik dagoen ezkerreko bidetik jo. Bidea zehar-meharka doa gorantz, une batzuetan aldapa biziak igaroz, baserri batzuetara heldu arte. Goraxeago eta ezkerretara beste baserri batzuk daude; haietara jo behar dugu.

0 h 48' Intzeskantxillu baserria: horixe da azkenekoa. Etxearen eskuinetik jarraitu, berehala iturri-aska baten ondotik igaro eta hurrengo bidebanatzean eskuinekotik gora ekin.

0 h 53' Langa bat igaro eta bidezidorrak pinudi baten albotik gora jarraitzen du aldaparen erdiraino; pinudia atzera utzirik, bihurgune baten ondoren, aldapa biziagoan jarraitu.

1 h 06' Aizkoateko lepoa. Une horretatik gailurrera iritsi arte, aurreko ibilbidetik esan bezala jarraitu.

1 h 38' Arastortzekogaña: txartel-kutxa bat dago bertan.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Ausa Gaztelura Larraiztik

0 h 0' Igaratzara igotzeko ibilbidean adierazi dugun bide bera jarraituko dugu Larraiztik irten eta pista amaitu arte.

0 h 16' Pistaren amaiera. Gurdibideak jarraitzen du. Zuzenean bide horri jarraitu, mendi-maldan aurrera luzaro joanez.

0 h 24' Iturria, bide-ertzean ezkerretara. Bidean aurrerago, ate bat igaro eta igotzen hasi. Ibilbideak berdintsu dirau: igoaldi laburren bat eta, pagadian barrena goazen bitartean, bizpahiru errekatxo. Joanaldi luze eta leun baten ondoren, bihurgune batetik irtetean, errekatxo batetik eskuinera aldapan gora joko dugu, mendi-leporaino.

0 h 59' Errekontako mendi-lepoa. Ezkerretara pagadi bat dago. Pagadira heldu baino metro batzuk lehenago, aldaparen azkenean eskuinetara, iturri bat dago. Iparrerako norabidean, zuzenean gailurrera jo aldapa gogorrean aurrera. Harkaitzetara heldu aurretik, bidezidor bat aurkituko dugu, eta hura jarraituz, estugune batean gora joango gara gailurra jo arte.

1 h 12' Ausa Gaztelu gaina: mendi-tontorraren erdian antzinako gaztelu baten hondakinak daude. Albo batean txartel-kutxa dago.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Balerdira Amezketatik

Balerdira Arritzagatik eta Artubi gailurretik

Amezketatik eta Aitzeloko ertz harritsu eta gotorra gainditu arte, aurretik deskribatutako ibilbide bera erabiliko dugu.

1 h 25' Aitzeloko ertza gainditu bezain pronto begiz jotzen dira uharraren ertzaren parean ageri diren meatze-instalazioak.

Norabide horretatik behera doan bidezidorretik ez joan, meategiaren hondakinak igaro ondoren moztu egiten baita. Beraz, bihurguneraino doan ezkerreko bidea jarraitu, eta segidan hegal belartsutik igo. Han goian ikusten den bidera heldu aurretik, ezkerretara txabola batzuk ageri dira. Zuzenean haietara hurbildu.

1 h 34' Lukaseko txabolak Buruntzuzin zelaian. Txabolen atzean, horietatik nahikoa aparte eta eskuinera, iturri bat dago. Ezkerraldera, hegalaren aldamenean, barrakoi bat dago, aterpetxe pribatu gisa erabilia. Harantz jo eta aurrealdera hurbiltzean eskuinera hartu eta zelaigunearen amaieraraino joan. Jarraian, zuzenean igoerari ekin kanalaren behealdetik Astunaldeko leporaino, aurrez aurre dagoen malda piko eta luzea gainditu. Tarte horretan xendra edo biderik ez dago, baina belarrezko zorua egokia da eta zenbait igarobide ageri ditu.

2 h 4' Astunaldeko lepoa. Gainaldea zeharkatzen duen alanbre-hesi batek bi isurialdeak banatzen ditu. Aurkako aldetik bidezidor bat iristen da Azkarate, Gaintza eta inguru horietatik. Alanbre-hesia ez zeharkatu eta bidezidor horretan ez sartu, hobe baita alanbre-hesitik paraleloan ezkerretara gorantz jarraitzea, gainaldera heldu arte; han zulo zabal bat dago, ezkerretara joz inguratu behar dena.

2 h 11' Artubi gailurra. Bertan txartel-kutxa bat dago.

Balerdira joateko, zuloa inguratu beste aldera helduz eta, astoa medio alanbre-hesia gainditu ondoren, Sortalderantz jaitsi, muino osoaren gainetik behera doan xendraren arrastoari lotuz.

2 h 25' Mendi-lepo txikia, jaitsieraren amaieran. Norabide berean tontorrera daraman gailurreria erraz bat zeharkatzea besterik ez zaigu geratzen.

2 h 34' Balerdi tontorra. Bertan gurutze txiki bat dago, eta txartel-kutxa. Bailararen eta mendilerroaren Ipar-sortalde osoa menderatzen duen balkoi eder bat da, airean esekia; Mailoak ere ikus daitezke, beren handitasunean.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Belokira Pagomaritik

0 h 0' Pagomaritik abiatzean, Txamenira igotzekoan bezala, aterpetxea, ur-biltegi txikia eta txabola-hondakinak igaro ostean belardi batzuetatik Iparraldera jarraitu, maldan zehar. Ongi zehaztu gabeko bidezidorrari jarraitu; une harritsuetan garbiago ageri da bidea. Harkaitzetan aurrera igaro ondoren, jaitsi zulogune zabal eta belartsu batera, eskuineko maldan aurrera.

0 h 12' Zulogunea igaro ondoren, Unagako belardietara sartuko gara. Haietatik behera jo, Sortalderantz eta eskuinetara, sakonean doan errekaren ondoan baitoa bidezidorra.

0 h 30' Unagako putzua. Ezkerretako zulogunean dago isurbidea, eta han sartzen da erreka. Eskuinetara edo Sortalderako norabidean, bidezidor bi doaz: hartu eskuinekoa eta jarraitu belardietatik gainez gain Beloki aldera; jomuga Hego-sartaldera dagoen gailur biribil eta belarduna da. Bidezidorra harantz doa, eta tarteka Land Rover autoen urratsak ageri dira.

0 h 47' Mugardiko lepoa Belokiren oinean dago. Jo zuzenean goialdera. Batzuetan bidezidor-aztarnak ageri dira. Goialdean harkaitza agerian dauka zati batean, eta haren parez pare joan ezkerretara, bizkarra lortu arte. Bizkar horren gainean jarraitu berehala gailurrera iristeko.

0 h 59' Beloki gailurra. Txartel-kutxa bat dago.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Ganboara Amezketatik

Ganboara Pardeluts iturritik

Amezketatik abiatuta Pardeluts iturriraino, aurrez adierazitako ibilbidea erabili behar da Amezketatik aterpetxeetara eta Igaratzako baselizara igotzeko.

2 h 15' Pardeluts iturria. Gorago, eskuinaldera nahikoa aparte, Pardelusko txabolak ikus daitezke Hego-sartaldera. Zuzenean haietara joan, harantz doazen bidexketatik. Behin txabolak atzean utzita, zuzenean jo aurrean dagoen malda belartsu baterantz, apur bat eskuinera egiten duena, inolako xendra edo arrastori lotu gabe. Behin aldapa igota, ezkerraldera egin, Hegoaldeko norabidean, lepo txiki batean paratu arte; handik beste isurialdea ikusten da jada. Hortik gailurrera iristeko, bertan amaitzen den korridore belartsutik gora egin.

2 h 50' Ganboa gailurra, eta bertan dagoen txartel-kutxa.

Ikuspegia

Ikuspegia bikaina da norabide guztietan. Iparraldetik Sortaldera, ikusgai daude Ernioko mendikatea, Uzturre, Aiako Harria eta Larrun. Hurbilago, Adarra, Zaburu, Azketa, Unamuno, Mandoegi eta Urepel gainek osatutako mendikatea. Eguraldia garbi dagoenean, Pirinioetako tontorrak ere ikus daitezke.

Hegoaldera, nabarmen ageri dira Artxueta eta Beriain (San Donato), Urbasa, Kodesko eta Kantabriako mendilerroak eta aldian behin, oso urruti, Moncayo eta Larre edo San Lorenzo (Salontxo).

Mendebaldera, Aizkorri mendilerroak bere soslaia erakusten du handi-handi. Haren eskuinera, Gorostiaga eta Arrolamendi. Urrunago, mendi horien atzean, Durangaldea eta Gorbeia. Kostalde edo Iparraldera, Irimo, Izazpe, Usurbe, Murumendi eta Izarraitz. Ingurumarietan, berriz, Uarrain, Txindoki, Uakorri, Aldaon, Irumugarrieta, Arritzagako trokartea eta Alotzako zelaiak, Igaratza eta abar.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Ganboara Igaratzatik

0 h 0' Errenagako aterpetxeak. Aurreko ibilbidean Uarrainera joateko adierazi dugun bide bera egin, lehen aipatu estugunearen eta Irazustako leporako igoera abiatzen den puntuaren artean dagoen gune batera heldu arte.

0 h 43' Bidezidorra beherantz abiatzen denean eta harkaitz artean sartu baino lehentxeago, hura utzi eta eskuinerantz irten. Ganboa mendiaren horma-bularra jarraituz, belar arteko urratsetan aurrera egin.

0 h 47' Horma-bularraren oinera iristean, sakonune txiki bat, bi saroi babes hartzen dituena, ezkerretara utzi. Jo eskuinera, hartu bidezidor garbi bat eta jarraitu sakan zabal batera arte: hortik ederki ageri da aurrean Ganboa gailurra. Sakana bere ezkerreko maldan gora eginez gainditu, bidezidorrari gaineraino jarraituz; hortik aurrerakoan, bidexka ia galdu egiten da. Ipar-sartalderako norabidean, zuzenean tarte belartsu

estu batetik aldapa pikoa igo, gainean lepo txiki batera irteteko. Tarte belartsuan gora egin, gaina lortu arte.

1 h 21' Ganboa gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Ganboara Larraiztik

0 h 0' Larraiztik abiatzean, Igaratzara joateko bide bera egin, lehen adierazi dugunez.

2 h 0' Irazustako Lepoa. Ezkerretara Uarrain, eskuinetara Ganbo-txiki. Azken horretarantz igo, aurrean dagoen sakonaren gainean ageri den estugune belartsuan sartu, eskuinetara dagoen harkaitzera atereaz.

Ganboaren eskuinetara edo Sartaldeko maldan ageri den lepora igo, maldan gora zeharka. Lepora iristean, jo ezkerretara, belardi aldapatsuan gora gaineraino jarraituz.

2 h 24' Ganboa gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Igaratzara Amezketatik

Igaratzara Arritzaga eta Pardelustik

0 h 0' Amezketako elizaren eskuinaldetik errepide bat abiatzen da, gertuko baserri baten parean Loidi errekaren gainetik igarotzen dena. Landan barrena aldapa bat igotzen du, hilerria eskuinetara utziz. Aurreneko bihurgunean bidebanatze bat ageri zaigu, eta hor eskuinaldera joko dugu, baina hirurogei metro inguruz bakarrik, ondoren ezkerraldean ageri den gurdibidea hartzeko. Errepidea utzi eta ezkerretara, Sortaldetik sigi-saga doan bide horretatik gora egin.

0 h 12' Espilla-saletxe baserria, Pernando Amezketarra ospetsuaren bizileku izandakoa, bidearen ondo-ondoan dago, ezkerretara. Segidan doan zatian, banaka eta antzeko tarteaz ageri dira bidebanatze bat (ezkerretik jo), bidegurutze bat (zuzen jarraitu erdialdekotik) eta beste bidebanatze bat (eskuinetara jaisten den bidezidorrari ez diogu erreparatuko).

0 h 29' Hogei bat metro aurrerago, beste bidebanatze bat ageri da. Bidebanatze bietan, ezkerreko bideari lotu. Bidea orain mendi-hegaletik zeharka doa, pixka bat behera eginez.

0 h 35' Errekastoa. Gurutzatu eta behin beste aldean, aurrean ageri den lasterbidetik igo, pixka bat goraxeago bidera irten eta handik gora egin, eskuinetara malda pikoa igoz. Gorago, Saltarriko monolitoaren azpitik pasako gara; bideak monolitoaren behealdeko harridia zeharkatzen du.

0 h 48' Anduizko txabola eta zelaia, bidearen eskuinaldera. Hura garaiera irabaziz doa, tarte batez norabide berari eutsiz, harik eta Akeloko bihurgunera iritsita arrokan bertan irekitako sigi-saga laburretan gora egiten duen arte. Aurrez aurreko isurialdean Bisutsa ur-jauzi luzexka, euri-aroan ikusgarria, begiztatuko dugu. Ondoren, bideak zeharka jarraitzen du, sakanean barrena, turrusta bisdunaren gainetik eta ur-lasterraren kontra.

1 h 25' Aitzeloko ertz harritsua gainditzearekin bat, errekastoaren ertzean parez pare ageri diren meatze-instalazioen hondarrak ditugu ikusgai.

Norabide horretan behera doan bidezidorretik ez joan, hondakinen ondoren moztu egiten baita. Bihurguneraino doan ezkerreko bidetik jarraitu, eta segidan hegal belartsutik igo, gorago ikusten den bidera heldu arte. Bideak harrizko beste kontrahorma bat inguratzen du, eta txabola pare baten ondotik igarotzen da. Jarraian, arinki behera egiten du; ezkerretara, zulogune batean, Bokarteko iturburua dago.

1 h 49' Arritzagako txabolak. Leku horretan, zubi txiki batetik errekastoa gurutzatu. Beste ertzean, bidea luze eta erraz doa.

2 h 15' Pardeluts iturria. Goian, nahikoa aparte eta eskuinetara, saroiko txabolak daude. Ibilaldiari ekin bailaratxoaren behealdetik doan xendratik barrena.

2 h 29' Amabirjin Harria, bidearen aldamenean eskuinetara dagoen kareharrizko blokea. Justu igarobidearen azpian, harriaren zulogune batean, irudi txiki bat dago. Bidezidorrak zailtasunik gabe aurrera egiten du, Igaratzako belardietara ematen duen abelbidetik barrena pixkanaka altuera irabaziz.

2 h 43' Argibide-zutoina. Gaur egun herdoildu samarra, oraindik ere Irumugarrietara eta Errenagako (Igaratza) aterpetxeetara joateko argibideak irakur daitezke. Zelaitik barrena pixka bat eskuinera Hegoaldeko norabidean doan bideari lotu. Bideak pixkanaka gora egiten du ibarbide leun batetik, eta eskuinaldetik sortzen den Ganboarako bidearekin topo egiten du. Segidan bidebanatze bat dago, eta zuzenean eskuinetik jarraituko dugu, ezkerretara gora doan bideari erreparatu gabe, eta metro batzuk aurrerago dagoen pasagunea gainditzeko unean Errenagako (Igaratza) aterpetxeetako bat ageri zaigu aurrean.

2 h 55' Igaratzako aterpetxeak eta baseliza. Bidearen alde batean, bi aterpetxeen artean, iturri bat dago.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Igaratzara Guardetxetik

GUARDETXETIK ERRENAGAKO (IGARATZA) ATERPETXEETARA

0 h 0' Guardetxe ezagunetik abiatzean, atzean daukan aparkalekuaren ondotik irteten den pista hartu, Ipar-sartalderantz igotzeko. Bai aldapa luze eta pikoa igarotzean eta bai Errege Sailetako pagadian barrena zehar-ibiliak eginez doanean, beti pista nagusian aurrera jarraitu. Eulatz mendiaren maldetan zehar joan ondoren, poliki-poliki Pagomari dagoen sakaneko garbigunera jaitsi.

0 h 34' Pagomari. Hemen eskuinetara ordeka artifizial bat dago, harrizko horma gainean zamaleku gisa egina eta gaur aparkaleku gisa darabiltena. Ezkerretara jotzen duen pistari jaramonik egiteke, jarraitu zuzenean Ipar-sartaldera igotzen. Aldapa gainditu ondoren, pagadi zabalean zehar gorantz jarraitzen du pistak. Pago bakan batzuk dituen garbigune txiki bat igaro eta berehala, haitz batzuen artetik behera jarraitu, eta aurrerago basotik zeharo irten. Eskuinetara urrutitxo dagoen txabola utzi eta pistak gorantz jarraitzen du.

0 h 57' Zelaigune batean, bidebanatzea: ezkerrekoari jarraituz, gorantz jo. Aurrerakoan, ezkerrerako joera darama bideak, berehala mendixka baten bizkarrean ataka bat aurkitu arte: hor ageri dira aterpetxeak, eta haietara heltzeko maldan behera jo behar da.

1 h 5' Errenagako (Igaratza) aterpetxeak eta baseliza.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Igaratzara Larraiztik

Igaratzara Alotzatik eta Irazustako lepotik

0 h 0' Larraizko ostatutik zuzenean Txindokiren oinarrira doan pista bat abiatzen da. Metalezko ate batetik igaro bezain laster, eskuinera egin eta diagonaletik joan, mendi-hegala Hego-sartaldera gurutzatuz. Pistan dezente aurrera egin ostean, bide bat agertzen da ezkerretara. Nahi izanez gero bide hori har daiteke, baina erosoagoa da bihurgune bat igarota berrehun metro geroago amaitzen den pistatik jarraitzea.

0 h 16' Pista amaitzean, gurdibidea dugu. Bide hori hortxe bertan utzi eta ezkerraldetik abiatzen den xendratik igo; xendra horrek ezkerraldetik datorren beste batera darama, goraxeago. Xendran, ezkerraldera doazen bidebanatze pare bat ageri dira: lasterbideak baino ez dira, paraje horretan bideak altuera azkar irabazten baitu sigi-saga eginez. Jarraian, Hegoaldera doa zeharka, eta ibilbidean alanbre-hesi bat topatzen du, eskailera landugabe batez gainditzen dena.

0 h 49' Oria iturria bidearen ertzeko bihurgune batean dago. Bidea eskuin hegalerantz zabaltzen da, eta han altuera irabazten du sigi-saga eginez.

1 h 03' Ataka zerrenda harritsuan. Behean, eskuinera pixka bat aparte, Ziate-bekoako txabolak daude. Bidezidorretik igo goraxeago dagoen Ziate-goikoako txabolaren saroira heldu arte. Leku horretan, bidezidorra utzi eta eskuinetik muinoa inguratuz doan bide belartsua hartu. Zelaiak begiztatzean, beherago, eskuinera, Elutsetaneko txabolak ikusiko ditugu. Jarraian, bidezidorra sakanaren hegal pixka bat makurtuan hedatzen diren larre bigunetatik zehar doa.

1 h 30' Sakonunearen amaieran lauburu handi bat dago, mendizale baten oroimenez.

Ezkerretara jarraitu kanal itxurako sakonune estu baina luzanga batetik paraleloan doan bidezidorretik. Sakonunearen bukaerara iritsita, eskuinaldera bira egin, eta luze gabe iturri-aska pare batekin topo egingo duzu.

1 h 39' Alotzako iturria, eskuinaldeko bazter batean jariatzen duena, aska ñimiñoa da, eta ura bi hoditatik ateratzen da. Ondoan, zelaigune batean,

orientazio-mahai bat dago. Apur bat lohitsua den paraje bat gurutzatu eta Hego-sortaldeko norabidean jarraitu, zelai artean pixka bat gora eginez, harri batzuk dauden gune baterantz. Bidea harrien artetik doa, jarraian tapiza bezain dotore ageri den Alotzako belardi zabal eta laua gurutzatuz, Uarrainen oinera heldu arte. Mendi horren azpiko hegaletik, bidea gorantz abiatzen da, ezkerretara dezenteko zulogunea utziz.

2 h 0' Irazustako lepoa, eskuinera Uarrain eta ezkerrera Ganbo-txiki dituela. Orain xendrak behera egiten du, ezkerretara dauden sakonune batzuk saihestuz, eta gero Hego-sortaldera jarraitzen du, Pardarri mendiaren sartaldeko belardi maldatsuetan barrena. Tarte horretan mugarri ugari dago bide egokia erakusteko, eta aurrerago, lipar batez, xendra paraje harritsu karstiko batean sartzen da, hura gurutzatuz.

2 h 30' Paraje hori igaro bezain pronto, txabola baten hondakinen ondotik pasako gara. Jarraian, muino uhintsu eta belarkaretatik emeki-emeki behera doa bidea, pista batekin topo egin arte; hura hartuko dugu, ezkerretara joz. Sakan bat gainditu eta muino txiki bat inguratu ondoren, Igaratzako zelaietatik datorren bidea topatuko dugu. Jarraian bidebanatze bat dator: zuzen jarraitu, ezkerretara gora egiten duen bideari erreparatu gabe. Gertuko pasabide aldera jotzean, lehenengo aterpetxea begiztatuko dugu.

2 h 51' Errenagako (Igaratza) aterpetxeak eta baseliza.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Igaratzara Lizarrustitik

PUTTARRI LEPOAN ZEHAR, IGARATZARA

0 h 0' Lizarrustiko gaina: errepidean kilometro batez Arbizu aldera jaitsi.

0 h 9' Errepideak bihurgune handi bat daukan tokian eta errekaren ondoan etxe batzuk daude; eskuinekoa da luzeena, eta itxura batean hutsik dago: haren eskuinetik bidezidor bat abiatzen da, belardi bat igaro ondoren eta gorago, hain zuzen ere etxeak baino beherago errepidetik irteten den pistari lotzeko. Pista txarrantxa-hesiz eta burdinazko atez

itxita dago: ezkerretara dagoen mailadiaz gaindituko dugu hesia. Jarraitu pagadian gora, pagoetako ikurrak lagungarri direla. Lehenengo bidebanatzean jarraitu zuzenean, ezkerretara doana utzirik.

0 h 41' Alanbre-hesia eta ate bat daude berehala: igaro ahal izateko, ezkerretara zurezko mailadi bat dago pago baten ondoan. Bertan, alanbre-hesiaren parez pare, beste pista bat doa ezkerretara: ez egin jaramonik eta gorantz jarraitu alanbre-hesiz bestaldera, bidebanatzera heldu arte. Hor ere eskuinekoa hartu eta aldapa bortitzean gora jarraitu.

1 h 2' Beste bidebanatze bat: seinale berriek eskuinetara adierazten duten arren, harantz ez joan, Puttarri gailurrera baitaramate. Jo ezkerrera, une batez behera eta berehala zuzenean gora eginez pagadian barrena, aldapa handirik gabe.

1 h 18' Puttarriko mendi-lepoa. Hareharrizko mugarri bat dago eskuinetara: Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugarria da.

Lepoaz bestaldera beherantz doan bidezidorrari jarraitu, hain zuzen ere ezkerretara; berrehun metro aurrerago, bidezidorrak banatzen diren gunean, ezkerrekoan jarraitu. Xendrak aldapa handirik gabe jarraitzen du maldan zehar eta, pagaditik irtetean, mendi-lepo txiki batera igotzen da: pago bi daude hor. Zulo eta harkaitz batzuk ezkerretara utzita, jarraitu maldan zehar: txabola batzuk ageri dira.

1 h 37' Ormazarretako iturria. Zulo artifizial batean dago. Ezkerretara, iturriaren parez pare, txabola batzuk daude. Bidezidorrean aurrera, azkeneko txabolaren gainera iristean, harantz jaitsi, eta haren ondoan eskuinetara haitz artean doan bideari jarraitu. Pintura-seinaleak badaude. Alde horretako belardietara irtetean, nabari dira bidezidorraren urratsak, zenbaitetan oso garbi ez bada ere. Iparrerako norabidean eskuinetara jotzen du une batez, belardien erdian aurrera pago batzuk dauden tokira iristeko. Pagoen ondotik igarotzean, nabarmen ageri da bidezidorra: beste isurialdera igarotzen da hemen, ezkerretara. Bertatik aterpetxe batzuk begiztatzen dira, eta bidea haietara doa, emeki-emeki beherantz eginez.

1 h 56' Errenagako (Igaratza) aterpetxeak eta baseliza.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Intzako dorrera Igaratzatik

0 h 0' Errenagako aterpetxeak. Hortik abiatu eta, aurrekoan bezala, zuzenean Igaratzako belardietara jaitsi, eta hantxe erdian bidezidor bat dago: Sortalderantz aurrera jo.

Berrehunen bat metro gorantz egitean, ezkerretik datorren bidezidorra hartu, Iparraldera mendi-hegalean gora jarraituz, Aldaonerako ibilbidean aipatu dugun zelai biribila ezkerretara utzita.

0 h 21' Bizkarra lortzean, gainez gain jarraitu, eskuinera: berehala agertuko da bidezidorra; askotan harkaitzen artean aurrera doa eta pintura-seinalez ongi markatuta dago.

Galbiderik gabe, jarraitu bidezidorra, gora eginez eta ezker-eskuin albo bietara dauden sakonuneak atzera utzita. Bideak azken maldan gora egiten du Ipar-sortaldera, aldapa pikoa igoz goietako alanbre-hesia jo arte. Gurutzatu bestaldera, seinaleek adierazi bezala, eta jarraitu gailurrera, baina ezkerretara gehiegi alderatu gabe, amildegia baitago.

0 h 42' Irumugarrieta gailurra. Herri-lurren erpin geodesikoa zehazten duen mugarria; aldamenean txartel-kutxa eta haize-orratz txiki bat daude.

Ikuspegia

Gipuzkoako itsasaldeko mendien gainera zabaltzen da ikuspegi ederra: Ernio eta Uzturre ageri dira nabarmen; baita Adarra, Zaburu, Azketa, Unamuno, Mandoegi, Urepel eta Altzadi ere, mendilerro eginik. Urrutirago, Aiako Harria eta Larraun. Sortaldera, Nafarroako Ipar-sartaldeko mendirik gehienak, Auñamendi bera ere barne. Hegoaldera, berriz, Beriain haitza (San Donato), Andimendi, eta atzean, doi-doi ageri direlarik, Joar, Kodes eta Kantabriako Mailoa. Sartaldera, Aizkorri ageri da.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Iruaundiko Malkorrera Oderiztik

0 h 0' Oderitz: herrixkako enparantzatik Sortaldera begira, muino harkaiztsu bat ageri da, bere oinean pista bat daukana, Iparrerako jarreran. Pista horretan aurrera abiatu, ehun metro egin ondoren irten eskuinetara bidezidor batean gora jotzeko eta, harkaitzetara heldu baino lehen, gurdibide batean sartu, eskuinetara jarraituz.

Gurdibideari lotuz, sartu pagadian eta, sakonunean aurrera eginez, mendia gainditu. Joanean bidea lausotuz doa, erabat galdu arte.

0 h 35' Bidea amaitu edo galdu denean, ezkerretara jo Sortalderantz, hegal aldapatsuan gora harkaitzei ihes eginez, gainera, orbelez estalitako ordekatxo batera iristeko. Aurrean, garbigune batean, harkaitz batzuk ageri dira: jo haietara.

0 h 53' Harkaitzetara iristean, gailurrean gaudela dirudi, baina ez da hala. Sortalderantz jarraitu, eta hurbil daukagun bizkarreraino igo: horixe da gaina. Pagoz estalia dago eta bertan txartel-kutxa dago.

1 h 0' Iruaundiko malkorra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Madalenaitzera Uharte Arakildik

MURGINDUETATIK MADALENAITZERA

Ibilaldi honi ekiteko, Irañeta dugu abialeku; herria Altsasutik Irurtzunerako bidean ezkerretara dago, Uharte Arakilen segidan.

Irañetatik kanpora, herriaren eta errepide nagusiaren artean Sortaldera beste errepide bat doa, bigarren mailakoa, gaur ia hutsik dagoen Murgindueta auzora daramana.

0 h 0' Auzoaren eskuineko bidean behera abiatu, ibaiaren ertzetik ordekan aurrera jarraituz.

0 h 11' Arakil ibai gaineko zubia. Ibaia igaro ondoren, bidea utzi eta zuzenean mendirantz jo, belardietan gora eta eskuinalderako norabidean. Zuhaiztian sartzean, gurdibide bat hartu; hura, baina, berehala galtzen da basoan. Bidezidor batzuen aztarnak jarraituz, aldapa biziagoan gora jo.

Eroritako alanbre-hesi txarrantxadun baten aztarnak igaro eta berehala, zuhaitz gutxiko ordekatxoa dator; norabidea aldatu eskuinetara eta Sortalderantz igo, gero eta aldapa-tarte gogorragoak gainditzuz zuhaitz eta sastraken artean aurrera, baina ezkerretako haitz-hormara hurbildu gabe, han amildegia handia delako. Sastraken artean dauden igarobideak jarraitu, hemen agertu eta han galdu egiten badira ere. Maldaren erdialdera, bidea eskuinera dauden harkaitz batzuen eta zulo baten ondotik igarotzen da.

Aldapa-une bat gainditzean, bidea eskuinetara irteten da, harkaitz batean gorantz eginez. Malda gainditu ondoren, apur bat jaitsi ezkerretara, aurreko haitz-hormari bere oinean bira emanez: harresiaren kontra dagoen harri zabal baten azpitik igaroko gara. Jo zuzenean beherantz, kareharrizko harresiaren erdian dagoen zulo handira, zulo horretatik beste aldera pasa ahal izango baikara.

1 h 13' Atzamarka edo lau oinean, zulo handiaren barnean lauzpabost metro igo ezkerreko haitzean gora, jarraitu aurrera eta beste bi metro ere atzamarka egin, zulotik irteteko.

Jarraitu eskuinetara igarobide estuan aurrera, hurrena ezkerretara igoz. Sastraken artean urrats batzuk aurkitu behar dira, haietan barrena jarraitzeko.

Behin sastraketan sartuta, haien artean igarotzeko unerik egokienak aurkitu behar dira; beti gailurrerantz jarraituz, harkaitzak inguratu eta aldapatxoa gainditu. Gailurrera hurbiltzean, hilagoa da aldapa; berehala garbigune belartsu batera irten, eta metro batzuk igarota ezkerretara daukagun toki harritsura helduko gara. Horixe da gaina.

1 h 38' Madalenaitz gaina harritsua da eta bertan ez dago mendigoizaleentzat ez txartel-kutxarik eta ez beste ezer berezirik.

Itzulera ziurtasunez eta arriskurik gabe egin ahal izateko oso erraza baita alderdi honetan galdurik gertatzea beharrezkoa da gorakoan argi ibiltzea, batez ere, harkaitz-zulo handitik aurrerakoan. Horretarako lagungarria

izan daiteke, batez ere zulotik gorako toki belartsuak igarotzean, seinale batzuk ipintzea: egunkari-pusketak, plastikozko zerrendak eta abar. Izan ere, horixe da zulora zuzen iristeko bide bakarra, eta bertara heldu arte ez da ikusten.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Pardarrira Igaratzatik

0 h 0' Errenagatik abiatu eta Beaskingo txabolak dauden inguruko bidebanatzera arte, lehen esandako eran joan.

0 h 12' Pistaren eskuinetik bidezidor bat irteten da: bertan gorantz ekin, eta mendi-bizkarreko aldapa gainditzean hura utzi eta eskuinera jarraitu, zeharka gora eginez gaina hartu arte. Gainez gain jarraitu, Pardarri mendiaren oinerantz. Hurbiltzean, eskuinetara jo, malda belartsuan gora eginez goietako harkaitzetara iristeko.

Maldaren gainera iristean, ez igo zuzenean gailurrera, toki oso aldapatsua delako eta gailurra urrutiegi dagoelako. Eskuinaldetik igo berrehun bat metroz, emeki-emeki gora doazen bidezidorrei lotuz. Bihurgune harritsu bat igarotzean, bide garbia ageri da eta zuzenean doa gailurra dirudien gunera.

Gailurrera jo, baina lepotxo batera heltzean, bidezidor bat jarraitu eskuinetara, goiko harresiaren hegaletik aurrera, gaineraino iristeko. Gainak hartzean, Ipar-sartalderantz jarraitu behar da gailurrera iristeko.

0 h 53' Pardarri gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Pardarrira Larraiztik

0 h 0' Larraiztik abiatuta, Irazustako lepora igo, aurrez adierazi dugunez.

2 h 0' Bidezidorrean beherantz jo Uarrainen Sortaldeko hegaletik doan bidetik, sakonune edo zulo handi batzuk ezkerrera utzita.

2 h 8' Jaitsiera amaitzean eta azkeneko sakonunea igarota, utzi bidezidorra eta igo eskuinetara. Igarobidea markaturik dago belar artean.

2 h 12' Ezkerretara dagoen sakanean bi saroi daude. Eskuinera jo eta Hego-sartalderantz aldapan gora jarraitu, gailurrari begira. Bide edo xendraren arrastorik ez dagoelarik, aldapa ertainekiko zelai uhintsuetan barrena jarraitu.

2 h 34' Pardarri gailurra. Txartel-kutxa dago bertan.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Puttarrira Igaratzatik

0 h 0' Errenagako aterpetxeak. Baselizaren aurrean igaro eta Hegoaldera dagoen bihurgunerantz jaitsi. Bihurgunearen ondoren eta igotzen hastean, bidebanatze batetik hiru bide irteten dira: hartu eskuinekoa eta maldan gora sartu pagadian. Handik irtetean, belardi batzuk: haietan barrena ezkerrera jaitsi. Belar artean ageri diren bidezidor-aztarnak jarraituz, alderdi horretan dagoen zulogunera jaitsi: harkaitz batzuk ageri dira; horiek ezkerretik saihestu, edo han bertan dagoen korridore batetik, eta txabola batera helduko gara. Aurreko bidezidorrean gora, eskuinetara jo.

0 h 19' Ormazarretako iturria zulo artifizial batean babesturik dago.

Eskuinaldean daude izen bereko txabolak. Jarraitu norabide berean, bi pago ageri diren lepora igo arte. Argi ibili behar dugu hemen, belar artean doi-doi ageri diren urratsak ez galtzeko. Maldaren erdiraino jaitsi, ezkerretara zeharkatuz eta pagadi aldera joz. Hor bide garbia agertzen da ostera. Une batez behera jo beste bide bat aurkitu arte, eta han eskuinetara jarraitu aldapan gora.

0 h 28' Lepoa. Hareharrizko mugarri bat dago ezkerretara. Hemen bidea utzi eta ezkerretara jo biderik gabe lasai, goraxeago daukagun harkaitza gainditu edo bestela hura inguratuz. Goian dagoen pistaren alboan pintura-seinaleak daude pagoetan; horiei jarraituz, azkeneko mendi-hormara helduko gara. Ezkerretara jo eta harkaitzen artean gora eginez gaina hartuko dugu.

0 h 40' Puttarri gaina.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Puttarrira Lizarrustitik

0 h 0' Lizarrustiko mendatea. Laugarren bidebanatzera heldu arte, aurreko ibilbide bera jarraitu behar dugu.

1 h 2' Puttarriko gailurrera igo ahal izateko, pintura-seinaleak jarraituz eskuineko pistan gorantz jo behar dugu. Zenbat eta gorago igo, orduan eta arinagoa da aldapa.

1 h 18' Puttarriko mendi-lepoa pagoz estalia dago. Utzi pista eta hartu xendra bat eskuinetara, hura jarraituz oin harritsura joateko. Hurbiltzean, xendrak metro batzuez eskuinera egiten du, haitz artean igarobidea aurkitu arte: hor ederki nabari da azken maldan gora gailurrera heltzen den bidezidorra.

1 h 26' Puttarri gailura. Bertan txartel-kutxa dago.

Ikuspegia

Iparrera eta Sartaldera begira, Aralar mendiko tontor bereizgarrienak ageri dira, ikuspegi ederra eskainiz. Hegotik Sartaldera, berriz, Beriain (San Donato) ageri da lehenik, eta Andimendi eta Urbasa mendilerroak hurrena. Horien atzean urrutirago, Joar, Kodes eta Kantabria mendilerroak ageri dira. Sartaldera, Lizarrusti mendatetik aurrera, Altzania eta Aizkorri mendilerroak ageri zaizkigu. Horien eskuinetara, berriz, Gorostiaga, Arrolamendi, Irimo eta Izazpe, eta atzean urrutira doi-doi nabari dira Durangaldea eta Gorbeia.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Sarastarrira Ataundik

0 h 0' Ataundik aurreko ibilbidean aipatu asfaltozko errepidea abiatzen den hirugarren bidebanatzera bitartean, adierazitako bideari lotu.

0 h 20' Eskuineko basabidea jarraitu, hasieran zuhaitz artean gora doana. Bihurgune baten ondoren, eskuinera bira egin eta aldapa pikoa gainditu bezain laster, belardira agertuko gara. Maldan gora jarraitu baserri baten ondotik pasaz, beste bidebanatze bat jo arte. Ezkerretara joatean, Aitzio baserria eskuinera utzita jarraituko dugu. Goraxeago beste bidebanatze bat dago.

0 h 48' Bidebanatzean bertan errotarriaren antzeko harri borobil bat dago, non honakoa idatzirik baitago: Camino forestal de Aitzarte P.F.E.

Ezkerretara doan basabidea hartu; bidea tarte luze batez maldan gora doa muino uhintsuak inguratuz.

1 h 16' Antzeko beste bidebanatze bat: jarraitu eskuinekotik.

1 h 25' Beste bidebanatze bat: jo ezkerrekoan aurrera, mendi-hegaletik zehar jarraituz.

1 h 33' Pistaren eskuinetara, eremu txiki batean lurra bete da, bazterbide itxurako zelaigune bat moldatuz. Leku horretatik oharkabean igaroko bagina ere, berrehun metro aurrerago amaitzen da bidea. Jarraian bi bide

ageri dira: horiek ez hartu, aurreraxeago itxita baitaude. Ostera zabalgunera bihurtzea da onena.

Pista hemen utzi eta ezkerretako bidezidorra hartu, pinudian sartzeko. Aldapa handia daukagu, mendi-bizkarraren gainean ageri den irtengune deigarri baterako bidean. Zabalgune bat aurkituko dugu, eta bertan pixka bat ezkerrera egiten duen bidezidor bat. Pagadi batean sartuko gara berehala; alanbre-hesi bat dago bertan. Bidezidorra jarraituz, berehala igoko gara gainera.

1 h 54' Mendi-bizkarra. Aurrean, belardiak ixten dituen harrizko horma bat dago. Ezkerrera jo, abereak amildegitik zaintzeko alanbre-hesiaren norabidea jarraituz. Parez pare dagoen harkaitzaren muturrera hurbiltzean, eskuinetara estugune bat ikusiko dugu, eta bertan bidezidor bat: hura hartu eta gorantz jarraitu, pago batzuk aurkitu arte. Horien artetik gora jo, apur bat ezkerrera eginez.

2 h 6' Sarastarri gailurra. Txartel-kutxa amildegiaren ertzean dago.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

San Migelera Uharte Arakildik

0 h 0' Uharte Arakil: Elizaren aurretik abiatu, kale nagusian behera Iparrerantz jo, azkenean ezkerretara hartu, igaro zubia, eta aurreko bidebanatzean eskuinera joz aurrera jarraitu.

0 h 8' Mendi-bideen banaketa: alboetako bideei jaramonik egin gabe, zuzenean jarraitu. Gorantz abiatzean, kareharrizko hormatzarraren ondotik jarraitu. Harkaitzaren oinetik gertu haitzulo bat dago, handia, zulo zabalekoa.

0 h 20' Harkaitz handia zeharo igaro ondoren eta aldapa hain bortitza ez den unean, eskuinera eta goraxeago, bidetik kanpora, alanbre-hesia gainditzeko eskailera landugabe bat dago: utzi bidea, alanbre-hesia gainditu eta bidezidorrari lotu; bidea garbi markaturik dago, eta hasieran zuzenean eta berehala sigi-saga eginez doa bi kontrahormen artean sortzen den haitzartean aurrera.

Bidezidorra ongi ebakia eta arduraz zaindua dago, luzera osoan ezagutzeko zailtasunik gabea. Haitzartea amaitzean, Elkaitz harkaitzaren ondora irteten da bidezidorra; harkaitza eskuinetara utzirik, gorantz jarraitzen du aldapan aurrera, une batzuetan zuhaitz artean baina gehienik eremu soilean. Horrela, etengabe sigi-saga eginez gainditzen du mendi-malda.

1 h 34' Egiten ari diren errepide berrira agertzen da bidezidorra. Sartu han eta jarraitu ezkerretara une batez, eskuinetara dauden pago batzuetara heldu arte. Utzi errepidea eta hartu bidezidorra, zeharka igotzen jarraituz, Santutegia dagoen zelaigunera iritsi arte.

1 h 50' San Migel in Excelsis Santutegia. Errepidean hirurehun metro behera egin eta eskuinera ageri den pista hartu gailurrera igotzeko. Pistan gora igo daitekeen arren, atseginagoa da belardian gora zuzenean jotzea, goian dauden bi eraikinen artetik. Errepidea ostera gurutzatu eta bidezidorra hartu, zuzenean gainera iristeko. Txartel-kutxak eskuinetara daude.

2 h 8' Artxueta gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Txamenira Pagomaritik

0 h 0' Pagomariko zelaigunetik pista bat irteten da Iparrerantz; aurreraxeago, eskuinera eginez belardira jaisten da, hura ezkerraldetik inguratuz.

0 h 5' Pisten banaketa: ezkerretara, aterpetxe pribatu bat dago. Eskuineko bideari jarraitu, sakan handi baten ertzean aurrera ur-biltegi txiki batera helduz.

Hortik bidezidor bat irteten da, zabal-zabal ezkerrera jotzen duena. Lehenengo haitzetara iristean, txabola baten hondarren ondotik aurrera jo. Hemengo zelai belartsuetan bidezidorra ikustea ez da erraza. Iparrerantz jarraitu beti, eta pago batzuen ondotik igarotzean beste

txabola baten hondarrak ageri dira, nahikoa aparte eskuinetara. Haietara jo.

0 h 13' Txabola-hondakinak. Atzealdeko belardietara igaro; han saroi txiki bat dago. Orain goialdera jo, bizpahiru belardi igaroz. Belardi horiek mugatzen dituzten harkaitzetan garbiro ageri dira bide-arrastoak.

Gainak lortutakoan, jarraitu saroi baten ondotik, belardi txiki bat igaro eta harkaitz arteko tarte estuan aurrera jarraitu. Metro gutxi aurrerago, eskuineko harkaitzaren gainean dago txartel-kutxa.

0 h 25' Txameni gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Txindokira Larraiztik

0 h 0' Larraiztik Ziate-bekoako txabolen gaineko harkaitzen atakara iristeko, Igaratzara joateko hartzen dugun bide bera jarraituz igoko gara.

1 h 3' Harkaitz gaineko ataka. Behean, pixka bat aparte eskuinera, Ziate-bekoako txabolak daude. Zuzenean ezkerretara doan bidezidorra hartu. Berehala igoko gara Ziate-goikoako saroira eta txaboletara. Bien artean iturri eder bat dago. Bidezidorrari lotu eta horiek eskuinera utzita, jarraitu aldapa gogorrean gora; ezkerretako harkaitz-bular baten ondotik aurrera berdin joan. Harkaitz horren atzean sakonune bat dago, eta sakonunean, berriz, Beltzutegiko txabolak daude. Bidezidorrak gorantz jarraitzen du, gero ezkerretara jotzen du eta bertako harkaitz gainean aurrera, goiko harkaitzetara iritsi arte.

1 h 27' Egural lepoa. Metro batzuk beherago Eguralgo txabolak daude, beste isurialderantz.

Aldapa belartsuan gora abiatu Ipar-sartalderantz; biderik gabeko aldapa gogorra da. Harkaitzera heldu baino lehen, bidezidor bat aurkituko dugu, tarte horretan pixka bat ezkerraldera doana; xendrak une batean eskuinera egiten du, eta gero harkaitz arteko bidexkan Sartaldera aurre eginez igoera burutuko dugu.

1 h 46' Txindoki gailurra. Bertan gurutze bat, ez handia, eta harkaitz baten gainean txartel-kutxa.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Uakorrira Amezketatik

Amezketatik eta Buruntzuzin zelaian dauden Lukaseko txaboletaraino, Amezketatik Errenagako (Igaratza) aterpetxeetara eta baselizara igotzeko ibilbide berbera egin behar da.

1 h 34' Lukaseko txabolak Buruntzuzin zelaian. Eskuinera, goraxeago, saroi txiki bat dago harriz hesitua. Haren ondotik belarrak erdi gordean duen bide bat igarotzen da. Apur bat gorago, bideak ezkerrera egiten du eta zeharka hegal horretan gora doa. Goiko aldean zerrenda harritsu luzanga bat dago, eta handik abandonatutako meategien indusketa-guneak eta zuloak dauden eremu batera helduko gara. Meategien ezkerraldetik, garbi markatutako xendra batzuk abiatzen dira sakonunerantz edo, zuzenago, haren ondoan dagoen Astunaldeko leporantz. Xendra horiei ez erreparatu, eta beti sigi-saga hegalean gora doan bidea bilatu, aurrez aipatu zerrenda harritsuaren ezkerraldean.

Gune horretan bidea utzi eta zuzenean eskuinera jo, Sortaldera biribildua ageri zaigun tontorra irabazteko. Azken tarte horretan ez dago ez xendrarik ez bide-arrastorik, eta malda piko samarra da; nolanahi ere, ibiltzeko erosoa da, belar harroaz estalia baitago. Behin alanbre-hesira helduta, haren paraleloan joan arren.

2 h 10' Uakorri gailurra; txartel-kutxa dago bertan. Gailurrera iristeko, tarte batean eraitsia dagoen alanbre-hesia gurutzatu behar da.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Uakorrira Igaratzatik

0 h 0' Errenaga utzita, Ipar-sartalderantz abiatu; azken aterpetxearen ondoren, eskuinetara pista bat doa, gorantz. Ez jaramonik egin, jarraitu sakonetik doan bideari eta berehala bidebanatze bi datoz elkarren hurrean: lehenengoa eskuinera gorantz doa eta bestea Igaratza aldetik beherantz. Bietan ezkerrekoari jarraituz, mendixka bat inguratu eta lepo batera jaitsi. Jarraitu Ipar-sartalderako pistatik.

0 h 12' Pistaren eskuinetik bidezidor bat abiatzen da bizkarrerantz. Behean, ezkerretara eta urruti samar, Beaskingo txabolak ageri dira. Hemen pista utzi eta bidezidorra hartu; bideak, lehenengo aldapa gainditu ondoren, emeki maldan gora egiten du.

0 h 21' Bidezidorraz ezkerrera, ertzean, txabolen hondakinak daude. Berehala harkaitzen arteko igarobide estu bat doa gorantz, gero behera jaisten da, azkenik paraje karstiko sakon batean sartuz: bidezidorra ongi seinaleztaturik dago, bitarteko zuloei egoki ihes egiteko eran.

Bazter horiek igaro ondoren, Pardarri mendiaren hegal aldapatsuetatik zehar jarraitzen du bidezidorrak, estugune batera sartu arte. Handik irtetean, gorantz jarraitzen du. Larre-sail edo belardien artean egin dugun ibilbide osoan ederki markaturik dago bidea, nahiz mugarriz nahiz pintura-seinaleez.

Irazustako lepotik ezkerretara ageri da Uarrain gailurra; harantz darama bidezidorrak, eskuineko zuloak saihestuz.

0 h 48' Irazustako lepora igo baino lehen, aldaparen erdian, jaitsiera labur bat dago. Une horretan bidea utzi eta mendi hegaletik zuzenean gailurrera jo, harkaitzezko hormaren ondotik aurrera. Tarte horretatik gorakoa biderik edo bidezidorrik gabe igo behar dugu, gero eta aldapa gogorragoan.

1 h 3' Uakorri gailurra.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Uarrainera Larraiztik

0 h 0' Larraiztik Irazustako leporaino, Igaratzarakoan esan dugun bide bera egingo dugu.

2 h 0' Irazustako lepoa. Uarrainen eta Ganbo-txikiren artean dago lepo hau, lehenengoa eskuinetara eta bestea ezkerretara dituelarik.

Une horretan utzi bidezidorra eta zuzenean aldapan gora igo ezkerretara, gero eta pikoagoa den maldan aurrera. Ez dago inolako biderik.

2 h 12' Uarrain gailurra. Txartel-kutxa eta harri-pila bat alboan, mugarri baten hondakinak.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Ttutturrera Pagomaritik

0 h 0' Pagomari. Hemendik abiatu eta Mugardiko leporaino, Belokira igotzeko adierazi dugun bide bera egin.

0 h 47' Mugardiko lepotik hurbil gaudelarik, Ttutturre ez da ageri. Iparrerantz begiratuta, bizkar biribil bat ageri da: Pallardiren gailurraurrea da, eskuinetara beheragoko beste bizkar batera jaisten dena.

Jo bietatik lehenengora zuzenean, baina gainera heldu baino lehen, jo eskuinetara, bigarren bizkarrera igotzeko: orain bidezidorra ageri da, ongi markatua gainera; bizkarra gurutzatuta, bestaldetik behera egiten hasten da.

Une horretan, ezkerretara edo Iparrerantz, Ttutturre mendi-gailur zorrotz eta txuntxur-erakoa agertzen da. Mendiaren oinean dagoen zulora jaisten da orain bidezidorra.

1 h 6' Brinkate Zuloan dagoen saroiko txabola gailurraren oin-oinean dago. Bertaraino jaitsi baino metro batzuk lehenago, jo ezkerretara, handik pagadira igotzeko. Ongi urraturik dago bidezidorra. Pagadia igaro ondoren, kareharrizko hormaren parez pare doan tarte estuan gora jo behar dugu, zuzenean aldapa bortitzetik erpinera heldu arte.

1 h 17' Ttutturre erpina. Txartel-kutxa badago. Inguruko haranetara eta Mailoetako gailurreriara begira, ikuspegi zoragarria daukagu erpin honetan.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA

Desaoko aterpetxera Pagomaritik

0 h 0' Pagomarin dagoen «kargaleku» edo aparkalekutik pista bat irteten da Iparrerantz, harresira iristean eskuinera egin eta sakonune batera jaisten dena. Beheraino ez jaitsi; bihurgunera iristean, aurrez aurre pintura-marka batzuk ikusiko ditugu: horiei jarraiki, eskuinera jaitsi, beste bide bat aurkitu arte; harkaitz artean aurrera doa bidea. Aurrerago bidea utzi eta ezkerretara harkaitz zapal batzuetatik gora jo, markei erreparatuz. Aurreneko aldapa gainditu ondoren, belardi txiki bat dago ezkerretara: bertara jaitsi eta Iparrerantz gurutzatu.

0 h 8' Sakelako saroiko txabola. Berriz ere harkaitz artean doan bidezidorrari lotu; bidea ongi seinaleztaturik dago. Belardietara irten eta aurrean gorago dauden pinuetarantz jo; berehala, baina, ezkerretako belardira egin.

0 h 13' Zelai babes baten erdian dago Desaoko aterpetxea. Handik aparte samar, Iparraldeko hegalean, iturri bat daukagu.

Toki hau kanpatzeko oso egokia da, eta Txameni, Beloki, Ttutturre edota Irumugarrietara igotzeko kokagune aproposean dago.

Aipatu mendi horietara igoaldiak egiteko berdintsu da Pagomaritik edo Desaotik irtetea, baina egun berean egin ahal izateko Pagomaritik hasi beharra dagoenez, azken toki hori hartuko dugu igoaldien abiapuntutzat.

Erref. bibliografikoa: Eli Ojanguren. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

GAILURRETARA



Txindokira Larraiztik

Sartaldeko ertza.

Larrunarri edo Txindoki tontorra (1.343 m) Sartaldeko ertzetik igotzea Euskal Herrian egin daitekeen eskalada ederrenetakoa da. Aurreneko igoaldia 1951n burutu zen, J.M. Peciña, J. Arrate eta A.S. Basagoitiaren eskutik; horretarako laugarren mailako igarobide bakan batzuk gainditu behar izan zituzten.

Ertzaren oinera heltzeko, Larraiztik (400 m) abiatzen den bide arrunta hartu behar da. Behin Gaztesuiko Langara (540 m) iritsita, mendiaren banalerrotik zehar joango gara. Xendra batek malda gogorrean gora egiten du Sortalderantz, eta Amezti gailurrera (981) eramango gaitu. Ondoko Ameztiko lepora (962 m) jaitsi eta tontorra aurrez aurre izango dugu.

Ertzari ekitean, irtengune erraz batzuk (II) topatuko ditugu, diedro batera (IV) iritsi arte; lehen oztopo garrantzitsua da. Beste zenbait irtengunek (III) ertzean paratuko gaituzte. Ebaki batera jaitsi (III) eta tximinia batean sartu (III+) airean urrats handia eginez. Ondoren Hego isurialdera pasako gara (III), atzera gandorrera garamatzan beste tximinia batera heltzeko (III). Xafla lau baten (Frontoia) oinean dagoen plataforma batera helduko gara; hari aurretik ekingo diogu, helduleku txiki baina bikainak baliatuz (IV). Gandorra utzi eta Hego isurialdeko zelaigune batera joko dugu (II). Belarrezko pasabide batek (II) abiapuntuko diedroaren parean jarriko gaitu; hari eskuinaldetik ekin (IV), zuzenean gora eginez (IV). Erlaitz batek aurrera egitea eragozten digunez, ezkerrera hartuko dugu (IV) eta gandorrera iristen den malda belartsu batera irtengo gara (II+). Irtengune erraz batzuetatik (I) Erlabeltzeko puntara (1.316 m) iritsiko gara, eta handik tontorrera, arazorik gabe.

Iturria: Javier Urrutia. www.mendikat.net.
Irudi erref.: www.mendikat.net . Javier Urrutia

GAILURRETARA

Arritzagako sakanaren ingurubira

AMEZKETA - PARDELUTS - ONDARRE - AMEZKETA

Mendi-ibilbide honen jomuga Arritzagako haitzarteari bira osoa ematea da, erloju-orratzen norabidean.

Mendizale batzuk badira, asko ez noski, Pardeluts eta Ondarre bitarteko zatia hemen adierazitakoaz alderantziz egiten dutenak, gorantz eginez alegia.

Lehenengo zatia, Pardeluts iturrira bitartekoa, aurrez ere aipatua dugu; oraingoan, beraz, itzulera bakarrik azalduko dugu.

Mendi-hegalean aurrera asko jaitsi beharrik gabe, bidezidor txiki bat hartu behar dugu, Zotaletako saroi aldera daramana: gorakoan ibaiaz bestaldean ikusi dugu, Arritzagako saroiaren gainean. Hogei minutu nahikoa dugu bertara heltzeko.

Saroiaren behealdeko txabolaren parean ostera bidezidorra hartuko dugu, minutu gutxiren buruan Arritzagako saroitik Ariñatekora gorantz doan bide zabalagora irteteko; ongi seinaleztatutako bide horretan aurrera eginez, Uzkuiti menditik beherako sakona igaro ondoren txabola zuri eta ongi zainduak dauzkan Ariñateko saroira sartuko gara.

Saroi horren oinarrian dagoen mendi-bularrari bira eman bezain laster, igaro ditugunak baino zelaiagoak diren larre-sail ederretara garamatza bidezidorrak: Elordi borda deritzon saroiko belardiak dira. Handia eta ongi eratua da bertako txabola, gutxi bezain jarrera egokian jasoa; ikuspegi zabal eta zoragarria ageri da bertatik, eguraldi garbietan Donostiako Ulia mendia eta itsasoa ere ikusteraino.

Hortik aurrerakoan, beherantz doa bidezidorra: bizpahiru errekatxo gurutzatu ondoren, Ondarreko langa izeneko tokira iristen da; hortxe batzen dira goiko errekatxoen urak, denak batean haitzetik hutsera jausteko, lehen aipatu dugun Ondarreko ur-saltoa zuri bihurtuz.

«Langa» igaro ondoren, zabalago bihurtzen da bidea, eta berehala baserri-giroko sailetan aurrera sartzen da, hau da, baso eta itxituradun belardien artean, herri-erabilerako larre-sailetatik kanpora alegia. Hortik aurrerakoan aldapatsu dira gurdibideak, harritsu eta hondatuak gainera, baserritarrek zeharo utzi baitzioten horietan ibiltzeari.

Beherakoan, zenbait bidegurutze aurkitzean beti geure eskuinekoa hartuko dugu. Bideak berehala eramango gaitu Mizpira-saletxe edo Astamutilleta baserrietara, bi ordu eta asko gehiagorik gabe eraman ere Pardelustik behera. Joan-etorri osoa egiteko, berriz, lau ordu eta laurden beharko ditugu.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Larrunarriko ingurubira

Larraitz - Muitze - Egurral - Oria iturria - Larraitz

Ibilbide zirkular honekin Larrunarri edo Txindoki mendia osoki inguratuko dugu, hau da, frantziar mendigoizaleek «grande randonnée» deitzen dutena egingo dugu.

Esan beharrik ez dago bira, osoa izaki, era bietara berdin egin genezakeela, baina kasu honetan hobe da ezkerretik eskuinera egitea, berehala azalduko dugunez.

Larraitz auzunetik abiatzean, gailur gailen eta zorrotz horretara igotzeko hartu behar den basabide zabala hartuko dugu. Lehenengo langa igaro eta igotzen hasi bezain pronto, geure eskuinetara utzi dugun pinudi koskor bat baino gorago, urki baten ondora igoko gara: bidetik ezkerretara dago.

Pistatik ezkerretara metro gutxitara daukagun bidezidorra hartuko dugu eta mendi-hegalean gora abiatuko gara, Larraiztik begiratuta Larrunarri edo Txindokiren ezkerretara ageri den Muitzeko ataka deritzon haitzartera igotzeko. Bazter ikusgarriak diren arren, ia inor ez da ibiltzen alde horretan. Bide zabalean, berriz, jendez mukuru egon ohi da, mendigoizaleentzat beste toki askotara iristeko ibilbide arrunta baita.

Hamabost minutu geroago, ordekatxo batera igoko gara, eta han harrizko hesi bat eta hamar pago tantai bikain ikusiko ditugu: ordekak Urzabal-bekoa du izena. Hemendik Amezketaren ikuspegi zoragarriaz, soro eta belardi berdez inguraturiko baserri sakabanatuez gozatzen hasiko gara; gora egin ahala, ikuspegia are eta zabalagoa da. Bidezidorrak aurrera jarraitzen du, haitzarte sakonaren hegaletik gora aldapa gogorrean sigi-saga eginez. Ibilbide hau horrela egitea hobe dela esan badut, hemen daukagu arrazoia: bidezidorra hain aldapatsua denez eta sakona hain behean dagoenez, arrisku handikoa litzateke jaistean estropezu egitea, lurra bustia dagoenean bereziki.

Astiro igota, Urzabal-goikoa deritzon txabolaren hondarren aldamenetik igaroko gara, eta gorago beste baten hondakinen ondotik; hor hiru pago eta lizar bat daude. Azken txabola horretan, eskuinetara jotzen du bidezidorrak, tarte luze batez sigi-saga eginez. Irten garenetik ordubete daramagu eta beste hamabost minutu behar ditugu malda gogorrean aurrera Muitzeko erreka lortzeko. Gure aurrean mendi-horma bat, atzamarka igotzekotan gaindi dezakeguna; hori ez da, ordea, gure bidea. Errekaz bestaldera igaro (egia esan, jauzi luze bat nahikoa da) eta eskas markatutako bidezidorra hartuko dugu: bi harri-pila daude, bidea erakusteko ipiniak.

Mendi-hegal berrian zeharka eta beti gorantz, Amezketatik Muitzeko saroira datorren bidezidor ongi seinaleztatua aurkituko dugu berehala. Bide hori hartuta, berehala joko dugu Muitzeko langa, eta handik, bidezidor ordekan aurrera, errekara helduko gara berriz. Mendialde honetako beheko larreetan gaude. Gurutzatu erreka, jo eskuinera, estugune batean gorantz belardia igaro eta Muitzeko saroia daukagu zelaigune batean: hortik Iparraldera ikuspegi bikaina daukagu, atze-atzean itsasoa ageri dela.

Saroi horretatik Sartaldera maldan gora jota Egurraleko lepoa lortuko dugu; bertan Egurraleko saroia dago. Maldaren erdian eta haitz baten azpian Egurraleko iturria begiztatu ahal izango dugu. Larraiztik hona, lasai ibilita, bi ordu behar izan ditugu.

Mendi-lepo horretantxe hasten da Larrunarri edo Txindoki gailurrera igotzeko azken aldapa. Gailurrera heldu nahi izanez gero, igotzen eta jaisten ez dugu berrogei minutu baino gehiagorik beharko, atseden hartuz eta gainetik bazterrak ikusiz egin ahal izango dugun aldi asperrezin eta zoragarria alde batera utzita.

Egurraleko lepoan ibilbide honen erdia bete dugula esan dezakegu, bideari begira behintzat; ez ordea denborari begira, mendiaren bestaldeko hegalean behera Larraitzera jaisteko ez baitugu ordu eta erdi baino gehiago behar.

Beherakoan, larre-sail berdetara baino lehen, harkaitz bat igaro behar dugu Hegoaldera, eta berehala Sartaldera joko dugu malda bortitzean behera; Beltzulegi saroia eta Ziate-goikoa saroi eta iturria igarota, Ziate-bekoa saroira iritsiko gara. Une horretan bidezidorrak zuzen-zuzen eskuinetara egiten du, sigi-saga handiak eginez malda gogor eta harritsuan behera jaitsiz. Bidexka ostera zuzentzen denean, laster batean Oria iturrira helduko gara; handik, Larrunarri edo Txindoki mendiari bira emanez, Larraitzera eroso jaitsiko gara.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Zaldibiako ingurubira

Zaldibia - Errekontako lepoa - Urruzti - Oidui - Zaldibia

Aurreko ibilbidean bezala, oraingoan ere aukera daukagu: Zaldibiatik oinez abiatu edo Akapulko-Aralar aterpetxeraino autoz igo.

Zaldibiatik aterpetxera igotzean, herritik abiatzen den pista bat hartu, Ausa Gaztelu mendiaren Sartaldeko hegalean gorantz sigi-saga handiak eginez doana, eta berehala Ausokoegi saroia joko dugu. Hortik laster igoko gara Errekontako lepoa deitutakora; hor batzen zaigu, ezkerretik, Larraiztik datorren bidea. Lepotik beheraxeago Errekontako iturria dago, eta aipaturiko saroiaren eta mendi-lepoaren artean Iturbeltz iturria, bidearen azpian eskuinetara.

Ausa Gaztelu atzean utzirik, Hego-sortalderantz joko dugu belardian gora, Beleko mendiaren hegaleko harkaitzak jo arte. Bertan harkaitzak garaitzeko bidea daukagu, eta berehala helduko gara zulogune baten babesean dagoen Atabu txabola erdi erorira; gorago Ausokoiko trikuharria dago, duela urte mordoa ikerketarako zeharo aitzurtua. Sortaldera, ezkerretara dagoen bidezidor bati jarraituz, Elutsetaneko saroira iritsiko gara.

Eskuineko bidezidorra hartuko dugu, Hegoaldera, eta bidegurutzera iristean, ezkerrekoan jarraituko dugu, eskuinekoa Intsentsao saroira jaisten baita. Beleko mendiaren haitz-hormaren atzean, Gorostintxo saroia aurkituko dugu, eta bigarrenaren ondoren Oabiel izenekoa. Aurrerago,

hirugarren horren atzean, Koaurre saroia eta haren gainean Ixaokoa, orain hutsik utzia.

Saroiak igaro ondoren, bideak berriz ere gorantz jotzen du. Bide horretan daukagu Liztor iturria: harlosaz estalitako putzu biribila da, eta abereentzako edaleku edo aska bat dauka azpian.

Maldan zehar beti gorantz, aurrekoen artekoa baino tarte handiagora dago Urruztiko saroia, sakon harkaiztsu batean eta lizardi bat bertan duela. Sakonaz bestaldean eta belardi baten erdian putzu bat dago; aurreraxeago jota, Uelaguenako trikuharriak daude.

Zeharo ikusten ez dugun arren, Oiduiko saroiaren gainean gaude eta harantz goaz, maldan behera Hegoaldera jaitsiz. Aurretik, ordea, Zearguenako trikuharria daukagu, eta minutu gutxiren buruan aipatu saroira helduko gara. Aurreko ibilbidean ere esana dugunez, ikustekoak dira saroi horretan bai izen bereko trikuharria bai Suspetaitz jentilarria.

Hor bertan hasiko gara Zaldibia aldera jaisten, gorakoan egin duguna beste bide batetik eginez: Jentilarri eta Jentilarri-Arraztaran trikuharriak zein Arraztaran eta Intsentsao saroiak igaroz, Matxabaletako zelaia jo arte; gune horretan Esneurreta eta Mendibil saroiak ikusiko ditugu.

Zelaia amaitzean, Arrantsao saroirako jaitsieran berezko begiratoki bitxi bat daukagu, bertan gelditu eta begira egon beharrekoa, aurrean ageri den ikuspegia hain ederra izaki: Beasain, dena mendiz inguraturik.

Aldapa bizian behera, Mendibil saroia igaro ondoren, lehen aipaturiko Iturtxo iturria, Urruztiarreko bordak eta Gaitzola iturria igaro eta berehala, ur-biltegia eta aterpetxea aurkituko ditugu, gure ibilaldia Zaldibian burutuz. Gehienera jota, bost ordu baino gehixeago behar izan dugu.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Amezketatik San Migelera

AMEZKETA ARRITZAGA - IGARATZA - SAN MIGEL

Mendi-ibilbide hauxe bai zela ohiturazkoa, batez ere Donostia eta Tolosa aldeko mendizaleentzat! Garai haietan, trenez eta autobusez joaten ziren Amezketaraino eta gero oinez. Gorakoan naiz itzuleran ia derrigorrezkoa zen Amezketan Bixenteren aterpetxera sartu-irten bat egitea, hura mendizaleen adiskide handia izaki. Hiru omenaldi egin dizkiote eta urteetan aurrera badoa ere edozeini laguntza eta zerbitzuak eskaintzeko prest jarraitzen du.

Garai batean behintzat, mendizaleak aterpetxetik abiatu, elizaren ondotik aurrera doan gurdibidea hartu, zubitxo baten gainetik Amezketa erreka igaro eta haren ezkerraldean aurrera Mizpira-saletxe baserrira igo ohi ziren, ia Arritzagako haitzarteraino. Gaur, ordea, errepidez eroso asko igo gaitezke baserri horretaraino, eta baita ibaiaz bestaldean gora Astamutilleta baserriraino ere.

Aipatu haitzartera joateko, bi baserrietako edozeinetatik abia gaitezke ibaiaren zein aldetik igo garen ; eta hogei minutu geroago bide biak batzen dira ezkerraldean. Benetan harrigarria gertatzen dira jauzika eta kantari jaisten diren urak, hain garbi eta ikusgarriak. Bigarren baserritik abiatuta hobeto ikusiko ditugu, hurbilago baitoa bidea.

Bide bateratua zuhaitz artetik irten eta maldan gora hasten da, Arritzagako haitzarte izugarrian sartzeko. Ezkerretara dagoen Anduitz izeneko harkaitz-mutur zorrotzaren azpian aurrera igaroko gara. Ez litzateke harrigarria eskalatzaile-talderen bat harkaitzean gora egin nahian ikustea. Goraxeago, Anduizko txabola, abereentzako aterpea, igaroko dugu.

Ari gara igotzen. Zabalegi mendiaren hegaletara eraman gaitu bideak, ibairaino jaisten diren harkaitz bizietarantz. Harkaitz horietan ebakia dago metro eta erdi zabal den bidea: arrokan garbiro ageri dira dinamita-laztabinek lehertzean sortutako marka erradialak nahiz dinamita harrian sartzeko egindako zulo mordoak, garai haietan palankari ospetsuek prestatuak. Beste kasu askotan bezala, palankarien kasuan ere ofizioa kirol bihurtu zen, baina bai ofizioa bai kirola galdu dira jada, aire-konpresorearen asmakuntzaz eta laztabin pneumatikoaren egokitzapenaz.

Sigi-saga labur eta biziak eginez doa goraka gure bidea, harkaitz-horma igaro arte. Gure eskuinetara, haitzarteaz bestaldera ageri da artzainek Ondarreko ur-saltoa esaten diotena: Ondarreko langa deritzon tokitik hutsera jausten da ura, apar zuria sortaraziz. Mesedegarri izango da bidean egonalditxoren bat egitea, atseden hartzeko ez ezik edertasunaz gozatu eta argazkiren batzuk ateratzeko.

Mendi-hegala zeharkatuz gora goaz. Haitzartearen beheko sakonean, mailaka ageri dira ur-putzuak, ur saltariak harkaitzean egindako sakonuneetan. Koilara gaztelerazko «cucharas» deituak dira: bai ikusgarri eta eder direla, nahiz beren tankeragatik nahiz uraren garbi eta gardenagatik!

Gorago, bigarren harkaitz-hormari ezkerretara bira ematen diogun unean, uharka bat ikusiko dugu gure eskuinetara. Orduantxe utzi egin behar dugu ezkerretara igo eta igo doan bide zabala: Arritzagako kobre-meategietako etxera darama, Buruntzuzin saroira hurrena eta handik Balerdi gailurrera. Guk erraz aurkituko dugu bidezidorra; hari lotuz behealdeko meategietara iritsiko gara, gure aurrean maila bertsuan baitaude.

Amezketara airean zintzilik jaisten ziren bagoien kargalekuaren hondarrak oraindik ikusgai dituen paraje hori atzera utzita, bideak ibaia bi aldiz gurutzatzen du, berehala Bokarteko iturria igaro eta Artubi mendiaren maldan dagoen Astearteta saroiaren azpian aurrera daukagun Arritzaga saroira heltzen da. Eskuineko maldan beste bi saroi ageri dira: Ariñate bere txabola zuriez, eta Zotaleta harrizko txabola sendoez.

Arritzagako saroi horretan zementuzko zubi txiki bat dago; hura igaro errekaz ezkerretara joateko, eta aldaparik gabe igoko gara Pardeluts iturri ezaguneraino: hortxe sortzen da erreka. Gipuzkoako haitzarte ikusgarri honen edertasunaz gozatzeko behar adina egonaldi egin baditugu, bi ordu baino gehixeago behar izango genuke iturri honetaraino heltzeko.

Ur hotz ederra edanez indarberritu ondoren, norabide berean jarraituz berehala agertuko zaigu Pardeluts saroia gure eskuinetara. Aurrez aurre ikusiko dugu berehala Igaratzako harrartea deritzon mendi-lepoa: horra iristeko, alde bakoitzean metro eta erdi dituen harri karratu bat igaro behar dugu. Horixe da Amabirjina Harria esaten diotena; zulo batean Amabirjinaren irudi txiki bat dauka. Ardiren bat galtzea nahiz bestelako ezbeharrak dituztenean, hortxe egiten dute artzainek beren limosnatxoa. Irudiaren gainean eta harriaren atzealdean, sakontxo bat dauka: Amabirjinaren oinek utzitako aztarna edo urratsa dela diote.

Mendi-lepora igo bezain laster, Unagako belardiak dauzkagu. Belar biguna eta toki zelaia, benetan atsegina gure oinentzat, kontuan izanda aldapan ibili garela eta, batez ere, gure oinek harritik harrira ibili behar izan dutela.

Norabideak eta denborak adierazten dituen argibide-taula daukagu hor, aurrerako ibiliak aukeratzeko lagungarri ona. Bertan da Perileku deritzon zelaia, eta gure eskuinetara Ipar Igaratza eta Hego Igaratza trikuharriak dauzkagu. Gure eskuinetara Etzaal mendixka biribila utzirik, berehala helduko gara Igaratzako aterpetxeetara, iturritik bertara berrogeita bost minutu egin ondoren. Laino-egunetan guztiz arriskutsua da mendi-lepotik aurrerakoa, bide eginik ez dagoenez oso erraza baita belardian galtzea. Hego-sortalderako norabidea jarraitu behar da beti, 140ª hain zuzen ere.

Gipuzkoa eta Nafarroa aldetik Aralarren ertz guztietatik igo ohi diren mendizale asko eta askoren bilgune gertatzen da Igaratza. Beste zenbait eraikinen artean, Tolosako mendizaleen «Aralar'en Adiskideak» Elkarteak 1928an jasotako aterpetxea, baseliza eta mendigoizaleen aterpetxea dira ezagunenak, eta iturri bat ere badago. Harrigarria da bertatik ageri den ikuspegia, Sartaldera bereziki, gure atzean Errenaga gaina dugularik, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugan.

Iritsi garen norabide berean jarraituz, eraikin guztiak eta errekatxo bat igaro ondoren, ezkerretara daraman bidezidorra hartuko dugu, minutu gutxiren buruan Errenaga mendiaren bizkarrera igotzeko. Bizkarra gainditu ondoren, ezkerrera jotzen du bidexkak, beherantz jo ere, basabide zabal eta harriztatuan sartu arte; bideak, Itzazelai, Pagomari eta Kolosobarnea deritzen gune bereziak igarota, galtzerik gabe eramaten du Guardetxe hain ezagunera, ordu eta laurdenean eraman ere.

Guardetxetik San Migel Santutegira, berriz, errepidez joan behar da, ia trazatu osoa lehengo bidearen gainean egin baitzuten. Errepideari ekin bezain laster, eskuinetara, Erbillarri trikuharria daukagu. Azken zati hori egiteko ia ordubete behar dugunez, guztira jota bosten bat ordu beharko ditugu Amezketatik Santutegira bitartean.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Larraiztik San Migelera

Larraitz Alotza – Igaratza – San Migel

Ibilbide hau egiteko ohitura handia izan da, eta are jende gehiago dabil azken urteotan. Ospe horretan ez du ikusteko txikia joan-etorri osoak maratoiak adina kilometro izateak; izan ere, bizikleta-gurpil bati kilometro-zenbagailua erantsirik, berrogeita lau kilometro neurtu zituzten.

Hori dela-eta, zenbait mendigoizalek beren markak ezarriak dituzte, alditik aldira denborak laburtuz. Kontu hori, ordea, oso gutxirena da, eta ez da benetako mendigoizaletasunari dagokiona. Beraz, hori utzita, txango-bidea bera ikus dezagun bere edertasun bikainez hornitua, Aralarreko alde gipuzkoarra Iparretik Hegora erdiz erdi gurutzatzen duena. Igaratzatik San Migelera, berriz, Nafarroako lurretan jarraitzen du bideak.

Ibilaldi berri gisa errepikatu beharrik izan ez dezagun, esango dugu ibilbide honen baitan badagoela beste bat laburragoa, gehienek egiten dutena gainera; izan ere, San Migeleraino joan eta ostera oinez itzultzea mendigoizale zailduenek bakarrik egiten dute, eta horiek gutxi dira. Gehienak, berriz, Igaratzaraino igo eta ostera behera itzultzen dira. Ibilbide luzea egiteko bost ordu behar ditugun bitartean, hiru ordu eta laurden nahikoak dira laburra egiteko.

Larraiztik abiatuko gara, Txindokira daraman pistari helduz, eta bertan aurrera jarraituko dugu Txindokira eta Ausa Gaztelura daramaten bideak banatzen diren bidegurutzera iritsi arte. Ausa Gaztelu pistatik ezkerretara dagoen iturria baino gorago dago, ordu-laurdenera gutxi gorabehera.

Bidegurutze horretan, eskuinetara ordekan doan pista zabala utzirik, Larrunarri edo Txindokiren maldan gora abiatzen den bidezidorra hartuko dugu, aurrez aurre daukagun harkaitz batera zuzenean joz. Bidean ez dago galtzeko beldurrik: Oria iturria igaro ondoren, Ziate-bekoa saroira heldu arte ez dago beste bidegurutzerik.

Ezkerretara jo eta Ziate-goikoa saroirako igoera hasi bezain laster, belardi aldapatsuan gora daraman bidezidorra ikusiko dugu eskuinetara sigi-saga eginez; mendi-bizkar harritsua gainditu ondoren, berehala garamatza Alotzako belardi berdeetara. Bizkarrera igo eta bidezidorra gainez gain

abiatzen denean, behean gure eskuinetara Elutsetane saroia ikusiko dugu, zoko harkaiztsu handi batean eta haizeetatik ederki babestua.

Aurrera goazen heinean, gero eta zabalago ageri zaigu belardi handia. Eskuinetara, hogeita hamar metrotara-edo, Saltarri izeneko iruinarri ezaguna daukagu, horrela deitua, hain zuzen ere, antzinako artzainek beren jauzi-apustuak harria luzetara igaro nahirik egiten zituztelako.

Beste hamabost minutu eta Alotzako iturria topatuko dugu, burdinazko oroitarri beltz bat eta norabideak adierazten dituen burdin xafla bat igaro ostean. Iturriaren ondoan beste burdin xafla bat dago, zaharragoa: biraka dabilen mendigoizale airoso baten irudia ageri du, bere makilaz norabideak erakusten dituela. Larraiztik honakoan gutxi gorabehera bi ordu behar dira. Ura edan eta aurrera.

Belardian sarturik dauden burdin hesolek adierazten duten bidezidorrean gora, Irazusta lepora igoko gara. Lepora iristear, ezkerretara, Iozta iturria ikusiko dugu, ur ederra oparo ematen, Aralar osoko urik onenetakoa noski; hortik beherako urak jauzika doaz errekatxo bihurturik, eta gure ezkerretara, Buztin-zulo izeneko tokian, lurpean ezkutatzen dira. Mendi-lepotik aise ikus ditzakegu Igaratzako aterpetxeak.

Belar biguna utzirik, Ganbo-txiki, Ganboa eta Pardarri mendien hegal harritsuetan aurrera jo behar dugu bazter idorrak igaroz, aipatu mendiak bata bestearen jarraian ezkerretara ditugula. Eragozpenik handiena, harriekin aise estropezu egin eta eror gaitezkeela. Galtzerik ez dago, ordea, bidezidorra ongi markaturik baitago harri-pila txiki eta egoki ipinitakoen bidez.

Harriartea igaro ondoren, ostera belar bigunaren gainean jarrai dezakegu. Behean, gure eskuinetara, Doniturrieta-goiko saroia ikus dezakegu; aurrerago, berriz, Beaskin saroia, eta haren goialdean Zaldibiatik datorren bidearekin topo egingo dugu. Etzaal mendixka biribilari ezkerretik bira ematean, Amezketatik datorren bidea batuko zaigu gure ezkerretik: hiru bideak bat eginik iritsiko gara Igaratzako baseliza eta aterpetxeetara.

Alotzako iturritik ordu eta hogei minutu behar izan dugu, azken ordubetea Irazustako lepotik hona. Igaratzatik San Migelerako bidea lehen ere adierazi dugu, Amezketatik Santutegirakoa azaltzean.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Lazkaomenditik Igaratzara

Lazkaomenditik Igaratzara Errekabeltza eta Eneriotik

Beasain, Ordizia eta Lazkaoko mendizaleak ibiltzen dira gehienik joan-etorri hau egiten. Lazkaomendira bakoitzak ahal duen eran igotzen da, eta handik gorakoa hemen adieraziko dugun bezala. Ibilaldi luzea da, baiki, baina nekerik gabea Eneriora heldu artekoa.

Lazkaomendin eskola zaharretik abiatuko gara, Hegoaldera jotzen duen bide lasaian aurrera. Abalin baserria igaro eta Iramendi ezkerraldetik inguratuta, Amundarain baserria joko dugu. Lehenengo baserri horretatik aurrera zenbait pista irteten diren arren, gure ibilaldirako ez dira egokiak.

Amundarain baserritik aurrera estutzen doa bidezidorra eta, ezkerretara okerturik, maldan gora abiatzen da Lasarteko lepoa jo arte; handik aurrera ordekan jarraitzen du. Oroitarri bat dago hemen, gurutze bat zizelkaturik daukana. Aizkoate mendia daukagu parez pare, eta haren hegalean izen bereko haitzulo bat; hain zuzen ere, haitzulo horretan Joxemiel Barandiaranek eta haren lagunek hartz-hezurrak aurkitu zituzten, gaur Donostiako San Telmo Museoan daudenak.

Mendi-lepo horretatik aurrera berdinean jarraitzen du bidezidorrak, sasi eta elorrien artetik langa bat igaro arte; hortik aurrera igoerari ekiten dio, pareko mendiaren jarraipena den Intzartzu gainaren malda luzean aurrera jarraituz. Joanean, Zaldibiako Kobaegi baserriaren gainetik eta Atxubiko harkaitza deritzon horma zuriaren ondotik igaro gara; harkaitz horren inguruan badira zenbait jentil-ipuin eta elezahar. Aurrerago, aldapa bat gainditzean, Ataungo Alegi-goikoa baserria baino gorago dagoen Alegiko lepoa joko dugu. Lazkaomenditik hona bi ordu eta erdi behar izan ditugu.

Mendi-lepotik ezkerretara jotzen du bideak, Intxaustiko iturria igaro ondoren Sastarri mendiaren hegal edo malda luzean azkeneraino jarraituz. Maldan zehar goazelarik, urruti samar, harri konkor handi bat aurkituko dugu: Jentilarri du izena, eta han markaturik dauden ildo edo zulogune batzuk direla-eta, hartz baten atzapar-urratsak direla dio elezaharrak. Aurrerago, Errekabeltza izenekoa aurkitu eta haren bestaldera igaro beharko dugu.

Beste aldean, mendi-maldan gora egingo dugu zeharrean, Enerio saroia jo arte. Alegiko zelaitik hona etortzen ordu eta laurden behar izan dugu.

Eneriotik Igaratzara bitartekoa adierazia dugu beste ibilaldi batean, Zaldibiatik gorakoan alegia. Tarte hori egiteko ordu eta erdi behar dugunez, guztira bost ordu eta laurden inguru beharko dugu ibilaldi osoa burutzeko.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Lizarrustitik Igaratzara

LIZARRUSTI - ORMAZARRETA - IGARATZA

Hauxe da, noski, Gipuzkoako mendizaleek Igaratzara joateko gehien hartzen duten bidea, igoerarik laburrena baita, bi ordukoa. Aralarko larre-belardietatik kanpora dago ia Igaratza bertarainoko bidea, mendilerroaren erditik Hegoaldera dagoen Puttarri mendiaren Hego-sartaldeko maldan gora baitoa.

Lizarrustiko gainetik Etxarri Aranatz aldera errepidez 850 metro inguru jaitsi, txerritegi handi bat dagoen tokiraino; txerritegia garai batean egurretik gai kimikoak ateratzen zituen fabrikaren lekuan dago egun. Etxebizitzen eraikina izandako batetik bide bat abiatzen da, eta alanbre-hesi bat igaro ondoren mendi-maldan gora doa, basabide zabal bat jo arte. Horixe jarraituz egingo dugu igoerarik gehiena.

Pagadi bikain batetik zehar joango gara aldi luzean. Alboetako pago-gerrietan gezi zuriak ikusiko ditugu bide-erakusle. Beraz, bidegurutze batzuk egon arren ez dago bidea galtzeko inolako beldurrik.

Abiapuntutik ordu eta laurdenera bidegurutze bat aurkituko dugu; marka zuriak utzi egin behar ditugu, eskuineko basabidean aurrera Puttarri mendiaren gailurrera baitarama bide horrek. Ezkerretakoa hartuko dugu, askoz ere zelaiagoa, eta Igaratzarako bidea adierazten duten marka gorrixkak ikusiko ditugu, arretaz begiratuz gero.

Berehala dugu Puttarriko iturria; erdi ezkutuan dago gure ezkerretara, bidea baino hamar metro beherago. Aurreraxeago, gure ezkerreko Irupagoeta eta eskuineko Puttarri mendien artean dagoen mendi-lepo batera igoko gara. Lepo horretan mugarri bikain bat ikusiko dugu eskuinera, eta haren ondotik bide bat abiatzen da, baina ez da guk hartu beharrekoa. Ekarri gaituen bidea zuzenean jarraituz, aurrena beherantz joko dugu eta berehala gorantz Irupagoetaren maldatik zeharrean. Marka horiak ikusten hasiko gara, pagaditik irten eta Oroeko lepora heldu bitartean; han, harkaitz gainean bi pago ikusiko ditugu.

Mendi-lepotik, gure parean ikusiko dugu Ormazarreta saroiko lehenengo txabola, gaur erdi eroria dagoena. Saroi horretara iristeko, eskuinetara daukagun Apain mendiaren maldatik barrena joango gara.

Lehenengo txabola horren eta ezkerretako haitzarte sakon baten artean daukagu bidea, zeharo harkaitzean eratua. Harkaitzak igaro ondoren, pagorik luzeenaren ondoan, garbigune harritsu batera iristen da bidea; toki horretan seinalerik ez dago. Gune hori igarotzeko, Sortaldera 30ª hartu behar dugu. Berriz ere basoan sartzen den bidera iritsiko gara, eta eskuinera zeharrean jarraituz, hamar minuturen buruan helduko gara Igaratzara.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDEAK

Zaldibiatik Igaratzara

ZALDIBIA - ENERIO - IGARATZA

Goierri aldeko mendizaleentzat ohitura handiko ibilbidea izateaz gain, artaldeak Aralar Mailoaren Hego-sartaldeko isurialdean dauzkaten artzain askorentzat ere hauxe da beren saroietarako bidea. Ia oraintsu arte bide honetantxe ibiltzen ziren Ataungo eta Zaldibiako baserritarrak, mendi-hegal honetan 900 metrora bitartean ugari sortzen den iratze edo garoa beren gurdietan etxeratzeko; gure mendi-ibilaldietan hain atsegin handiz entzun ohi genuen irrintzi antzeko gurdi-negar bizi eta sarkor hura ez diegu aditzen gurdiei, ez dabiltzalako.

Zaldibiako herritik bertatik abiatzen da gurdibidea gorantz, Beasaingo C.A.F. fabrikak goietan dauzkan ur-biltegietarako norabidean; haietara heldu aurretik, baserri batzuk eta Akapulko-Aralar Elkartearen aterpetxea igaroko ditugu bidean, ordubete eginda.

Ur-biltegietatik aurrera ere gurdibidean jarraitu behar dugu, Ausa Gaztelu mendiaren Hego-sartaldeko hegalean gora. Berehala, Gaitzola iturria aurkituko dugu, harlosa handiz egindako bi aska dauzkana, oso antzinakoak. Aurreraxeago beste iturri bat dago, berria eta zementuzko aska daukana. Hurrena Urruztiarreko bordak dauzkagu, larre-belardiz inguratuak. Ikuspegi osoak Alpeetakoen antzeko postala eskaintzen digu.

Gaur oso hondaturik dagoen gurdibidean beti gorantz jarraituta, bihurgune batean antzinako horma bat dago, eta haren oinaren erdian zulo bat: ura jaiotzen da bertatik eta Iturtxo du izena.

Gero eta latzagoa da bidea: lehen bezain zabala den arren, urak hondar eta gozo guztiak beherantz eraman dizkionez, harri-konkor handiak garbi ageri dira, ordekan oinik ezin ipintzeraino. Lan handia egin zuten bidegileek, agidanez: «jentilen lanak», gure arbasoek esango zutenez.

Aldaparen erdialdean eta pago lerdenen artean, Arrantsao saroia dago, bere txabolak bidearen ezker-eskuinera dituela. Aldapa gainditzean, belardi ordeka batera helduko gara. Ikuspegia hain ederra denez, nekeen aringarri atsegina da: Matxabaleko zelaia du izena, Joxemiel Barandiaranek Aralar mendian jaso zituen elezaharretako batean ere agertzen denez. Gure eskuinera, haitz batzuen ondoan, Esneaurreta saroia izandakoaren hondakinak ageri dira, eta horien gainean Mendibil saroia, harrizko txabola ederrak dituena. Beste ordubete behar izan dugu.

Toki zelaian jarraituz, Intsentsao saroia gure ezkerretara utzita, pagadi batean sartuko gara. Berehala, Arraztaran saroia baino goraxeago, Arraztarango Jentilarria daukagu, pagaditik irten orduko ageri dena. Bi ganberako trikuharria da, eta gainaren zati bat berritua du.

Gorantz jota, Oidui saroia daukagu berehala; urrutirako ikuspegi zabalik ez daukan arren, Aralar osoko saroirik politenetakoa da benetan. Alboan, izen bereko mendixka bat: merezi du bertara igotzea, bai saroi osoa egoki ikusteko bai Oiduiko trikuharria ezagutzeko; izan ere, trikuharri hori da, Aralarkoak eta beste gainerakoak ez bezala, Sartalderako norabidean eraikia dagoen bakarra. Sortaldera jarraituz eta hurrengo tontortxora igota, Suspetaizko iruinarria aurkituko dugu, tamalez lurrera eroria, leize-aho txiki baten ondoan; mendizale eta abereentzat arriskua kentzeko, zuhaitz-adarrez egoki itxita dago zuloa.

Oidui saroira itzuli gabe, utzitako bidearen bila jarraituko dugu, bi pago handi dauden gunerako norabidean: gure ezkerretara daukagun mailo-hegal luzearen oinean daude pagoak. Aurreraxeago jota Enerioko saroia

dugu, eta haren goialdera helduko gara: artzaintzan jarduteaz gain, artzainek «kantina» deitzen dioten taberna modukoa ere zaintzen dute. Guztira, bi ordu eta hiru laurden egin ditugu.

Eneriotik aurrerakoan ez dugu bide lasaia jarraitu behar, Aldundiaren guardetxea izandakoaren hondarretara jaisten baita. Txabolak baino goraxeagoko lizarditxoaren atzean ageri den bidezidorra hartuko dugu.

Bidezidorrak, gero eta harritsuagoa, mendi-hegalean barrena ordekan doa Ezkizubarren saroia jo arte, aurrera ere Sortaldera norabide berean jarraituz. Ordu erdia baino lehen heldu gara Iturbeltzeko meategiak aspaldi ustiatu ziren tokira. Lehenengo zulotik, orain urte batzuk arte, ura irteten zen; orain ez, baina beheraxeago errekatxo bat sortzen da. Mea-zuloetatik hurbil, meatzarien bizileku izan ziren txabola biren eta labe baten hondakinak daude orain.

Hondakinen atzetik eta sakanaren bazterretik gorantz jotzen du bidezidorrak, landare bikainekiko pagaditxo batean sartuz, eta horren amaieran Doniturrieta-goikoa saroia aurkituko dugu. Aipaturiko meategi-hondarretatik eskuinera mendixka bat dago, eta haren gainean ordeka bat, Maldako punta deitua; hortxe daude Doniturrieta-azpikoa iturria eta saroia, gure begientzat ezkutuan.

Doniturrieta-goikoa saroitik malda bizian gora joko dugu belardi berdeetatik zehar, eskuinera okertu eta mendi-bizkar biribilaren gainera iritsi eta handik ere gorantz jarraituz. Belardi aldapatsuan aurrera, zabal eta garbi gertatzen da bidea. Eskuinetara Beaskin saroia daukagu, artzaintza-lanetarako izateaz gain «kantina» ere hartzen duena.

Minutu gutxiren buruan helduko gara Igaratzara. Irazustako lepoaren aldetik datorren bidezidorra batuko zaigu ezkerretik, eta Etzaal mendixkari bira ematean, Amezketatik datorrena ere batuko zaigu, hori ere ezkerretik. Igaratzara denak baturik iritsiko dira.

Lau ordu eta laurden behar izan ditugu Zaldibiatik hona heltzeko. Aralar mendiak Gipuzkoa aldean dituen mendi-ibilbideetan ederrenetako bat dugu hau, ikuspegi galant eta ezberdinez gain giza bizitzaren antzinako aztarna eta lekuko isil asko baitauzkagu bidean.

Erref. bibliografikoa: José Zufiaurre Goya. Mendiak 2.
Irudi erref.: Etor-Ostoa artxiboa.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aizleor (730 m)

00,00 h. Zegamatik joanda Segurara heldu bezain laster, eskuinetik sartuko gara Laiotzera adierazten duen kale batetik. Autoa parke txiki baten alboan utziko dugu, Frantziskotar Kontzepzionisten monasterioaren ondoan (1).

Monasterioaren ezkerraldetik doan kaletik abiatuko gara oinez (160º HE).

00,01 h. Bidegurutze batera helduko gara eta eskuinetik, asfaltozko pista batetik igotzen hasiko gara. Igoeran elkarri atxikitako etxetxoak izango ditugu ezkerrean eta etxebizitza-blokeak eskuinean (200º HM) eta mendia hegoaldean ikusiko dugu (2).

00,05 h. Futbol-zelaia, tenis-pista eta igerilekuen ondotik igaro eta gero, aurrez aurre jarraituko dugu ondo asfaltatu gabeko pista batetik (210º HM); pista hori aldapatsuagoa da.

00,09 h. Beste bidegurutze batera iritsiko gara eta ezkerretik, bide zaharretik edo hormigoizko pista berritik baserri bateraino igoko gara (3). Ondoren, lurrezko edo arbel-harri soltezko bidetik jarraituko dugu.

00,14 h. Beste baserri baten ondotik igaro, eta bidegurutzean eskuinerantz joko dugu, mendebalderantz.

00,16 h. Muinora helduko gara, eta goiko aldetik igotzen den bide zaharra alde batera utzita, muinoaren eskuinaldetik jarraituko dugu, pinu artean gorantz egiten duen bidetik.

00,23 h. Ezkerrerantz biratu eta mendiguneranzko norabidean jarri gara (150º HE). Jarraian, mendigunearen eskuinaldetik joango gara.

00,36 h. Ezkerrean harrizko txabola bi ikusi ditugu eta, bide nagusitik joanez, bidegurutze batera heldu gara, harri batean dagoen metalezko gurutze txiki baten ondoan.

Bertan, ezkerrerantz erdiko bidea hartuko dugu, pinu garaien artetik 100º HErantz igotzen den bidea.

00,42 h. Bide zahar bat zeharkatu eta ekialderantz joanda bidegurutze batera iritsiko gara. Ezkerretik jo eta eserleku bi dauzkan harrizko iturri baten ondotik (4) igaro eta gero, aldapa gogorrean gora egingo dugu (60º IE).

00,46 h. Eskuinerantz biratu eta muinora helduko gara. Bertan, Santa Barbara baseliza (5) dago, eta inguruan, iturria eta ohol sendoz egindako eserleku eta mahaiak. Baselizaren atzealdean, horman dagoen postontzi zaharra ikusiko dugu, eta bertatik, hegoalderantz abiatuko gara muinoan gora doan bidezidorretik, lerroan jarritako pinuen artetik.

00,50 h. Pinuditik irten, alanbre-hesi bat zeharkatu eta hegoalderantz jarraituko dugu, aldapa txikia lagun, beste pinudi baterantz.

00,52 h. Tontorrera helduko gara. Bertan, pinudiaren eta beste alanbre-hesi baten ondoan buzoia dago (6).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aitz Leor (730 m)

00,00 h. Zegamatik joanda Segurara heldu bezain laster, eskuinetik sartuko gara Laiotzera adierazten duen kale batetik. Autoa parke txiki baten alboan utziko dugu, Frantziskotar Kontzepzionisten monasterioaren ondoan (1).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aitz Leor (730 m)

Monasterioaren ezkerraldetik doan kaletik abiatuko gara oinez (160º HE).

00,01 h. Bidegurutze batera helduko gara eta eskuinetik, asfaltozko pista batetik igotzen hasiko gara. Igoeran elkarri atxikitako etxetxoak izango ditugu ezkerrean eta etxebizitza-blokeak eskuinean (200º HM) eta mendia hegoaldean ikusiko dugu (2).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aitz Leor (730 m)

00,09 h. Beste bidegurutze batera iritsiko gara eta ezkerretik, bide zaharretik edo hormigoizko pista berritik baserri bateraino igoko gara (3). Ondoren, lurrezko edo arbel-harri soltezko bidetik jarraituko dugu.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aitz Leor (730 m)

00,42 h. Bide zahar bat zeharkatu eta ekialderantz joanda bidegurutze batera iritsiko gara. Ezkerretik jo eta eserleku bi dauzkan harrizko iturri

baten ondotik (4) igaro eta gero, aldapa gogorrean gora egingo dugu (60º IE).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aitz Leor (730 m)

00,46 h. Eskuinerantz biratu eta muinora helduko gara. Bertan, Santa Barbara baseliza (5) dago, eta inguruan, iturria eta ohol sendoz egindako eserleku eta mahaiak. Baselizaren atzealdean, horman dagoen postontzi zaharra ikusiko dugu, eta bertatik, hegoalderantz abiatuko gara muinoan gora doan bidezidorretik, lerroan jarritako pinuen artetik.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK



Aitz Leor (730 m)

00,52 h. Tontorrera helduko gara. Bertan, pinudiaren eta beste alanbre-hesi baten ondoan buzoia dago (6).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aldaon (1.411 m)

00,00 h. Baraibartik Aralarko San Migelen Santutegira igotzean, Guardetxea (1) ikusiko dugu eskuinean, eta bertan autoa utziko dugu.

Eskuinerantz abiatuko gara, pista zabaletik. Pista eraikinaren ondo-ondoan hasten da mendebalderantz, eta langa zeharkatuta gora egiten du aldapa txikiz pagadi handian barrena.

00,05 h. Lauan ibiliko gara 280º IMrantz eta, ondoren, 330º IMrantz hartuta igo egingo gara.

00,11 h. Ibilian, leize handi bat ikusiko dugu eskuinaldean, hesi batez inguratuta.

00,31 h. Ezker-eskuineranzko bihurguneen ondoren Pagomariko aparkalekura helduko gara. Eskuinerantz joz aparkalekua erditik zeharkatu eta bide lau batetik jarraituko dugu iparralderantz.

00,34 h. Bideak eskuinerantz egiten du eta gu hortik joango gara 100 bat metro. Ondoren, bide hori utzita beste bati ekingo diogu ezkerrerantz, harri lerro bateko hutsartetik eta pago biren ondotik doan bideari hain zuzen ere.
Bide horretatik 100 metro aurrera egin eta gero, hori ere utzi eta ezkerrerantz joko dugu, harlauzaz osatutako eremu batetik igoz (330º IM) bidezidor bat hartzeko. Zidorra ez da oso argia hasieran eta ondoren harri artetik doa (sarreratik, lehen aipatutako pago bien ondotik goian aurrez aurre ikusten den harri handi baten ondotik doa).

00,39 h. Zelai txiki batean, eraitsitako etxola baten ondotik pasatuko gara.

00,42 h. Belarrezko zelai handia daukan sakonune batean sartu eta ezkerrerantz joango gara, harkaitzetara hurbiltzen den bidezidorretik (310º IM).

00,46 h. Gorriz margotutako aterpetxe batera (2) iritsiko gara, eta bidezidorretik eskuinerantz abiatuko gara, iparralderantz, aurrez aurre ikusten dugun mendiaren eskuin hegalerantz.

00,48 h. Bide bat zeharkatu eta gure zidorretik jarraituko dugu 40º IErantz, eskuineko hegaletik lauan ibiliz.

00,54 h. Bidezidorra bukatu eta iparralderantz jaitsiko gara belar gainetik.

00,57 h. Erreka bat zeharkatuko dugu eta gorantz ekingo diogu landan zehar belar gainetik (320º IM).

01,02 h. Bide bat zeharkatu ondoren, iparralderantz beste bat aurkituko dugu eta bertatik abiatuko gara.

01,05 h. Oraingo bidexka hau gorantz doa harkaitz artean, iparralderantz.

01,10 h. Bidexkan gora jarraituko dugu ibar txiki baten ezkerretik.

01,13 h. Ezkerrerantz biratu eta 310º IMrantz igoko gara, harri artean.

01,17 h. Pixka bat eskuinera eginez, iparralderantz jarriko gara lehenengo eta gero 30º IErantz.

01,24 h. Lepoaren gainetik dagoen gailurreriara helduko gara eta ezkerrean mendia ikusiko dugu (3). Norabide horretan ibiliz eta alanbre-hesia jarraituz gailurreriatik joango gara iparralderantz.

01,34 h. Mendiaren oinarri harritsura heldu eta ezkerretik inguratuko dugu (330º IM).

01,40 h. Gailurrera helduko gara. Hiru buzoi daude (4), horietako bi guztiz herdoilduta eta puskatuta.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aldaon (1.411 m)

00,00 h. Baraibartik Aralarko San Migelen Santutegira igotzean, Guardetxea (1) ikusiko dugu eskuinean, eta bertan autoa utziko dugu.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aldaon (1.411 m)

00,46 h. Gorriz margotutako aterpetxe batera (2) iritsiko gara, eta bidezidorretik eskuinerantz abiatuko gara, iparralderantz, aurrez aurre ikusten dugun mendiaren eskuin hegalerantz.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aldaon (1.411 m)

01,24 h. Lepoaren gainetik dagoen gailurreriara helduko gara eta ezkerrean mendia ikusiko dugu (3). Norabide horretan ibiliz eta alanbre-hesia jarraituz gailurreriatik joango gara iparralderantz.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aldaon (1.411 m)

01,40 h. Gailurrera helduko gara. Hiru buzoi daude (4), horietako bi guztiz herdoilduta eta puskatuta.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK



Alleko (1.018 m)

00,00 h. Lizarrustiko portuan, Beasainerako norabidean eta gainera heldu baino metro batzuk lehenago, eskuinerantz igoko gara, mendebalderantz, goiko aldean ikusten dugun baserrira eramango gaituen bidetik (1).

Baserrira iristean eskuinera egingo dugu, zuhaitz-lerro baten eta alanbre-hesi baten ondotik doan bidezidorretik. Zidorra, ekialderantz, errepidearen ondoan dagoen eraikin baten hondarren gainetik doa.

00,03 h. Antena bat eta euri-neurgailu bat dauzkan zelaira heldu aurretik, alanbre-hesia utzi egingo dugu, eta ezkerrerantz abiatuta bidezidorretik jarraituko dugu harri artean igoz (30º IE).

00,09 h. Belar gainetik joango gara, lau-lau, pago eta hegal harritsuen artetik (320º IM).

00,13 h. Bidezidorra harkaitzez eta pagoz osatutako labirintotik doa, ingurune ederrean.

00,15 h. Ibilbidearen leku gakoa da hau, eta bertan, eskuinerantz egingo dugu (30º IE). Igotzen hasi eta IErantz 80º biratzen joango gara.

00,21 h. Ezkerrerantz jo, iparralderantz lauan ibili eta, ezker-eskuinerantz zenbaitetan biratu ostean alanbre-hesi batera helduko gara. Hesia lagun, ezkerrerantz abiatuko gara, iparralderantz.

00,30 h. Alanbre-hesiaren ondoko pagaditik jarraituko dugu. Malda pikoagoa da eta izerdia botaraziko digu.

00,34 h. Alanbre-hesia eskuinerantz doa eta gu ere bai. Lauan ibiliko gara 70º IMrantz.

00,42 h. Alanbre-hesia beherantz hasten denean utzi egingo dugu eta ezkerrerantz igotzen hasiko gara landan zehar, iparralderantz, harriak eta zenbait pago dauzkaten zelaietatik.

00,51 h. Gailurrera iritsiko gara. Oinarri zilindrikodun mugarri geodesikoa dago eta Alleko izena idatzita daukan buzoia, bertakoek hala esaten diote mendiari eta.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Alleko (1.018 m)

00,00 h. Lizarrustiko portuan, Beasainerako norabidean eta gainera heldu baino metro batzuk lehenago, eskuinerantz igoko gara, mendebalderantz, goiko aldean ikusten dugun baserrira eramango gaituen bidetik (1).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Alleko (1.018 m)

00,51 h. Gailurrera iritsiko gara. Oinarri zilindrikodun mugarri geodesikoa dago eta Alleko izena idatzita daukan buzoia, bertakoek hala esaten diote mendiari eta.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Artxueta (1.343 m)

00,00 h. Aralarko San Migelen Santutegira heldu baino 300 bat metro lehenago, autoa utzi eta ezkerrerantz igoko gara asfaltozko pista batetik. Pista, zamalanetako kai edo arrapala batekin batera 40º IErantz hasten da. (1)

Mendiaren eskuin hegaletik igoko gara.

00,04 h. Ezkerrerantz aspaldiko harri ustiategi baterantz doan bidea hasten da. Aurrez aurre jarraituko dugu, eta banaka agertuko zaizkigun pagoen artean bihurgune itxiak eginez eremu harritsura gerturatuko gara.

00,09 h. Ur-biltegi batzuen (2) gainetik igaro eta ezkerrerantz bihurgunea eginez mendebalderantz jarriko gara pixkanaka-pixkanaka.

00,12 h. Errepikagailuak eta buzoia goian eskuinean ikusten ditugunean bidea utziko dugu eta norabide horretan igoko gara harri artean, landan zehar eta malda pikoan gora.

00,15 h. Tontorrera iritsiko gara. Iparraldetik moztuta dago. Telebista-errepikagailuen ondoan etxola batzuk ikusiko ditugu eta haien alboan buzoi bi, bat nahiko apurtuta dago eta besteak aizkora enbor gainean irudikatzen du (3).
Mendi honek ez dauka balio handirik hemen azaldutako ibilbideari dagokionez, baina igotzea merezi du, bertatik ia Aralar osoa ederki ikusten baita.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK



Artxueta (1.343 m)

00,00 h. Aralarko San Migelen Santutegira heldu baino 300 bat metro lehenago, autoa utzi eta ezkerrerantz igoko gara asfaltozko pista batetik. Pista, zamalanetako kai edo arrapala batekin batera 40º IErantz hasten da. (1)

Mendiaren eskuin hegaletik igoko gara.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Artxueta (1.343 m)

00,09 h. Ur-biltegi batzuen (2) gainetik igaro eta ezkerrerantz bihurgunea eginez mendebalderantz jarriko gara pixkanaka-pixkanaka.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Artxueta (1.343 m)

00,15 h. Tontorrera iritsiko gara. Iparraldetik moztuta dago. Telebista-errepikagailuen ondoan etxola batzuk ikusiko ditugu eta haien alboan buzoi bi, bat nahiko apurtuta dago eta besteak aizkora enbor gainean irudikatzen du (3).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arantzamendi (783 m)

00,00 h. Idiazabaldik Beasainerantz abiatuko gara, eta 500 bat metrora, Segurarako bidegurutzearen ondoren, asfaltozko pista estua hartuko dugu eskuinerantz. Pista hori Olaberrira doa goiko aldetik.

Pistan kilometro bi egin eta gero, Oiarbide auzora helduko gara, gain batean, eta bertan, armarridun baserri handi baten ondoan autoa utziko dugu (1).

Handik eskuinerantz hasiko gara, ur-biltegira doan hormigoizko pista batetik. Pista (160º HE) haritz batzuen ondotik doa hasieran, zelai artean ondoren eta pinudi batetik azkenik.

00,04 h. Bidegurutze batera helduko gara eta eskuinerantz igotzen jarraituko dugu, hegoalderantz.

00,06 h. Aurrez aurre ur-biltegiak ikusiko ditugun bidegurutzera (2) iritsitakoan eskuinerantz (230º HM) joango gara lurrezko bide batetik eta langa bat zeharkatuta. Langa baino 20 bat metro aurrerago beste bide bat hartuko dugu ezkerrerantz. Bide horrek gora egiten du 210º HMrantz.

00,12 h. Bidean gurpil-arrasto handiak daudela gorantz jarraituko dugu hainbat zuhaitz-motaren artean (pinuak, haritzak, pagoak, akaziak eta abar) muinoaren eskuin-hegaletik.

00,15 h. Ezker-eskuin eginez muinora igoko gara eta berriro jarraituko dugu bere eskuinetik, pinu artean hegoalderantz.

00,19 h. Ezkerrerantz bide bat agertzen zaigunean aurrez aurre jarraituko dugu norabide berean eta malda lasaiagoan.

00,26 h. Muinoaren ezkerraldetik igarota 150º HErantz jarraituko dugu.

00,29 h. Gain batera heldu, harresi txiki baten ondotik lauan ibili eta pinuditik atera ondoren, aurrez aurre dagoen alanbre-hesia zeharkatuko dugu. Hesia zeharkatu ondoren, bidea utzi eta ezkerrerantz joango gara alanbreei jarraituta. Bidezidor batetik gora egingo dugu 120º HErantz alanbre-hesiaren ondotik.

00,43 h. Aldapa txikiagoa da orain eta hegoalderantz jarraituko dugu, alanbre-hesia, harresi txiki bat, pagoak, haritzak eta pinuak ezkerrean lagun ditugula.

00,48 h. Tontorrera iritsiko gara. Mugarri geodesikoa dago, eta ezkerrean, alanbre-hesiaren atzean, buzoia gurutzea eta guzti (3).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arantzamendi (783 m)

Pistan kilometro bi egin eta gero, Oiarbide auzora helduko gara, gain batean, eta bertan, armarridun baserri handi baten ondoan autoa utziko dugu (1).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arantzamendi (783 m)

00,06 h. Aurrez aurre ur-biltegiak ikusiko ditugun bidegurutzera (2) iritsitakoan eskuinerantz (230º HM) joango gara lurrezko bide batetik eta langa bat zeharkatuta.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arantzamendi (783 m)

00,48 h. Tontorrera iritsiko gara. Mugarri geodesikoa dago, eta ezkerrean, alanbre-hesiaren atzean, buzoia gurutzea eta guzti (3).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arastortzeko gaina (813 m)

00,00 h. Ataundik San Gregorio auzora abiatuta, Arrateta (150º HE) adierazten duen asfaltozko pista igoko dugu ezkerrerantz autoz (X 0567224 - Y 4761739). 500 metrora harrobi batzuen ondotik igaroko gara, 1.400 metrora hormigoizko pista bat ikusiko dugu ezkerrean, eta

1.600 metrora hormigoizko beste pista bat, ezkerrean baita ere (X 0568512 - Y 4761182). Pista horretatik igoko gara (310º IM).

Errepide nagusitik 3 kilometrora Muntxueta auzunera iritsiko gara (X 0569052 - Y 4761227). Eskuinean dagoen hormigoizko lehen pistatik metro batzuk barneratuko gara eta baserri baten ondoan autoa utziko dugu (1).

Oinez hasiko gara han bertan baserriaren eta harri-lubeta baten arteko pistatik (110º HE).

Pista laua da hasieran, eta zati batzuetan harri-lubeten gainean eraikita dago. Ibar handiko ezker-hegaleko larreen artean doa maldaren erdialdetik.

00,05 h. Igo ahala baserri bat ikusiko dugu gorago ezkerrean.

00,07 h. Malda handiagoz eta 70º IErantz (X 0569523 - Y 4760929), baserri artetik igaroko gara (2).

00,08 h. Azken baserrira heltzean (eskuinean) hormigoia amaitu egingo da. Malda leundu egingo da eta goian ezkerrean mendiaren alde harritsua ikusiko dugu.

00,11 h. Alde bakoitzean borda bat daukan mendi-lepo batera helduko gara (X 0569974 - Y 4760804). Metalezko langa bat zeharkatu eta ezkerreko borda (3) inguratuko dugu. Ondoren, malda pikoa igoko dugu iparralderantz eta pinudi biren arteko alanbre-hesia zeharkatuko dugu. (Eskuinean dagoen bide batetik alanbre-hesia jarraituz eta pinudiaren gainean ezkerrera biratuz ere egin daiteke).

00,16 h. Alanbre-hesia eta bide bat zeharkatu eta gero (X 0569982 - Y 4760964), bidexka batetik jarraituko dugu edo landan zehar, eskuinerantz (20º IE), eta pagadi baten goiko alderantz igoko gara.

00,25 h. Belar altuen artetik pagadira helduko gara (X 0570052 - Y 4761183) eta 330º IMrantz abiatuko gara maldaren erdialdetik, gailurrerian ikusiko ditugun harkaitzetarantz. Eskuinean Ausa Gaztelu, Uarrain eta abarretatik banatzen gaituen ibar erraldoia daukagu.

00,34 h. Malda pikoa belarrei helduta igo ostean pagaditik irten eta gailurreria zabalera helduko gara (X 0570020 - Y 4761250). Bertatik ezkerrerantz jarraituko dugu landan zehar eta belar altuen artean (250º HM).

00,38 h. Lauan ibili eta tontorra aurrez aurre ikusiko dugu (mendebaldea).

00,41 h. Gailurrera iritsiko gara (X 0569787 - Y 4761193). Oinarrian bertako harriak dauzkan mugarri geodesiko baten hondarrak daude eta piramide itxurako buzoia, altzairu herdoilgaitzezkoa. Eibarko Klub Deportiboak jarri zuen buzoia eta irekitzeko mekanismo bitxia dauka (4). Leku paregabea da Aralarko mendebaldea ikusteko.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arastortzeko-gaña (813 m)

Errepide nagusitik 3 kilometrora Muntxueta auzunera iritsiko gara (X 0569052 - Y 4761227). Eskuinean dagoen hormigoizko lehen pistatik metro batzuk barneratuko gara eta baserri baten ondoan autoa utziko dugu (1).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arastortzeko-gaña (813 m)

00,07 h. Malda handiagoz eta 70º IErantz (X 0569523 - Y 4760929), baserri artetik igaroko gara (2).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arastortzeko-gaña (813 m)

00,11 h. Alde bakoitzean borda bat daukan mendi-lepo batera helduko gara (X 0569974 - Y 4760804). Metalezko langa bat zeharkatu eta ezkerreko borda (3) inguratuko dugu. Ondoren, malda pikoa igoko dugu iparralderantz eta pinudi biren arteko alanbre-hesia zeharkatuko dugu. (Eskuinean dagoen bide batetik alanbre-hesia jarraituz eta pinudiaren gainean ezkerrera biratuz ere egin daiteke).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Arastortzeko-gaña (813 m)

00,41 h. Gailurrera iritsiko gara (X 0569787 - Y 4761193). Oinarrian bertako harriak dauzkan mugarri geodesiko baten hondarrak daude eta piramide itxurako buzoia, altzairu herdoilgaitzezkoa. Eibarko Klub Deportiboak jarri zuen buzoia eta irekitzeko mekanismo bitxia dauka (4). Leku paregabea da Aralarko mendebaldea ikusteko.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aretza (983 m)

00,00 h. Etxegarateko portuan, Beasaingo norabidean (gainean), Buenos Aires tabernako etxea dago. Tabernara heldu baino lehenago eskuinean hasten den bidetik ekingo diogu ibilaldiari. Bidea taberna ostetik doa (30º IE) (1).

00,01 h. Eskuineko lehen bidea hartuko dugu, eta gas-biltegi baten ondotik igaro ondoren bideak bira egingo du bat-batean eta hegoalderantz igoko da (2).

00,03 h. Ezkerrerantz bide bat aterako da eta guk aurrez aurre jarraituko dugu belarrezko bide batetik. Bide hori gorantz doa ezkerrerantz bihurgune txiki bat eginez.

00,06 h. Igotzen jarraituko dugu, oraingoan 100º HErantz.

00,10 h. Bidea pinudi batean sartuko da (pinu zahar eta handiak).

00,11 h. Pinuditik irten eta ezkerrerantz egingo dugu, harrizko horma baten ondotik gorantz doan bidexkatik, 70º IErantz.

00,14 h. Ezkerrean txabola bi (3) utziko ditugu. Horma amaitzean 50º IErantz jarraituko dugu, pagoetarantz.

00,23 h. Pagoetara helduko gara eta gorosti handi baten ondoan eskuinerantz joko dugu, 120º HErantz doan bidetik.

00,30 h. Pagaditik irten eta basoa eskuinean utzita inguratu egingo dugu. Bidea malda erdialdetik doa lau-lau 140º HErantz.

00,33 h. Pagadian sartuko gara berriro eta ezkerrerantz egingo dugu bira 110º HErantz.

00,34 h. Bidezidor batetik ezkerrerantz joango gara 20º IErantz.

00,35 h. Pagadia bukatu eta pinudia hasiko da. Pinudiaren ezkerraldetik igoko gara.

00,40 h. Tontorrera helduko gara. Pinuen eta alanbre-hesi baten ondoan lurralde arteko mugarri bat dago, mugarri geodesiko bat, gurutze bat eta buzoia (4).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aretza/Balankaleku (983 m)

00,00 h. Etxegarateko portuan, Beasaingo norabidean (gainean), Buenos Aires tabernako etxea dago. Tabernara heldu baino lehenago eskuinean hasten den bidetik ekingo diogu ibilaldiari. Bidea taberna ostetik doa (30º IE) (1).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aretza/Balankaleku (983 m)

00,01 h. Eskuineko lehen bidea hartuko dugu, eta gas-biltegi baten ondotik igaro ondoren bideak bira egingo du bat-batean eta hegoalderantz igoko da (2).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aretza/Balankaleku (983 m)

00,14 h. Ezkerrean txabola bi (3) utziko ditugu. Horma amaitzean 50º IErantz jarraituko dugu, pagoetarantz.

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Aretza/Balankaleku (983 m)

00,40 h. Tontorrera helduko gara. Pinuen eta alanbre-hesi baten ondoan lurralde arteko mugarri bat dago, mugarri geodesiko bat, gurutze bat eta buzoia (4).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Atxurbide (773 m)

00,00 h. Beasaindik Idiazabalera helduko gara eta ezkerrera sartuko gara elizaren ondoko kaletik. Bertan utziko dugu autoa.

Handik oinez hasiko gara beste kale edo asfaltozko pista batetik (1). Pistatik ezkerrerantz joanda Gurutzetarantz ere igo daiteke (60º IE).

00,05 h. Pistak baserri baten ondoan hilerrira joateko eskuinerantz bihurgunea daukanean, beste batetik jarraituko dugu. Beste hori ere asfaltozkoa da, eta malda txikiz gora egiten du larre eta alanbre-hesien artean (130º HE).

00,11 h. Bihurgune batzuen ondoren etxalde bat ikusiko dugu ezkerrean eta aurrerago beste batzuk eskuinean, askoz handiagoak.

00,14 h. Azken horiek igarota aurrez aurre igoko gara lurrezko bide batetik (160º HE), eta ondoren baserri huts baten ondotik pasatuko gara (2) eta landaredi itxian sartuko gara muinoaren eskuinaldetik.

00,20 h. Ezkerrerantz irteten diren bideak alde batera utziko ditugu eta aurrerantz igotzen jarraituko dugu, hegoalderantz, ibar zabala eskuinean daukagula.

00,23 h. Bidegurutzean aurrerantz jarraituko dugu muinoaren eskuinaldetik (160º HE).

00,28 h. Pinu, haritz, pago eta abarren artean ezkerrerantz eginez 120º HErantz joko dugu.

00,32 h. Bide nagusiak bihurgunea egingo du eskuinerantz eta muinoaren ezkerraldean ipiniko da.

00,37 h. Borda baten hondarren ondotik igaro eta gero, hurrengo bidegurutzean, eskuinerantz jarraituko dugu pinu artean (210º HM).

00,40 h. Ezkerrerantz bide bi hasten dira, eta pista lau bihurtzen denean, bigarrenetik abiatuko gara hegoalderantz igotzeko. Berehala beste bidegurutze bat dago, eta han ere ezkerrerantz joko dugu. Laster harrizko txabola bat ikusiko dugu eskuinean.

00,44 h. Muinora helduko gara eta eskuinerantz, bidezidor zabal batetik, pinuditik irtengo gara. Ote zuri artean pinudiaren eskuinaldetik jarraituko dugu (200º HM).

00,50 h. Ezkerrean, pinudiaren ondoan eta pago batzuen azpian aterpetxe bat dago. Belar finen artean eta malda txikiz aurrera egingo dugu muinoaren gainaldetik. Muinoaren goiko aldera heltzen garenean pinudi baten eta harrizko horma baten (hegoaldea) ondotik igaroko gara, eta ezkerrean, atzean, Txindoki ikusiko dugu.

00,59 h. Tontor batera helduko gara. Bertan, eskultura bitxi bat (3) dago eta aurrez aurre mendia (4) ikusiko dugu. Ondoren, leporantz jaitsiko gara (hegoaldea).

01,07 h. Borda baten ondotik igaro, alanbre-hesi bi zeharkatu eta azken aldatsa igo eta gero gailurrera iritsiko gara. Alanbre-hesi baten ondoan mugarri geodesiko bat dago eta baita buzoia ere, teilatua solte daukan metalezko etxetxoa (5).

Iturria eta irudi-erref.: Jose Luis Miguel de Blas.

IBILBIDE IRUDIZTATUAK

Atxurbi (773 m)

00,00 h. Beasaindik Idiazabalera helduko gara eta ezkerrera sartuko gara elizaren ondoko kaletik. Bertan utziko dugu autoa.

inguruko beste herri askoren antzekoa , bere helburua herrisketako jendea bildu eta gaztelarren erasoez babestea izan zen. San Joan Bataiatzailearen eliza handiak oraindik ere bere dorre gotikoa ageri du. Multzoan hemezortzigarren mendeko erretaula, galdutako aurrekoaren eskultura erromanistak bereganatu dituena, nabarmentzen da. Oso hurbil, San Migelerako bidean, Zamartzeko Andre Mariaren eliza erromanikoa dago, aurrez monasterioa izana.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Uharte-Arakil

Uharte-Arakil artzain txakurren txapelketa nafar tradizionalarengatik da ezaguna**,** besteak beste. Txapelketak beste hainbat jarduera erakarri du, hala nola Idiazabal jatorri izendapena duen ardi gaztaren, ardi latxen edo motzaldi mekanikoaren lehiaketa-erakusketa.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Etxarri Aranaz

Etxarri-Aranazko eliza

Etxarri-Aranatz, bidegurutzea izaki, Berant Erdi Arotik gaizkileen muga bezala ezagutukoaren zati izan zen, non Gaztela eta Nafarroako soldaduengandik ihesi zebiltzanek babes segurua baitzuten. Hiria Lakuntzakoaren antzeko plaza-ibiltoki handi baten inguruan egituraturik dago. Jauregi batzuk badira bertan, eta Jasokundekoaren parroki eliza, XVI. mendeko bigarren erdialdekoa eta estiloz gotikoa, zeinak 1680. urte inguruko erretaula bikain bat gordetzen baitu. Herri honek gizon nahiz emakumeek dantzatzen duten Ingurutxoaren dantza ederra, bere musikaz, eman dio euskal folkloreari.

Arakil bailarako herri hauetako erromeria eta festetan zilar trinko eta bozelduzko *katillak* direlakoetan ardoa dohain *auzate* banatzeko usadioari eutsi zaio.

Garai ezberdinetako etxeen egituraketa bitxiak ikus daitezke, XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasierakoak batez ere. Horrela, herri-kale morfologia ageri duten herriak ditugu, Arbitzu, Hiriberri, Ihabar edo Satrustegi kasu, eta herri-plaza bezala planifikatutako aski bereizgarriak diren Lakuntza edo Arruazu moduko herriak.

Etxe bereizi edo beste batzuekin elkartutakoa, dotorea edo apalagoa, lau isurialdeko teilatua, fatxadan hiru bao eta ate nagusia dituena da ohizkoena, eredu honek aldaerak ager baditzake ere. Jauregi tankerako etxerik bada, Egiarretakoa, «Dorrekoa» deitua, edo Murginduetakoa kasu.

Etxarri-Aranaztik mendebaldera, Arakil ibaia mehargune batetik igarotzen da, segidan aurrekoa baino estuagoa den eremu lau bati bide emanez. «Sakana» bezala ezaguna den bailara da horrakoa, udalerri bereiziak moldatzen dituzten hainbat herrik osatua: Bakaikoa, Iturmendi, Urdizin, Altsasu eta Ziordia.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Lakuntza

Lakuntzak ere bastida izeneko Frantziako hegomendebaldeko herri defentsibo eta harresituak ekartzen ditu gogora. Herria Arakil ibaiaren eskuinaldean dago, eta berant gotiko estiloko parroki eliza bat du, XVI. mendeko bigarren erdialdean jasoa baina XVIII. mendean handitua. Elizak XVII. mendeko lehen erdialdeko erretaula protobarroko bat eta zenbait taila erromanista ditu, 1857. urtean Azpeitiko Juan Amezúak egindako organo eder batez gain, zeinaren kutxa neogotikoa baita. Herriaren erdiko plaza-pasealekuan gaizkileak jendaurrean zigortzen zituztenean erabili ohi zen XVI. mendeko erroilu edo pikota gordetzen da.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Lakuntzako pertza

«Absolbizio» izeneko ospakizun-eguna zan, inguruko napar errietakoak San Migel' era joaten diran eguna, ain zuzen ere 1098'an azi ta berrituriko eliza sagáratu zutenezkoa ospatzen bai-dute. Eguerdiko eguzki berotatik egiñaalean babestu ta antxe inguruetan erri bakoitzekoak elkarrekin bildurik, bazkaria berotzen zuten.

Aitz baten gaiñean ipiñi zuten Lakuntza' koek egur-pilla ta aren gaiñean janariz betetako pertza. Zearo aazturik zeuden bitartean, erre zituan egur guztiak suak, galdu zuan bere oreka aitzaren gaiñean pertzak eta... an iges egin zien maldan beeruntz, janari guztiak lurrean barreiatuz.

Inguru-errietakoek, gertatu zana ikustean, isekaz galdetzen omen zieten: «Nun da Lakuntza'ko pertza?» Janik gabe gelditzeaz gaiñera, urte artan

ez-ezik urrengo urteetan ere iseka bizia egiten omen zieten beste errietakoek. Eta beti mingarri gertatu izan zaie Lakuntza'koei iseka ori.

Baiña gauzak aldatzeko indar aundia du denborak eta, urteen joanean, lakuntzarrek ere, aserreak utzirik, ontzat artzen dute orain leen isekaz esaten zietena. Orrela, Jakintza ta Kirol-Elkarte bat sortu dutenean, «Lakúntza'ko Pertza» ipiñi diote izen.

Erref. bibliografikoa: Mendiak 2. Patxi Ripa. Etor Arg.
Irudi erref.:Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Lakuntzako pertza

Odolkiekin egiten den erromeria berezi hau, egunsentian abiatzen da Lakuntzatik. Abiatu aurretik, ordea, asto bat kargatzen dute pertzarekin, odolkiekin eta txistorrakin.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Lakuntzako pertza

Jai giroa

Odolkiekin egiten den erromeria berezi hau, egunsentian abiatzen da Lakuntzatik. Abiatu aurretik, ordea, asto bat kargatzen dute pertzarekin, odolkiekin eta txistorrakin. Talde honek oinez egiten du santutegira bitarteko lau ordutako bidea eta gainontzeko lakuntzarrak automobilez. Ondoren denak elkarturik meza entzuten dute eta, behin amaitu ondoren, igotako odolkia eta txistorra jaten da, ogi eta ardoarekin bustita..

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Ospakizunen gida. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Ostoa Artxiboa.

INGURUNEA

Lakuntzako pertza

Eguna

Lakuntzarrak Aralarko San Migelen santutegira igo ohi dira urtero abuztuko hirugarren igandean, hirurogeiko hamarkadaren amaiera aldera berpiztutako tradizio bati jarraiki...

Legenda

Lakuntzako Pertzak izen bereko istorio dibertigarri batean dauka oinarria. Istorio honek dioenez, badirudi zenbait lakuntzar San Migelera zihoazela, bide malkartsu eta harritsu honetako puntu batean geratu zirela pertza batean zeramatzaten odolkiak jateko hamaiketakoan. Hala, bada, jakia berotzen ari zirela, haietako batek, nahi gabe ostiko bat eman omen zion pertzari eta han joan omen ziren pertza eta odolkiak aldapan behera, inguru haietan ehizan zebilen errotari baten begia jo zuten arte. Eta odolkiaren edo pertzaren kolpearen eraginez begia galdu omen zuen honek.

Istorio honek lakuntzarrenganako burla eta txantxa eragin zuen eta, Alfredo Feliuk dionez, zera galdetzen omen zieten bertakoei: *«Lakuntzako pertzak zer piñ egin zun?* .

Eta lakuntzarrek erantzuten omen zuten, aldarte txarrez: *Hire aitak eta amak egin zuena*.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Ospakizunen gida. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Lakuntzako pertza

Erromeria berezi hau amaitzeko, lakuntzarrek, bere betebehar erlijiosoak bete eta aspaldiko ohiturei jarraiki, bere berea den dantza bat, Lakuntzako Pertza, dantzatzen dute. Lakuntzarrek, zorionez, San Sebastian egunean dantzatzen duten *Alkate dantzarekin* batera berreskuratu dutena, hain zuzen ere.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Ospakizunen gida. Edit. Ostoa.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Irurtzun

Biaizpeko pasabide ospetsua

Iruñetik Arakilgo korridorera heltzea oso erraza da, A-15 autobidetik edo Irurtzun aldera doan N-240-A errepidetik; hortik aurrera N-240-A berak bailara osoan barrena jarraitzen du..

Erga harkaitzaren azpian Irurtzun dago, Bi Haizpe izeneko haitzartea zeharkatzen duen Larraun ibaiak bainatzen duen haitz-puska honek Arakil ibaiaren ibilbidea mozten du. Irurtzun leku estrategiko batean kokaturik dago Iru ea, Gasteiz eta Donostia arteko bidegurutzean kokaturik baitago.2.000 biztanle inguru duen herria da, industrializazioa tarteko bere landa-izaera galdu duena. Hala eta guztiz ere, XVIII. eta XIX. mendeetako etxez osatutako alde zahar txikia mantentzen du, eraikin berri eta pisuetako etxe berrien arten ezkutaturik. Gaur egungo San Martin parrokia, herriaren goialdean, XIX. mendearen bukaeran eraiki zuten eta antzinako eliza gotikotik geratzen den aztarna bakarra bere portada da, egun Kultur Etxearen fatxadan dagoena. Eskualdeko azienda-merkatu eta azoka garrantzitsua izan zen. Gaur egun funtzio horiek galdu

ditu baina oraindik ere, asteartero azoka txiki bat antolatzen da Foruen plazan, Udaletxe berri eta frontoiaren ondoan.

Herriko bestak uztailaren 25ean ospatzen dituzte, Santiago, eta pertsonaia historiko edo elezaharretako pertsonaiek osatzen duten erraldoien konpartsa ateratzen da, Gartzia Ximenez Erregea, Teodosio de Goñi, Amaia eta Petronila.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench. Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Baraibar

Lekunberriko hego-ekialdetik, Etxarrirako errepidearen irteeraren aurrez aurre, Iribas eta Allira doan errepidea, ezkerretara, eta Aralarko San Migelera doana, eskuinetara, banatzen dituen bidegurutzeraino doan errepidea hartuko dugu. Santutegira iritsi aurretik Baraibar zeharkatzen duen NA-7510 errepidea da.

Baraibarrek 89 biztanle ditu. Herria aldapan dago eta San Migel eliza herriaren erdian. Bertako etxeak, gehienak XVIII eta XIX. mendeetakoak, handiak, bereiziak, bi eta lau isuriko teilatudunak dira, zonaldeko tipologiari jarraiki. Hauetakoren bat silarri-oinarriaren gainean zurezko egitura du eta askok aurrealdean bailararen armarria dute.

Baraibarren inguruak oso politak dira paseatzeko. Ibilbide polit horietako bat, are autoz ere egin daitekeena, pistan barna errepikagailuraino doana da, Araitz bailara eta Malloakeko malkar ezin ederragoak bistan ditugula.

Herriko bestak irailaren 29an izaten dira, San Migeletan hain zuzen ere.

Erref. bibliografikoa eta grafikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.

INGURUNEA

Iribas

Baraibarretik Iribasera pistatik joan badaiteke ere, errepidetik joan nahi izatekotan Lekunberrirantz jo beharko dugu, bidegurutzeraino, eskuinerantz NA-7500 errepidea hartu eta, zubia zeharkatu gabe Larraun ibaiari jarraituz gora egin.

Herriak, 49 biztanle baino ez dituenak, Larraun ibaiaren sorburuaren ondoan dago. Etxeak Aralarko mendietara iritsi aurreko lautadan daude. Oso etxalde interesgarriak eta egitura gisa zurezko habeak dituen pilotaleku estali ederra ditu, baita XIII. mende hasierako eliza protogotikoa ere, San Joan Bataiatzailearen omenez eraikia, dorre eder eta estilizatuarekin eta arkupe batek babesten duen portada ederrarekin.

Bestak abuztuaren 31n ospatzen dira.

Erref. bibliografikoa eta grafikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.

INGURUNEA

Mugiro

A-15 autobidetik abiatuta eta Mugiroko Bentan dagoen 123 irteeratik hartuta bisitatzen den lehenengo herria da. Haritz amerikarreko eta bertako haritzeko hariztia zeharkatuta, kilometro eskasa eginda herrira, txikia bera, 67 biztanle baino ez ditu, iritsiko gara; Aralar bistan duela, luzera antolatuta dago, eta maldaxkan.

Herriaren ekialdean San Pedro eliza dago, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran berreraikia, Konbentzioaren gerran erabat suntsitu baitzen. Etxeak, ondo zainduak, zonaldekoen estilokoak dira eta XVII,

XVIII eta XIX. mendeko etxe eder askoak topatuko ditugu aurrealdean armarri barrokoak dituztela.

Mugirotik ia Latasaraino, Lekunberri zeharkatzen duen errepidetik joanda, Plazaolako Bide Berde egokituaren zati bat ibil daiteke, Larraun ibaia lagun dugula.

Herriko zaindari San Pedroren izanik, bestak ekainaren 29an ospatzen dira.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Lekunberri

Sakonune bateko hego-ekialdeko mutur batean, A-15 autobiaren behealdean eta N-130 errepideak IMtik HEra zeharkatuta Larraungo eskualde buru den Lekunberri dago, 1995az geroztik udal independentea. Herriak 846 biztanle ditu. Azpieskualdeko gunea da, baita merkataritza, industria eta zerbitzu arloetako gunea ere. Udarako ohiko lekua da. Komunikazio zentro estrategikoa ere bada.

Alde zaharra, Pe-aren magalean eta Arrakieta ubidearen ertzean, errepidearen bi aldeetara handitu zen hego-ekialderantz. Herriaren mutur batean, Etxarrirako errepidean, garai bateko Plazaola trenaren geltokia dago, gaur egun Turismo Bulego(artisautza erakusketa eta denda barruan daukala) eta Plazaolako Partzuergo Turistikoaren egoitza bihurtuta. Garai bateko biltegietan, geltokiari itsatsita dagoen eraikina, zonaldeko artisauen erakusketa antolatu da, eta, gainera, Plazaola zonaldeko turismo, kultur, gastronomi eta folklore baliabideak jasotzen dituen diaporama ikus daiteke.

Alde zaharrak, eraikuntza berriek eta errepide aldera egin diren handitzeak zertxobait desitxuratuta badago ere, eraikin interesgarriak ditu, besteak beste: San Joan Bautista eliza, XIV. mendekoa, gotikoa, eta zenbait aztarna erromaniko dituena, baita XIII. mendeko bataiarria eta XVI eta XVII. mendeetako erretaula barroko eta errenazentista interesgarriak ere.

Inguruan eta Arrakieta aldera eginez, etxalderik ederrena topatuko dugu, bazter zoragarriak osatuz. Etxeak handi eta ederrak dira, bereiziak, oro har bi isurikoak, nahiz eta laukoak ere badauden, eta askok herriko biztanleei aitoren seme izaera ematen zieten armarriak dituzte aurrealdean. Bailaran dauden beste etxeen tipologia berdinekoak dira eta gehienak XVIII eta XIX. mendekoak badira ere, bada lehenagokoa denik ere: Alkatanea, XVI. mendeko gotiko-berantiarra.

Eraikin interesgarria, modernoa baina, Aiestaran hotela da, estiloz neoerregionalista, 1932an Victor Eusak eraikia. Eraikinean silarria, adreilua eta zura tartekatzen dira. Errepidearen alde batean, halaber, Klaratarren komentua dago, 1888an eraikia Juanmarti-enatarren babespean.

Herriaren irteeran, Azpirotz mendaterantz hartuta, Pilarreko Ama Birjina baseliza dago. Egun bereko bestan, urriak 12an hain zuzen ere, ospatzen dira Lekunberrin herriko bestak.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Araitz harana

Betelu

Azpirozko mendatea bukatzen denean, ibarraren zabaltzea dakarren Zigadi-Beroate haizpitartea igarota, Irulegi mendiaren babesean, Betelu herria dago, 1694az geroztik udal independente gisa bailaratik bereizia.

Iru-etik 45 kilometrotara eta Donostiatik 46tara dago. Herria 240 metrotara dago itsas mailatik. Klima ozeanikoa du; tenperatura aldaketak neurrizkoak dira eta neguak epelak eta motzak dira.

Beteluko Uren garrantziak ur mineralaren inguruko industri garrantzitsua sortzea ekarria, urak propietate mineral medizinalak baititu.

Herriak 340 biztanle ditu, eta etxeak, handiak eta bananduak, errepidearen bi aldeetan kokatuta daude, Araxes ibaia muga dutela. Bi auzotan banatuta daude: Irigoien auzoa, hegoaldean, eta hirigunea bera,

San Pedro elizaren inguruan handitu zena. Elizak portada gotikoa du, Erdi Aroko eraikinetik geratzen den aztarna bakarra, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan zehar berritua.

Interes handiko beste eraikin batzuk ere baditu, Indianoetxea, XVIII. mendeko etxe barroko ederra, harrizko zutabeak dituen barne-patio ederra duena, eta, bestalde, Apeiztizaharra, Erdi Aroko itxurako dorretxe ederra, silarrizko etxaurrea eta zurezko egituraduna; ibaiaz beste aldean dago, Intzarako bidean.

Irigoien auzoaren sarreran bertan Gurutze Deunaren baseliza txikia dago, jatorriz XVI. mendekoa. Bertatik Irulegiko gainera doazen bi bide ateratzen dira. Ezkerrekoak GR-21 bidea egiten du -Bide Ignazioarra izenarekin ere ezaguna, Loiola Xabierrekin lotzen baitu-, Irulegiko ordokiak zeharkatuz eta Errazkin zein Albiasu bidean Natur Enklabearen ondotik pasatuz San Donato baselizara iristen da. Eskuinekoak, berriz, baso-pista batera eramanen gaitu; berau ere, haritz eta belardien tartetik, San Donatora iristen da.

Herriko bestak San Pedrotan ospatzen dira, ekainaren 27-29 bitarteko asteburuan.

Gaintza

Uztegitik mendebaldera, zertxobait gorago, mendixka baten gainean, Gaintza herria dago, Irumugarrieta mendipean (Balerdi mendi ederraren aurrez aurre eta Azkarate herriaren parean); bertatik bailara gehientsuena ikusten da. Gaintzak 71 biztanle ditu eta XVIII eta XIX. mendeetako etxetzar ederrak, batzuk zurezko egituradunak, bi auzotan banatuta, maldan daude.

Beheko auzoa San Martin elizaren inguruan eraikita dago; eliza xumea eta Erdi Arokoa, nahiz eta XVIII. mendean aldaketa batzuk izan. Bertatik ere oso erraz iritsiko gara Uztegin aipatu dugun iralekura.

Gaintzak San Martin egunean ospatzen ditu bestak, azaroaren 11n.

Intza

Betelun, Araxes ibaiaren gaineko zubia igarota eta Apeiztizaharra dorretxearen ondoan dagoen errepidea, Malloak mendietarantz hartuta, Intzarako errepidea da. Herri txiki honek 78 biztanle ditu. Azkenaldi honetan, Maikosasia ingurunean, herriaren hegoalderantz, izan diren lubizi eta harkaitz-jausi handiek nolabaiteko interesa piztu dute geologo eta zaletuen artean.

Izan ere lubiziak aspaldiko kontuak dira; hauxe da, hain zuzen ere, herria eta etxeak sakabanatuta egotearen arrazoia, 1714ko lurrikararen ondorioz

estali edo kaltetuak izan ondoren berreraikiak izan baitziren. Santiagoren omenezko eliza ere lekuz aldatu behar izan zuten eta muino batean eraiki zuten. Eliza eraiki berriaren lanak 1721ean bukatu ziren eta bertan hainbat eskultura eta bi pintura-taula nahasten diren antzinako erretaula errenazentista jarri zuten..

Bestak Andre Maria Birjinaren Jaiotzaren ohoretan ospatzen dira, irailaren lehenengo igandean.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Mailoak

Mailoetako begiratokia Azpirozen gainean, A-15 autobidean.

A15 autobidean, Gorriti-Lekunberri aldera, Azpirozko tunela igaro ondoren

Autobiako behatokitik bistan ditugu Aralar eta Malloetako paraje ikusgarriak. Lekua baliatu da senitartean otordua gozatzeko adinako ekipamendua jartzeko.

Aparkalekua dago, harrizko 6 mahai eta zaborrontziak.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Mailoak

Lekunberri-Donostia NA-130 errepidea

Deskripzioa: Malloak dira Aralar mendilerroan Araitz eta Betelualderako fatxadakoak; gailurrak ditu Intzako Dorrea eta Irumugarrieta (1430 m.), gorenena. Gailur eta tontorrek mendilerroa osatzen dute eta Errazkin, Betelu eta Araitzko herriei gaina egiten die. Toki askotatik ikusteko modukoak dira Malloak; esaterako, Iparraldeko autobiatik, Gorritiko behatokitik hain zuzen. Baina are ikusgarriagoak dira Araxes ibaiaren bailara sakonetik. Azkarate, Atallu, Arribe, Betelu, Gaintza, Intza eta Uztegi; horietatik ikusgarri harrigarrizkoa dugu, 1000 m.tik gorako desnibela dutela eta pirineoetako zirkuak gogorarazten dizkigula.

Harkaitz gailurretatik beherantz larre-tokiak topatuko ditugu, tartean arboladia dutela. Larren ondoren (horiek baitira zinez malloak), harkaitz-labarrak, basoa eta iratzea, eta beherago belardiak, baserriak eta nekazal herriak inguru hartuta. Edonorentzat interesgarri eta edozein urte sasoitan egitekoa.

Ibilbideak: Leku askotatik igo daiteke Malloetara: Araiztik, Guardetxetik, Lizarrustitik

Bibliografia aztertzea komeni da.

Oharrak: Esanahia:

Malloak: bertakoen hitzetan, izen hori hartzen du haitz artean sortzen den belarrak.

Aralarrek iparraldean kare-harkaitza du muga, Araitz haranaren gaineko aldea. Malkar nagusiak Jurasikoaren garaikoak dira (dolomiak, kareharria, margokareak); mendebaldean (Balerdi aldean) eta beheko aldean, berriz, Behe Kretazeo garaiko kare-harri arrezifeak ugari azaltzen dira.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Uztegi

Uztegi Araitzeko bailaran, atzealdean Balerdi

Betelu igarota, Arriberen sarreran, Malloak aldera jotzen duen NA-7512 errepidea, ezkerretara, hartuko dugu. Laster batean iritsiko gara Uztegira, 64 biztanle dituen herri txiki honetara. Herria bitan banatzen du errepideak. Lehenengo eta behin Jasokunde elizaren inguruan pilatzen den etxe multzo bitxia ikusiko dugu.

Eliza Erdi Arokoa da, XIII. mendekoa, baina barroko garaian gurutzadura eta burualdea gehitu zitzaizkion. Elizari itsatsita hainbat etxe dago: parrokia-etxea eta hamarren etxea, azken hau zurezko egituraduna eta zurezko balkoi korritua duena.

Errepideaz bestaldera, ezkerraldetik igotzen den pistatik aurrera eginez, Azkueko Iralekura iritsiko gara, Araitz-Betelu bailara ezagutzeko puntu estrategikoa.

Uztegiko bestak abuztuaren 15ean ospatzen dira, Jasokundearen omenez.

Zigadi-Beroate artadia

Betelun dago Zigadi-Beroate artadia; 41,3 ha. ditu eta Araxes ibaiaren haitzartearen bi aldeetan dago. Kantauri aldera kokatua, urte luzeetan haizearen lanak sortua da; nonbait, mikroklima berezia izan du haizeari esker. Venturi efektua deitzen diote geografoek eta haizeak haitzartean sartzean airea berotu eta konprimatzean gertatzen da. Aireak giroa lehortzen du eta lur harritsu eta malkartsuan hosto gogor eta iraunkorra haztea errazten du; hosto iraunkor horrek urari eusten dio.

Hala, Zigadi-Beroaten, haitzartearen alde banatara, kantaurialdeko artadia dugu, mediterraneoko girokoa behar lukeena. Artadiaren ondoan beste espezie batzuk ere baditugu: gurbitza, erramua, gartxua, txorbeltza, etab. Eta oihanpean elorria, beltxalea, zuhandorra, erratza, masusta, etab.

Artadia ezagutzeko NA-120 bideska dugu; elizaren atzetik Elosta mendialdera ematen duen pista hartu, Aiztitxo iturrirantz eta Lezaetakogaine loporantz. Arritxora igo, artadian gora, bertatik haitzartearen ikusmira ederra, Malloak eta Araitz harana.

Arribe

Berriro ere errepide nagusia hartzen badugu, Arriben sartuko gara. Bertan Orella jauregia dago, lau isuriko teilatua eta etxaurrean armarria dituen eraikina, jauregi, errota eta baselizak osatzen zuten multzoan zegoen Bideko Andre Mariaren baselizaren parean.

Arribek 163 biztanle ditu eta etxeak errepidearen bi alboetara daude, nahiz eta herrigunea eskuinetara dagoen, Araxes ibaiaren eta San Migel parrokiaren inguruan. Eliza Erdi Arokoa da, baina barroko garaian berritua. Deigarria gertatzen da oinetara itsatsita dagoen dorrea, jatorri gotikoko pasabidea duena. Araxesen gaineko Erdi Aroko Eliza, dorre eta pasabideak, eta hauekin batera inguruko etxeren batek, multzo ederra osatzen dute.

Elizatik, eta Elostara bidean, Gorritira hel gaitezke. Bi herrien udalbarrutiak bereizten dituen langara iritsi aurretik Portalangako Trikuharria dago, eta ezkerralderago Gorritiko Santa Barbara baseliza.

Aitzitik, Atallurantz jotzen badugu, Atalluko hilerriaren ondoan dagoen Santa Agata baselizara iritsiko gara.

Arribeko bestak uztailaren hirugarren asteburuan ospatzen dira, eta otsailaren 5ean, berriz, Santa Agataren omenezko erromeria.

Atallu

Arribe herriaren gunetik ia batere tarterik gabe Atallu herria dugu. Berau ere errepidearen bi alboetara eta Araxes ibaiak herriaren ekialdea inguratzen duela. Arribe baino zertxobait sartuago dago bailaran. Herriak 131 biztanle ditu eta etxeei dagokienez, armarri barrokoa duen jauretxea nabarmentzen dira. Honen ondoan, San Joan Bataiatzailearen omenez eraikitako eliza dago; xumea eta dorre txiki bat duena. Gaur egun erakusten duen itxura XVI eta XVIII. mendeen bitartean izan zituen berrikuntzen ondorio da.

XVIII. mendera arte iraun zuten zutik Andueza jauregia, armategi-kabu jauregia zena. Bertako jaun eta bailarako alkate nagusia Fermin Lodosa zen, 1595eko sorginkeria-prozesuak bultzatu zituena.

Herriko bestak San Joan Bataiatzailearen omenez ospatzen dira, abuztuak 29an.

Azkarate

Azkarateraco errepidea, NA-7511, Atalluren herrigunetik, ezkerraldera, ateratzen da. Belardien tartean gora egiten du herriraino. Lehenengo etxeekin batera San Esteban eliza barrokoa dago; arkupeak Araitz

bailarara ematen du. Azkaraterako igoera, Balerdi mendi-tontor ikaragarria beti bistan dagoela, Nafarroako paisajerik ederren eta deigarrienetako bat da.

Elizatik aurrera eginda, gehienbat ipar eta ekialdean, herriko etxeak daude; bi eta lau isuriko etxetzarrak, Malloak Mendietako azken erraldoia den Balerdi mendiaren hegalean sakabanatuta.

Hilerritik, eskuinaldera hartuta, Gipuzkoarekin muga egiten duen Urdileko mendi-leporaino (760 m) igo gaitezke. Bide horren erdialdera San Fermin baseliza dago, XVI. mende bukaerakoa. Mendi-lepo honetan dago, hain zuzen ere, Trikutseta iturria eta, hurbilean, trikuharri bat.

Azkarateko bestak uztailak 7an ospatzen dira, San Ferminen omenez. Baselizara erromerian joaten dira.

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Araitz harana

Balerdiko gailurretik dagoen ikuspegia, Araitz bailaran gainaldean, parez pare Elosta mendia dago eta eskuinean Azpirotz herritxoa. Atzealdean Ireberko mendikate elurtua ageri da.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Mitoak eta elezaharrak

Araxesek eramandako marabediak

Beteluko harizti berezian (aurki babesturik egonen den naturgunea) Goikolako harria, burdinolaren aztarnak dituen. Bertan, egin zen azken aldiz Nafarroako txanpon bat: tresena, hiru marabedien balioa zuena. Nahiz eta burdinolaren aztarna gutxi garatu, Goikolan bizi izan ziren hainbat pasadizo eraguzteko aukera dugu Marta Berraondoren ikerketa oinarritzat hartuta burutu dugun erreportaiaren bidez. Burdinola desagertua bada ere, Araxeseko urak, hariztia eta XIX. mendeko merkatal giroko gizon haien izpirituak bertan diraute, orduko garai haien lekuko.

Bainu etxea itxi eta jendeak inguru hartan paseatzeari utzi zionetik, paisaiak bereganatu ditu Beteluko burdinolaren harriak. Lehenago Ziarrosin izeneko dermioa zen hura, Irulegiko magalean, Araxes herrian sartu baino lehentxeago. Landareria kenduta, harriak agertu bidenabar nabarmena da deus gutxi dakigula olaren historiaz eta auzolagunen artean ezagutze nahi hori sortu da.

Burdinola beti egon da lotuta Araxes errekari, beti "trabak" jarri izan baitzaizkio uraren indarra baliatzeko. Ola baino lehen, baziren errota eta pilategia, eta olaren ondoren bainu-etxearendako zentral elektrikoa, Yeregitarren zerrak eta sutegiak, Lazkanotarren txokolate fabrika, herriarendako lehendabiziko argia Garai hartan jakina, Betelu Malloak eta Elostamendiaren artean bizi zen, zinez. Halaber, bertako iturbegietako urek izena eta ospea eman diote Beteluri. villa.

Betelu, beranduko burdinola

Beteluko burdinola hiru bazkidek egin zuten 1828an, burdinolak gainbehera bete betean zetozenean. Juan Antonio Zabalak, Cristobal Lazkanok eta Pedro Antonio Otxotorenak burdinola nagusia ezarri zuten burnia lantzeko asmoz eta gabi bat txanponak egiteko, tresenak egiteko, diren balioa zuena. Beteluko tresena gabi horretan egin zen 1828 eta 1833aren artean.

Juan Antonio Zabala enprendedore hutsa zen. Industriak, komertzioak, errotak, gubiak eta burdinolak jarri zituen, etxeak egokitu zituen ura edatera zetozen gaixoentzat Iruñean jaioa, Betelura etorri zen. Maria

osefa Yeregirekin ezkondu zelarik. María Josefa herri honek sekulan izan duen artisau-familirik ezagunenaren baitakoa zen.

Burdinolaren historia markatuta gelditu zen 1832an gertatu zen iskanbilarengatik. Otxotorenak Bordelera ihes egin behar izan zuen Gobernuak leporatu ziolako Nafarroan zebiltzan marabedi faltsuak egin izana. Hori dela eta, lantegia geldiarazi eta, denbora gutxira, Zabala izanen da ondasunen administratzailea.

Burdinola gorabeheratan sartu bazen ere, hiru urte ondorengo agiri batean irakurrita badakigu 1831 eta 1835 a bitartean 240 tona burni baino gehiago landu zirela eta burdinolaren errenta 6000 kobrezko txanponen halakoa izan zela urte bakoitzeko.

Beteluko burdinolak aurrera segitu zuen Juan Antonio Zabalaren alarguntsak eta administratzaile berriek gobernatuta. 40ko. Hamarkadan aritu zen, baita 50ko. hamarkadako zenbait urtetan ere, joan den mendean, beti ere. XX. mende honetan, azkenki, Zabalaren ondorengoek berriz ere abiarazi zuten burdinola, baina ez burnia lantzeko baizik eta elektrikindarra sortzeko. Horren bidez Beteluko Bainu-etxe arrakastatsura argi iritsiko zen. Eraikin hori ere gelditu, bota eta oso arrasto gutxi ikus daiteke. Ordutik honat, mugimendu handiko toki zaratatsu hori ixilpean dago. Gaur egun, harriak baizik ez daude.

Adarbakarraren bailara

Araitz bailaran Erdi Aroko kondaira bat kontatzen dute, zeinean protagonistak ez diren lamiak, herensugeak, ezta sorginak ere, bailaran bizi zen adarbakarra baizik, bitxia eta ez ohikoa bada ere. Kondairaren arabera, medikuek Antso erregearen tristura gaitzerako erremediorik topatu ez zutenez, eremutar bati galde egin zioten eta honek gaitza adarbakarraren adarretik edandako edabe batekin sendatuko zitzaiola ziurtatu zien. Beteluko artadian adarbakar bat bizi zela baina hura ehizatzen saiatzea oso arriskutsua zela esan zien, adarbakarra arima garbiko pertsonei eta maitasun-minik sekula izan ez zuten dontzeilei soilik ematen omen zielako amore.

Antso erregearen alabetako bat, Giomar, bere maitea abiatu eta hil izanaren ondorioz oraindik ere sufritzen zuena basora joan zen adarbakarraren bila; honek Giomar ikusita bere adar bakarrarekin gorputza zeharkatu zion. Aldi berean, oihanartean ezkutaturik zeuden erregearen baleztariek beren geziez adarbakarra zeharkatu zuten.

Erregeak edabea edan zuen adarretik, eta sendatu egin zen, alabaina Giomar alabaren heriotzak sortu zion minak bihotza erdiratu zion

Sorginkeria oroitzapenean

Intza, Uztegi eta Gaintza herriak hartzen dituen sakonunean oso ugariak dira sorgin eta lamiei buruzko kondairak eta sorginkeriarekin lotura izan zuten gertakari, pertsonaia, herri eta inguruneei buruzkoak.

Hauetako asko bailarako betiereko alkate zen Fermin Lodosak eta honen semeak, aipatu karguan aitaren ordezko izan asmo zuenak eskatuta 1595ean Gorteko auzitegiek eta Nafarroako Kontseiluak hasitako prozesuaren ondorioz atera ziren argitara. Prozesu honek bailarako eta hurbileko herrietako jende asko hartu zuen barne eta hauetako asko Irueko presondegietara eramanak izan ziren, non epaiketara iritsi aurretik bi hil egin ziren.

Azkenean Araitz bailarako 17 lagun epaitu zituzten. Zortzi emakume presondegian hil ziren eta bederatzi epaituak eta zigorradak jasotzera eta deserrira kondenatuak izan ziren, salbu eta absolbitua izan zen emakume bat, bizirik iraun zuen bakarra..

Erref. bibliografikoa: www.plazaola.org. L. Azpilicueta eta J. M. Domench.
Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Txindoki - Larrunarri

Larraitz-Txindoki- Aralar

Aralar mendia kararrizko untzi mutur handi batez sartzen da Gipuzkoako Goierrin. Untzi muturra Txindoki mendi ikusgarria da. Beasain eta Olaberriatik, Tolasatik edo Amezketa eta Abaltzisketatik, leku bakoitzetik begiratuta erliebe aldakorrak ageri dituen mendi eskerga. Hala ere, Gipuzkoako mendirik bereizten errazena da, eta herri txiki honetako seme-alaba bakoitzak behin badarik ere igo beharrekoa, mendiak gordetzen dituen sekretuak barneratzen hasteko.

Txindokiko Mari harpea aro mitikotik datorkigu. Kristautasunaren aurreko sinesmen munduaren numen nagusia, Mari jainkosa paniko eta bortitza da, ekaitzen jeinua, bere bizileku itzaltsuaren barrenean irutea eta harilkatzea beste zereginik ez duena, zenbait zaldi hegalarik eramandako gurdian edo igitai itxurako suzko hodei batean bertatik

ateratzea deliberatzen duen arte. Mari, hala ere, jeinu polimorfiko eta aldakorra da, eta, gunearen nahiz aldiaren arabera, bertako zein atzerriko beste mitologia batzuen funtzio eta ezaugarriak erantsi zaizkio.

Mariren forma sinkretiko moduan Amabirjiña-Arri sortu zen Arritzagako sakanean. **Amabirjiña-Arri** Igaratzako mendatearen sarreran lekututako harkaitz bat da eta, tradizioak dioenez, berorren gainean Amabirjina agertu zitzaion Amezketako artzain txiki bati, zeinari herritik beraren aldeko otoiztegi bat jasotzeko beharrezko ziren osagaiak igo zitzan eskatu baitzion.

Amabirjinaren oinak harkaitzean utzi zuen arrastoan bidaztiek txanpon batzuk jartzen dituzte, Aralarko San Migelera doazenek edo Amezketara jaisten ari direnek beren elizetako atabakan sar ditzaten.

Behiala, artzainek opalkuntzak utzi ohi zituzten, arbasoenganako gurtzapen errito bezala, eta egun oraindik ere aitaren egiten dute zulogunean pilatutako uraz.

Ikusten ari garenez, mendi karstiko honetan kontatzen den oro errealitate ukigarri bati loturik doa, mugarri moduan lurrean tinkatutakoa. Aipatu Amabirjiña-Arriz gain, historiaurreko hilobiekin erlazionatutako Jentillarri eta Trikuarriak ere badira; Saltarri Alotzako zelaian dagoen balizko iruinarri bat da, jentil batek Murumenditik jaurti zuena, eta hor da Errolan harria ere, Errolan gizandiak Aralarko San Migeldik Madoz herriaren aurka jaurtiki eta Atako larrean erori zena.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.:Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Txindoki - Larrunarri

Txindokiren ezaugarririk interesgarriena bere harri proteikoaren izaera da, zeina mito eta mirakuluen misterio iheskorraz ukiturik ageri baita, edo meategietan industri taxua hartzen baitu, edota bere magalean babestutako herrien artzain deierari balaka eta dunbez abesten baitio. Horrela, bere zelaietan mila urteko harriak eta komunikabideen errepikagailu modernoak, aztarna arkeologikoak eta elezaharrak,

elkarrekin bizi dira, antzinako etxetzarrek maizter berriei beren arbasoen ametsak eta pozak altzarietan, bildumetan eta lanabesetan isladaturik gogorazten dizkien handitasun geldiaz. Hortaz, Txindokira igotzen garenean, Gipuzkoako leinu handiaren historia osoa da bidean topatzen dugun bihurgune bakoitzean aletzen dena.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.:Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Oria ibaia

Txindoki mendiak eta Oria ibaiak Gipuzkoako geografiaren erdiguneko paisaia osatzen dute. Ibaiak mendiaren irudia isladatzen du..

Oria ibaia 714 Km2 ko arro zabal batetik zehar (Gipuzkoako herena hartzen duena) hedatzen da, lurralde historikoan den ibairik emaritsu eta handiena delarik. Lehiatsuena ere bada, artikulazio mekanikoen bizkarrezur moduan euskal ekonomiarentzat ezinbesteko den jardueraren erakargune gisa jokatzen baitu. Ibaiak gure herri eta bailaren aurrerabideari egindako ekarpena ez da oraingotxea. Eskuzabala izaki, mendeetan zehar urjauziak eta presak jasan ditu, burdinolak, errotak eta bidean jarri zaizkion orotariko tramankulu hidraulikoak martxan eduki ditu; industrializazioaren etorrerarekin paper fabrikak eta irundegiak elikatu zituen, eta duela gutxi arte hamaika lantegiren erreten izan da. Gaur egun, azkenik, Oria ibaia naturak eskainitako oparien arteko zenbait berreskuratzen ari da, enpresa, erakunde eta pertsona pribatuen laguntzaz.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.:Ostoa artxiboa.

INGURUNEA



Txindoki

Oria ibaiak Gipuzkoak bere paletan dituen kolore guztiak isladatzen ditu bere 80 km-ko bidean. Aizkorri mendiaren oinetan sortzen da, San Adriango tuneletik oso hurbil eta itsas mailatik 660 metroko altueran, Otzaurteko baselizaren aurrean, bi isurialdeen ertzean, Atlantiko aldera lerratu diren urak ekarriz. Hasieran, Zegama eta Seguratik igarotzean, neurritsu eta monumentala ageri da, baina Ihartzako Erdi Aroko egitura bikainaren ostean, Beasainen, Goierri industriala bezain emaritsua bihurtzen da, eta Tolosaldea heldutasun airosoz zeharkatzen du, urak Orioko itsasaldera isuriz hiltzen den arte.

Erref. bibliografikoa: Euskal Herria Enblematikoa. Leku sinbolikoen gidaliburua. Ostoa Arg.
Irudi erref.:Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Santa Kruz ermita

Abaltzisketako Santa Kruz ermita.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Abaltzisketa

Aralarko Mendizerraren iparraldeko mendiguruetan eta Txindoki mendiaren aldapetan Abaltzisketa aurkitzen da. 273 bizilagun ditu, 11,3 km2 tako zabalera eta batez ere nekazaritza eta abeltzantza garatzen ditu.

Abaltzisketa, nekazal parrokia bezala, 1.374. urtean bere borondatez Tolosari elkartu zitzaion. Honela iraun zuen 1.615 urtera arte, data honetan auzokoen eskaeragatik Felipe III. ak Hiri tituloa ematen dio.

1.617. an "Bozue Mayor" eko Batasunean sartzen da, Amezketa, Altzo eta Baliarrainekin batera, bere helburua batzarre probintzialetan elkarrekin aurkeztea.

Hirigunea alderdi horretako berezigarri da. Bertan Udaletxea, ohizko euskal estilokoa, San Juan Bautistaren Parrokiar elizaren ondoko plazan dagoena nabarmentzen da. Eliza bera XVI. mendekoa da, nahiz eta XIII. mendeko iragapeneko aitzinalde erromanikoa mantendu. Kanpandorre bat dauka, eta honetan 1.493.an dataturiko kanpaietariko bat nabarmentzen da, herrian bertan egindakoa.

Naera-Handi Baserria bisitatzea interesgarria da, aintzinako euskal eraikuntzaren adibide da eta. Sasiain auzategian kokatzen da, hona herrira iritsi baino lehen, eskuinetara dagoen desbiderapena hartuz heltzen da.

Haatik, udalerri eder hau Larraitzeko taldeagatik nabarmentzen da. Landa honetan, Txindokiren barrenean kokatua, Larraitzeko Baseliza aurkitzen da, "Nuestra Señora de los Remedios" izenez ere ezaguntzen da. Honi ahalmen mirakulutsuak iratxekitzen zaizkio, honegatik inguruko artzain eta baserritarrek gurtzen dute.

Ibilaldiak eta txangoak egiteko aukerak bikainak dira, hau bait da abiapuntu egokia Enirio eta Aralar Mendietako gailurretara igoteko: Txindoki (1.341 m.), Ganbo (1.451 m), Pardarri (1.399 m.) eta Gaztelu (899 m.). Mendi hauetara igoteko bidatzen mapa landan bertan aurkituko duzu. Askaldegi bezala moldatua egoteaz gain 2 jatetxe ditu, guzti

honekin inguru natural honetan egun atsegina pasatu ahal izango duzu, gainera udan. eta asteburuetan oso giro alaia izaten da.

Ekainaren 24. an, San Juan egunez, patron jaien barruan, Baselizaren ondoan erromeria agiten da.

Bezperan, soka-dantza herrikoia dantzatzen da enparantzan. San Isidro eguna, Maitzak 15, ere ospatzen da Hamaiketako alai batekin.

Udalerriko eskulangintza bertako artisau batek egurrean egiten dituen apaingarri lanek ordezkatzen dute.

Abaltzisketa, "babarrunak" oso plater tipikoa ata errotua diren alderdi batean kokatua aurkitzen da, Larraitzeko Auzategiko jatetxeetan dasta daitezkeelarik.

Errepidetik sarrera Alegiatik abiatuz, bai Orendainetik edo bai Amezketatik igaroz, egin daiteke. Beste aukera bat era badago, Ordiziatik abiatuz, Zaldibiarantz edo Gainzako desbideratzea hartuz. Bidatza guzti hauek interes handia agertzen dute.

Iturri: Guia turistica GIPUZKOA publicada por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el año 1990
Irudi erref.: Archivo Ostoa.

INGURUNEA

Orendain

Orendain Donostiatik 35 km. tara eta Tolosatik 15-era aurkitzen da, Garrotxa errekak osatzen duen haranaren muino baten gorunean. 5,95 km2 tako zabalera du eta 145 bizilaguneko populazioa.

Orendaini buruzko albiste zaharrena 1.196. koa da, Nafarroako Santxo VII Bortitza-rekin Errege honek Foruaren amoremoteari eta zergen finkapenari buruzko idazkian aipatzen du.

1.374-an inguruko beste herri asko bezala, Tolosara elkartzen da. Helburua babesa lortzea eta bere eskubideetaz gozatzea zen, emari ekonomiko eta bere nagusigoaren onarpenaren truke.

Orendain betidanik Bozueko komunitatekoa izan zen, Enirio eta Aralar mendien aberastasunez baliotzeko asmoarekin. 1.615-ean hiri tituloa lortzen du, eta hamarkada baten ondoren Ikaztegieta eta Alegiakin elkartzen da, Aizpuruako Batasuna sortuz. Honen helburua ez zen Batzar Nagusietara ordezkaria bidaltzeak zekartzan gastuak merketzea besterik. 1.967-an, Ikaztegieta eta Baliarrainekin batera, Iruerrieta deituriko udalerria osatzen du. Batasun honek 1.988 ra arte iraun zuen, data honetan udalerri berjabe bezala eratua gelditu zen.

Bere hirigune txikiaren barruan Udaletxearen eraikina, neoklasiko estilokoa, eta Andra Mariren Parrokiar Eliza , nabarmentzen dira. Honek XVI. mendean data daitezkeen hondarrak gordetzen ditu, hala nola kristo plateresko ederra. Bere demioetan San Sebastianen Baseliza ere altxatzen da, Urtarrilaren 20. ean ohizko erromeria ospatzen den lekua.

Udalerri honen kokagune pribilegiatutik, inguruko mendien bista zoragarriak hauteman daitezke, Txindoki, Aralarreko Mendizerra, Aitzgorri, Ernioko mendi taldea edo Otxabio eta Uzturre bezalako mendiak; Baliarrain bezalako hurbileko zenbait udalerriz gain.

Udalerri eder honen herriko jaiak Abuztuaren 15 an, ospatzen dira.

Udalerriko eskulangintza, egurrean laborantza labanes bikainen egilea den artisau batengan isladatzen da.

Iturri: Guia turistica GIPUZKOA publicada por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el año 1990
Irudi erref.: Archivo Ostoa.

INGURUNEA

Larraitz

Haatik, udalerri eder hau Larraitzeko taldeagatik nabarmentzen da. Landa honetan, Txindokiren barrenean kokatua, Larraitzeko Baseliza aurkitzen da, "Nuestra Señora de los Remedios" izenez ere ezaguntzen da. Honi ahalmen mirakulutsuak iratxekitzen zaizkio, honegatik inguruko artzain eta baserritarrek gurtzen dute.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Larraitzeko ermita

Ermita hori Larraitzen dago, Txindokiren magalean.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Saturdiko ermita

Saturdiko ermita, Txindoki atzealdean duela. Zaldibia.

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.

INGURUNEA

Ataungo Aia

Ataun, Gipuzkoako hegoaldean dago kokatua, Goierri bailaran. Nafarroarekin muga egiten du eta Aralar Parke Naturalaren barruan dago. Bailarako industriagunetik hurbil baina herri txikia izanik oraindik artzantza, nekazaritza eta natura munduan erabat txertatuta dago. 58,9 km2ko zabalera du eta itsas mailatik 196 m-ra dago.

Gipuzkoako herri luzeena da (14 Km) eta oso zabalduta dago auzo ugarietan. nahiz eta biztanlegoa nagusiki San Martin, San Gregorio eta Aia auzogunetan bildu..

Agauntza ibaiak zeharkatzen du herria. Arana, ondorengo mendi hauek babesten dute besteak beste: Areetza (982), Aitxu (968), Arantzamendi (777), Muñoan (912), Saatsamendi (952), Sarastarri (989), Leizadi (921), Aizkoate (631) eta Intzartzu (826).

Irudi erref.: Ostoa artxiboa.